

“(E)ZA” ADITZ-ERROA DATIBOKO ADITZ-JOKOETAN AUTORETAN ZEHAR

Yon Etxaide-Itharte

Euskal aditz jokoetan aldakera eta nahaste handiak ditugu eta nahasmen honetan, ugaritasun kaltegarri honetan argitasunik egingo baldin badugu, ordenu pixkabat jartzea oso beharrekoa zaigu.

Nik sail bat aukeratu dut aditz-joko aldakerak biltzeko, alegia, “(e)za” aditz-erroaren erabilkera datiboko jokoetan euskal-tekstoetan zehar. Izan ere, sail honetan sortzen den nahastea —joko zuzenetan bestelako batasuna eta txukuntasuna dago— ikaragarrikoa baita.

Nere lanerako zenbait egile edo autore giputz, nafar eta iparraldeko hautatu ditut. Bizkaian ez da aditz-erro hau erabiltzen, inoiz erabiltzen baldin bazen ere (1) eta Gipuzkoan ere ia galdurik dago datibotan, bere ordeztu Bizkaiko “egi” aditz-erroa sartu delarik, dirudienez “egin” aditzetik hartuta. Hau dela-eta, Gipuzkoako autoretan bi aditz-erroak bildu ditugu, *-eza-* eta *-egi-* alegia, elkarren arteko borroka nabari dadin. Irakurleak konproba dezakeenez, borroka honetan, nahiz eta beti atzeraka, inperatiboan utsi zaio sendoenik *-eza-* aditz-erroari. Agirre Asteasukoak, esate baterako, aginkorrean (inperatiboan) bakarrik darabil, eta ez beti.

Neure lana hiru zatitan bereizi dut: lehendabizikoan non-nahiko eta noiz-nahiko gramatikariak datoz; bigarrenean, Gipuzkoako eta Nafarroako noiz-nahiko irazleak eta hirugarrenean, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak, hauek ere noiz-nahikoak. Ez ditut sailkatu ez alfabetu ordenuz, ez eta ere garaiari dagokionez, zeren lan hau liburu bat irakurri-ala egiten nuen eta irakurri nituen ordenean joan nintzen idazten. Modu honetaz, lan hau osatzen —aspertu eta nekatu naizen arte— hamar-hamabost urte jarri dut. Baina uste dut, egile bakoitza hitzaurre honen azke-

(1) Hona adigarri batzuk: Beraren alabantzan / kantadu *dezagun* (Marijesiak. M. Lekuona, Literatura Oral Vasca, Idazlan guztiak, 450 p.). Bart arratsian zer pasatu dan / konta *dezagun* Belenen (Idem., 457 p.). Atsegin ar *ezazu* (=ezazue), / Belengo pastoreak (P. I. Barrutia, Acto para la Nochebuena / Gabonetako ikuskizuna, Teatro Zaarra, 38 p., Auspoa). Dagianak agindua, jan *dezala* (Refranes y Sentencias 1596, 95-garrena). Egun ona sar *ezak* etxean (Idem. 98-gna.). Az *ezak* erroia, diratan begia (Idem. 136-gna.). Azarkuntzeak bildurra *bez*, ze ilteko edo biziko gudura goakez (Idem. 165-gna.). Uler *ezak* lenago ta itz egin geroago (Idem. 194-gna.). Iagi zidi (zen) nagia, erra *zizan* (zezan=zuen) uria (Idem. 294-gna.). Zamarien ostikoa da gextoa, norberak ar *bez* (beza) bere idekoa (Idem. 363-gna.), eta abar. Guztiok, ordea, aditz-joko zuzenak dira. Datiboko aditz-jokoetan ez dut inoiz *-eza-* aditz-erroa aurkitu bizkaieraz.

nean eta aurkibidean ikus daitekeelarik, eta bakoitzaren berri ematen delarik, nongoa eta noizkoa zen aditzera emanaz, aipatutako ordenuek ez dutela inportantzia handirik.

Aditz itzulpenak gipuzkerara eginik daude eskuarki, zeren aditz batuaren aurrekoak baitira. Euskaltzaindiak aditz-batasuna egin zuenean, euskara batura itzultzen hasi nintzen. Beraz, irakurleak bitariko itzulpenak ikusiko ditu. Baina, honek ere ez du inportantzia handirik. Beharrekoa, itzulpen ezagun bat ematea da.

Itzulpenetan hutsak izan daitezke, pasarte batzuk oso ilunak baitira eta ni ez bainaiz gramatikalarri iaioa inondik ere. Honetxegatik, asmatzen zailak diren aditz-jokoetan, tekstoinguru luzea jartzen saiatu naiz, ni baino gizon argiagoez eta begi zorrotzagoez igarri diezaieten hutsik izan ote den.

Honatz orain aztertu ditugun obragileak:

I. GRAMATIKALARIAK

1. Aita Larramendi (1690-1766, Andoain, G).
2. Aita Añibarro (1748-1830, Areatza-Billaro, B).
3. Franzisko Inazio Lardizabal (1806-1855, Zaldibia, G).
4. Intxauspe Kalonjea (1815-1902, Zunharreta, Z).
5. Bonaparte Printzea (1813-1891, Ingalaterra).
6. Arturo Campión (1854-1938, Iruñea, N-G).
7. Luis Eleizalde (1873-1923, Bergara, G).
8. R. M. Azkue (1864-1951, Lekeitio, B).
9. Inazio Maria Etxaide (1884-1962, Donostia, G).
10. Pierre Lafitte (1901 jaio, Luhosoa, L).
11. Intzar Damaso (gaurkoa, Intza/Araitz, N-G).
12. Martin Harriet (Gramatika eskuaraz eta frantzesez: 1741, Larresoro-n bizi, L).
13. Pierre d'Urte (Donibane Lohizunen jaio, L. Grammaire Cantabrique Basque: 1712).

II. GIPUZKOA ETA NAFARROA GARAIKO IRAZLEAK:

1. Juan Bautista Agirre (1724-1823, Asteasu, G).
2. Aita Krispin Beobide (1848-1891, Azpeitia, G).
3. Aita Agustin Kardaberatz (1703-1770, Ernani, G).
4. F. I. Lardizabal (1806-1855, Zaldibia, G).
5. Aita Mendiburu (1708-1782, Oiartzun, G).
6. Jose Inazio Gerriko (1740-1824, Segura, G).
7. Txirrita bertsolaria (1860-1936, Ernani, G).
8. Juan Irazusta (Ernialde-ko erretore, G. "Doctrina Cristiana": 1742).
9. Gregorio Arrue (1811-1890, Ernani G).
10. Juan Franzisko Goñi: Doctrina cristianaren lembizico prinzipioa, 1828, N-G).
11. "Catecismo manuscrito en euskara alto navarro": XVIII-gn. mendea, N-G).
12. Jose Kruz Etxeberria (1773-1853, Oiartzun, G).

13. Juan Inazio Iztueta (1767-1845, Zaldibia, G).
14. Joakin Lizarraga (1748-1835, Elkano, N-G).
15. Josepe Otxoa Arineko (1672-1743, Ordizia, G).
16. Agustín Pascual Iturriaga (1778-1851, Ernani, G).
17. Juan Antonio Ubillos (1707-1789, Amasa, G).
18. Jose Migel Barandiaran-en herri-jakintza bildumatik jasoak, XX-gn. mendea, G.
19. “Textos vascos del siglo XVIII, en tierra de Estella”, N-G.
20. Iuan Beriain, Uterga-ko erretorea. Bere obrak: 1621 eta 1626. N-G.

III. LAPURDI, NAFARROA BEHEREA ETA ZUBEROAKO IRAZLEAK

1. Voltaire: “Tresora hirur lengualetakua: Frantzesia, Española eta Heskua”, 1620.
2. Joanes Etxeberri (Ziburu, L. Bere obrak: 1627/1631/1636).
3. Jean Hiriart-Urruti (1859-1915, Hazparne, L).
4. Joanes Etxeberri (1668-1749, Sara, L).
5. “Gudu Izpirituala” (N.I.D., Donibane Lohizune, L, 1750 eta 1827).
6. Joanes Haraneder (jaio 1669, Donibane Lohizune, L. “Philotea” liburua: 1750).
7. “Xiberua eta Marzelina” eta “Recoquillard eta Arieder”. Lendabizikoa XIX-garren mendekoa eta bigarrena XVIII-garrenekoa. Z.
8. Jakes Oihenart (Uharte/Amikuze, N-B. “Kaniko eta Belxitina” 1848).
9. Iuan de Tartas (jaio 1610/12. “Ontsa hiltzeko bidia”, 1666. Z).
10. Jean Pierre Arbelbide (1841-1905) Zaro, N-B).
11. Duvoisin Kapitaina (1810-1891, Ainhoa, L).
12. Axular (1556-1644, Urdazubi, N-G. Sara-ko erretore, L. “Gero” liburua, 1643).
13. Xurio (hil 1718, Azkaine, L. “Jesu-Kristoren Imitazioea”: 1720).
14. Bernat Larregi (Uztaritzeko eta Basusarriko erretore, L. “Testamentu zaharreko eta berriko historia”: 1775/77).
15. Harizmendi (Sara-ko koajutore, L. “Ama Birjinaren hirur ofizioak”: 1660).
16. Argaiñaratz (Ziburuko bikario, L. Bere obrak: 1641 eta 1665).
17. Ioanes Leizarraga (1601-ean hil. Jaio: Berazkoitze, L. Bere hiru obrak 1571-ean argitaratu).

DATOZENAK

Lehenengo zatia

I. Aita Larramendi	605
II. Aita Añibarro	607
III. Francisco Ignacio Lardizabal	609
IV. Intxauspe Kalonjea	611
V. Bonaparte Printzea	614
VI. Arturo Campión	619
VII. Luis de Eleizalde	619
VIII. Resurrección M. ^a de Azkue	621
IX. Ignacio M. ^a Etxaide	623
X. Pierre Lafitte	626
XI. Dámaso Intza	627
XII. Martín Harriet	628
XIII. Pierre d'Urte	628

LEHENENGO ZATIA

I. AITA LARRAMENDI (S.I.)

“EL IMPOSIBLE VENCIDO”

(Arte de la Lengua Bascongada. Su autor el Padre Manuel de Larramendi, de la Compañía de Jesús, Maestro de Teología de su Real Colegio de Salamanca. Nueva edición publicada por los Hijos de I. Ramón Baroja. San Sebastián. Establecimiento tipográfico de los Editores, Plaza de la Constitución, 2. Año de 1886).

Aita Manuel Larramendi'ren bizitza eta lana oso ezaguna da. Honetxegatik labur-labur emanen dugu bere berri. Andoain'en jaio zen 1690'garren urtean. 1707'an Jesusen Lagunartean sartu zen. Ikaskizunak amaituta, Valladolid'eko ikastetxean Filosofia eta Teologia erakusle jarri zuten. Gero Salamanca'ko Jesuitetxean eta Unibersidadean jardun zen maixu. 1730'ean bere Aitanagusiek, Carlos II'garrenaren alarguntsaren arima-gidari izendatu zuten. 1733'an utzi ahal izan zuen kargu hau eta Loyola'ra erretiratu zen eta bertako etxe-santuan hil zen 1766'gn. urtean, 76 urte zituelarik. Urtebete geroago jesuitak España'tik botreak izan ziren Carlos III'garrenaren aginduz. Haren obrarik nagusienak hauetxek dira: 1. “De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España” (1728); 2. “El Imposible Vencido” (1729); 3. “Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria” (1736); 4. “Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín” (1745); 5. “Corografía o descripción general de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa” (1882). Euskaraz idazki labur batzuek bakarrik utzi zizkigun. Beste idazlan batzuek argitaratzeke gelditu ziren: zenbait herejien kontra, Aita Mendiburu'ren kontra euskal-dantzen garbitasuna defendituz, hiztegi lan berriak eta abar. Ikus guzthontaz Aita Villasante'ren H. de la L. V.

OPTATIVO PRESENTE**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: diezadán (neri), diezaán/diezanaán (1) (hiri), diezazún (zuri), diozán (hari), diezagún (guri), diezazutén (zuei), diezatén (haiei). (51'gn. horrialdetik 82'garrenera) (2).

FUTURO CONDICIONAL**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: badiézat (neri), badiezak/badiezán (3) (hiri), badiezazu (zuri), badioza (hari), badiezagu (uri), badiezazue (zuei), badiozate (haiei) (51-82).

IMPERFECTO 3**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: ziezadán (neri), ziezaán/ziezaanán (4) (hiri), ziezazun (zuri), ziozán (hari), ziezagún (guri), ziezazutén (zuei), ziozatén (haiei) (51-82).

IMPERATIVO**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: biezát (neri), bioza (hari), begigu (5) (guri), biéza (6) (haiei). “Bizaik-bizain”, “bizaizu” eta “bizaizute”ri dagozkienak eztakarzki (51-82).

(1) Diezaán/diezanaán, behar luke izan. Nunbait, hutsegitez agertu da “diezanaan”. Beste era batean: diezakan/diezanan.

(2) Larramendi'k *diezadan, diezazun, diozan...* irabiatzen du, Añibarro'k, *dizadan, dizazun, diozan...* eta Lardizabal'ek *dizadan, dizazun, dizayon...* eta era berean beste adizkeretan. Badago nahaste hontan zer pentsa.

(3) Badirudi “badiezák” behar lukela izan.

(4) Badirudi “ziezanán” behar lukela izan. Orobat: ziezakan-ziezanan.

(5) Normalki “biezagu” (bizaigu/bizagu) behar luke izan. (6) Orain arteko sistemari jarraituz “biozate” behar luke izan.

INDICATIVO PRESENTE ABSOLUTO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: diezaket (neri), diezakek (hiri), diezazuke (zuri), diozake (hari), diezaguke (guri), diezazukete (zuei), diozakete (haiei), Aditz-joko batzuetan “i” letrak azentua darama eta bestetan ez. Hikako aditz-emea (dieza-ken) falta du (139-143).

PRETERITO IMPERFECTO ABSOLUTO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: ziezaket (neri), ziezakek (hiri), liezazuke (zuri), ziozake (hari), ziezaguke (guri), ziezazukete (zuei), ziozakete (haiei). Azentuez berdin diogu. “Liezazuke”ren aldakera bezala “ziezazukete” ematen du eta “ziezazuke” behar luke. Ostera, “ziezazukete”ren ordez eztakar “liezazukete”, baiñan “ziozake”ren ordezko bezala “liozake” dakar (139-143).

II. AITA AÑIBARRO (ANTXIKOTARRA)

“GRAMATICA BASCONGADA”

(Para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros. Por el P. Fr. Pedro Antonio de Añibarro, Misionero apostólico del Colegio Seminario de Zarauz de la Observancia de N. P. S. Francisco. “Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo”. Tomo III. 1969. Excma. Diputación de Guipúzcoa. Gráficas Colón, S. L., San Sebastián, 1970).

Pedro Antonio Añibarro (1748-1830), Antxikotarra, Arratia’ko Areatza/Billaro’n jaio zen. 1764’an Bilbao’ko Jaun-Done Antxiko’ren komentuan fraide sartu zen. Apaizgintza Bilbao’ko komentuan hasi eta Arantzazu’n amaitu zuen. Apaiztu, 1772’gn. urtean egin zen. Arantzazu’n eta Frias’en (Burgos) urte mordoska egin zuen. 1790’ean, 42 urte zituelarik, Zarautz’ko Misiolari-Etxera aldatu zen. 1794’an frantsesen kontrako gerla hasi zen. Hauek, Frantzia’ra preso eramán zuten gure Aita Añibarro, baiñan berehalaxe bakeak egin ziren eta bi hillabete barru berriz ere Zarautz’en zegoen. Berriz ere gerla nausitu zen 1808’tik 1814’ra, “Guerra de la Independencia” delakoa alegia, eta aurrekoan bezala fraideak sakabanatu behar izan zuten. Añibarro’ren obrak ugariegiak dira hemen aipatzen hasteko. Irakurleak ikus ditzake Aita Villasante’ren H. de la L. V.’an.

Aita Villasante'k, "Gramática Vascongada"ri ipiñitako hitzaurrean dio: "Parece claro, por lo demás, que la consulta directa al pueblo ha sido la fuente principal de este trabajo del P. Añibarro. Las observaciones que menudean en el libro acerca del uso de una formas u otras, lo están delatando". Aita Añibarro'k herri xeheari egiten zizkion galdekizunok Misiotan zebilelarik Bizkaia, Gipuzkoa eta Naparroa zear.

"GRAMATICA BASCONGADA"

CONJUGACIONES GUIPUZCOANAS

IMPERATIVO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: bizat (neri) bioza (hari), begigu (guri), bieza (haiei). "Biza-zu" eta "bizazue" eztakarzki "Begigu", "-(e)gi-" aditzerrodunaren ordeztu, "bizagu" behar luke (102-106 hor.).

OPTATIVO O SUBJUNTIVO (PRESENTE)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadala (neri), dizazula (zuri), diozala (hari), dizagula (guri), dizazuela/dizazutela (zuei), diozatela (haiei). Berdin: dizadan, dizazun, diozan... (102-106).

FUTURO CONDICIONAL

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: badizat (neri), badizazu (zuri), badioza (hari), badizagu (guri), badiezazue (zuei), badiozate (haiei). Pluraleko bigarren pertsonak, antza, "badiazue" behar luke eta ez "badiezazue" (102-106).

PRETERITOS DE SUBJUNTIVO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: zizadala (neri), zizazula (zuri), ziozala (hari), zizagula (guri), ziezazuela (zuei), ziozatéla (haiei). Berdin: zizadan, zizazun, ziozan...

(102-106). Oharra: “zizadala” deduziñoz atera dugu, bigarren pertsona bakarririk baitakar datiboko lehenengotan: Zuk jan zinizadala. Hemen ere, singularreko “zizazula”ri, “zizazuela” dagokio pluralean eta ez “ziezazuela”. Bestela, singularrean ere “ziezazula” egin behar da, norma edo metodo bat jarraituko baldin ba’da.

POTENCIAL PRESENTE

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizaket (neri), dizazuke (zuri), diozake (hari), dizaguke (guri), diezazuké/diezazukete (zuei), diozake (haiei). Hemen ere, irabiakera sistema ez urratzeko, “diezazukete” baiño hobe litzake “dizazukete”. Bigarren “diozake” (haiei), pluralizatu gabe dago. “Diozakete” behar luke (115-117).

POTENCIAL PRETERITO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: zizaket/lizaket (neri), lizazuke (zuri), liozake (hari), lizaguke (guri), lizazuké (zuei), liozakee (haiei). Bi atzenekuok “lizazukete” eta “liozakete” eginda, egokiago gelditzen da (115-117).

III. FRANCISCO IGNACIO LARDIZABAL

“GRAMATICA VASCONGADA”

(Escrita por D. Francisco Ignacio de Lardizabal, Beneficiado de la Iglesia Parroquial de Zaldivia en la Provincia de Guipúzcoa. San Sebastián, Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, 1856).

F. I. Lardizabal (1806-1855), Zaldibia’n jaiotzen. Lazkao’ko karmelitan egin zituen lehenengo ikaskizunak. Gero, Burgos’en jarraitu zuen estudiantzen eta Madrillen bukatu. Apaiztu zelarrik, bere herriko erretore izendatu zuten eta bertan iraun zuen bizitza guzian. 49 urte zituela hil zen, 1855’ean Gipuzkoa soildu zuen kolera-morboren izurrite ikaragarria bide zela. Lardizabal’ek bi obra utzi dizkigu: “Testamentu zarreco eta berrico condaira” (Tolosa, 1855), eta “Gramática Vascongada” hau (Donostia, 1856).

GRAMATICA VASCONGADA”**IMPERATIVO****Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: bizat (neri), bizazu (zuri), bizayo (hari), begigu/bizagu (guri), bizazute (zuei), bizaye (haiei) (28-29 eta 90-91 horrialdeak).

SUBJUNTIVO PRESENTE**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: dizadan (neri), dizazun (zuri), dizayon (hari), dizagun (guri), dizazuten/dizazuen (zuei), dizayen (haiei) (28-29 eta 90-91).

SUBJUNTIVO PRETERITO**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: zizadan (neri), zizazun (zuri), zizayon (hari), zizagun (guri), zizazuten/zizazuen (zuei), zizayen (haiei) (28-29 eta 90-91).

POTENCIAL PRESENTE**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: dizadake (neri), dizazuke (zuri), dizayoke (hari), dizaguke (guri), dizazuteke (zuei), dizayeke (haiei) (36-37).

POTENCIAL PRETERITO**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: lizadake (neri), lizazuke (zuri), lizayoke (hari), lizaguke (guri), lizazuteke (zuei), lizayeke (haiei) (36-37).

IV. INTXAUSPE KALONJEA

“LE VERBE BASQUE”

(Par l'abbé Inchauspe. Ouvrage publié par le Prince Louis-Lucien Bonaparte. Bayonne, Veuve Lamaignère née Teulières, imprimeur, rue Pont-Mayou, 39. Paris. Benjamin Duprat, Libraire de l'Institut, de la Bibliothèque Impériale, etc. Rue de Cloître-Saint-Benoît, 7. 1858.)

Manuel Intxauspe kalonjea (1815-1902), Zunharreta'n (Zuberoa) jaio zen baserritar familia batean. Apaiz ikaskizunak Baiona'ko Seminarioan egin zituen eta 1840'an apaiztu zen. Apezpikuak bere ondoan hartu zuen eta luzaro gabe Baiona'ko San Leon Hospitaleko (gaur Eusko-Museua) kapellau izendatu zuen eta 22 urtez iraun zuen kargu hontan (1842-1864). 1855'ean kalonje ohoredun izendatu zuten; 1863'an kalonje tituludun. 1869'an Lacroix gotzaiñak sekretariotzat hartu zuen eta Erroma'ra eraman zuen Batikano Konziliora teologu gixa, Ducellier apezpikuarekin sekretario eta Bikario Nagusi izan zen (1878-1887) eta Fleury Hottot'ekin Bikario Nagusi. Hau hildakoan, urrengo apezpikua izendatu arte Bikario Buru bezala gobernatu zuen gotzaingoa (1889-90). Garai hontan gure kalonjeak oztopo gogorra izan zuen herri-agintaritzarekin eta horretxegatik, Jauffret Baiona'ko gotzain izendatua izan zenean (1890), bere kargutatik erretiratu behar izan zuen. Atzeneko 12 urteak Omizegaiñe'n igaro zituen arreba batekin. Xehetasunak eta Intxauspe'ren obrak Villasante'ren euskal-literatura liburuan ikus.

SUBJONCTIF OU FORME RÉGIE OPTATIVE (PRÉSENT)

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: dizádan (neri), dizayán/dizañán/dizázün (hiri-zuri), dizón (hari), dizágün (guri), dizazién (zuei), dizén (haiei) (1).

Gipurkeraz: dizadan (neri), dizazun (zuri), dizayon (hari), dizagun (guri), dizazuten (zuei), dizayen (haiei) (2).

Lapurteraz: diezadan (neri), diezazun (zuri), dezon (hari), diezagun (guri), diezazuen (zuei), dezoten (haiei) (3).

1) 267 horrialdea.

(2) 482-483-484 horrialdeak.

(3) 482-483-484.

SUBJONCTIF OU FORME RÉGIE OPTATIVE (PASSÉ)**Harrek (ekar)**

Zuberoeraz: lizádan (zizádan) (neri), lizayán (zizayán)/lizañán/lizázün (hiri-zuri), lizón (zizón) (hari), lizágün (guri), lizazièn (zuei), lizén (zizén) (haiei) (270 hor.).

Gipuzkeraz: zizadan (neri), zizazun (zuri), zizayon (hari), zizagun (guri), zizazuten (zuei), zizayen (haiei) (485-486-487).

Lapurteraz: zezakidan (neri), zezakizun (zuri), zezon (zizon) (hari), zezakigun (guri), zezakizuen (zuei), zezoten (zizo(ke)ten) (1) haiei (485-486-487).

SUPPOSITIF OU CONDITIONNÉ (FUTUR)**Harrek (ekar)**

Zuberoeraz: balizat (neri), balizak/balizan/balizázü (hiri-zuri), balizó (hari), balizágü (guri), balizazie (zuei), balizé (haiei) (275).

POTENTIEL (PRÉSENT ET FUTUR)**Harrek (ekar)**

Zuberoeraz: dizakédát (dizáket) (neri), dizákek(n)/dizakézü (hiri-zuri), dizakio (hari), dizakégü (guri), dizakezié (zuei), dizakie (haiei) (317-318).

Gipuzkeraz: dizadake (neri), dizazuke (zuri), diozake (hari), dizaguke (guri), dizazuteke (zuei), diozakete (haiei) (497-98-99).

Lapurteraz: dizakedake (neri), dizakizuke (zuri), dizakioke (hari), dizakiguke (guri), dizakizueke (zuei), dizakiokete (haiei) (497-498-499).

IMPERATIF**Harrek (ekar)**

Zuberoeraz: bízat (neri), bízak(n)/bizázü (hiri-zuri), bizó (hari), bizágü (guri), bizazie (zuei), bizé (haiei) (263-64).

(1) "Zizoten" behar luke, baiñan "zizoketen" dakar, hutsegitez noski.

Gipuzkeraz: bizat (neri), bizazu (zuri), bizayo (hari), begigu (1) (guri), bizazute (zuei), bizaye (haiei) (479-80-81).

Lapurteraz: bizat (2) (neri), bizazu (3) (zuri), bezo (hari), bizagu (4) (guri), bizazute (5) (zuei), bezote (haiei) (479-80-81).

CONDITIONNEL FUTUR ET POTENTIEL CONDITIONNEL

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: lizakédát (léiket) (neri), lizákek (likéik, léikek)/lizáken (líkéiñ, léíken)/lizakézü (likéizü, léíkezü) (hiri-zuri), lizakió (líkió) (hari), lizakégü (guri), lizakezié (zuei), lizakié (haiei) (303). Gipuzkera-Lapurterarik eztakar.

POTENTIEL (PASSÉ)

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: zizakédán (neri), zezakéiyan (zizakeyán)/zezakéiñan (zizakeiñán)/zezakéizün (zizakézün) (hiri-zuri), zezakióñ (zizakióñ) (hari), zizakégün (guri), zizakézien (zizakezién) (zuei), zezakién (zizakién) (haiei) (326-327).

Gipuzkeraz: zizadakean (neri), zizazukian (zuri), ziozakean (hari), zizagukean (guri), zizazutekean (zuei), ziozaketean (haiei) (500-501-502).

Lapurteraz: zizakidakean (neri), zizakizukean (zuri), zizakiokean (hari), zizakigukean (guri), zizakizuekean (zuei), zizakioetekean (haiei) (500-501-502).

Oharra: Ikus dezakegunez, zuberotar aditz-jokuotan, datiboko ezaugarri bezala “i” letra erabiltzen da eskuarki. Halabaiña, “potentiel passé” delakoan “e” letra ere badarabil. Forma zuzenetik hartutako “e” hau euskalki guzietan datibotan sartzen ari zaigu bidegabeki. Zuberora’n ere, Intxauspe’reñ liburu hontan ageri zaiguna baiño ondalan handiagoa egiña dizu, ondorengo adigarriotan ikus daitekenez:

Nula gazte beniz orano,
Eta ez ikhasirik mintzatzen,
Hartü libertatia
Pharka DEZADAZIEN.

-
- (1) Bizkaierazko *—egi—* aditzerrøduna. Normalki “bizagu”.
 - (2) Subjuntiboaren arabera “biezat” behar luke izan.
 - (3) Idem, *biezazu*.
 - (4) Idem, *biezagu*.
 - (5) Idem, *biezazute*.

Hots, "dizadazien" (= dizaidazuten). ("Kaniko eta Belxitina", 49 ahapaldia, 28 hor., Kriselu-18, 1971).

Propi ala ez propi
Erradazie fite;
Bestela aldiz, kanpua
Biek har EZADAZIE.

Hots, "izadazie" (= zaidazute). Idem, 223 ahap., 66-67 hor.).

"Eman DEZAZIELA grazia
"Etxilat irüski ützültzeko".

Hots "dizaziela" (= dizazutela). Idem, 413 ahap. Baiñan 407^{gn}. ahapaldian *dizaziela* darabil: "Jinkuak eman dizaziela".

Etxahun'ek berriz honela esaten dio Defis Juezari: "Irus estima nirozü, Jauna, ene büria, emana ahal ba'nezazü merexi uhuria" (Zoriontsu estima nezake, Jauna, nere burua, eman ahal ba'nizazu merezi duzun ohorea). Beraz, "nezazü", "nizazü"ren orde. Ikus dezakegu, bada, "i"ren ordeko "e" aspalditxotik errotzen hasia dugula. Gipuzkeraz, aginkorreen, "bizagu" eta "bizagute"ren orde, "begigu" eta "begigute" darabilzki, Aita Larramendi'ri harturik, antza. Hauek bizkaieratik sartutako formak ditugu eta "za" aditz-errodun konjugaziño egitura urratzen dutelako baztergarri dira. Lapurterazko aditz-jokotan ere "e" letrak zenbait tokitan baztertu du "i" datibo-ezaugarria.

V. BONAPARTE PRINTZEA

"LE VERBE BASQUE EN TABLEAUX"

(Accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara: le guipuscoan, le bisciaïen, le Haut-Navarrais septentrional, le Haut-Navarrais méridional, le labourdin, le Bas-Navarrais occidental, le Bas-Navarrais oriental et le souletin; avec les différences de leurs sous-dialectes et de leurs variétés. Recueilli sur les lieux mêmes de la bouche des gens de la campagne, dans cinq excursions linguistiques faites dans les sept provinces basques d'Espagne et de France pendant les années 1856, 1857, 1866, 1867, 1869. Par le Prince Louis Lucien Bonaparte. Londres, 1869).

Luis Luziano Bonaparte (1813-1891). Luziano Bonaparte'ren semea zen. Ingalterra'n jaio zen eta Waterloo'ko gudaldiaren ondoren familia guzia Itali'ko Musignano'ra aldatu zen. Hemen ikaskizun sakon eta oparoz jantzi zuen bere burua eta 20 urtetan Maria Ana Cecchi florenziar andereñoarekin ezkondu zen, baiñan, nunbait, etziren ongi etortzen eta horretxegatik separaturik bizi izan ziren. Andrea hil zitzaiozlarik, Clemencia Richard'ekin ezkondu zen, hots, Claudio Otaegi euskaltzalearen amaztearen aizparekin. Gaztetan Europa eta Ipar-Amerika zear ibilli zen, Kimika eta Mineralojia estudiatuz eta gero linguistika. Napoleon III'garrenak printze titulua gafiñera, urteko 130.000 liberaren emari egin zion. Bere bizilekua Ingalterra'n ipiñi zuen eta oso-osoro linguistika lanetan murgildu zen. Enperadoretza erortzearekin (1870), ia bizigarririk gabe gelditu zen. Heriotzak Urbino'ko Fano'n, Adriático itxasertzean, dei egin zion eta bere hillotza Londres'en hobiratu zuten. Villasante'k dion bezala, bere jakinduri zabala hizkuntzetara zabaldu zen bereziki eta hizkuntzen baitan euskara zuen begiko nini. Bere lanak frantse-

sez, ingelesez, italianoz, españolez eta euskaraz argitaratu zituen. Bost etorraldi egin zituen Euskalerrri'ra, 1856'an, 1857'an, 1866'an. 1867'an eta 1869'an, bere euskal-ikaskizunak egiteko. Ibillaldi hauen fruitu izan ziren bere lanak. Hona hemen batzuek: *Langue basque et langues finnoises* (1862), *Curiosidades euskaras* (1866), *Le verbe basque en tableaux* (1869), *Deux Cartes des sept Provinces basques* (1869), *Les dialectes d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal* (1872), *Le basque de Fontarabie, d'Irun, etc.* (1877), *Observaciones sobre el vascuence de Navarra* (1881), *Carta lingüística* (1883), etab. Bere lankiderik nagusienak izan ziren: Intxauspe, Zuberotar kalonjea, Duvoisin lapurtarra, Uriarte, antxikotar bizkaitarra, Bruno Etxenike naparra, Claudio Otaegi giputza, Mariano Mendigatxa erronkariarra etab. Heriotz-ondoren, gure Printzearen euskal-biblioteka inprimatua Chicago'ra joan zen. Eskuidazkien jabe eusko-ahaldundegiak egin ziren. Ikus xehetasun gehiago Villasanté'ren liburuan.

IMPERATIF

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: (bizat (neri), bizazu (zuri), bizayo (hari), begigu (1) (guri), bizazute (zuei), bizayote (haiei).

Lapurteraz: biezat (neri), biezazu (zuri), biazto (hari), biezagu (guri), biezazue (zuei), biazote (haiei).

Zuberoeraz: bizat (neri), bizazü (zuri), bizo (hari), bizagü (guri), bizazie (zuei), bize (haiei).

Haut-Navarrais Méridional bezada (neri), bezazu (zuri), bezo (hari), bezagu (guri), bezaze (zuei), bezote (haiei).

Bas-Navarrais Oriental: bezaat (neri), bezauzu (zuri), bezako (hari), bezau (1) (guri), bezauzie (zuei), bezee (haiei).

SUBJONCTIF (PRÉSENT)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadan (neri), dizazun (zuri), dizayon (hari), dizagun (guri), dizazuten (zuei), dizayoten (haiei).

Lapurteraz: diezadan (neri), diezazun (zuri), diozan (hari), diezagun (guri), diezazuen (zuei), diozaten (haiei).

Zuberoeraz: dizadan (neri), dizazün (zuri), dizon (hari), dizagün (guri), dizazien (zuei), dizen (haiei).

(1) Badirudi Bonaparte'k ere Larramendi'ri jarraitzen diola. Normalki, dakigunez, “za” aditz-erroaz baliatuz, “bizagu” behar du.

(1) “Bezaugu”ren laburpena, noski.

Bas-Navarraïss Oriental: dezaan (1) (neri), dezauzun (zuri), dezakon (hari), dezauiun (2) (guri), dezauien (zuei), dezeen (haiei).

SUBJONCTIF (PASSÉ)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: zizadan (neri), zizazun (zuri), zizayon (hari), zizagun (guri), zizazuten (zuei), zizayoten (haiei).

Lapurteraz: ziezadan (neri), ziezazun (zuri), ziozan (hari), ziezagun (guri), ziezazuen (zuei), ziozaten (haiei).

Zuberoeraz: lizadan (neri), lizazün (zuri), lizon (hari), lizagün (guri), lizazien (zuei), lizen (haiei).

Haut-Navarraïss Méridional: zezadan (neri), zezazun (zuri), zezon (hari), zezagun (guri), zezazen (zuei), zezoten (haiei).

Bas-Navarraïss Oriental: zezaan (3) (neri), zezauzun (zuri), zezakon (hari), zezaukin (4) (guri), zezauzien (zuei), zezeen (haiei).

POTENTIEL (FUTUR)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadake (neri), dizazuke (zuri), dizayoke (hari), dizaguke (guri), dizazuteke (zuei), dizayoteke (haiei).

Lapurteraz: diezadake (neri), diezazuke (zuri), diozake (hari), diezaguke (guri), diezazueke (zuei), diozakete (haiei).

Zuberoeraz: dizakedat (5) (neri), dizakezü (zuri), dizakio (hari), dizakegü (guri), dizakezie (zuei), dizakie (haiei).

Haut-Navarraïss Méridional: zadake (neri), zekezu (zuri), zoke (hari), zaguke (guri), zakeze (zuei), zokete (haiei).

(1) Normalki: dezadan.

(2) Normalki: dezauiigun.

(3) Normalki: zezadan.

(4) Normalki: zezauigun.

(5) Datibo bikoitza *da + t* (= dizaket/dizadake).

*Bas-Navarra*s oriental: dezakeat (1) (neri), dezako (hari), dezaukeu (2) (guri), dezeeke (haiei) (3).

POTENTIEL CONDITIONNEL (Futur présent)

Harek (ekar)

Gipuzkeraz: lizadake (neri), lizazuke (zuri), lizayoke (hari), lizaguke (guri), lizazuteke (zuei), lizayoteke (haiei).

Lapurteraz: liezaket (neri), liezazuke (zuri), liozake (hari), liezaguke (guri), liezazueke (zuei), liozakete (haiei).

Zuberoeraz: lizakedat (4) (neri), lizakezü (zuri), lizakio (hari), lizakegü (guri), lizakezie (zuei), lizakie (haiei).

*Haut-Navarra*s Méridional: lezadake (neri), lezakezu (zuri), lezoke (hari), lezaguke (guri), lezakeze (zuei), lezokete (haiei).

*Bas-Navarra*s Oriental: lezakeat (5) (neri), lezakio (hari), lezaukeu (6) (guri), lezeeke (haiei) (7).

SUPPOSITIF DU POTENTIEL (Présent)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: badizat (neri), badizazu (zuri), badizayo (hari), badizagu (guri), badizazute (zuei), badizayote (haiei).

Lapurteraz: badiezat (neri), badiezazu (zuri), badioza (hari), badiezagu (guri), badiezazue (zuei), badiozate (haiei).

Zuberoeraz eztizu edo eztakar behinik behin Bonaparte’k. Berdin diogu Napparroa’ko bi irabiakerez.

(1) Badirudi “dezakedat” laburturik dela, hots, Zuberoa’ko “dizakedat” bezala datibo bikoiztuna.

(2) Normalki: dezaukegu.

(3) Bigarreneko datiborik eztizu, ez sigularrekoa, ez pluralekoa.

(4) Datibo bikoitza: da + t (= lizaket/lizadake).

(5) Badirudi “lezakedat” laburturik dela, hots, Zuberoa’ko “lizakedat” bezala datibo bikoiztuna.

(6) Normalki: lezaukegu.

(7) Bigarreneko datiborik eztizu, ez singularrekoa, ez pluralekoa.

SUPPOSITIF DU POTENTIEL CONDITIONNEL (Futur)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: balizat (neri), balizazu (zuri), balizayo (hari), balizagu (guri), balizazute (zuei), balizayote (haiei).

Lapurteraz: baliezat (neri), baliezazu (zuri), balioza (hari), baliezagu (guri), baliezazue (zuei), baliozate (haiei).

Zuberoeraz: balizat (neri), balizazü (zuri), balizo (hari), balizagü (guri), baliazie (zuei), balize (haiei).

Haut-Navarraïs Méridional: balezada (neri), balezazu (zuri), balezo (hari), balezagu (guri), balezaze (zuei), balezote (haiei).

Bas-Navarraïs Oriental: balezaat (1) (neri), balezazu (zuri), balezako (hari), balezau (2) (guri), balezauzie (zuei), balezee (haiei).

OPSTATIF DU POTENTIEL CONDITIONNEL (Futur)

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: ailizat (neri), ailizazu (zuri), ailizo (hari), ailizagü (guri), ailiazie (zuei), ailize (haiei).

Oharra.—Aditz-jokuok tauletan emanak daude Bonaparte'ren liburuan. Honela: gipuzkera: huitième tableau; lapurtera: dixième tableau; zuberera: onzième tableau; Haut-Navarraïs Méridional: dixième tableau supplémentaire; Bas-Navarraïs Oriental: quatorzième tableau supplémentaire. Gipuzkeraz, Lapurteraz eta Zuberoeraz beti datiboko "i" ezaugarria ageri zaigu, baiñan napar formetan "e" bihurtzen da. Larramendi'k, Añibarro'k eta Lardizabal'ek ere, hala nola Intxauspe'k, beti "i"ri eusten dioten gipuzkeraz, nahiz-ta garai haietarako "gi-" (da-gi-on = di-za-ion) errodun adizkerak oso sartuak egon Gipuzkoa'n. Ohar gaitezen ere napar hegoaldeko adizkera batzuek aditz-erroaren aurreko partea galdu egiten dutela: zadan = dezadan/dizadan, zadake = dezadake/dizadake; horrela bi sail hauetako adizkera guziak. Bonaparte'k Behe-Naparroa Sortaldean bildutako jokaldiak eta López Ibarra'ko erretoreak darabilzkiegak (honek Amikuze'ko euskaran idatzi zuen) bateratsu datoz. Hona hemen adigarri batzuek Alfonso Rodriguez'en "Práctica de la perfección cristiana" liburuaren itzulpenetik atereak (3):

(1) Badirudi "balezadat" laburturik dela, hots, bi datiboduna. Aski litzake ordea "balezat", Zuberoa'ko "balizat" bezala edo napar-hegoaldeko "balezada"ren antzo.

(2) Dirudienez "balezau" da forma osoa.

(3) "Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo". Tomo I, 1967: "Apuntes léxicos de la traducción bajo-navarra de Alfonso Rodríguez (1782)". "El año 1782 se publicó en Aviñón un resumen arreglado de la "Práctica de la perfección cristiana" del Padre Alfonso Rodríguez con el título: Alphonsa Rodríguez, Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte eta Heuzcarala itculia. Heuzcara becic eztaquitenen daco, Avignonhen, Antonio Aubanel Liburu Salzaliaren, eta Aita Seindiaren choil Imprimuzaliaren Beithan (1782). Amikuze'ko euskaran idatzia dago (sortaldeko behe-naparreraren baitakoa, beraz) eta liburuan egille-izenik aipatzen ez baldin ba'da ere, G. Lacombe'ren azterraldeie eskerak badakigu López zuela deitura eta Ibarra'ko (Donaisti-Ibarra'n) erretore zela. "Apuntes léxicos..." en egille, berriz, Fray Andere Lizartzako da, Antxikotarra. Gaztelerazko itzulpenak beronek egiñak dituzue.

“Sorik ere *eztezakoola* egin” = “que no le puede mirar” (“Hastio” hitza, 108 hor.); “Bizia edeki *zadazu*” = “quitame la vida” (“Edeki” h., 123 h.); “Igurikiten dizi, zabal *dezakogun*” = “espera a que le abramos” (“Etsi” h., 132 h.); “Dakielakotz horiek orok *eztezakootela*, ez ogenik egin, ez bilo bat idok” = “porque sabe que ninguno de esos le puede hacer ningún mal, ni arrancarle un pelo” (“Ogen” h. 151-152 hk.). Hirugarren personako datibuak, “*dezakon*” (Bonaparte), “*dezakogun*” (López), “*k*” gozagarria darabilte “*i*” ordez (dezaion/dizaion). Orobat Gipuzkoa’n toki batzuetan “*zaio*” eta bestetan “*zako*” esan ohi da.

VI. ARTURO CAMPION

“GRAMATICA DE LOS CUATRO DIALECTOS LITERARIOS DE LA LENGUA EUSKARA”

(Por D. Arturo Campión. Tolosa: 1884. Establecimiento tipográfico de Eusebio López, Sucesor de la Viuda de Mendizábal, Calle de la Solana, n.º 8).

Campion’en bitizta eta obra txit ezaguna da eta horretxegatik eztugu hemen aipakizunik egingo. Haren berri, nun nahi arki dezake irakurleak, euskal-literatura liburuetan, enziklopedietan eta abar. Haren obrak berriz errez arki ditezke liburu-dendetan eta biblioteketan. Hemen aipatzen dugun bere gramatika hotsandikoa izanen da noski zaillena arkitzen. Aditz-tabuletan Campión’ek Bonaparte Printzeari jarraitzen dio urratsez-urrats. Lau euskalkietako irabiakerak eztute bereizkizun txipienik. Beraz, ezer berririk ematen ez digunez gero, ez aldatzea pentsatu dugu, zeren Campión’en tabulak Printzearenak berberak baitira eta ez hain oparoak. Esaterako, Naparroa’ko euskalkiak ezpaitakarzki Campión’ek. Halabaiña, eztugu pasa izan gura Gramatika baliotsu honen aipakizuna egiteke, batez ere hau errezago delako ardiesten Bonaparte’ren aditz-liburua baiño eta hau ezin eskura dezakeanak, bada-kike, Campión’ez baliatuz, Printzeak bildutako aditz-joko berberak dauzkala eskumenean. Irakurleak barka bizaigu bada laburtasun-zurrean egiten dugun mozketa hau.

VII. LUIS DE ELEIZALDE

“MORFOLOGIA DE LA CONJUGACION VASCA SINTETICA”

(Tomo I. La conjugación sintética guipuzkoana en el tratamiento cor-tés. Bilbao, Imp., Lit., y Enc. de Eléxpuru nos. 1913).

Eleizalde’tar Koldobika (1873-1923), Bergara’n jaio zen eta Bilbao’n hil. Batxilleratua bere sorterrian hasi eta Zaragoza’n bukatu zuen. 1899’an zientzia-lizenziadutza ardietsi zuen eta geroago alkar-lehiaketaz Gastehiz’ko Institutoko matematika katedra. Geroago Bizkai’ko Ahaldundegiak erakus-

keta aztertzaile izendatu zuen. "Euzkadi" aldizkariaren zuzendari eta Euskaltzainkide nagusi izan zen. Denok dakigu Sabindar purrukatua izan zela. Halabaiña, esango nuke, Sabino'ganako amodioak eta bere dotriña politikuak eragin ziotela gehiago postura hortara, harek euskara-gaietan eman zituen arrazoiak baiño. Bere obra ugarien artean aipa ditzagun, eskuarteau daukagunaz gainera: "Apuntes para una teoría de las figuras circulares" (Madrid, 1904), "Raza, lengua y nación vascas" (Bilbao, 1911), "Países y Razas" (Bilbao, 1914), "Landibar" (eleberria, 1918), "Metodología para la restauración del Euzkera" (Congr. Est. Vasc., 1919), "El problema de la enseñanza en el País Vasco" (Congr. Est. Vasc., 1919), "La lucha por el idioma propio" (hitzaldia, 1919), "Kisto'ren Antz-bidea", hots, Kempis euskaraturik ("Euzkadi"n), "Halidon Murua", "Halidon Hill" ingelesetik euskaraturik ("Euzkadi"n) eta beste aunitz idazlan, olerki eta itzulpen, "Euzkadi"n, "RIEV"en eta beste zenbait aldizkaritan.

PRETERITO IMPERFECTO HIPOTETICO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: zizadan (neri), zizatzun (1) (zuri), zizayon (hari), zizagun (guri), zizatzuten (2), (zuei), zizayen (haiei) (110 eta 111 horrialdeak).

TIEMPO FUTURO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadake (neri), dizatzuke (3) (zuri), dizayoke (hari), dizaguke (guri), dizatzuteke (4) (zuei), dizayeke (haiei) (112).

MODO IMPERATIVO (Presente)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: bezat (neri), bezatzu (zuri), bezayo (hari), bezagu (begigu) (guri), bezatzute (zuei), bezaye (haiei) (113-114-115).

(1) Eleizalde'k "zu" datibo ezaugarria "tzu" bihurtzen du, bere ustez eta aburuz partikula hau hots gogorrekoa delako.

(2) Orobat, "zute" "tzute" bihurtzen du.

(3) "tzu" = "zu".

(4) "tzute" = "zute". Ohar hau eztugu gehiago eginen.

MODO SUBJUNTIVO (Presente)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadan (neri), dizatzun (zuri), dizayon (hari), dizagun (guri), dizatzuten (zuei), dizayen (haiei) (117-118).

TIEMPO FUTURO ABSOLUTO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: lizadake (neri), lizatzuke (zuri), lizayoke (hari), lizaguke (guri), lizatzuteke (zuei), lizayeke (haiei) (121-122).

TIEMPO FUTURO CONDICIONADO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: ba-lizat (neri), ba-lizatzu (zuri), ba-lizayo (hari), ba-lizagu (guri), ba-lizatzute (zuei), ba-lizaye (haiei) (123-124).

Oharra.—“Pretérito Imperfecto hipotético” delakoa eta “Modo Imperativo” jokoz-joko aldatuak daude, testuan bezalaxe. Besteak deduziñoz atera behar izan ditugu, aditzaren egitura-legeak jarraituz, zeren hirugarren personarik ezpaitu ematen Eleizalde’k. Zergatik ezta-kigularik, aginkorrean “e” ezaugarria darabil (b-e-zat) eta beste danetan “i” (d-i-zadazun). Baiñan “e” hori ez darabil lehendabiziko eta bigarren pertsonetan “i” batez lagundurik, gerora Orixe’k, Olabide’k eta euren jaraitzaileak egingen dutenez. Alegia, “bezat”, “bezatzu”, “beza-gu”... darabil Eleizalde’k, Naparroa’ko aditz-joko herrikoien gisara eta ez geroko eskola berriak emandako “bezait”, “bezaizu”, “bezaigu”. Tankera hontako aditz-jokoak ezitit inñun ikusi ahal izan. Badirudi (eztut seguratu nahi ordea) Orixe’k erabili zituela lehenengoz. Hirugarren pertsonako datibotan berriz herrikoiak dira, Naparroa’n eta inguruetan behintzat (be-zai/dezaion/dezaioke). Baiñan baita ere: bezako/dezakon/dezako.

VIII. RESURRECCION MARIA DE AZKUE

“VERBO GUIPUZCOANO”

(Apéndice de la “Morfología Vasca”. Editorial Vasca. Bilbao, 1932).

Resurrección Maria de Azkue (1864-1951), Lekeitio’n jaio zen eta Bilbao’n hil. Batxilleratua hiriburu hontako institutuan egin zuen. Gero, apaizgoari ekin zion Gastehiz’ko Seminarioan, teologian maixutuz (1881-1885). Ondoren Eskritura Saindutan eta “Derecho Canónico”n maixutu zen Salaman-

ca'n (1855-1888). Azken urte hontan apaiz ordeatu zen eta euskal-ikastaldiak Bilbo'ko Institutoan emateko, Bizkai'ko Ahaldundegiaren katedra irabazi zuen. Euskara eta musika ziren bere bi zaletasun handiak eta horrela musika ikaskizunak egiñaz Bruselas'en eta Kolonia'n egon zen. Euskaltzaindia sortu zelarik 1918'an, lehendakari izendatua izan zen eta 1927'an gaztelerazko akademiku nagusi izendatu zuten Euskalerra'ren aurkezle bezala. Azkue'ren obra izugarria ezin aipa diteke errenka labur hauetan. Irakurleak arkitu ahal izanen du, Villasante'ren, Mitxelena'ren, Estornes-Lasa'ren edo Onaindia'ren euskal-literatura liburutan.

Aginkorreko datiboez ari delarik transitiboko aditz laguntzaillean, hone-la dio Azkue jaunak (144 hor.): "Muchas de sus flexiones no las usa ya el pueblo, y en muchísimas otras se vale, casi en todas partes, del núcleo del auxiliar bizkaino *egin*, habiendo desaparecido el de su propio auxiliar *ezan*. Por "dámelo tú, varón y hembra" sólo en Oyarzun y Amezqueta me dieron *eman zadak* y *eman zadan*. En todos los demás pueblos por mí consultados recogí, con ligeras variantes, *emaidak* y *emaidan* y sus negativas *ezeidak eman* y *ezeidan eman*. Y aun en el mismo Oyarzun las flexiones correspondientes a "dánoslo" y "dáselos a ellos" no son, por lo menos en labios de mis colaboradores, no son *eman zaguk* y *eman zaek* sino *emaiuk* y *emaiek*".

Subjuntiboko aditz-jokoez transitiboko laguntzailletan, honela dio Azkue jaunak: "sucede en este modo, respecto del uso del núcleo verbal, lo que en las flexiones del modo precedente, de imperativo; es decir, que en las flexiones meramente objetivas vive el auxiliar *ezan* y en las flexiones de recipiente ha sido generalísimamente sustituido por el auxiliar *egin* del dialecto bizkaino" (145 hor.). Eta 147 garren horrialdean berririo dakio: "En las flexiones receptivas de subjuntivo correspondientes al paradigma XLI, el auxiliar bizkaino *egin* ha usurpado el puesto de *ezan*. Sólo en Astigarraga y Oyarzun vive el núcleo *za* (1). En los demás al efecto consultados, se oyen ejemplos como *eman daiodala* o *deiotala* "que yo se lo dé", *eman daiozula* o *deiozula* "que vos se lo deis"..., etc."

"Hoy lo ordinario en todos los pueblos es recurrir al infinitivo para expresar estas ideas, valiéndose de *nik berari emateko* y *zuk berari emateko* en vez de las susodichas flexiones.

(1) Astigarraga eta Oiartzun'ez gaiñera besteok gaiñeratuko nituzke: Amezqueta (aipatua), Abalzizketa, Orendain, Altzo, Lizartza, Gaztelu, Orea, Leaburu, Ibarra, Belauntza, Berrobi, Elduaien, Berastegi, Urnieta, Ernani, Errenteria, Lezo, Pasaia, Irun eta Ondarrabia. Uste dut Naparro-mugaldeko herriotan gehiago edo gutxiago (baiñan gero ta gutxiago) oraindik zenbait kasutan kontserbatzen dutela "-za-" aditzerroa. Hontaz gaiñera esango nuke aginkorreko forma batzuek (za(i)dazu/za(i)dak, zaiozu/zaiok, zaizkidazu/zaizkidak, zaizkiozu/zaizkiok...), naiz-ta galurrean, Oria'ko ibarluzera guzian erabiltzen direla oraindik Alegi'tik Orio'raño eta erabiltzen eztenari ere oso ezagun eta etxeko egiten zaizkio. Baiñan, Azkue'k dion bezala, aztarrenak besterik ez tira gelditzen. Beraz, bildurrik gabe esan diteke gaur Gipuzkoa'n erabiltzen diren datiboko aditzerroak "egin" etik atereak direla.

“No vale la pena de exponer un paradigma de flexiones casi todas difuntas” (148). Hau dala-ta Azkue’k eztitu ematen datiboko adizkerok. Potentzia-lekoak ere arrazoi berberagatik baztertzen ditu. “En las flexiones potenciales —dio lehen Euskaltzainburuak— y especialmente en las familiares reina un caos tal que su detallada exposición hastiaría al lector, si antes al expositor no le hubiera vuelto loco” (149 hor.).

IX. INAZIO MARIA ETXAIDE LIZASOAIN

“DESARROLLO DE LAS CONJUGACIONES EUSKARAS”

(Perifrásticas y sintéticas, respetuosas y familiares. Por D. Ignacio María Echaide. Ingeniero Industrial. 1944. Gráfico-Editora, S. L. San Sebastián).

Inazio Maria Etxaide Lizasoain (1884-1962), Donostia’n jaio zen Abenduaren lehenengoan, Batxilleratua libre ikasi zuen, bere familia urte erdi bat Donostia’n eta beste erdia Bergara’n bizi baitzen aldi hartan. 1900’en batxilleratua bukatu zuen eta Industrietako Injinadoretzari ekin zion Bilbao’ko Eskolan eta 1906’an titulu jabe egin zen. 1907’ko Agorrilean (Abuztuan). Gipuzkoa’ko Ahaldundegian sartu zen, “Catastro Industrial” izeneko zerbitzuan. Txipitan ikasitako euskara ahazturik zeukan eta 1907’an ikasten hasi zen. 1909’ko Martxuan Ahaldundegiko industria-injinadore izendatu zuten; izendapen honen barruan Probintzi-Telefonutzaren zuzendaritza sartzen zen. Urte bereko Iraillean “Juventud Integrista”ko lehendakari bereixia izan zen eta kargu hortan iraun zuen ezkondu arte. 1910’ean gazteri hontan euskalikastaldiak eratu zituen, bera eta D. Ramón Intzagarai zirelarik irakasle. Urte berean “Banco de San Sebastián”eko aholkari izendatu zuten. 1915’eko Apirillean María Dolores Itarte Alberdi’rekin ezkondu zen. Ezkontza honetatik 10 seme-alaba sortu ziren. 1926’an Donostia’ko Telefonu Munizipalarekin lankidetzan, Peninsulako lehendabiziko telefonu-automatizatzea egin zuen Donostia’ren hamabost kilometroko inguruan. 1928’an “La Cruz” asteroko katolikua ateratzen du partidu integristatik ateratako bere lagunekin eta bertako lankiderik saiaturienetakoia izan zen 1936’raino. “Legión Católica”ren fundatzailetakoa izan zen halaber (1928). 1932’an, “La Cruz”eko lagunekin “Centro de Actuación y Propaganda Católica”, gazteen biltokia, eta “Editorial Católica” fundatu zuen. 1940’an “Alfa” Eibar’ko josteko makiñetan aholkari izendatu zuten eta 1945’ean “Muebles Alfa”n. 1942’an euskaltzain nagusietakoa hautatu zuten eta 1951’an euskaltzainburu. 1949’an Gipuzkoa’ko telefonutzaren buruzagigoa utzi beharrean arkitu zen, “Compañía Telefónica Nacional” delakoa jabetu zelako Gipuzkoa Ahaldundegiaren Telefonuaz. 1953’an “Orden Civil de Alfonso X el Sabio” lagunartean onartua izan zen. 1954’ko Abenduaren lehenengoan Ahaldundegiaren injinadore kargutik

jubilatuko beharra tokatu zitzaion eta hamabost egun geroago, enbolia baten ondorenez, anka bat moztu behar izan zioten. Donostia'n hil zen 1962'ko Hazillaren 14'an. Bere obrak ezin aipa ditzakegu ugariaren ugariz. Irakurleak ikus ditzake "Desarrollo de las Conjugaciones Euskaras"en edo "Etxaide Jauna" liburuetan.

SUBJUNTIVO (PRESENTE)

Harrek (Ekar)

Gipuzkeraz: dizaidan (neri), dizaizun (zuri), dizaion (hari), dizaigun (guri), dizaizuten (zuei), dizaien (haiei). (27-74 horriak).

SUBJUNTIVO (PRETERITO)

Harrek (Ekar)

Gipuzkeraz: zizaidan (neri), zizaizun (zuri), zizaion (hari), zizaigun (guri), zizaizuten (zuei), zizaien (haiei). (27-74).

IMPERATIVO

Harrek (Ekar)

Gipuzkeraz: bizait (neri), bizaizu (zuri), bizaio (hari), bizaigu (guri), bizaizute (zuei), bizaie (haiei). (27-74).

POTENCIAL (PRESENTE-FUTURO)

Harrek (Ekar)

Gipuzkeraz: lizaidake (neri), lizaizuke (zuri), lizaioke (hari), lizaiguke (guri), lizaizuteke (zuei), lizaieke (haiei). (27-74).

Oharra.—Gure aitak alde nabarmen bat dauka beste tratadistekin; alegia, bestek, hirugarren personetako datibo ezaugarriaren ("o" eta "e") aintzinetik bakarrik darabilte "i" letra gozagarria eta gure aitak datibo guzien aintzinetik darabil. Esaterako, Bonaparte'ren "dizazun", "dizaizun" da nere aitarentzat, "dizadan", "dizaidan", "dizagun", "dizaigun" etab. Orixe-Olabide-Lekuona'ren eskolak ere, "i" hau datibo guzitan darabil, baiñan lehenengo "i" "e" bihurtuz: *dezaizun, dezaidan, dezaigun...* Halabaiña, tankera hontako aditz-jokoak, nik dakidalarik, eztira ifñun agertzen, hirugarren personako datibotan izan ezik (dezaion/dezaien).

Bai, ostera, *dezazun, dezadan, dezagun*, baiñan hauek oso desegokiak dira aditz-joko zuzenakin nahasten direlako. Bestalde, “dizaizun”en tankerako aditz-joko banaka batzuek agertzen dira, baiñan eskuarki ageri dena “dizazun” da. Ene aitak “i” gozagarria datibo guzitara zabaldu zuen eta Gipuzkerazko irabiakeraren norma bezala ezarri. Hona hemen adigarri herrikoi batzuk:

Zapata txuri, paperez;
Eudi denian baterez...
Nagusi jauna, esan BIZAIGU
Asiko geran ala ez.

(D. Manuel Lekuona'k aipaturik, “Egan”en (5-6), 14 hor. Gabon-Kantak, 1956.)

“Ez BALIZAIGUKE eman” (“Asis’ko Loria”, Fr. Krispin Beobide, 79 h., “Auspoa”, 1966).

Berez kupi gaitzala
Guziyon jabiak,
Ta eman DITZAIGULA
Abillidadiak

Ahapaldi hau Pello Errota'rena da. *Ditzaigula = dizaizkigula*, plurala sortaldeko euskalkien eran egiñaz (“Udarregi bertsolaria”, 36 h., “Auspoa”, 1966).

“Aita, eman BIZAIT nai nuan penitentzia” (“Asis’ko Loria”, Fr. Krispin Beobide, 154 h., “Auspoa”, 1966).

“Barka ZAIKIGUTZU gure zorrak” (“Baserritar jakintsuaren etxeko eskola”, Gregorio Arrue, 123 h., Tolosan, Pedro Gurruchagaren moldiztegia, 1878).

“Naiz munduak, eta infernuak eman DITZAIZKIGULA kanpotik, eta barrendik, milla tentazio eta su” (“Urteco igande guztietarako platicac edo itzaldia”, Joakin Lizarraga Elkano'koa, 115 h., Ignazio Ramon Baroja'ren moldiztegia, 1846).

“Orretarako lagun ZAIGUZU zeru-lurreko Jueza” (“Santa Genobeba'ren bizitza”, Juan Kruz Zapiain, “El mundo en la mente popular vasca”, Tomo III, Colección Auñamendi, 1962, 143.h). “Komeni ba'da, eman ZAIGUZU ondo iltzeko graziya” (Idem., idem., 173 h.). Zapiain'ek 1899'gn. urtean kopiarazi zuen.

“Gaur dala Maria Kale,
Bihar dala Zantantzart,
Egin DIZAIGUN arte
Tripan larruak zart.”

Orio aldean kantatzen duten bezala. (“Zeruko Argia”, “Hemen dira” artikulua, Otsailak 24, 1974).

“Nai DIZAIGULA Jaunak egun au ekarri,
Barkatzen diogula ziñez elkarri,
Ikusi genezake egun au guk sarri,
Laztan gogoz emanaz batak besteari;
Ez fia iñori, fuero kontu ori;
Gure buruari, ikusiak ikusi,
Fia gauz ori.

(“MUNAGORRI”, “Iturriaga'ren bertsoak”, 84'gn. paia. Antonio Maria Labayen, Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, S. A. San Sebastián-Usurbil, 1976.)

X. PIERRE LAFITTE ITHURRALDE

“GRAMMAIRE BASQUE”

(Navarro-Labourdin littéraire. Edition revue et corrigée. Editions des “Amis du Musée Basque” et “Ikas”, Bayonne. Imprimeries Delmas, Bordeaux, 1962.)

Hona, Juan San Martin'ek (“Escritores euskéricos”, 111 hor.) ematen dizkigun berri labur-laburrak Pierre Lafitte jaun apez kalonjeaz: Lapurdi'ko Luhoso'n sortu zen 1901'eko Maiatzaren 21'ean. Uztartitze'ko Seminarioko irakasle eta euskaltzainkide nagusia da. “Herria” asterokoaren zuzendari 1944'tik 1967'ra. Frantsesez idatzirik dauka: “Les études basques à travers les siècles”, “Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule”, “Pour le Pays Basque”, “Lexique Français-Basque” (André Tournier'ekin) eta “Grammaire Basque”. Euskaraz: “Julien Héguy apheza”, “Ithurralden kantuak”, “Egiatzko argia” (antzegintza), “Koblakarien legea”, “Ebanjelio ttipia”, “Eskual Herriaren alde”, “Eskualdunen Loretegia”, “Hazila”, “Orratza”, “Chalbaten mertchika-ondoak”, “Murthus eta bertze”, “Georges Lacombe”, “Hil bizia”, “Atlantika-Pirene-etako sineste zaharrak”, “Pierre Topet-Etxahun”, Zuberotar koblakariaren bizitza Haritxelhar'enetik laburtua, etab. Orain, Euskalerrri'ko hizkuntza-atlasean leanean ari da Jacques Allières'ekin lankidetzan. Euskal-literaturaren historia bat ere prestatzen ari omen da euskaraz. Liburu zahar-berrien ediziñoetan eta aldizkarietan erruz lan egin du. 1967'garren urtean ezagutzera eman zigun “L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhenar”, 1665'ekoa, orain agertu berria, hitzurre eder batez.

“(E)ZA” aditz-erroaz diarduela datibotan (306-307 horriak), “Temps radicaux” izenez taula hau ematen digu Lafitte'k:

	Présent	Imperatif	Eventuel	Imparfait
Singularrean:	dieza-	bieza-	lieza-	zieza-
Pluralean:	dietza-	bietza-	lietza-	zietza-

Eta ondoren ohar hauek egiten ditu: “588. Remarques.—1. Les temps radicaux sont très souvent réduits. *Ieza* devient *eza*; *ietza* devient *etza* ou *itza*. Cela ne va pas toujours sans inconvénient. La plupart des suffixes-agents, on risque de ne pas savoir si *eman dezagun* veut dire: *donnons-le* ou *qu'il nous le donne*. Il faut donc conserver la forme *diezagun* (1) pour le second cas”.

(1) Gipuzkeraz: *dizagun*. Gu ere gauza berbera esanak gaituzu arestian. Nunbait, hone-txegatik Orixe'k asmatu zuen “dezaigun”. Ez ote zuen hobe, ordea, “diezagun” edo “dizagun” literatur-tradiziodunak erabiltzea, eskola berri bati hasiera eman gabe?

Nota.—Quelques écrivains contemporains, pour éviter l'équivoque, ont inventé des monstres comme *eman dezaukun*, dont le *u* s'explique peut-être par une fausse analogie des radicaux en *au* du verbe *ukan*. Il faut absolument bannir de tels barbarismes.

Lafitte’k salatzen dituen monstrokeriok, idazleek ala herriak asmatuak ote dira? Zeren, tankera hortakoak Luis Luziano Bonaparte Printzeak herrian jaso baitzituen Behe-Naparroa Sortaldean. Hona gure Printze maiteari estudio hontan jasotako batzuek: dezauzun, dezauki(g)un, dezauzien, zezauzun, zezauki(g)un, zezauzien, bezauzu, bezau (=bezaugu), bezauzie, etab. Gero darraikio:

“II. Les suffixes *ko* et *kote*, à lui, à eux, sont exclusivement bas-navarrais dans ce verbe (1). En labourdin, on emploie *o* et *ote*: ces suffixes, ainsi que *e*, à eux, font disparaître le *a* du radical. Ex.: *eman diezon* (diez(a)on), pour qu’il le lui donne; *eman dietzoten* ou *dietzen* (dietz(a) oten/dietz(a)en), pour qu’il le leur donne” (2).

XI

Intza’r Damaso fraide euskaltzaiñak, “Larraun eta bere euskalkia” deitu lanean (“Euskera”, 1957, 95/96 horrialdeak), Larraun’go herri-aditza estudiantuz, datiboko hirugarren pertsonari dagozkion jokuok ematen dizkigu: nezaiokek/nezaioken, dezaiokek/dezaioken, zezaiokek/zezaioken, giñezaiokek/giñezaioken, ziñezaioki/dezaiokezui, lezaioki/lezaioki. Ikus ditekenez, bi irabiakera sistema nahasirik daude hemen. Batetik dezaiokek/dezaioken/dezaiokezui, gazteleraz presenteko adizkerez itzultzen direnak (puedo, puedes, puede...) eta besteak gazteleraz “potencial simple” izenekoz itzuliko genituzkeanak (podría, podrias, podría...). Horrela, “hik egin dezaiokek” (=dizaiokek), “tu le puedes hacer” da eta “hik egin hezaioke (*hizaioke), “tu le podrias hacer”. Baiñan hemen, aditzerroa nola erabiltzen den ari gara estudiantzen soil-soilki eta dakuskegunez Larraun’en eta dirudienez Naparroa guzian “i + za” galdurik da eta datiboko hirugarren personetan “e + za” darabilte. Aita Intza’k eztu beste datibotako adizkerarik jaso. Erabiltzekotan (duda egiten baitut, zeren egunez-egun galtzen ari baitira), dezagun (=dizagun), dezazudan (=dizazudan) etab. erabilli bide direla uste dut.

(1) Ikus gure estudioko Bonaparte’reñ tauletan, Bas-Navarrais Oriental delakotan: dezakon, bezako, zezakon, dezako, balezako... eta Ibarra’ko López erretorearen dezakoola, dezakogun, dezakootela...

(2) Aurrena “diezaon”etik “diezon” egin zen eta gero “dezon” (preterituan “nezon”). Orobat potentzalean “dezoke/nezoke”. Ikus, esaterako, Iriart-Urruty, estudio honen hirugarren zatian.

Nota.—Les vieux auteurs labourdins, par une assimilation qui nous paraît pléonastique, transformaient souvent le *e* du radical en *o* devant les suffixes *o* et *ote*. Ex.: *diozon*, *diozoten*. Nous n’encouragerons pas cet usage, pas plus que le changement systématique de cet *e* en *a*, dont Axular nous donne pourtant l’exemple”. Ohar honen baitan beste jakingarri hau dakar: “*Ko* est parfois remplacé par *io*. Ex.: *dezaiola*, au lieu de *dezakola* ou *dezola*”.

Hainbestean amaitutzat jotzen ditugu Lafitte jaunak bere Gramatika ederraren 306/307 horrialdetan dakartzkien oharpen ernegarriak.

XII

Martin Harrieta (Harriet), Larresoro'ko errege-iskribau zenak, euskal-gramatika bat argitaratu zuen Baiona'n 1741'gn. urtean: "Grammatica escuaraz eta frantsez, composatua frances hitzcunca ikhasi nahi dutenen faboretan".

Harrieta'k adizkera gutxi batzuek besterik eztitu ematen "(e)za" aditz-erokoak datibotan. Bakan hauek aginkorrari dagozkio, baiñan "d" letrarekin hasiera emanaz, Lapurdi'ko usadio zaharrean. Hona hemen adizkerok Harrieta'ren liburuko 223/224'gn. horrialdetatik aterata:

Eman DIEZADAK (gip. *zaidak*), hik neri (donne moi).

Eman DIOZOK (gip. *zaiok*), hik hari (donne lui).

Eman DIEZEK (gip. *zaiek*), hik haiei (donne leur).

Eman DIEZAGUK (gip. *zaiguk*), hik guri (donne nous).

Eman DIEZADAZU (gip. *zaidazu*), zuk neri (donnez moi).

Eman DIOZUZU (gip. *zaiozu*), zuk hari (donnez lui).

Eman DIEZAGUZU (gip. *zaiguzu*), zuk guri (donnez nous).

Eman DIEZEU (gip. *zaiezu*), zuk haiei (donnez leur).

Eman DIEZADAZUE (gip. *zaidazue*); zuek neri (donnez moi).

Eman DIOZUZUE (gip. *zaiozue*), zuek hari (donnez lui).

Eman DIEZAGUZUE (gip. *zaiguzue*), zuek guri (donnez nous).

Eman DIOZUZUETE (gip. *zaiezue*), zuek haiei (donnez leur).

Oharra.—Ikus nola betetzen den hemen Lafitte'k eman legea, alegia, aditz-eroko "e" (di-e-zok, di-e-zozu, di-e-zozue), "o" bihurtzen da datiboko hirugarren pertsonatan (di-o-zok, di-o-zozu, di-o-zozue).

XIII. PIERRE D'URTE

"GRAMMAIRE CANTABRIQUE BASQUE"

(Faita par Pierre d'Urte. 1712. Manuscrit de la Bibliothèque du comte de Macclesfield. Publié pour la première fois sous les auspices de la Société Ramons. Par les soins du Rev. *Wentworth Webster*, de Sare, en grande partie aux frais de M. Antoine d'Abbadie, membre de l'Institut. Extrait du Bulletin de la Société Ramond (1896-1900). Tiré a cent exemplaires. Prix: 15 Francs. Bagnères-de-Bigorre. Imprimerie D. Bérot 1900).

Piarres Urte lapurtar idazleaz gauza gutxi dakigu. Donibane Lohitzun'en sortu zen eta kaputxino egin zen. Gero protestantismura bihurtu zen eta Ingalterra'ra ihes egin behar izan zuen. Hiru obra utzi zituen idatzirik; “Biblia Saindua”ren bi zati: “Ethorkia” (Génesis) eta “Ilkhitzea” (Exodo). Bi zatiok Dogson'ek argitaratu zituen 1894'gn. urtean Oxford'eko Unibersidadearen babesean. Bigarrena, eskuartean daukaguna da eta hirugarrena “Dictionarium Latino-Cantabricum” oraindik argitaratzeko dagoena. Badakigu Piarres Urte Donibane Lohitzun'en jaio zela eta Ingalterra'n hil, baiñan ezta-kigu jaiotza eta heriotza urterik.

Harrek (ekar)

Lapurteraz: DIEZADAN (dizaidan), neri (Il me...); DIEZAAN/DIEZANAN (dizaikan/dizaiñan), hiri (Il te...); DIOZON (dizaion), hari (Il luy...); DIEZAGUN (dizaigun), guri (Il nous...); DIEZAZUN (dizaizun), zuri (Il te...); DIEZAZUEN (dizaizuen), zuei (Il vous...); DIOZOTEN (dizaien), haiei (Il leur...). (172 horrialdea).

Harrek (ekar)

Lapurteraz: LIEZADAN (zizaidan), neri (Il me m'...); LIEZAAN/LIEZANAN (zizaikan/zizaiñan), hiri (Il te... t'...); LIOZON (zizaion), hari (Il luy...); LIEZAGUN (zizaigun), guri (Il nous...); LIEZAZUN (zizaizun), zuri (Il te... t'...); LIEZAZUEN (zizaizuen), zuei (Il vous...); LIOZOTEN (zizaien), haiei (Il leur...). (175 hor.). Badakar adizkera honen aldakera bat 82'gn. horrialdean, sujetuak nahiz “l”kin nahiz “z”kin egiñaz. Honela: ziezadan/liezadan, ziezazun/liezazun, ziozon/liozon, ziezagun/liezagun eta abar.

Harrek (ekar)

Lapurteraz: BIEZAT (bizait), neri (m'me); BIOZO/BIOZA (bizaio), hari (Luy...); BIEZAGU (bizaigu), guri (nous...); BIOZOTE/BIOZATE (bizaie) haiei (Leur...). (203 hor.) “Bizaizu” eta “bizaizute”ri dagozkien aditz jokoak falta dira (teorian “biezazu” eta “biezazue” izanen lirake). Gogoan eduki Larramendi'k eta Añibarro'k hutsune berbera dutela. Arrazoi ezkuturen bat izanen da koinzidentzia hontan.

Harrek (ekar)

Lapurteraz: BALEZAT/BALIEZAT (ba'lizait), neri (Il m'... me...); BALIEZAK/BALIEZAN (ba'lizaik/n), hiri (Il t'... te...); BALIOZO (ba'li-zαιο), hari (Il luy...); BALEZAGU/BALIEZAGU (ba'lizaigu), guri (Il nous...); BALIEZAZU (ba'lizaizu), zuri (Il t'... te...); BALIEZAZUE (ba'li-

zaizue), zuei (Il vous...); **BALIOZOTE/BALIOZATE** (ba'lizaie), haiei (Il leur...). (204/205 horrialdeak).

Harrek (ekar)

Lapurteraz: **DIEZAT/DIEZAKET** (dizaidake), neri (Il m'... me...); **DIEZAK/DIEZAN/DIEZAKEK/DIEZAKEN** (dizaikek/n), hiri (Il... te... t'...); **DIOZOKO/DIOZO/DIOZA/DIOZOKE/DIOZAKE** (dizaioke), hari (Il... luy...); **DIEZAGU/DIEZAKEGU** (dizaikegu), guri (Il... nous); **DIEZAZU/DIEZAKEZU** (dizaikezu/dizaizuke), zuri (Il... te... t'...); **DIEZAUIE (1)/DIEZAKEZUE** (dizaikezue), zuei (Il... vous...); **DIOZOTE/DIOZATE/DIOZOKETE/DIOZAKETE/DIOZOKEOTE** (dizaieke), haiei (Il... leur). (213/214 horrialdeak).

Harrek (ekar)

Lapurteraz: **ZIEZADAN/ZIEZAKEDAN** (zizaidakean), neri (Il... n'... me...); **ZIEZAAN/ZIEZANAN/ZIEZAKEAN/ZIENAKENAN** (zizaikekan/zizaikenan), hiri (Il... t'... te); **ZIOZON/ZIOZOKON/ZIOZOKEN/ZIOZOKEON/ZIOZAN** (zizaiokean), hari (Il... luy...); **ZIEZAGUN/ZIEZAKEGUN** (zizaigukean), guri (Il... nous...); **ZIEZAZUN/ZIEZAKEZUN** (zizaizukean), zuri (Il... t'... te); **ZIEZAZUEN/ZIEZAKEZUEN** (Zizaizuketen) zuei (Il... vous...); **ZIOZOTEN/ZIOZOKOTEN ZIOZOKETEN/ZIOZOKETEON** (zizaiekean), haiei (Il... leur...). (222/223 horrialdeak).

Harrek (ekar)

Lapurteraz: **BADIEZAT** (ba'dizait), neri (Il... me m'...); **BADIEZAK/BADIEZAN** (ba'dizaik/n), hiri (Il... t'... te...); **BADIOZO** (ba'dizaio), hari (Il... lui...); **BADIEZAGU** (ba'dizaigu), guri (Il... nous...); **BADIEZAZU** (ba'dizaizu), zuri (Il... t'... te...); **BADIEZAZUE** (ba'dizaizue), zuei (Il... vous...); **BADIOZOTE** (ba'dizaie), haiei (Il... leur...). (238 horrialdea).

Oharra.—Preterituko supositubian *balezat/baliezat, balezagu/baliezagu*, forma bikoteak darabilzki. Honek aditzera eman gura du, noski, “i”, datiboko ezaungarria, erortzen hasia zela garai hartan. Presenteko potentzalean, *diezat, diezak, diozak, diezagu...* tankerako adizkerak darabilzki normalen alboan, alegia, “ke” potentzial ezaungarririk gabe. Erabiltzen ote ziren ziñez Urte'ren garaian? Guk duda egiten dugu, zeren Urte baiño lehenagoko idazle zaharretan ere ezpaitugu horrelakorik ikusten. Subjuntiboko potentzalean (igaroardian), subjuntiboko forma soilak errepetitzen ditu, potentzialak bailiran. Hala nola: *ziezadan = ziezákedan, ziezáan = ziezakéan, ziozon = ziozoken, ziezágun = ziezakégun* eta abar.

(1) Zalantzarik gabe inprintako hutsegitea da, zeren, “ke” ahalmen erakusgarria kenduz **DIEZAZUE** gelditzen zaigu eta hala behar du izan, pluraleko aditz-jokotan **DIETZATZUE** agertzen baita (213 hor.).

DATOZENAK

Bigarren zatia

I. Juan Bautista Agirre Asteasukoa	632
II. Aita Krispin Beobide	636
III. Aita Agustin Kardaberatz	638
IV. Francisco Ignacio Lardizabal	640
V. Aita Mendiburu	642
VI. Jose Ignacio Gerriko	644
VII. Txirrita	646
VIII. Juan Irazusta	647
IX. Gregorio Arrue	648
X. Juan Francisco Goñi	649
XI. "Catecismo manuscrito en euskara alto navarro"	650
XII. Jose Cruz Etxeberria	651
XIII. Juan Ignacio Iztueta	654
XIV. Joakin Lizarraga Elkanokoa	655
XV. Josepe Otxoa Arineko	661
XVI. Agustin Pascual Iturriaga	662
XVII. Juan Antonio Ubillos	662
XVIII. Jose Migel Barandiaran'en Herri-Jakintza Bildumatik jasoak	663
XIX. Textos vascos del siglo XVIII, en tierra de Estella	665
XX. Iuan Beriain	669

BIGARREN ZATIA

I. JUAN BAUTISTA AGIRRE ASTEASUKOA

“JESU-CRISTOC BERE ELIZARI UTZI CIOZCAN ZAZPI SACRAMENTUEN GANEAN ERACUSALDIAC”

(Juan Bautista Agirre, Asteasu'ko Erretoreak. Tolosa'n: Andres Gorosabel'en moldetegian, 1850'garren urtean.)

J. B. Agirre (1724-1823), Asteasu'n jaio eta hil zen. 1803'gn. urtean “Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Eracusaldiac” argitaratu. 1850'gn. urtean, hil ondoren, beraz, Tolosa'ko Gorosabel'enean beste hiru “Erakusaldi” argitaratuak izan ziren: “Jesu-Cristoc bere Elizari utzi ciozcan Zazpi Sacramentuen gañean Eracusaldiac”, “Jaungoicoaren Legueco Amar Aginteen gañean Eracusaldiac” eta “Jesu-Cristo eta Virgiña chit Santaren Misterioen, eta beste cembait gaucen gañean Eracusaldiac”. Bi lehenbizikoak erabilli ditugu gure lanerako. Agirre, giputz-klasikotan on-onenetakoa dugu, ezpairik gabe.

I'GO LIBURUA

- 74. Ken ZEKIOLA erregiñari bizia (=zizaiola).
- 77. Erakutsi ZEGIEN Obispo jaunak (=zizaien).
- 110. Egin DEGIOKEAN Apaiz ez danari (=dizaiokean).
- 120-121. Begira DEGIOGUN gure animen onari (=dizaiogun).
- 127. Galde BEKIE batzuei (=bizaie).
- 191. Aita eman BEGIT etxetik dagokidana (=bizait).

210. Begiraldi bat eman DEGIEGUN (=dizaiegun).
 226. EZTAKIELA (1) eman onelakoai absuluziorik (=ez dizaiela).
 244. Utzi ZEGIDALA pakean (=zizaidala).
 248. Iges egin ez DEGIOZUN (=dizaiozun).
 254. Lagun DEGIZUEN (=dizaizuen).
 255. Alda DEGIDALA beste penitenzia batera (=dizaidala).
 273. Baimena eman ZEGION artean (=zizaion).
 316. Bestek txanda atxitu DEGIZUN beldurrez (=dizaizun).
 316. Erregu DEGIOZUEN... Jaungoikoari (=dizaiozuen).
 318. Esan DEGIOKEZU (=dizaiokezu).
 472. Senda ZEGIOLA gaixo zeukan bere morroia (=zizaiola).
 624. Galde BEGIO bakoitzak bere buruari (=bizaio).

Oharra.—74'gn. horrialdekoa pasibo-eran interpreta daiteke, hots, “Erregek agindu zuan, ken ZEKIOLA Erreginari bizia” (El rey ordenó que se le quitara la vida a la reina). Orobat 126'gn. horrialdean: “Agintzen da, ken dakiola bizia”. Pasibo eran dago ere 69'gn. horrialdean: “Jaunari nai dakiola” (que le plazca a Dios), “Dizula” eta “didala” indikatiboak ere badarabilzki subjuntiboko eginkizunean, hala nola: “*Dizula*, bada, Jauna, nere gogo onek komunioak adiña onra, eta atsegin; eta *didala* niri bear dedana”. Kasu hontan “dizula” = *eman dizazula* da eta “didala” = *eman dizaidala*.

“Erakusaldi” liburu hau arintxo bildurik dago. Honetxegatik pentsatu dugu, Agirre Asteasu'koa ongi ezagutzeko gai hontan, premiazkoa dela azterketa sakonago bat egitea. Hona, beraz, bigarren liburutik, hots, “Jaungoikoaren Legeko” erakusaldietatik jasotakoak:

3. Aditzera eman GIOZKATZU nere erriari (=zaizkiozu); 4'garrenean berdin; eman GIOZKATZU eskerrak egiñ dizkitzun mesede guziak gatik (273). Oharra: Adizkera osoa “egiozkatzu” litzake.

5. Agindu zion, esan ZEGIELA, prest arkitzen zala, Israeldarrak bere jendetzat berezkiro artzeko (=zizaiela).

6. Esan GIEZU, garbi ditzeela (ditzatela) beren soñekoak (=zaiezu); ongi begira GIEZU, Kristaua, bigarren aginteak debekatzen dizkigun gauz oei (37); aita barka GIEZU, ez dakie alabaña zer egiten duen (107); jaten eman GIEZU ongi, eta emango dizue nai dezun eznea (185); galde GIEZU, nere Kristaua, gizon zintzo, eta adituai (192); Utz GIEZU bada kezka oriei (288). Adizkera osoa: EGIEZU.

6. Mendiaren inguruan siñalatu GIEZTETZU muga batzuek, eta ez dira oetatik igaroko (=zaizkiezu).

(1) “Eztaquiela” idatzirik. Beraz: *ez dakiela* eta, apika, inprentako hutsez, “ez dagiela” ere izan daiteke.

7. Goizean esango dezu: nork eman LEGIKEDAN arratsaldea, eta arratsaldean esango dezu: nork eman LEGIKEDAN goiza iristea (=lizaidakean); nork eman LEGIKEDAN, Jauna, infernuan ezkutaturik egotea zure asarrea igaro dediñ artean? (461).

18. Eskeñi BEGIO bere biotza (=bizaio).

28. Gorde DEGIOGUN dagokan begiramentua (=dizaioGUN). Adizke-ra hau nun nahi darabil: Eskatu DEGIOGUN (86); egin DEGIOGUN (90); begira DEGIOGUN (261); jarraitu DEGIOGUN (271), 283, 401, 408, 421 etab.

44. Eman ZEGION zegokan kastigua (=zizaion); Ainbesteraño oña-zeak, eta egarriak estutzen zuen, non otsegiten zion Abrahani, bidal zezala arren Lazaro, urtan beatza bustirik, mingaña eza ZEGION piska bat (497).

63. Zuk alaere ezin bere aurpegira eranzun DEGIOKEZU gurasoari orrelako gauzarik (=dizaiokezu); Sagararen urrena esan DEGIOKEZU Jesus onari (247); opa izan DEGIOKEZU (445).

74. Begira ZAYOZU olla-kolka bati (=zaiozu); eska ZAYOZU Jaunari (95); Izan ZAYOZU Birjiña txit Santari jayera andi bat (135); Biur ZAYOZU jabeari bere gauza (176); ager ZAYOZU, bera zure biotzean artzeko, nai bero, eta egarri andi bat (247); Eska ZAYOZU Espiritu Santuari bere lagunza (273); 335, 367, 459, 501.

94. Emakumea, utzi GIDAZU pakean (egidazu=zaidazu); Jauna barka GIDAZU (111); Esan GIDAZU, Kristaua (309); Esan GIDAZU oraiñ (318); Esan GIDAZU, Kristaua.

100. Eragin ez DEGIOZUN len gogora etzayon gauz okerren bat (=dizaiozun).

102. Barka GIOZKATZUE elkarri oraindañoko utsegiteak (=zaizkioze); Guziaren eskerrak eman GIOZKATZUE Jaunari (235).

111. Nik esaten dizuet, egin DEGIEZUELA al dezuen ongia gorrotatu zaituenai ere (=dizaiezuela).

111. Barka ZAIKIGUTZU gure zorrak (=zaizkiguzu).

122. Itzegin GIOZU baten, edo biren aurrean (egiozu=zaiozu); aditzera eman GIOZU bekatariaren gañean agintea duanari (122); itzegin GIOZU (123); Birjiña txit Santari izan GIOZU jayera andi bat (147); Aditzera eman GIOZU bada arzayari (335).

125. Jauna, esaten zion, barka GIZKIDATZU, nere lagun urkoak nigatik egin dituen bekatuak (=zaizkidazu).

141. Ez da bekatu, oartuta borondateak leku eman DEGION artean (=dizaion).

146. Baña esan ZADAZU (=zaidazu); esan ZADAZU oraiñ (243); esan ZADAZU, Kristaua (263); esan ZADAZU oraiñ (315); esan ZADAZU, eskerbagea (461); esan ZADAZU, bekataria (497).

169. Atera BEGIT berorrek (=bizait).

192. Ez DEGIOZULA irabaziaren aitzakian dirurik eman (=dizaiozula).

192. Etzaitzela gauz oetan urduritua izan, baizik galde ZAYEZU gizon adituai, zer bekatu gabe egin dezakezun (=zaiezu); galde ZAYEZU jakintsuai (279); Begira ZAYEZU eskerbagea, nere eskuai, oñai, eta sayetsari (460).

193. Ezin eman DAGIKEO Eliz lurrik (=dizaioke). Hemen ordea ez luke aktiboko adizkera erabilli behar, pasibokoa baizik: DAKIOKE (1).

245. Eman DEGIDAZUN, Zerurako bidean bear, eta on izango dedan guzia (=dizaidazun).

249. Esan ZADAZUE, nere Kristaubak (=zaidazue).

269. Agindu zuan gañera, ekarri ZEGIOELA karidadearen eratzuna (=zizaiotela); eman ZEGIOELA eratzuna (312); ekarri ZEGIOELA leneko janziera (501); ipiñi ZEGIOELA eratzuna; ekarri ZEGIOELA Jauna Erlijioso ari (509).

282. Eman DEGIOLA Jaunak ordaña (=dizaiola).

292. Niri eman dizkidan egunak eman DEGIOZKALA Jaunak berari ere (=dizaizkiola); ez DEGIOZKALA konfesatu Apaiz ez danari (343).

330. Eman DEGIKEOLA absoluzioa (=dizaiokeala/dizaiokeala).

344. Alaere etziran Kristaurik geyenak zentzatu, eta agindu zuan berriz Elizak, gaitzaren eta onaren ezagueran sartutako Kristau guziak aitortu DEGIOZKEELA beren bekatu guziak urtean beñ bederik barkatzeko eskua duan Apaizari (=dizaizkioketela).

363. Agindu zuan Gobernariak, eman ZEGIOZKALA emakumeari amar dukat (=zizaizkiola).

363. Ken ZAYOK ere dirua (=zaiok).

363. Biur ZEGIOLA gizonari eman zion dirua (=zizaiola); erregutu zion Jaunari, aditzera eman ZEGIOLA Dabidek itz aetan zionaren ezaguera (508).

399. Iritsi DEGIDAZULA zure Seme Jaunagandik (=dizaidazula).

400. Begira DEGIEGUN gure bide, eta ibillerai (=dizaiegun); berdin-berdin 408, 420, 421... horrialdetan.

(1) Orobat 446'an: *Norinai gogora etorri DAGIKEO zerbait*. Kasu hontan ere pasiboko DAKIKEO edo DAKIOKE erabilli behar zukean. Barkagarri bekio nahaste errez hau.

446. Jainkoak barka DEGIDALA (=dizaidala).

468. Españako Errege Felipe bigarrenak agindu zuan, etzezala iñork ere esan, ez kantatu itz desonestorik, ez gauaz, ez egunaz, kale, plaza, eta bideetan: eta aginte au autsitzen zuanari eman ZEGIZKIOLA eun azote, eta bota zedilla erritik (=zizaizkiola). Hemen ere, gure Agirre'k pasiboan erabilli behar zukean aktiboaren orde, urrengo "zedilla" adizkera pasiboan erabillia dagoen bezalaxe. Honela beraz: "eman ZEKIZKIOLA eun azote eta bota zedilla erritik" (que se le dieran cien azotes y que se le expulsara del pueblo). Bestela, biak aktiboan: "eman *zegizkiola* (=zizaizkiola) eun azote eta bota *zetatela* erritik".

Oharra.—Ikus dezakegunez, Agirre'k, bere Erakusaldien bigarren liburu hontan, eskuarki EGI aditz-erroa darabilkigu (aginkorreko bigarren pertsonetan GI soilki). Pasiboko adizkera batzuek ere ba-darabilzki, hutsegitez, aktiboaren orde, baiñan hala ere esango nuke gure Asteasuarra Gipuzkoa'ko klasikotan erregularrenetakoa dugula. ZA aditzerroa aginkorreko bigarren pertsonetan bakarrik darabil, GI'rekin nahas-mahas, batean bat, bestean beste.

II. AITA KRISPIN BEOBIDE (ANTXIKOTARRA)

"ASIS-CO LORIA"

(Francisco Santu aundiaren eta pobrien Aita-lenaren bicitza, bere seme Beovide-co Aita Fr. Crispinec izcibitua. Tolosan, Francisco Muguerza-ren moldiztegiuan, 1885'an.)

Aita Beobide (1848-1891) Azpeitiarra zen. Antxikotarren anaiartean sarturik, hamar urte Donaphaleu'n egin zituen. 1875'garren urtean Tolosa'ra aldatu zen eta handik laister Zarautz'a. Aipatutako urtean apaiz ordenatu zen Gastehiz'en. 1884'garren urtean berriz ere Tolosa'ko Anaietxean genduen eta hemen argitaratu zuen "Asis-co Loria". Tolosa'n hil zen 43 urte zituela. Guk "Auspoa"ren ediziñoa erabilli dugu (1966).

15. NENTZAKIO eskañi liburutxo au (=nizaioke).

30. Beste bizitza obe bati ekin ZEKION (=zizaion); barka ZEKION (155); eman ZEKION (314).

56. Santuak azaldu ZEKIOLA bere gogo edo naia (=zizaiola); eman ZEKIOLA (169); begira ZEKIOLA (183).

46. Nola utzi ZEIOKION artu zuan bizitzari (=zizaiokean). *Zegiokean* edo *zekiokean* bihurriturik da noski.

48. Agindu zuan ekarri ZEIOTELA zerbait (=zizaiotela). Ikus adibide gehiago horrialdeotan: irten ZEIOTELA (223); izan ZEIOTELA (247); eska ZEIOTELA (248); ebaki ZEIOTELA (249); eman ZEIOTELA (252); izendatu ZEIOTELA (268); izan ZEIOTELA (360); eman ZEIOTELA (377); izan ZEIOTELA (391); irakurri ZEIOTELA (394).

244. Ekin ZEIOTEN berriro gogotik (=zizaioten).

57. Eman DEIZUTELA Jaunak bere pake santua (=dizaizutela); eman DEIZUTELA (62); erakutsi DEIZUTELA (393).

58. Deitu GINIOKE emendik aurrera gure Aita-len Santuaren bizitzaren zati oni bere agiriko bizitza (=genizaioke); jarrai GINIOKE onen aztarnai (184).

60. Baldin norbaitek nai badu nere ondoren etorri, uka DEIOLA bere naiari, ar-dezala gogo onez bere gurutzia ta darraitela (=dizaiola). Ez DEIOLA gure biotzak diruari begia argitu (67); galde DEIOLA (99); agindu DEIOLA Eliasi (237).

67. Zeruko desneke betikuak, aztu azi DIZKIGULA lurreko neke laburrak (=dizaizkigula).

73. Jesukristok azaldu DEIGUN bere gogoia (=dizaigun).

244. Eman DEIGULA baimena (=dizaigula).

79. Eskatu DEIOGUN erri inguruko elizatzko bat (=dizaioGUN). Jarrai DEIOGUN (117); lanari ekin DEIOGUN (162); izan DEIOGUN (346).

79. Ez ba'LIZAIGUKE eman (=lizaiguke).

82. Zer gauza obiagorik eskain GENTZAIEGUKE (=genizaieguke).

84. ETZEIOLA esan ñori (=zizaiola). Utzi ZEIOLA predikatzen (143); esan ZEIOLA (197); lagun ZEIOLA, arren (291); eraman ZEIOLA ogi pixka bat (351).

359. Oñazpiko iltziaren punta kakotuak ETZEION min eman (=zizaion).

99. Biali DEITALA Jaungoikuaren erantzuera (=dizaidala). Ez DEITALA eskerrik eman (377).

111. Luziago izkiribitu ZEIELA (=zizaiela). Esan ZEIELA aldegin zezatela (148); erakutsi ZEIELA bere jakinduri ura (327).

118. Egin BEZAIIO orazio Jaungoikoari (=bizaio).

126. Nik zer NEIKIOT, jauna, eman? (=nizaioke).

146. Nik ezin NEIOKET onela bidiari jarrai (=nizaioke).

154. Aita, eman BIZAIT nai duan penitentzia (nere aitak bezala).

176. Jauna, utzi BIZAT esaten (=bizait).

185. Ken ZIOZKATELA arabakiak (=zizaizkiotela).

198. Gurutzeko erotasunari jarrai DEIOTAN (=dizaiodan).

198. DEIOTELA begiratu (=dizaioleta).

205. Artu duten bizierari jarrai DEIOTEN (=dizaioleten). Lagundu DEIOTEN (222).

237. Asi zan gogoratzen (Elias) nola egokiena erantzun al ZAIOKIAN galdera aieri (=zizaiekean).

253. Jaungoikuak barka DEIZULA (=dizaizula). Barka DEIZULA (358).

276. Galde ZITZAIKION Franziskori (=zizaiekean).

321. Ez DEIOZULA emendik aurrera ifñori egin kalterik (=dizaiozula).
 332. Zenbat lagundu NEIOKIAN (=nizaiokean).

Oharra.—Dakuskegunez, Crispin Beobide'k ere eskuarki *-egi-* aditz-gunera jotzen du, bere bizigaraian Gipuzkoa'n zabalduena zegoena. Hiru kasotan jotzen du *-za-*'ra: *bezaio*, *bizait* eta *bizat*. Beste batzuek berriz esango nuke gutxi-gora-behera eratuak direla, belarriak kaso bakoitzean agindu-ala, aditz-erakunde normetara lotu gabe. Esaterako: *nentzakio*, *zeiokion*, *ginoike*, *neikiot*, *neioket*, *ziozkatela*, *zaiokian*, eta *ziztaikion*.

III. AITA AGUSTIN KARDABERATZ

(1) "AMA VENERAGARRI JOSEFA"

(Sacramentu guziz santuarena ceritzanaren bicitza eta birtuteac. Aita Agustin Cardaveraz-ec Loyolaco eche santuban animen oneraco euzcaraz ipiñia. Tolosan: Eusebio Eusebio Lopez-en moldizteguien, 1903-garren urtean).

A. Agustin Kardaberatz (1703-1770), Ernani'n jaiotzen zen. Jesu'en Lagunartean 1721'ean sartu eta 1729'an apaiztu. Bilbao'n eta Oñate'n urte batzuek egin ondoren, Loyola'ra aldatu zen 1736'an. 1767'an, Jesu-Lagunen jaurtikitzea zela-ta, haur herbestetuok Aita-Santuaren Legerrietan babesa aurkitu zuten. Kardaberatz, Bolonia ondoko herri txipi batean egon zen hil arteraifño. Ez ditzakegu hemen aipa haren obrak, 14 baitira, Villasante'ren Euskal-Literatura liburuan ikus ditekenez. Gure lanerako erabilgarri ditugunak hoetxeak dira: "Ama Veneragarri Josefa", bigarren ediziñoa (lehendabizikoa 1882'an egin zen Tolosa'n), "Senar emazte santuac" eta "Aita San Ignacioren egercicioen gañean".

20. Lo egiteko leku edo oitxo bat egin ZIOZALA (=zizaiola). Bere aitari, arren, lagun ZIOZALA (66); duda artatik libratzeko jarren! bereala eranzun ZIOZALA (74); eska ZIOZALA (122); kordegabetze artarako zer bide izan zuen esan ZIOZALA (139); errierta eman ZIOZALA (171); indarra eman ZIOZALA (176); eska ZIOZALA Jainkoari (203); orazioa ondo egiteko ikasbidea eska ZIOZALA (227); osasuna Jaunari eska ZIOZALA (241).

132. Josefak erregutu zion jarren! egin ZEGIOLA karidade (=zizaiola); eman ZEGIOLA aditzera (184); utzi ZEGIOLA... gurutze bat (198).

91. Larga BEGIO (=bizaiola).

105. Emen infernuko atea zabalik ikusiko banu ere, amore itsusi onen indarrari ezin gañ artu NIZAYOKE (=nizaioke); uste dezu ezin erregu NIZAYOKEALA nik nere Aitari (375).

137. Tormentu aiek eskañi ZEKIOZKALA Ama Birjiñari (=zizaiokiala).

162. Oek lagun ZEGIOTEN fundazioan Ama Maria Teresa Gurutzekoari (=zizaioten); utzi ZEGIOTELA (195).

164. Egin BEGIT ez nadilla il (=bizait).

181. Eman BEGIOZKA eskerrak Jainkoari (=bizaizkio).

194. Agindu NEGIOLA etsaiari gure Jaunaren izenean (=nizaiola).

204. Eman ZAYOZKAGUN eskerrak (=dizaizkiogun).
272. Jainkoak guziori bere grazia DIGULA (=eman dizaigula).
276. Ez BIZAYE eman errosariorik (=bizaie). Erreza-erazi BIZAYE Aitagurea (276).
283. Jarraitu DEIZUDAN (=dizaizudan). Esan DEIZUDAN (351).
286. Eman ZADAZULA (=zaidazula).
286. Begira GIDAZULA (=zaidazula).
288. Kanta DEGIZUDAN (=dizaizudan).
289. Eman DEGIDAZULA (=dizaidazula); piztu DEGIDAZULA (295); iri-txi DEGIDAZULA (362); DEGIDAZULA, indarra (288).
308. Beldur izan DEYODAN (=dizaiodan).
325. Gurutzea eramaten lagundu ZEYON (=zizaion).
334. Eman DIZAYOLA amoriyo andi bat (=dizaiola).
341. Iritsi DIDAZULA eskatzen dizudan graziya (=dizaidazula).
351. Konserba DIZADAZULA nere pekatuben damuba (=dizaidazula).
364. Idiki DEGIGULA iritsi nai gendukean zerurako bidea (=dizaigula).
380. Zeñ nai dezute askatu DIZAZUTEDAN, Barrabas, edo Jesu-Cristo deitzen dana? (=dizaizutedan).
386. Jendeari esan ez DIZAYOTEN (=dizaioten).

(2) “SENAR EMAZTE SANTUAC”

(Necazari ezcondu, ta befte guciac, lurrean ceruco bicitza eguiteco Ifpillu eder biciac: S. Ifidro Achurlari, ta bere Emazte Santa Mariaren Bicitza. Jefuf-en Compañiaco Aita Aguftin Cardaberaz-ec emanac. 1766.en. Iruñean: Antonio Caftillaren Echean.)

26. Jaunari eska DIOZAGUN (=dizaioGUN), gure semea bizirik DIGULA (=eman dizaigula).
75. Jainkoari eska DIOZAGUN (=dizaioGUN), biderik onena, bere enemigoen kontra erakutsi DIEZAGULA (=dizaigula).
86-87. S. Isidro milagrosoari biotzetik deitu, ta ermedioa eska ZIOZALA (=zizaioLA).

(3) “AITA SAN IGNACIOREN EGERCICIOEN GANEAN”

(Orien lau asteetaco meditacio laburrac edo egercicioen lau-garren partea. Jesusen Compañiaco Aita Agustin Cardaberazec animen oneraco emanac. Tolosan: D. Francisco de la Lama-rén Echean). Eztu urtea ipintzen.

42. Nere konzienziari galdetu nai diot, ta esan DIZADALA: Jainkoak zertako nauka mundu onetan? (=dizaidala).

50. Lagun ZAGUZU arren (=zaiguzu). Ori beti eska ZAIOSU (55). Lagundu ZAIESU (59). Erakarri ZAGUZUTE (65-66). Kosta ZATZU (110).

61. Jainkoari eman DIOZAGUN (=dizaigun).

Oharra: Bi azken liburutan *-za-* aditz-guna darabil soilki, zalantzarik gabe bere Ernani'ko hizkuntzari zegokiona. Lehendabizikoan ostera, ezagun du Azpeiti-Azkoitietako hizkeraren eragiña. Izan ere ba-dirudi aldi hartan *-za-* aditz-guna osotoro kontserbatzen zela datiboko adizkeretan Ernani'ko ballaran, eta Loyola'ko ibarrean berriz, orduko zeharo edo ia zeharo galdua zegoen.

IV. FRANCISCO IGNACIO LARDIZABAL

“TESTAMENTU ZAR TA BERRICO CONDAIRA”

(Munduaren asieratic Jesucristo-ren Ebanjelioa Apostoluac erakutsi zuten arteañoco berri, Escritura Santutic atera ta, euskeraz Apaiz Francisco Ignacio Lardizabal Zaldibico Beneficiaduac len ipiñi, eta Orkaiztegui-ko Patricio Antonio apaizak zuzenduta orain berriro argitaratzen diranak. Tolosan: Eusebio López, liburuguillearen echean 1908-garren urtean.)

F. I. Lardizabal (1806-1855) Zaldibia'n jaiotako eta hil zen. Lehen ikaskizunak Lazkano'ko karmelitan egin zituen, Burgos'en jarraitu eta Madrillen bukatu. Apaiztu zelarik, bere herriko erretore eta benefiziatu izendatu zuten. Kolera-morboz hil zen, izurrite honek 1855 garren urtean Gipuzkoa-zear egin zuen erasoan.

34. Begira BEKIO (=bizaio). Eman BEKIO (266).

46. Bedeinkapena eman DIZADAZUN (=dizaidazun). Esan DIZADAZUN (230).

47. Ogia ta ardoa ugari eman DITZAIKIZULA (=dizaizkizula).

50. Zor zayen begirune guzia gorde DIZAYEGUN (=dizaiegun); agindu DIZAYEGUN (613).

69. Agindu zuen eraman ZIZAYOTELA (=zizaiotela); dirua ere itzuli ZIZAYOTELA (75-76); Jainkoari gogoz eskatu ZIZAYOTELA (406).

138. Jende guziari irakurri ZITZAYOTELA (=zizaiotela); lagun ZITZAYOTELA (149); bere oyarekin eraman ZITZAYOTELA (214); eskubide ura eman ZITZAYOTELA (622).

76. Bidari oyek itzegin ZIZAYOTEN baño lenago (=zizaioten).

139. Jainkoari bakarrik zor zayon agur-ona Israel-tarrak eman ETZITZAIOTEN (=ez zizaioten); naspil artan zerbait egin ZITZAIOTEN bildurrez (655).

77. Nori bere dirua isillik zakura itzuli ZIZAYOLA (=zizaiola); nagusiaren izena ipiñi ZITZAYOLA (125); eskatu ZIZAYOLA (405); berri-eman ZIZAYOLA (542).

242. David-ek Joab-i gatzigatu zion... Urias bialdu ZITZAYOLA (=zizaiola); auzian lagundu ZITZAYOLA (320); erregeri aginderazo ZITZAYOLA (407); plate-
ra batean eman ZITZAYOLA (507); baimena eman ZITZAYOLA (661).

152. Etsayari arpegi eman ZIZAYON (=zizaion); iñork txarkeririk egin ETZI-
ZAYON (386).

80. Aita bere aide guziakin erakarri zezala, ta bear zuten zer-jan guzia berak
eman ZIELA (=zizaiela).

85. Faraon-ek gizonari gogoak eman al-DIZAYOKEAN asmorik gaitzoena
artu zuen (=dizaiokean). Zure nayari gogor egin DIZAYOKEANIK (406).

77. Gizon ayei zerraikiela eta esan ZITZAYELA (=zizaiela); eraso ZITZAYE-
LA (234); iragarri ZITZAYELA (608); itzezin ZITZAYELA (641).

435. Auzoak zer egiñik eman ETZIZAYEN (=ez zizaien); utsegiña barkatu
ZIZAYEN (440).

685. Ezpata bularrean ipiñi zioten, zeukana eman ZITZAYEN (=zizaien).

78. Zer erantzun DIZAYOKEGU gure Jaunari? (=dizaiokegu). Zer ordain
eman DIZAYOKEGU (368).

86. Nik billatu DIZAZUDAN iñude bat (=dizaizudan), Zugandik alde egin
baño lenago egin DIZAZUDAN (297-298); nik egin DIZAZUDAN (539).

89. Baso mortuan ofrendak egin DIZAZKIDAN (=dizaizkidan).

98. Jaunari kantatu DIZAYOGUN (=dizaiogun); eskeñi DIZAYOGUN
(368); errukimentua eskatu DIZAYOGUN (372); lanbide oni utzi DIZAYOGUN
(459).

149. Bost Errege ayen indarra ezin gogor egin ZIZAYEKETELA (=zizaieke-
tela).

202. Senar on batzuek eratu DIZAIZKITZUTELA (=dizaizkizutela).

204. Iñork ezer egin ez DIZAZUN (=dizaizun).

244. Jainkoak barka DAGIDALA (=dizaidala).

267. Zurgin edo arotzak ere bialdu ZITZAYOZKALA (=zizaizkiola).

317. Jaunari barkaziyoa eskatu BIZAYO (=bizaio); agiria eman BIZAYO
(485); arria bota BIZAYO (526).

324. Zuen ergelkeria aintzakotzat artu ez DIZAZUTEDAN (=dizaizutedan).

377. Josias-i etzeritzan utzi ZIZAYOKEALA (=zizaiokeala).

387. Iñork ezin igerri ZIZAYOKEAN eran (=zizaiokean).

556-557. Iñori gogoak ere eman ezin ZITZAYOKEAN miraria egitera zijoan
(=zizaiokean).

558. Besterik ezin egin ba ZITZAYOKEAN ere (=zizaiokean).

667. Nai zuena egiteko eskubidea eman ZITZAYOKEALA (=zizaiokeala).

433. Arpegi eman DIZAYEKEGU (=dizaiekegu).

498. Uste al dezute, nik on ori egin DIZAZUTEKEALA? (=dizaizutekeala).

511. Nola eman DIZAGUKE onek jaten bere aragia? (=dizaiguke).
528. Gelan sartzen danean esan ez DIZAZUN (=dizaizun).
528. Ez DIZAYEZULA deitu zure adiskideai (=dizaiezula); Bekatu au aintzat ez DIZAYEZULA arren artu (620).
532. Esan DIZAYEN emen zer gertatzen dan (=dizaien).
532. Moises ta Igarleak badituzte... aditu BIZAYETE (=bizaiete).
563. Aitari eskatu ezin DIZAYOKEDALA (=dizaiokedala).
577. Zer bildur eman DIZAYEKEAN (=dizaiekean).
586. Eskerrak eman DIZAIKAGUN (=dizaizkiogun).
589. Jendeari esan ez DIZAYOTEN (=dizaioten).
592. Gauza bat beste iruditu ZIZAYOKEAN bildurrez (=zizaiokean).
623. Nik nola igerri DEZAYOKET, nork erakutsi ez badet? (=dizaioket).
683. Ainbeste jenderekin batetik, eta elkarren arteko eguneroko auziyakin bes-tetik, igerri DIOKEGU erri itxi bat nola arkituko zan (=dizaiokegu).

Oharra.—Dakusagunez, Lardizabal'ek *-(e)za-* adizkuna darabil: *di-za-dazun*, *di-za-iegun*, *zi-za-iola*, etab. Halabaiña, tarteka-marteka lege hau urratzen du beste formak erabilliz. Esate-rako, pasiboko *bekio*, *bizaio*'ren ordez. "Za" aditz-guna "tza" bihurtzen du zenbaitetan: *zi-tzaiotela*, *zitzaiola*, *zitzaiela*, etab. Behin, indikatiboko *ziela* darabil (80) *zizaiela*'ren ordez, beste behin *dizazkitzutela*, bere sistemako *dizazkitzutela*'ren tokian. Halaber, *dezaioket* (=dizaioket) eta *diokegu* (=dizaiokegu). Ikus bere "Gramática Vascongada"n darabilzkien aditz-jokoak. Denak edo ia denak normalizatuak dira "i" datiboaz eta "za" adizkunaz baliatuz (d-i-za-da-zu-n).

V. AITA MENDIBURU

"JESUSEN AMORE-NEKEEI DAGOZTEN ZENBAIT OTOITZ-GAI"

(Jesusen Konpañiko A. Sebastian Mendiburuk eguiñak. Bigarren liburua. Tolosa-sako liburuguille Eusebio López-en Echean, 1904-gn. urtean).

A. Sebastian Mendiburu (1707-1782), Oiartzuarra zen. 1725'gn. urtean Jesusen Lagunartean sarturik dakusagu eta ikaskizunak amaituta, Iruñean egin zuen kabi. Hemen hogeitamar urte egin zuen predikutan eta misiotan Naparroa'ko euskal-herrietan zear. Iruñean euskara hizkuntza bizi zen garai hartan, San Zernin deritzan elizan sermoi egiten zuen gure mintzairan. Bere egontokia, Loyola-alditxo batez landara, Iruñea izan zen eta bizitza guzia Jesusen Bihotzaganako jaiera zabaltzen jardun zen. Bere etorriagatik Cicerón euskalduna deitua izan zen. Jesuitak jaurtikitzean, Italia'ra jo behar izan zuen eta Bolonia'n hil zen 1782'gn. urtean. Aita Mendiburu'ren obrarik hotsandikoena da hau. Lehendabiziko ediziñoa Iruñean egin zen 1759-1760 urtetan. Gu, Tolosa'n, hiru tomotan egindako argitarapenez baliatu gara (II'gn. tomuia).

40. Aitari ofrend au eraman ZEZOKEN apaizik? (= zizaiokean). Ezin egin ZEZOKEN ezer etsaiak Job Santuari (390).

84. Otrontze guzietan ken DEZOKEGU (= dizaiokegu) zer edo zer (geren buruari).

24. Bertatik ken DIEZADAN (nere oben-kulpa guzien kargatzar astuna) (= Dizaidan).

158. Jaungoikoari erran DEZOKEZUNA (= dizaiokezuna).

159. Jaungoiko maiteak DIZULA... laguntza (= eman dizaizula).

178. Begira DEZOLA bere prestutasunari (= dizaiola); ken DEZOLA bere biotzeko tristura (352).

178. Erakus DIEZATELA beren bekatu beltz arrigarrien itsustasuna (= dizaie-tela).

291. Orobat gertatzen zaie lurreko erregei ere; bada oriek ere beste edozein lekutan baño naiago dute, eska DAKIEN, eman nai dutena (= dizaien).

227. Ori oriei eragiten dienak (naiz eragin DAKIELA bortxaz bezala, edo beren gogo gaistoaren, edo makurren kontra) egiten dute... (= dizaiela).

180. Jaun berak DIDALA, ... argia, indarra, ta laguntza (= eman dizaidala). DIDALA bada: bai arren, bai! (181). Jesus maitagarriak DIDALA (193). Ala DIDALA berak...anitz grazia (194). Nere Jaungoiko berak DIDALA (506).

181. Niri DIDAN nere Jaungoiko maitagarriak (= eman dizaidan).

204. Erantzun DEZOTEN oni (= dizaioten); galerazi ez DEZOTEN (233); ubeldeak galerazi ez DEZOTEN onzi berari (296); nastu oi die anitz beren burua, egin DEZOTEN ez-aditu (306); bizia kendu DEZOTEN (329).

277. Ken DEZOTELA Lazaroren gorputz illari gañeko bere arria (= dizaiote-la); lagun-egin DEZOTELA (280); erditsi DEZOTELA... ones-damu bizi bero bat (280); erditsi DEZOTELA izu-damua (280); ez DEZOTELA gaungero eman (471).

280. Eska DEZOKE au (= dizaioke).

224. Eska DEZODAN nere Jaungoiko maitagarriari (= dizaiodan).

308. Ikasi bearko du mediku beragandik zer gauzak utzi, gaitzik egin ez DEZAIOTEN (= dizaioten).

313. Egin DETZOKALA bekatariari gure Jaungoiko maitagarriak, nai adiña oju ta dei (= dizaizkiola).

364. Ken EZADAZU (= zaidazu) zuk nere kaliz latz edo edari miñ au; ta INDAZU (= eman zaidazu) beste bideren bat, munduko gaistoen zorrak nik ateratzeko.

375. Errazago eragin DEZADATEN niri (= dizaidaten).

400. Ezin garbi ZENEZOKE zuek zerok zeren esku leun-zuri-ederrekin? (= *zenizaioke*, baiñan ez “zuk”, “zuek” baizik, hots, gaurko *zenizaioke*te).

404. Jaungoikoak barka DITZAKIDALA guzi guziak niri (= dizaizkidala).

414. Beren buruei galdegin gaistoak begira ZEZOTEN (= zizaioten). Jesusi ken ZEZOTEN... bere bizitza (457).

416. Ken ZEZON... bere bizia (= zizaion); kenerazi ZEZON Pilatosek (417); eman ZEZON zegokan sententzia (447).
422. Orra Satanasek gizon bati, ... eragin DEZOKENA (= dizaiokena). Au berau erran DEZOKE Aita berari Jesusek gaur ere (424).
424. Eskatzen ziozkan gauzak eman ZETZAZKON (= zizaizkion).
473. Barka DAGIEZUN zuk bekatari gaisoei (= dizaiezun).
480. Erran BEKIE bataiatu geienei, entzun dezatela egun-oroko beren meza (= bizaie).
491. Zer erran DEZOKET nik bekatari txar zentzu gutizko eskergabeak? (= dizaioket).
492. Ken EGIOZUE lenbaitlen (= zaiozue).
509. Begira EGIOZU, bada, bein ta berriz (= zaiozu).
509. Begira DEZOZULA zuk (= dizaiozula).
510. Ez DEZUZUTELA kendu zuek zeren Errege Mesiasi (= dizaiozuela).

Oharra.—Dakusagunez, Mendiburu'k *-eza-* aditz-guna darabil eskuarki, galdurik duten datibo-ezaungarria bi aditz-jokotan agertzen zaigularik: *ken diezadan* (d-i-eza-da-n) (124) eta *erakus diezatela* (d-i-eza-te-la) (178). “Dezoten” laburtuaren orde, behin “dezaioten” darabil, jatorriz “diezaioten”. Lapurdi'n “diozaten” edo “dezoten”. *Dakien, dakiela, bekie*, pasiboko formak ere tarteka ba-darabilzki aktibokoan orde. “Egi” sustraidun aditzak ere bai noizik behin, *dagiezun, egiozu, egiozue*, bezala. Baita ere *idan/didala* tankerako subjuntibo zaharretik gelditzen zaizkigun aztarrenak, seguru aski *idazu/indazu* aginkorraren sail berekoak. Baita ere agertzen zaigu aditz-joko bat, *ziezazun* (1), soñekoz subjuntibo dena, baiñan zentzuz indikatiboa: “Oroitze onek eragin *ziezazun* (= zizun) zuzen ta bear bezala egiten zenuen zere lana edo gauza?” (59 hor.). “Zenuen” aditz-jokoa baztertuz ulerkorrage egiten zaigu esaera hau. Gogoan eduki aurreko galderak ere indikatiboan daudela: “Egiten zenituen” (bi aldiz), “oroi-tzen ziñan”.

VI. JOSE IGNACIO GERRIKO

“CRISTAU DOCTRINA GUZTIAREN ESPLICACIOAREN SAYAQUERA”

(Euscarazco platica edo doctriñetan partituric, Don José Ignacio de Guerrero, Mutiloaco beneficiaduac eguiña. Iruñeco obispo jaunaren baimenarequin. Bigarren liburua edo tomoa. Tolosan: Mendizabalen alargunaren moldizteguián, 1858 garren urtean).

J. I. Gerricko (1740-1824), Segura'n jaió zen, nahiz-ta jatorriz Mutiloarra izan. Gazte zelarik Madrillera joan zen bere osaba batekin. Han Filosofia eta Teologia estudiatu zuen. 1762'an, hutsik gelditu zelarik Mutiloa'ko elizako benefiziadutza,

(1) Zatikatu: z-i-eza-zu-n, -eza- duelarik adizkuna. Gaurko indikatiboak adizkuna deuzeturik ditu: z-i-zu-n.

Gerriko'k Gipuzkoa'ko bidea hartu zuen, apaiz egin zen eta kargu horren jabe egiñik, hil arteraiñokoa eduki zuen. Hemen, bere obra bakarraren bigarren tomoaz baliatu gara.

6. Jaungoikoak arren argitu ditzala eta erremediatzeko indarra DIELA (= eman dizaiela).

12. Erregutu DEGIOGUN guziok Ama Birjiñari (= dizaiogun). Eskatu DEGIOGUN... Maria Birjiña guztiz miragarriari (21); begiratu DEGIOGUN mundu onetan (37); eskerrak eman DEGIOGUN (95); eskatu DEGIOGUN... Jaungoikoari (154); erregutu DEGIOGUN guziok Jaungoikoari (165); eman DEGIOGUN... eskerrak (168); Jarraitu DEGIOGUN... Jesu-Kristoren umiltasanari (186).

12. Iritsi DEGIGULA Espiritu Santuaren argia (= dizaigula).

53. Indarra eta grazia arren eman DEGIZUELA (= dizaizutela); eman DEGI-ZUELA zuen borondate erabagea ukatzeko, eta eskuratzeko indarra (144).

55. Nere ondoren etorri nai duenak, uka beza edo eskuratu beza bere burua: ar beza bere gurutzeari; eta niri jarraitu BEKIT (= bizait).

56. Arren barka ZEGIELA (= zizaiela); arren barkatu ZEGIELA (73).

66. Alakoai kendu DEGIELA gaitzerako daukeen eskualdia (= dizaiela).

73. Eskatu EGIOZUE gogotik, zuen adimentuak argitu ditzala (= zaiozue).

81. Jaungoikoak bada, arren, guziok argitu gaitzala eta DIGULA gogo bizi eragille bat (= eman dizaigula); berak DIGULA bere amorio santua (154); gogo bizi bat DIGULA (165); guzioi bere grazia DIGULA (223); Jaungoikoak DIGULA arren guzioi (283-291-381) e. a.

82. Birtuteari gogotiago jarraio DEGIOZUEN (= dizaiozuen).

83. Euskeraz zuzentasuna esan DEIKIOGU (= dizaiokegu); ezin gaitzik biurtu DEIKIOGU (226); deseatu DEIKIOGU (226); ezin ondo iritzi DEIKIOGU iñoren gaitzakeriari (225).

114. Ezin iñori gaitzik batere egin LEIKIOBELA (= lizaiokeala).

117. Baña ezin birtute oriek guziak dotriña batean aditzera eman NEIKEZU (= nizaizezue).

124. Konseju eman DEIKION jakinsuren bati (= dizaiokean).

129. Bere pekatuak... ezin Jaungoikoak barkatu LEIZKIOLA (= lizaizkiekeala).

152. Zuek ere begiratu DEGIOZUELA (= dizaiozuela); Jaungoikoari txit sarri eta benetan eskatu DEGIOZUELA (196); iñori arren gaitzik EZTEGIOZUELA egin (215).

152. Barka EGIZKIGUZU gure zorrak (= zaizkiguzu); (233) Berdin.

152. Aita, barkatu EGIEZU (= zaiezu); arren barkatu EGIEZU (233).

152. Barkatu DEGIEN (= dizaien); indarra eman DEGIEN (199); dagokien atsedena jai egunetan eman DEGIEN (174).

153. Gaizki kendu dizkiguen edo ondasuna edo honra edo fama ona biurtu DEGIZKIGUELA (= dizaizkigutela).

159. Jaungoikoak bizia ken DEGIDALA (= dizaidala); pazienza eman DEGIDALA (222).

97. Errespetoa ekarri EGIOZU (= zaiozu); larga EGIOZU aldarean zure ofrendari (230).

226. Deseatu ote DEIKIEGU (= dizaiekegu).

227. Neretzat nai nukean ainbe ondasun Jaungoikoak eman DEGIOLA (= dizaiola).

(Oharra.—Aditz-joko hauek, bigarren liburuko lehenbiziko 25 kapitulutan bildu ditugu. Ikus dezakegunez, Gerriko'k “egi” adizkuna darabil beti. Behin, “jarraitu *bekit*” pasiboko adizkera darabil, *begit* aktiboaren ordez. Hau “jarraitu” aditzaren pasibutasun eragina izan daiteke ordea, nahiz-ta Gerriko'k aktiboki irabiatu eskuarki (jarraitu degiogun). “Digula”, aditz-errorik gabeko subjuntibo zaharra ere maiz darabil, “eman dizaigula” adieraziz. Gaur formulako esaretan bakarrik kontserbatzen ditugu adizkerok: Jainkoak egunon dizula, gabon Jainkoak diela, on egin dizuela, bejondigula et. ab.

VII. TXIRRITA

Jose Manuel Lujanbio Erretegi (1860-1936), izengaiñez “Txirrita”, Ernani'ko Latze-zar baserrian jaio zen. Hamahiru edo hamalau urte zitularik, Altxa'ko “Txirrita” baserrira aldatu zen famelia. Hemen bizi izan zen hil arteraño eta hemendik hartu zuen izengoitia. Aita Zabala'k bi liburu argitaratu zituen gure bertsolariaz: 1) *Txirrita, bizitza ta bat-bateko bertsoak*, 2) *Txirritaren bertsoak*. Beroietatik adizkera batzuek bildu nahi izan ditut (gutxi, zorigaitzez), zeren bertsolaria baita herriaren hizkera-ahotsa.

1/20. Bera eroriko dek, ez AKIYO bultza (= zaiok).

2/60. Nai dubenari saldu BEZAIIO (= bizaio), (“Nagusiya ta maiztarra”); eman BEZAIIO, eran dezala (136), (“Galai on bat”).

2/99. Jaungoikuak egun on DIZUELA (= eman dizaizuela), (“Bartolo ta Mari Iñaziren pasadizuak”).

2/114. Danak alkarri lagun ZAIOGUN (= dizaiogun), (“Norteko tren-bideari”). Izan ZAIOGUN kupira (168), (“Amets bat”).

2/119. Eskarmentua sartu DEIELA (= dizaiala), (“Ezkioga'ko agermenari”).

2/206. Baso bat sârdο eman KIDAZU (= zaidazu).

2/207. I, Txirrita, kanta AKIOK orroko eskeko orri bertso bat! (= zaiok).

(Oharra.—Batetik “(E)ZA” aditz-erroa darabil (bezaio, zaiogun), bestetik “(E)I” (deuela, kidazu) (1) eta pasiboko “akiyo” (= hakio). Alegia, pasiboko “joan hakio” (vétele), giputzok

(1) Deuela = degiela eta kidazu = gidazu = egidazu.

aktibora ekarri dugu, eta horrela, “eman zaiok” esan beharrean, “eman hakiok” esaten hasi giñan. Baiñan, gaitza barrurago sartu zaigu, “h” sujeto-ezaungarria galdu dugulako. Alegia, n(a)-kio, h(a)-kio, d(a)-kio, g(a)-kizkio, z(a)-kizkio, d(a)-kizkio aditz-jokotan, sujetoak beti aintzinetik behar du, baiñan, azken adigarrian ikus dezakegunez, “Txirrita”ri zuzentzen zaionak “akiok” dio, aurretik falta zaion sujetoa atzetik erantxiz. Orobat, “huke” esan beharrean (n-uke, h-uke, l-uke, ...), askok “ukek” esan ohi dute. Txirrita’ri etziztaion gaitz hau itsasi, baiñan kostatarrok belarria txit egiña daukagu “esan akiok” entzuzera eta ontzat eman ez-ezik, “jator-tasan” kutsu bat bereganaturik duela irizten diogu. Baiñan, mingarri baldin ba’zaigu ere, baztertu behar dela aitortzen dugu. Azkenik, DIZUELA (= eman dizaizuela) subjuntibo zaharra darabil formulazko esaera batean.

VIII. JUAN IRAZUSTA

“DOCTRINA CRISTIANA”

(Aita Gaspar Astete Jesuitac erderaz eguiña. Ipiñi zuan eusqueraz: Don Juan de Irazusta Erretore Hernialdecoac, ceña dan Provincia Guipuzcoacoan, eta añaditucion Encarnacioco, eta Eucaristiaco misterioen esplicacioa bai eta ere Confesio on baten condicioac, eta Acto fedeko, Esperanzaco ta Caridadecoac. Tolosan: Lalamarren alargunaren moldizteguian, 1859).

Eztakigu Juan Irazusta delako hau nor zen, baiñan ba-dakigu goian aipatu dugun ediziñoa baiño ehuntsu urte lehenagokoa zela, zeren “Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco”n dakuskegunez (Literatura, I, 254), 1742’an beste adiziño bat atera baitzen Iruñean eta beronek dionez arrakasta handia izan zuen. “Escrito en mal vascuence”, bukatzen du. Hala ere guk zerbait onik atera diogu.

4. Eman IGUZU gure eguneroko ogia (= zaiguzu).
4. Barka GIZKIGUTZU gure zorrak (= zaizkiguzu).
7. Erakutsi EGIGUZU Jesus (= zaiguzu).
15. Esan EGIDAZU bada (= zaidazu).
29. Eta gero eman DIZAGULA gloria (= dizaigula). Eman DIZAGULA Jaungoikoak gorputzarentzat mantenu konbeni zayona (30).
31. Ez DEGIGULA utzi, Jaungoiko gure jaunak erorten (= dizaigula).
30. Barka DIZKIGULA Jaungoikoak gure pekatuak (= dizaizkigula).
35. Izan EGIOZU bada debozio eta erregutu EGIOZU egunero (= zaiozu).

Oharra.—Dakuskegunez, Irazusta’k “egi” eta “za” aditz-erroak nahas-mahas darabilzki. “Eman iguzu” = “eman egiguzu” ote da, ala “iguzu” adizkera bereizia (= eman zaiguzu), “idazu/indazu”ren (= eman zaidazu) senidea? “Barka dizkigula”: ba-dirudi, indikatibo soiñekoz jantzirik subjuntibo zaharraren aztarrena dela, hala nola “dugun edan” = “dezagun edan”.

IX. GREGORIO ARRUE

"BASERRITAR JAQUINTSUAREN ECHECO ESCOLA"

(D. Juan Jose Moguel, Marquiñaco apaizac Vizcai-eusqueran atera eta D. Gregorio Arruec Guipuzcoacora itzulia. Tolosan: Pedro Gurruchagaren moldizteguien, 1878 garren urtean).

Jatorrizko liburuaren izena. Juan Jose Mogel'ena, alegia, "Baseerritaar nequeza-leentzaco escolia" zen, Bilbao'n inprimatua 1816'an. Villasante'k dio liburu honek zenbait ediziño izan dituela, horietako bat Gregorio Arrue'k (1811-1890) gipuzkeraz jarria. Ba-dirudi honek etzuela lehenbiziko ediziñoa erabili itzulpena egiteko, 1845'ean Gastehiz'en inprimatutakoa baizik, beronen titulua "Baseerritar jaquitunaren echecho escolia" baita. Arrue Ernaniarra zen, baiñan bere bizitarik gehiena Zarautz'en egin zuen eskola-maixu. Bere lan ugaria itzulpenetan eman zuen soilki. Euskera dotore eta apañean idazten zekien.

4. Eskatzen diot Jaunari, DIELA hitz bakoitzari eta guziaz onetarako indarra (= eman dizaiela).

6. Jaungoikoak eman LEGIKEGUN familiari (= lizaigukean).

30. Nai genduke adierazi DEGIGUZUN eskeñi diguzuna (= dizaiguzun).

34. Esan DEGIGUTELA (= dizaigutela).

34. Begira DIEZAYELA bere abaraska eta eztaia (= dizaiela).

34. Galde BIZAYE (= bizaie).

41. Eman DEGIOZKAGUN, bada, esker ugariak (= dizaizkiogun).

41. Jarrai ZAYOGUN leyal bere dotriña santuari (= dizaiogun). Eska ZAYOGUN Jaungoikoari (58). Erregu ZAYOGUN beragatik (80).

46. Iñori ezin esan LIZAYOKEAN (= lizaiokean); pekatua dala gizonak bere buruari erakarri LIZAYOKEAN kalterik andiena (51). ¿Au da gizonak bere buruari eman LIZAYOKEAN tajua? (189-190).

51. Erregu BIZAYO ondo pekatariak Jesus gure amarez gurutzean josiari (= bizaio). Esan BIZAYO aur bati ogei bider Aita gurea (116).

67. Ez BEGIT esan orañ tontoren batek (= bizait).

69-70. Danik itxuenari ager eragin LIZAYOKEE beren Egillearen anditasuna (= lizaiokete); galde LIZAYOKEE jakintsu bati (167).

82. Eragin DEGIOZKATZUELA familiari zuen lanak (= dizaizkiozutela).

97. Ama garbiak ez DEGIELA erakutsi dantzarik (= dizaiela).

122. Utzi ZAYOZU pakean (= zaiozu); ETZAYOZU jarraitu taldeari edo askori (101).

123. Barka ZAIZKIGUTZU gure zorrak (= zaizkiguzu).

125. Txarkeria egin DAKIEN deseoz egongo lirake noski (= dizaien).

129. Esan ZAGUZU (= zaiguzu); esan ZAGUZU zerbait (142).

132. Ezin guziak azal NEGIZKITZUTE (= nizaizkizukete).

133. Onen iritziari jarrai ZAYOZUTELA (= dizaiozutela); begira ZAYOZUTELA pekatuari etsairik andienari bezela (197); Jarrai ZAYOZUTELA Ama Birjiñaren berarizko jayera eta debozioari (197).

138. Bere osasunagatik Jainkoari erregu ZEGION (= zizaion); erregutu zion Inesi bere semea piztu ZEGION (153).

138. Esan GIOZU gaxoari, diru bat artu dedala (= zaiozu).

142. Non eziñ LIZAYOKEEN ipiñi (= lizaioketen).

144. Goizago eman ZEGIELA beren estadua bere mendekoai (= zizaiela).

154. Eziñ iñork neurririk ipiñi LIZAYOKE (= lizaioke); ¿Zerk aztu erazi LIZAYOKE betiko bitizta? (181).

162. Esan ZEGIOLA nor zan (= zizaiola).

163. Lagun ZADAZU salbaziorako bidean (= zaidazu).

163. Erregutzen dizut, ekarri DEGIDAZULA gure Jauna Ostegun santuz komulga nadiñ (= dizaidazula).

167. Eman LEGIZKIE konsejuak (= lizaizkieke).

174. Makilla motz onekin galantak eman BEGIZKIELA (= degizkiela). Arrue etzen ohartu erlatiboko “-(e)la” atzizkiarekin, ez ditekeala erabil aginkorreko “b-” aurrizki ezaungarria. Beraz, BEGIZKIE edo DEGIZKIELA erabilli behar da. *Begizkie = bizaizkie eta degizkiela = dizaizkiela.*

174. Erakus DIZAYELA dotriña ona (= dizaiela).

175. Zor bakar au ezin paga LIZAYEKEELA (= lizaieketela).

177. Ezin utzi LIZAYEKEE ezkongayaren etxera joaten (= lizaiekete).

183. Ez DEGIOTELA luze iritzi (= dizaiotela).

187. Nork lotu LEGIOZKAKE bere eskuak (= lizaizkioke).

Oharra.—Ikus dezakegunez, Arrue’k, eskuarki, bi erakuntza darabilzki: “i + za” eta “e-gi”; hontaz gaiñera, “za” aditzerroa hasieran jarriarik, alegia “d + i” baztertuz (zaiogun = dizaiogun). Tarteka-marteka “diela” subjuntibo zaharra (= eman dizaiela) ere ba-darabil.

X. JUAN FRANCISCO GOÑI

“DOCTRINE CRISTIANAREN LEMBIZICO PRINZIPIOA”

(Zeiñ baite esribitue Juan Francisco Goñiren escuz, eta acabatue Marchoco Illeren oguei te batean, mille ta zorrietan eun ta oguei eta zorzi garren urtean Maquirriango Escolan).

Makirriain’go eskola-maixuak 1828’garren urtean izkiriaturako kristau dotriña hau, “Euskera” aldizkariak argitaratu zuen 1960’garren urtean. P. Diez de Ulzu-

rrun'ek diogunez ("El Catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828", "Euskera", 1960, 377 hor.), Ioane Antxiko Goñi, Makirriain'go eskola-maixua nongoa zen ezta-kigu. Darabilen euskeragatik esan daiteke ordea, Iruñerri'koa zela, hots, Iruñe'ko eskualdekoa, ingurutakoa. Esku-idazki hau Zildoiz'ko (Ezkabarte aranean) Perutxena etxean aurkitu zen 1933'an. Sermoi paper batzuek darakuskigutenez, 1878'gn. urtean Zildoiz'en euskeraz predikatzen zen.

379. Eman DEZAGUZU guri geren egunoroko ogie (= zaiguzu). Erakusi DEZAGUZU Jesus zure sabeleko fruitu bedeikatu (380). Eman DEZAGUZU guri geren eguneroko ogie (393).

379. Barka DEZKIGUZU guri geren zorrak (= zaizkiguzu). Idem. (393).

381. Niori daus ebsi EZTEZOGULE (= ez dizaiogula); Niori daus ebatsi EZTEZOGULE (397); Niori falso testimonio gaixtorik eratxiki EZTEZOGULE (397).

393. Jangoiko gure jaunek erreine DAZAGULE guri geren arimetan (= dizai-gula). Forma normala DEZAGULE da. Hutsegite bat ote?

393. Eta berzean DIGULE bere glorie (= eman dizaigula).

393. Jangoiko gure Jaunek man DEZAGULE mantenimentu konbenientea gorputzen dako (= dizaigula).

393. Jangoiko gure Jaunek barka DETXAGULE guri geren bekatuek (= dizaizkigula).

Oharra.—Dakuskegunez, Goñi'k aditz-errotzat "eza" darabil. Sistema honek nahastea dakar, zeren DEZAGULE, esate baterako, "dezagula" eta "dizaigula" da. Hona adigarri bat "dezagula" aditzera eman nahirik: "In DEZAGULE Jangoikoaren borondatea lurrean gaude-nok" (393). Aginkorrean "ezaguzu" erabili beharrean "dezaguzu" darabil. DEZKIGUZU forma laburtua da (= dezazkiguzu?), DAZAGULE hutsegitea da noski, gerxoego "dezagule" singularra eta "dextxagule" plurala ematen baitzikigu. "Eza"z gaiñera "digule" subjuntibo zaharra darabil.

XI. ESKUZ IDATZITAKO KRISTAU DOTRINA GOI-NAPAR EUSKARAZ

Aingeru Irigarai euskaltzain jaunak argitara eman zuen "Euskera"n ("Catecismo manuscrito en euskara alto navarro", 1961, 161 hor.). Eztu ipintzen idatzaldi mugarik, baiñan Irigarai'en ustez XVIII'gn. mende azkenetakoa da. Azken jabea, Iruñe'ko Karmeldarren komentuko A. Muniozguren izan zen. Orain, Gipuzkoa'ko Ahaldudegiko liburutegian datza. Eztizu egille izenik ematen. Mintzairari ipar-ego nahaste derizkio Irigarai jaunak.

162. Egun EGUZU guri geren egunoroko ogia (= eman zaiguzu).

162. Barka DIETZAGUZU guri geren zorrak (= zazkiguzu); itzuli DIETZA-GUZU zure begi miserikordiazko oriek gugana (163).

164. Niori deus ebsi EZTIOZOGULA (= ez dizaiogula); Niori deus ebatsi ez DIOZOGULA (172); Niori falso testimoniorik altxa edo gora ez DIOZOGULA (173).

164. Zorzigarrena niori falso testimoniorik altxa edo gora ez DIEZOGULA (= dizaiogula). Hutsegitea dirudi, zeren hiru aldiz “dio” agertzen baita eta behin bakarrrik “die”.

170. Jangoikoak eman DIEZAGULA egunean eguneko sustentu korporala eta espirituala (= dizaigula); Jangoikoak barka DIEZAGULA guri geren zorrak (171). “Dietzagula” behar luke izan (= dizaizkigula), *zorrak* pluralean baitago.

170. Barka DIETZAGUTZU (= zaizkiguzu), hots “-gutzu”, “-guzu”ren ordez. Aginkor-erak sobera du aintzineko “D” hori.

Oharra.—Dotriña hontan “i” dativo ezaungarria ikus dezakegu “eza” aditzerroaren aintzinetik. Beraz, hemen eztago adizkera zuzenekin nahasterik Makirriain’goan bezala. Morfolojiari dagokionez “diezogula” adizkerak “dizogula”k baiño jatorrago dirudi, zeren aditz-jokoa osoan emanik “diez(a)(i)ogula” izango litzake. Beraz, hemen ere *i* + *eza* dago eta “dizogula”n ez. Datiboko hirugarren pertsonaren ezaungarria bigarren “o” da eta ez lehenbizikoa. Honek, aditz-erroaren (*eza*) “e”ri tokia kentzen dio. Hemen ere adizkera aginkorrek lege-kontrako “D” haskiña daramate. “Eguzu” = “iguzu”, “idazu/indazu”ren senidea ere ba-darabil.

XII. JOSE CRUZ ETXEBERRIA

“DEBOCIOZCO BICITZARACO SARRERA”

(San Francisco Salescoac aterea zuanetic Aita Fray José Cruz Echeberriac, Zarauzco Misioneruac Eusqueraz jarria, eta guerostic, demborarequin sortu zaizcan uts-aldi edo palta asco, Apaiz batec berriro zucendua; gueituaz Meza ondo entzute-co, conciencia examiñatzeco, confesatzeco eta comulgatzeco modu egoquiac. Tolo-san: Francisco Muguerzaren moldizteguian, 1885 garren urtean).

Josepe Gurutze Etxeberria (1773-1853) Oiartzun’en sortu zen. 1801’garren urtean Zarauz’ko Antxikotarren Anaietxean dakusagu. Sermolari iaio eta saiatua omen, iñor gutxi bezala. Gipuzkoa’n eta Nafarroa’n erein zuen bereiziki Jaunaren hitza. Frantsesek, Españaiko Askatasun Gerla delakoan preso hartu eta Frantzia’ra eraman zuten. Napoleon’en erortzearekin libratu zen. Bere liburuak: 1) Aztartzen dugun hauxe. Villasante’k dionez gutxieneko sei argitarapen izan ditu, lehenbizikoa 1821’ean eta azkena 1901’ean. Guk 1885’ekoa erabili dugu. 2) Ongui bititceco ta ongui litceco laguntza. 3) Cristau Doctriña Euskaraz. 4) Jesusen imitacioco edo berari jarraitzen erakusten duen librubu.

VI. Eman DIZAZULA onetarako Jaungoikoak bere grazia (= dizaizula); eska zayozu Jaungoikoari eman DIZAZULA beraren gogokoa dan bat (15); eman DIZAZULA oriek ongi kunplitzeko grazia (38); orretarako lagun DIZAZULA (58); eskayozu lagun DIZAZULA (95) (115); lagun DIZAZULA (360); eman DIZAZULA ayetan irauteko laguntza (428); argi DIZAZULA entendimentua (437).

9. Sinistu ZADAZU (= zaidazu); lagun ZADAZU (80); entzun ZADAZU bada (166); esan ZADAZU (167); aditu ZADAZU (226); begira ZADAZU errukiz neri ere (441).

15. Eska ZAYOZU Jaungoikoari (= zaiozu); erregutu ZAYOZU (44); dei ZAYOZU zure Aingeru guardakoari (86); eskañi ZAYOZU zure biotza Jaungoikoa-

ri (98); agertu ZAYOZU (371); erantzun ZAYOZU modu onian (433); begira ZAYOZU Jesusi lurrean auzpeztua (441).

17. Eska DIOZAZULA biotz guztitik Jaungoikoari (= dizaiozula).

19. Eziñ egin DIEZAKEGU gerra (= dizaiekegu).

19. Utsegite txikiak eta pekatu benialak ezin kendu DITZAKIGUKETE animako bizia (= dizaigukete).

34. Eman DEIOZULA nere animari (= dizaiozula); ez DEIOZULA... aserriari atea idiki(187); ez DEIOZULA zure biotzari... (216); ez DEIOZULA... lekuri eman (244); ez DEYOZULA... asmatu (282); ez DEIOZULA aren pekatua... iñori agertu (282); ez DEIOZULA tentazioari begiratu (360); ez DEIOZULA ere beste itzik esan (361); eman DEIOZULA aditzera leyalki (386).

57-58. On iritzi ZAYEZU... mesedeai (= zaiezu); begira ZAYEZU sarri (119); Obedi ZAYEZU gustoko gauzetan (200).

59. Eman DIEZELA bere grazia Demonioaren mendetik ateratzeko (= dizaie-la).

69. Egiazko debozioa alkantzatzia eragotzi DITZAKEGUTEN PALTAK (= dizaizkiguketen).

78. Elizan ordu bat pasatzia, ez aitak, ez amak, eta ez emaztiak arrazoyarekin eragotzi DIZAKEZUTE (= dizaiekezute).

86. Deitu DIOZAKEZU Ama Birjiñari (= dizaiokezu).

90. Eman DIZAGULA bere Seme Jaungoikoaren graziak (= dizaigula). *Dizazkigula* behar luke.

98. Eman DEGIOLA indarra (= dizaiola).

99. Zure asmo santuak kunplitzen lagun DIZAZUTEN (= dizaizuten).

100. Eman BIOZKA eskerrak Jaungoikoari (= bizaizkio).

100. Eska BIOZA barkazioa Jaungoikoari (= bizaio).

102. Zori onekoa Jaungoikoari egiaz esan DIOZAKEN anima: Zu zera Jauna nere gorde lekua, ... (= dizaioken).

119. Eman DIOZAGUN beti aditzera (= dizaiozun); eska DIOZAGUN Jaungoikoari (346); eman DIOZAGUN BADA GUK MUSU AINBESTE ATSEGIN-TASUN EMATEN DIGUN Salbadoriari (385); Jaungoikoari esan DIOZAGUN (391); eskeñi DIOZAGUN dulce-siku edo legorra (392).

135. Ez da izango ez aitarik, ez amarik, ez emazterik, ez senarrik, maiz komulgatzia eragotzi DIZAKEZUNIK (= dizaiekezunik).

165. Edozeñek kontu egin DIOZAKE (= dizaioke); eziñ añ erraz erakutsi DIOZAKE Zeruko bidea (322); eziñ iñoiz tentazioak gaitzik egin DIOZAKE (361).

168. Mai buruan jartzeko agindu DIZAGUTEN (= dizaiguten).

194. Jaungoikoaren miseriardiari dei ZAI OGUN (= dizaiozun).

196. Ez DEYEZULA... lekurik eman (= dizaiezula); ez DEIEZULA eman (286); ez DEIEZULA begiratze gaizto bat baizik egin (364); ez DEIEZULA utzi (371).

203. Birtute onen lenbiziko malla edo graduaren aldetik kontu, kristau maitea, ez DIOZULA inñolaz lekurik eman zure biotzean edozeñ moduzko atsegin gaiztoai (= dizaiozula).

224. Zure pobrezak, kristau maitea, bi gauza txit onak ditu, eta orien bitartez mereizimtu asko eman DITZAKIZUE: (Adizkera hau ezta oso erreza itzultzen. Singularreko bigarren pertsonari zuzentzen zaion aldetik ba-dirudi “dizaizuke” edo “dizaizkizuke” izan behar duela, “asko” indeterminaduak adizkera singularrean eta pluralean onartzen baitu. Bestalde, badirudi ez “zuri” baizik “zuei” esan gura duela idazleak eta orduan “dizaizukete” edo “dizaizkizukete” izanen litzake).

246. Amorio zikiñ eta ketsu oni su eman DIOZAKIEN tratabide eta okasio guztietatik (= dizaioketen).

269. Eman DIOZALA grazia zure projimoari (= dizaiola).

302. Nola batzuen, ala bestien bidez eramán DIOZAKEGUN amorioz biotza (= dizaiokegun).

316. Gorde ZAIOSUTE, bada gizonak, amorio biguñ, iraunkor eta biotzekoa zuen emaztiai (= zaiozute).

319. Ez DIOZAZUTELA eman lekurik onra ori galtzeko gauzari (= dizaiozutela).

343. Utzi DITZAYOGUN, kristau maitea, mundu itxuari (= dizaiogun). Eskuarki “diozagun” darabil. Esaera singularrekoa da eta honetxegatik “dizayogun” behar luke. “Ditzayogun” = *dizaizkiogun* da, inñolaz ere. Segurantzia falta zaio idazleari.

346. Usuen egoak bezelakoak eman DITZAGULA (= dizaizkigula).

349. Ezin kalterik egin DIZAKEGU (tentazioak) konsentitzen ez degun bitartean (= dizaiekegu).

364. Ezin gaitzik egin DITZAKIGUKETE Jaungoikoa serbitzeko asmo leyalian irauten badegu (= dizaigukete). Hemen ere “dizakigukete” behar luke, esaldia mugatu gabea baita (*gaitzik*). Pluralean ba’lëgo (*gaitzak*) ongi legoke. Beraz, “ditzakigukete” = *dizaizkigukete*.

386. Nola giatu bear zeran erakutsi DIZAZUN (= dizaizun).

419. Esan DITZAIOSKEZU zure buruari (= dizaiokezu). Hemen ere “dizaiokezu” behar luke. “Diozakezu” ere badarabil.

433. Eman bear degu guk ere aditzera debotoak edo birtutetzuek izan nai degula, orrela bizitzen utzi DITZAGUTEN (= dizaiguten). Hemen ere “dizaguten” behar luke.

433. Ez EGIOZU ukatu (= zaiozu).

434. Orobat esan DIZAKEZUT, nik ere, zuri (= dizaiekezut).

441. Begira ZADAZU errukiz neri ere (= zaidazu).

452. Agertu EGIOZKATZU zure pekatu mortal guziak konfesore Jaunari (= zaizkiozu).

457. Erregutzen dizut josi DITZAIZKITZULA nere biotzean, fede, esperanza eta karidadezko sentimentuak (= dizaizkidazula). Aditz-joko hau oker emana dago, datiboko lehenbiziko pertsonaren ezaugarria (da = *a mi*) falta baitu. Bi letra “t”k ere sobera ditu. Bere ezin asmatuan, datiboko adizkera gabe, zuzeneko erabil zeza-kean, “ditzazula”, alegia, askoz errezagoa.

Oharra.—Dakuskegunez, Etxeberria’k “za” darabil aditz-errotzat eskuarki, aintzinetik “i” erantxita. Bestetzutan, ordea, “i + za” ordez, “j + tza”. “Za” soilki ere ba-darabil adizkerari hasiera emanaz. Halaber, “e(g)i” aditz-erroa eztizu zeharo baztertzen, batzutan “egi” eta bes-tetan “ei” erabiliz. Indikatiboaz ere baliatzen da subjuntiboaren ordez (dizozula = dizaizozula).

XIII. JUAN IGNAZIO IZTUETA

“GUIPUZCOACO DANTZA GOGOANGARRIEN CONDAIRA EDO HISTORIA”

(Beren soñu zar, eta itz-neurtu edo bersoakin, baita berac ongui dantzatzeco iracaste edo instruczioac-ere. Obra balio andicoa eta chit premiazcoa, Guipuzcoatarren jostaldi gaitzic-gabecoakin, lendabizico etorki España argui eta garbi aien oitura maitagarrien gordacaiatzeco. Beraren egillea, D. Juan Ignacio de Iztueta, Guipuzcoaco erri leial Zaldibian jaioa. Tolosan: Eusebio López-en Moldizteguien 1895-garren urtean eguiña).

Juan Ignacio Iztueta (1767-1845), Zaldibia’n jaio eta hil zen. Gaztetandik dantzaria izan zen eta gerora euskal-dantzen eratzaille, zuzendari eta Maixu. Ogibidez, aurrena kapagin izan zen bere herrian eta gero zerga-biltzaille Donostia’n. Hiru aldiz egon zen ezkondua. “Kontxesi” (Bengoetxea) famatua hirugarrena izan zuen. Bere bizitza, ibillaldi arre eta illunetan nahasia dago eta honetxegatik zenbait gartzelaldi ezagutu zuen. Berak esana zen Foruak salbatzeko biderik onena euskara sustengatzea eta sendotzea zela. Hemen aztertzen dugun liburuak bi ediziño izan zituen, 1824’koa eta 1895’ekoa. Hontaz gaiñera beste liburu bat (“Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia”) eta eskutitz luze bat (Juan Jose Mogel’i egiñikoa) utzi zituen.

20. Eman DEGIZULA urte askotako bizia (= dizaizula).

58. Jarri BEGIZKIO bidaje jakin bat egiteko, edozeiñ gizoni, bi bide (= bekizkio). Iztueta’k gaizki darabil adizkera hau, zeren “begizkio” transitiboa baita eta “bi-zaizkio”ri erantzuten dio. Kasu hontan ordea intransitiboa da: Jarri bekizkio (póngasele).

60. Esan BEGIT nork naik (= bizait).

64. (Esan zion) jo ZEGIOLA San Sebastianen izenarekin deitzen dan soñu zar pozkidatsu ura (= zizaioia); otsegin omen zion emazteari, bota ZEGIOLA anka tartera gelako atearen atzean zegoen beste makilla lodiagoa (196).

79. Ainbesteraño igorik arkitzen dirade ezik, ez dute nai danboliñaren izenarekiñ iñork deitu DIEZATEN ere, ez bada, primer silbo, segundo, músico mayor, eta onelakoakien (= dizaieten).

82. Joerazo bear zayo arratza lenagoko danboliñen modura, aniz ez DEGIO-LA ukitu ere gañerako soñu eta tokietan (= dizaiola); biraldu DEGIOLA bestea (95); idem. (97).

84. Beragatik, egin ZEGIOTELA atsegin ixiltzeaz (= zizaiotela).

88. Esan EGIDAZUTE orain (= zaidazute).

89. Eta au ez dakienak ¿zer lagunza modu egin DIOZAKE dantzariari (= dizaioke).

95. Egin DEKIOLA atsegin beraren eskura dantzara etorzeaz (= dizaiola). Pasiboko “dakiola” ote? Ala “deguiola”ren ordez “dequiola”, inprentako hutsegitez?

97. Egin DAKIOLA atsegin beraren eskura dantzara etortzeaz (=dizaiola). Pasiboa aktiboaren ordez.

148. Ikusleak esan ez DEGIOTEN (dantzariari) artoa jaten al diola ezkerreko anak (= dizaioten).

167. Bañan bai jostatzen utzi DEGIION (= dizaion).

167. Aski da eman DAKION (Gobiernoak) lokabea ta estalpea (= dizaion).

167. ¡Ain gostu gutxian josta erazi DAKIOKE diarte edo pueblo bati danik aundiena eta zenbatetsuena izan arren! (= dizaioke).

Oharra.—Iztueta’k gehienbat darabillen aditzerroa “egi” da. Pasibokoak ere badarabilzki: dakion, dakiola, daioke, ... “I + za” delakoak ere ba-ditu: d-I-o-ZA-ke, d-I-e-ZA-ten.

XIV. JOAKIN LIZARRAGA ELKANOKOA

“URTECO IGANDE GUZTIETARACO PLATICAC EDO ITZALDIAC”

(Nafarroan, Elcano deritzan errian, bertaco vicario jaun Don Joaquin Lizarragac compondu eta predicatuac. Donostian, Ignacio Ramón Baroja-ren moldizte-guian, 1846).

Joakin Lizarraga (1748-1835), Nafarroa’ko Elkano’n (Iruñe’tik hurbil), jαιο eta hil zen. Lizarraga’reñ mintzairak garrantzi handia du, zeren euskera aspalditxoan galdurik dagoen bazterretako lekuko baita. Zorigaitzez, obra hau franko gipuzkeratua dago geroko eskuz. Jatorrizko esku-idazkia Iruñean gordetzen da eta den-denean aztertzeko hara jo behar. Gure klasikotan eztago goi-naparreraz izkiriatu duen beste idazle naparrrik, kristau dotriñez aparte. 1776’an Jesuita sartu zen Loyola’n. Urtebete geroago ordea, Jesulagunak jaurtiki zituzten Españaiko Erregeren lurraldetatik eta bere sorterrira itzuli behar izan zuen. 1774’gn. urtean Elkano’ko erretore izendatu zuten eta kargu hontan irauñ zuen heriotzerañio. Obra hontaz gaiñera bestek ere idatzi zituen: 1) Copla guisa batzuc molde gutitacoac, celebratus Jesus Jaunaren amoreac ta favoreac. 2) Jesus-Cristoren Evangelio Sandua Juanec dacarren guisara. 3) Jaundome Antxiko Xabierrekoaren bizitza liburutxo bat. Hemen aztertzen dugun Platica edo Itzaldi liburua 1802’gn. urtean amaitu zuen: Anno Domini 1802.

6. Nork eranzun DIZAYOKE millatetik bati galdeera oiek egitean (= dizaioke); Jaungoikoak bakarrik eman DIZAIOKE gizonari ainbeste indar (68); eta zer protxu eman DIZAIOKE gizonak Jaungoikoari? (85); eta onek erran DIZAIOKE: aplika bizat buldaren induljenzia (103); Nai badu erran DIZAIOKE onela (129); Beritze aldetik ezin aipa DIZAIOKE konfesoreak iñori konfesioko gauzarik (135); Nork ezer egin DIZAIOKE onelako faborea, onelako anparoa duenari? (192); Nork eragutzi DIZAIOKE oroitzea bere Jaun onaz? (385).

10. Zertan geiago erakutsi DIZAKEZUT au, ezpada zuri, neretako beretxitua (berexitua?) zaukatzianari, trabajuak eramatean baño? (= dizaikezut/dizaizuket).

12. Nai duenak etorri nere atzetik, uka BIZAIE bere burua bere naikundeai (= bizaie).

15. Aita, dio, barka BIZAIOTE, zeren ez dakite zer ari diran (= bizaie); Aita, barka BIZAIOTE, zergatik ez dakite zer ari diren (49); Eman BIZAIOTE bere Ministroai (1) ongi mintzatzeko grazia (95); Aita, barka BIZAIOTE, zeren ez dakite zer ari diren (174).

15. Zeren deus guti da guri egin DIZAKEGUTEN guzia Jaunari eginaren aldean (= dizaikeguten/dizaiguketen).

16. Jaungoikoak lagun zaitzala, ta fortuna on DIZULA (= eman dizaizula).

16. Eman DIZAGUN barkazioa (= dizaigun); egin DIZAGUN Jaungoikoak guri mesedea (31); Errukara (2) dirudi, baño geiago egin diogularik Jaungoikoari, nai degu barka DIZAGUN (174); Ez bengantzarik artu sekulan; barkatu, barka DIZAGUN Jaungoikoak (476); Jaungoikoak guri ere eman DIZAGUN grazia (377).

20. Ezin paga DIEZAGUKELA (= dizaigukela).

25. Eska ZAIOGUN grazia (= dizaiogun); Urte au bukatu urrean da, bukatzerara doa; eraginarazo ZAYOGUN bada urteari bere testamentua (37); eska ZAIOGUN grazia (92); ofrezki ZAIOGUN karidadearen urretxo au bederik (174); Lenik eska ZAIOGUN (189); Egin ZAIOGUN gustoa gure Artzai onari (225); Egin ZAIOGUN bere diosala Maria Santisimari (241); Onen bear gara orai ta beti: eska ZAIOGUN (254); Eman ZAIOGUN bada berea Jaungoikoari (386).

38. Betoj jakintsuak, letu BIZATET zer dion or (= bizaidate).

39. Danielek erraten dio turditu gabe: Errege Jauna, bertze bati eman BEIZKIO (begizkio) bere emaitzak edo erregaloak (= bizaizkio).

53. Zer nai duzu egin DIZAZUDAN? Jauna, eranzun zion, ikusiarazo dizadazu (= dizaizudan); zer nai dezu egin DIZAZUDAN? Itsuak eranzun zion: Jauna, ikus dezadan(98).

53. Ikusiarazo DIZADAZU (= zaidazu).

(1) Jaungoikoak bere Ministroai, hots, apaizai.

(2) Ba-dirudi, Lizarraga'k maiz darabilen hitz honek *gogorra* edo *gogortxo*a esan gura duela, beste adigarri hontan hobeto ikus ditekeanez: Errukara dirudi, onestea (maitatzea) kontrarioak, baño egin diteke bakarrik nai izatearekin (173). Azkue'k "algo fuerte" itzultzen du. Gogoan har dezagun toki batzutan *erru* = *zail* dela eta hontaz "errukara" = *zailtxoa* litzake.

60. Zuen artean pekatuak gabe dagoanak tira BIZAIO lenbiziko arria (= bizaio); erran BIZAIO bere buruari (95); erran BIZAIO bakoitzak bere buruari (159); nai duenak etorri ene atzetik ukatu BIZAIO bere burua bere buruari: ar beza bere gurutzera, eta segi naza (177); Jauna, erraten zion Dabidek Jaungoikoari, para (jar) BIZAIO guardia ene aolari (292); Jauna guarda naza, ez diot nai gaizkirik niori, bai onetsi (maitatu) berorren atzietan, egin BIZAIO ongi ari eta niri ere bai (342); on egin BIZAIO ari eta orobat niri (376); Baña eska BIZAIO miserableak (401).

37. Balia DIZAIION (Pasio santua). Ba-dirudi kasu hontan DAKION behar lukela izan; Jaungoikoak egin DIZAIION konbertitzeko grazia (89); ez du sufritu nai, iñork itz bat erran DIZAIION (328); Bai, dio, baña Jauna perlesia ken DIZAIION nai genduke (344). Guztiok ene aitaren “dizaion”ekin bat egiten dute.

80. Etorri nai duenak ene atzetik... uka BITZAIZKA bere buruari bere naiarak... eta segitu naza (=bizaizkio).

89. Ez dute onelakoak merezi Jaungoikoak itxoron DIOZATEN (=dizaieten).

94. Apez aitai, Bikario, eta Erretoreai agintzen die Elizak igande, eta jai andietan berarik (bederik) eman DIOZATELA beren Parrokiakoai doktrinaren alimentua (=dizaiela); nork nai aplikatu DIOZATELA induljenzia (arimai), aplikatzen zaie Elizaren izenean (105).

99. Eranzun DIOZAGUN (=dizaiozun); baña lenik eska DIOZAGUN Jaungoikoari argitasuna (127).

108. Eranzun ZAIOTEGUN orain grazia oiek diruz logratzearen gañean erreparoa paratzen dutenai (=dizaiegun).

110. Jaungoikoaren semea baldin bazera agin ZAIEZU arri oei egin ditezela ogi (=zaiezu).

111. Baña badegu konsuelo bat, eranzun DIZAIOKEGU (deabruari): ez diat nai, oa i, baitakik bidea (=dizaiokegu).

115. Eman DIZAGULA indarra, grazia, laguntza, garaitzeko (=dizaigula); Guztoi begira DIZAGULA Jaungoikoak (381); berak eman DIZAGULA grazia ezagutzeko eta gozatzeko ongi (414).

115. Naiz munduak, eta infernuak eman DITZAIZKIGULA kanpotik, eta barrendik, milla tentazio eta su.

119. Ezin eman ZIZAGUKEAN Jaungoikoak bere grazia sakramentuen señaile oiek gabe? (=zizaigukean).

125. Pekatariak preso daude Deaurruaren (deabruaren) prisondegian; giltzak daukazkite penitentiako sakramentuan beren eskuan, iñork ezin debekatu DITZAIOTEN moduan, eta deskuidatzen diré? (=dizaizkien).

163. Begira ZAIOSU goitik bera (=zaiozu); erran ZAIOSU zure buruari (163); zuk begira ZAIOSU Jaungoikoari (178).

169. Nai dezu egin edo erran DIZAZUTEN gaizkirik zuri? (=dizaizuten); ez zenduke naiko, bearrean arkitzen zeranean, egin DIZAZUTEN on edo serbitzu zuri? (169).

199. Libre dago justua. Onen pribilejioa da, naiz aldartez irri egin DIOZATE-LA eta desprezioa mundukoak, estimatuak eta billatuak izatea bear den orduan (=dizaiotela).

211. Agintzen eska ZAI OGULA (=dizaiogula).

214. Nola nai dut egin DIZARATEN niri nai detana, ez badut nik egin nai berak agintzen duena (=dizaidaten).

219. Pobrea eta ongi guzizko pobrea da bekataria, zeñi, ertxirik Jaungoikoak bere ateak, ezin zerutik iñork eman bait DIOZAKE lekurik (= dizaioke).

220. Zein da egin DIZAI OKEENA gaitz grazian dagoanari? (=dizaiokena).

245. Ez da on sobra bildur izatea, jakiñik ez DIZAKEGULA iñork eraginarazi bekaturik (=dizaiugukela).

260. Eman ZAGUZU gure egun oroko ogia (=zaiguzu).

264. Eman BIZAGU sustentoa, zazpi ogiz (=bizaigu); Maisu Jauna, badakigu egi erralea (egi-esalea) dela eta erakusten duela Jaungoikoaren bidea egiaz, erreparatu gabe personen gora beran; erran BIZAGU bada, zer iduri zaio, zillegi da ematea Enperadoreari tributua, edo ez? (382); eman BIZAGU, otoi, ala estimatzea berorren gorputz ta odolaren misterio sagraduak (437).

268-269. Aur bat dago ezin xasiz edo jasoz karga edo zama; lagun BEZO jigante batez, arin aisa darama ya (=bizaio).

269. Kontrara mundukoiendako nekosoa da, zeren birtute faltaz indar guti duten, eta ez duten merezi lagun DIZAIOTEN Jaungoikoaren graziak (=dizaien); Dira beldur konfesatzeak gaitz egin DIZAIOTEN? (349).

284. Erran diozu barka DIZAIOLA etsaiari? (=dizaiola); paga DIZAIOLA munduak (328).

288. Kontatzen du San Marcosek egungo Ebanjelioan, ekarri ziotela Jesus onari sor eta mutu zegoan bat, bere eskua gañean para ZIOZAN (=zizaion).

328. Paga DIZAZULA munduak (=dizaizula).

362. Senda ZIZAIOLA bere semea (=zizaioa); eskatzera joan zan senda ZIZAIOLA semea (362).

377. Egin ZAI OGUTEN ongi gaizki egin digutenai (=dizaiegun).

381. Barka DEIZKIGUTZU guri geren zorrak (=zaizkiguzu).

413. Konfesa ZOZIE edo zaiozue Jaunari (=zaiozue).

413. Konfesa BEZOTE Jaunari (=bizaiote).

426. Baña ez aditzearekin, bakarrik balio LITZAIOTEKE Kristioen fedeak, eta karidadeak (=lizaieke). O + TE = E da, baiñan ene ustez "lizaiekete" behar luke izan, zeren kristauen fedea eta karidadea bi baitira eta hauek balio diete bekatari (Bekatariez ari baita, "bekatu egiteko guapo eta penitentzia egiteko flako" diren bekatarietz).

429. Eman BEKITET lizenzia (=bekidate, pasiboan, baiñan "eman" aktiboari "bizaidate" dagokio).

429. Ezperen ken BIZATET bizia (=bizaidate). Hemen aktiboki erabilia dago; beraz, ongi. Bi aditz-jokuok alkarrengandik oso hurbil daude, eta beharbada horrextegatik, belarrira ez min egiteko-edo konjugaziño liferentetan ipiñiak daude.

430. Egin DITZAIKIOTEGUN sufrajioaz (=dizaizkiegun).

432. Pobre onak, nobleak eta Jaungoikoaren onetsiak (maitatuak) dira; ala banintz ni! berak ez daukate baliorik orain, guk balio DIOZAGUKETE asko moduz, nai badegu (=dizaiekegu).

434. Aipaturik modua nola guk balia DIZAIOTEKEGUN (arima aiei). Itzulpena: *dizaiekegun*.

Oharra.—Lehenago esan dugun bezala, liburu honen testua oso gipuzkeratua dago. San Juan'en Ebanjelioarekin alderatu besterik eztago dioguna ikusteko. Aditzean ere beste horrenbeste gertatzen zaigu, sistemaz aldatua baitago, esate baterako zeharo gipuzkeratua. Adibidez, D + I + ZA (dizaion, dizaioke...) aditz-jokoak ez dira Lizarraga'renak, honek D + EZ(A) baitarabil (dezon, dezoke...). Itzultzaileak, “dizaigun/dizaiegun” tankerako adizkeren ordez, gipuzkera zaharreko “diozagun/diezagun” adizkerak darabilzki tarteka-marteka; beraz, hauek ere ez dira Lizarraga'renak. Aginkorreko B + I + ZA (bizat, bizagu, bizaio...) erabat giputzak dira. Lizarraga'k bezat, bezagu, bezo... esango luke. Berebat, zaiozu, zaiogun, zaiozuten, aditz-erroz hasten diren adizkerak eta zer esanik ez Z + I + ZA (zizaion, zizaiokean), hala nola gipuzkera zaharreko aldakera: ziozan, ziozakean... Esan diteke beraz, aldatzailearen hutsegitez libratutakoak bakarrik direla Lizarraga'renak, hala nola, *bezo*, *zozie*, *bezote* eta besteren bat. EGI aditz-errotik ere badago: deizkigutzu, beizkio (degizkiguzu, begizkio)... Baita ZA aditz-erroa TZA bihurtuta ere: ditzazkigula (dizaizkigula).

Lizarraga gipuzkeratuaren azterlan hau egin ondoren eta Lizarraga jatorra sakon-xamar ezagutzeko etsi-xamarturik nindagoela, ardietsi nuen Mirari Bidegain andereñoaren bitartez, “Seminario de Julio Urquijo”ko “Jesucristoren Evanjelio Sandua Juanec dacarran guisara”. 250 aleko ediziño hau Luis Luziano Bonaparte gure Printze ahortzi eziñak argitara eman zuen Londres'en, 1868'gn. urtean. Bidenabar, lerro hauetaz baliatu nahi dut, Mirari Bidegain andereñoari ene eskerrik beroenak emateko, Diputazio'ko liburuak neregixa erabiltzeko ematen didan libertadegatik. Adigarri hauen lehendabiziko zenbakia esaldiari dagokio eta bigarrena horrialdeari.

25-8. Eta ezpaizue beár eman ZEZON niork testimonio gizonas: ezi berak zekie zer dén gizona baitan (=zizaion).

21-14. Erraten dió Jesusek: Emastèkia, sinesta ZADAZU, etorri déla ordua, noiz ez oyan góntan, eztaér Jerusalemén adoratuko baituze (baituzue) Aita (=zaidazu). “Góntan” = hontan.

46-22. Sinesta ba ZINDEZOZIE Moisesi, sinesta ZINDEZAKETE agián niri ere. Gip.: Sinista ba'ZENIZAIOTE Moises'i, sinista ZENIZAIKETE agian neri ere.

34-25. Erran zióte bada ayék: Jauna, betiró eman BEZAGU (=bizaigu) ogi goi (hori); Inguratu zúte bada bera judioék, ta erraten zióte: Noiz árteo gauzki dudán (gauzka zalantzan)? Ori (berori) barinbada Kristo, erran BEZAGU klaro argiró (24-46); Erraten dio Filipek: Jauna, erakutsi BEZAGU Aita, eta áski dúgu (8-63).

7-34. Bada zirauteláik galdegiten, goratu zé, ta erran zióte: Zuetáik nor ere aurkitzen dén bekatu rik gabe, ark lenbizikorik tira BEZO arrukáldia (harrikáldia). Bezo = bizaio.

21-42. Baña nola ikusten duén orái, eztakigu: edo nork idiki-tión begiök, guk eztakigu: berórri galdegin BEZOTE: badú adín, berórrek erran béz (beza) bere búruas (=bizaioite).

37-47. Ezpaitut (ezpaditut) egiten ene Aitarén obrak, ez sinetsi niri. 38. Baña iten baditut: naiz niri eztidazen (ez didazuen) sinetsi nái, sinetsi ZOZIE obraei, ezauntzekó, ta sinestekó Aita dagóla ni-baitan, eta ni Aita-baitan (=zaiezue). Arestian ikusi dugu Platiketán, “zaiozue”ren itzulpenez erabiltzen (Konfesa *zozie* Jaunari).

22-50. Baña oraño ere badákit edozéin gauza eska DEZON orrék (berorrek) Jangoikoai, emanen dióla Jangoikoak (=dizaion); orái dakigu badakiela orrék (berorrek) guzia, ta eztuéla beár galdegin DEZON niórk: ontan sinesten dúgu Jangoikoagánik atra (atera) déla (30-71).

37-62. Erraten dio Pedrok: Zergátik ez DEZOKET segi orái? Ene anima orrengatik (berorrengatik) utziko dút (=dizaioket).

13-63. Eta edozéin gauza eska DEZÓZEN Aitari ene izénean, ori eginen dút: izan dáyen (dadien) oorátua (ohoretua) Aita Semean (=dizaiozuen); Ez nauzie (nauzue) zuék autátu ni: baizik nik autatu zaitzet zuék, ta paratu zaitzet (jarri zaitzuztet) joatekó, ta fruitu ematekó: ta zuén fruituak irauñ dézan: edozein gauza eska DEZÓZEN Aitari ene izenean, eman DEZÁZIEN (=dizaizuen) zuéi (16-67).

2-72. Ala nola emán zion berarí potestáde gizajende guziarén gain, eman DEZOTEN berak bizitza betirókoa, orrék (berorrek) berái emanikáko guziari (=dizaien).

21-77. Zergátik galdegiten dida niri? Galde BEZOTE aditu nautenéi, yá (ia) zer mintzatu diotéten (dieten): orrá ayék badakite zer erran duten nik (=bizaie). Arestian ikusi dugu *bezote=bizaio* (haiek galdegin bizaioite itxuari). Hemen berriz, Jesus'ek esaten dio Pontifizeari: berorrek galde bizaie aditu didatenei.

39-79. Baña usánza dúzie, utz DEZAZETEN bát libre bázkoan: nauzie (nahi dzue) bada utz DEZAZETEN libre judioén erréga? Badirudi lehengo kasuan “dezazéten” = DIZAIZUTEEN itzuli behar dela eta bigarrenean DIZAIZUTEDAN, alegia, “que os dejen (ellos) a vosotros” eta “que os deje (yo) a vosotros”.

15-85. Erraten dió Jesusek: Emastékia, zergatik zaude negárres? Nor billatzen dúzu? Ark ustés zén baratzezáyá, erraten dió: Jauna, orrék (berorrek) kendu barinbadú (baldin badu), erran BEZADA non paratu (jarri) duén: eta nik eramako dút (=bizait). Ene iritzian, “Ark ustés ZEN baratzezáyá” = “ark ustez ZELA baratzezaia” itzuli behar da. Alegia: *ze = zen* eta *zen = zela* kasu hontan, nahiz eta eskuarki gure “zèn” izaki, hots, erlatibo tankeran, presenteko “den”en laguna.

17-85. Errán zio Jesusek: Ez nazázula nái ukitu, ezi oraño ez náiz igán ene Aita-gána: baña zoáz ene anayen-gána, ta erran ZOZUTE: Banoáye igánes ene Aita-gána, ta zuen Aita-gána, ene Jangoiko, ta zuén Jangoikoa-gána (=zaiozue).

“Jabier'tar Frantzisko Santuaren bizitzatxoá” deitu liburutzotik (Iruñan'n, 1922) bi adigarri jaso ditugu. Hona hemen:

10. Eman zio lendanik orren señale zenbait Jangoikoak bein mostratu zio bere borondatea zela, zerbizta ZAION Indietan, ta balema bekala (ba'lerama bezala) indio bat bere soñean (sorbaldan) ezin jasos: berze bein adiarazi zio pasatu bear zuen

(=zuèn) trabajuketa andia: baña naiz bai, alaere Jangoikoaren amores asi ze oyus, yago (gehiago), Jauna, yago, yago (=zizaion/ziozan).

23. Jaungoiko (sic) berak argitus, bazekie Sanduak Indian asko gauza agitzen ziranak Españean. Bein kongojaturik bota ze agos bera goatze baten gañean, egon ze ala nola sentidoik gabe; ta gero txutiturik erran zun (sic), Jaungoikoak (sic) barka DEZAZULA, urlia (=dizaizula).

Oharra.—Dakusagunez, Lizarraga'k beti D + EZA sistema darabil. Zalantzarik gabe “I” eroria dute adizkerok. Halaxe *dezon diezon*, izanen zen, *dezazula diezazula, bezo biezo* eta abar. “I” datibo ezaugarriaren galtze hau Nafarroa garaian eta beheanean gertatzen da baitipat, Bonaparte'ren tabuletan dakuskegunez. Alderdi txar bat dauka, alegia, batzutan jokaldi zuzenekoekin nahasten dela. Adibidez: DEZAZULA, zuk egin *dezazula* eta harrek egin *dizaizula* da. Eskertzekoa da benetan Jaundone Antxiko'ren bizitzatxo hau argitara eman zutenek, zen zenean egitea, alegia, Lizarraga'ren mintzaira batere aldatu gabe.

XV. JOSEPE OTXOA ARINEKO

DOCTRINA CHRISTIANAREN EXPLICACIOA

(Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguiten dan moduan Erri Noble onen instanciaz escritu ceban beraren Vicario, eta Capellau D. Joseph Ochoa de Arinec: Pueblo onetaco Aurray iracasteco. Urte 1713. Donostian: Pedro de Ugarte, ren Echean). Nik bigarren ediziñoa erabili dut. Beronen titulua: “Ordisiako Doctrina Christiana da Gipustarren Hauskarasko libruetatikan saarrena. 1902 Urtean. Berriz argiratu dezu Done-Bastian-en Lamberto Lancis-en Echean”. Josepe Otxoa-Arin Ordizia'n jaiotzen zen 1672'gn. urtean eta 1697'an bikario bezala ageri zaigu Ordizia bertan. 1743'gn. urtean hil zela ere badakigu, baiñan besterik ezer gutxi. Hau dugu Gipuzkoa'n inprimatu zen lehenbiziko euskal-liburua, gipuzkeraz. 1691'gn. urtean beste dotriña bat argitaratu zen baiñan bizkaieraz eta ezta beronen alerik konterbatu.

11. Zorzigarrenak, testimonio falsorik inori jaso ez DIOZAGULA (=dizaio-gula).

40. Eman DEIGUN (Jaungoikoak) eskatzen diogun guzia (=dizaigun).

51. Ezin eskatu DEIKEON moduan bere konsorteari (=dizaiokean).

58. Bakoitzari zor dionazienda, interesa, onra, edo fama restituidu, edo biurtu DIOZAKEALARIK ere, biurtzen ez dionean (=dizaiokealarik). Gogoan har dezagun adizkera hau bigarren ediziño hontan zuzendua dagoela, zeren lehendabizikoan DIZOCOALIC ageri baita, baiña Campión eta J. G. Oregi jaunek uste izan zuten, adizkera itxuragabe hau kajistaren erruz erten zela eta erregulariki itxuratu zuten.

94. Itaundu BEGIO konfesoreari (=bizaio).

96. Bada orrenbestez eman NEIKEO kausa, edo motiboa (proximoari), artu dagian (dezan) bertatik neuronon kontra odio, edo gaitzerizteren bat (=nizaioke).

Oharra.—Dakuskegunez, Otxoa-Arin'ek ZA eta EGI edo EI aditz-erroak darabilzki: dio-ZA-gula, d-EI-gun, b-EGI-o. Datiboko adizkera hauen erabilkizunean pobrea dela aitortu behar.

XVI. AGUSTIN PASCUAL ITURRIAGA

DIALOGOS BASCO-CASTELLANOS

(Para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa, por D.A.P.I.P. Hernani, año de 1842.)

26. Esan ZADAZU, Basilio (=zaidazu).

40. Ezin esan DIZAZUKET zer gogoz zure jolasa (solasa, jarduna, eleketa) entzuten dedan (=dizaizuket).

63. Euliak jo ez dezan, eta arrak sortu ez DITZAIKZION: ara zer egiten duten, toki askotan (=dizaizkion). Halabaiña, gatzaz ari da eta arrak *sortu ez dakizkion* edo hobe, *arrik sortu ez dakion*, esan behar luke. Pasibo ordez aktiboa erabili du.

“Obras inéditas de Iztueta” deritzan liburutik (La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968), Iturriaga’k Iztueta’ri egin zizkion eskutizetatik hauetxek atera ditugu:

172. Ez DIOZAKET agertu (=dizaioket).

175. Millaka eskerrak eman BIZAIZKIE (hutsegitez “bizaisguie”) jaun galant eta adiskido on oiei (=bizaizkie).

175. Nai BIOZAYO (=bizaio).

176. Erakutzi BEGIE nola portatu bear dan bein etsaia aspian artu ezquero ez geroago altxatzen usteko (=bizaie).

Oharra.—Dakuskegenez, Iturriaga’k eskuarki “-za-” aditz-erroa darabil. Behin, ordea, “-tza-” (nahiz ta “t” hori “zki”z gaiñerako pluralgille bat izan ditekean) eta beste behin “-egi-” (begie).

Agustin Pascual Iturriaga (1778-1851), Ernani’n jaio eta hil zen. Eliz-gizon ikaskizunak Andoain’go Apaizkaitegian egin zituen eta gero Oñati’ko Ikastetxe Nagusian. Apaiztuz geroztik, bere bizitza guzian irakaskintzan jardun zen. Literaturazale eta kultura handiko gizona zen. Bere ideia zabaltasunagatik enziklopedizatatzat salatua izan zen faltsuki, beti iraun baitzuen Elizaren ortodoxia barruan. Beharbada politikaz karlista izan zen, zeren hauek gerla galdu zutenean (1839) sasi-muga pasa behar izan baitzuen eta Milafranga’ko Larraldea jauregian (Lapurdi) bizi izan zen, baiñan, 1841’ean edo 1842’an behintzat berriro Ernani’n dakuskegu. Iturriaga’ren sona eta fama bere alegi edo fabuletatik datorkigu batez ere.

XVII. JUAN ANTONIO UBILLOS

“CHRISTAU DOTRIN BERRI-ECARLEA”

(Christauari dagozcan Eguia sinis - beharren- berria dacarrena. Jaun Claudio Fleuri Abadeac arguitara atera zuanetic Fray Juan Antonio Ubillos-coac Eusquerara itzulia. Bi parte edo zatitan berezia, ta erdiratua. Lendavicioò zatiac dacar, Jaincoarèn legue zarrean, ta berrian gertaturicaco gauzen berri laburra: Bigarrenac, Christavac jaquin, ta sinistu behar dituan, eguien eracustea, ta icas-videa. Behar bezala. Tolosan: Libruguille Francisco de la Lama-rèn Echean, 1785 Urtean).

16. Bestek guri egitea, naiko ez gendukean, gauzarik iñori egin ez DIOZAGULA (=dizaiogula).

18. Jainkoak eman zion Abrani, Isaak zeritzan seme bat; eta erakutsi ziona, sinistu ote zuan, eta esan ziona, egingo ote zuan progatzeko eta ekusteko, agindu zion, doai-eskeñi, edo Sakrifizioan present egin ZIOZALA bere seme maite onezaz, Aldare batèn gañean bizia kentzen ziola (=zizaiola); an eskatu zion bere Aitari, alba-zan, ken ZIOZALA Pasiocò Kaliz latz, edo edari miña; ta eman ZIOZALA beste bideren bat, mundukò gaiztoen zorrak ateratzeko (87).

22. Egondu ziran oek (Moyses eta Aaron) Faraonekin eta Jainkoaren izenean agindu zioen, utzi ZIEZELA, maite zituan, Israeltarrai, edo Jakoberen odoletik ziranai, Ijtotik irteten (=zizaiela).

51. Nabucodonosor Erregeak eragin zuan, gizona zirudian, urrezko tallû, edo estatua bat, eta agindu zuan, guziak agur egin ZIOZAE LA urrezko gizanz hari (=zizaiotela); eremutik jetsi zan Galileara. An esan zien lau Arranzaleri, jarra(i) ZIOZAE LA (76).

176. Bai-ta ere agintzen digu, hondra dezagula Erregea, ta errespetoa ekarri DIEZAGULA, haren ordeaz agintzen duen, Kargudunai, ezagaturik, Jainkoak ipiniak dirala guziak, zein bere tokian (=dizaiegula).

214-215. Olio bedekatuarekin eria gantzuzten duela begietan, belarrietan, sudurretan, ahoan, eskuetan, oñetan, ta gerri-aldean, edo bekatu-bide guzietan, eta gantzuzte bakoitzean eskaten dioela Jainkoari, barka DITZAIKZKALA eriarri, bere gorputzeko zati, edo parte bakoitzarekin egin dituan, bekatuak (=dizaizkiola).

Oharra: Ubillos'en adizkera I + ZA da, baiñan gipuzkera zaharreko ordenean erabillirik, hots, DIOZAGULA eta ez DIZAIOGULA, ZIOZALA eta ez ZIZAIOLA. Behin “TZA” aditz-erroa darabil (ditzaizkala).

Juan Antonio Ubillos (1707-1789), Amasatarra zen, baiña aita Andoain'goa zuen Ubillos baserrikoa. 1722'an Antxikotar jantzi zen Arantzazu'ko Etxe-Donoan eta hemen egin zituen bere lehenengo estudioak. Arantzazu'tik Alacalá'ra joan zen goi-ikasketak egitera. 1755'ez geroztik, Maixutu zelarrik, fraidegaiei filosofia eta teologia erakusten dakusagu Tolosa'ko eta Arantzazu'ko komentuetan. Jakintsu handi bat izan zen eta Fleuri'ren itzulpen hontaz gaiñera, hiru filosofia-liburu lodi utzi zituen idatzirik latíñez: *Philosophia Rationalis*, Donostia'n, 1775; *Philosophia Transnaturalis*; Donostia'n argitaratua ere eta *Philosophia Naturalis*, Gasteiz'en, 1762 (1).

XVIII. JOSE MIGEL BARANDIARAN'EN HERRI-JAKINTZA BILDUMATIK JASOAK

EL MUNDO EN LA MENTE POPULAR VASCA (Tomo III) (CREENCIAS, CUENTOS Y LEYENDAS)

Colección Auñamendi, 1962

53. Orroko urritz orri kenduta ekai (ekarri) EAZU (egidazu?) ur ale'at (urr ale bat). Badirudi laburpena egidazu → eidazu → eiazu → eazu izan dela (=zaidazu). (XI, Ataun, Gip.).

(1) Gauza jakinguratsu bezala esan dezagun Aita Ubillos Antxikotarra izan zela “h” letraren aintzindari egoaldeko Euskalerria'n. Intelektual bat eta Arantzazu'ko Anaiarteko irakasle izan zen eta gaur ere intelektualetan eta Arantzazu'ko fraide gaztetan ditu “h” letrak defenditzaillerik handienak.

62. Bixigûk esa'ementzion utzi ZEIOLA libre (=zizaiola/ziozala). (XIII, Ataun, Gip.).

94. Urdûn gizon arek esa'ementziên: nik emango izuêt zaku'at bete urre eta baso'at; emendi urte beteako asmatzen bâzua basoa zêkin eîñe dan, zûntzat izan deilla zaku-urreea, ta bestela nêtzako izen dittezela zûn goamenak (arimak).

Bi anaiêk etxea jûn ementzien, eta Jainkôri maiz errezatze'ementzioên arren baso ue zêkin eîñe zeôn azaldu ZEIZKIELA (=zizaiela). (XXIII, Ataun, Gip.). Adizkera hau oker dago, normalki ZEGIELA baita eta laburturik ZEIELA. Eztu pluralizadore beharrik.

97. Illea oso nâstuik daukezu eta zerbait zuzentzea obe izengôzu. Neonek orraztuko'izut.

— Oinbesteaño diozun ezkeo, orraztu IAZU bâ (=zaidazu). 53'gn. horrialdeko "eazu" hemen "iazu" egiten zaigu (XXV, Ataun, Gip.).

101. Esa'IUZU zuk eskolea nun daôn (=zaiguzu). Etorkia: egiguzu → eiguzu → eiuзу → iuzu (XXVI, Ataun, Gip.).

120. Ta txerri batekin zetorrek... Ken (t)ZAYOUN (=zaiogun/dizaiogun). (XXXII, Oiartzun, Gip.).

124. Biali ZADAK errekek norbatekin olako tokitara (=zaidak). (XXXII, Oiartzun, Gip.).

Aztarrikatzen ari garen liburuak, herri-ipuiñen ondoren, Juan Kruz Zapirain bertsolariaren "Santa Genobeba'ren bizitza" deritzan poema hunkigarria dakar. Juan Kruz, Errenteriarra zen eta etzekien ez irakurtzen, ez idazten. Poema hau 1899'gn. urtean diktatu zuen, Santa Genobeba'z irakurri zioten biografia batez baliaturik.

143. Konbeni zaigun ixtoriya bat kantatu al ba'geneza... Orretarako lagun ZAIGUZU zeru-lurreko Jueza (=zaiguzu); Komeni ba'da eman ZAIGUZU ondo iltzeko graziya (173).

151. Kontu ixillik ba'zeukan ezer, arren, esan ZEZAYOLA (=zizaiola/ziozala); zijuanian biatzetikan kendu-ta eman ZEZAYOLA (158).

152. Papera, argiya, tinta ta pluma ekarri ZEIZKIYOLA (=zizaizkiola). Erregularki: *zegizkiola*.

153. Begiyak tapa AKIZKA (=zaizkiok). Kasu hontan bertsolaria adizkera aktiboaz baliatu beharrean pasiboaz baliatu da. Usadio hau oso herrikoia da, aginkorrean batez ere. Halabaiña, pasiboko forma egokiena aktiboaren zuloa betetzeko AKIZKIO da. Halabaiña, egiazko pasiboak ez dezake "-zki-" pluralizadorearik har, zeren objeturik ezpaitago. Beraz, "joan hakio" esanen dugu eta ez "hakizkio". Iñoiz esan dugun bezala, Donostiar zaharrek "esan hakio" (eta zoritxarrez baita "esan akiok" ere) hitzetik hortzera zerabilten "esan zaiok"en partez.

154. Ire zakurra akaba zangun... bertan zaukagu guziya... Aren begiyak eraman-da oni (Golo'ri) utzi ZAYOGUN biziya (=dizaiogun); eska ZAYOGUN Jesus'i (165).

158. Erastun ori eman ZAYOZU (=zaiozu).

160. Amatxo, orain Jaungoikuari eman ZAIZKAGUN graziyak (=zaizkiogun/dizaizkiogun).

Jose Migel Barandiaran'ek bere “Mitología Vasca”n (Ediciones Minotauro, Madrid, 1960, 118 hor.) dio: “En Ceráin saludan a la luna diciendo: Illargi amandre santue, Jainkôk bedeinkautzala (bedeinkatu dezala); nere begi ederrak gaitzik ez DEIOLA (=dizaiola); ikusten duen guzik ala esan DEIOLA. (Luna abuela santa, que Dios le bendiga; que mi ojo fascinante no le traiga ningún mal; que cuantos la ven, de igual modo le hablen)”.

Oharra.—Dakuskegenez, Goiherri'n (Ataun eta Zerain) “-egi-” aditzerroa darabilte eta Oiartzun'en eta Errenteria'n “-za-”, eskuarki beñepein. Zapirain'ek “EZA” aldakera darabil bi bider (zezayola) eta behin “E(G)I” (zeizkiyola). Pasiboko edo hobeki esan pasibotik eraturako AKIZKA (=akizkio) ere badarabil. Adigarri hauekin bildu nahi izan ditugu gure herri landugabeak XX'garren mende hasieran zerabilzkien adizkera batzuek. Esan dezakegu gaur ere herriak tankera beretsuan erabiltzen dituela.

XIX. TEXTOS VASCOS DEL SIGLO XVIII, EN TIERRA DE ESTELLA

(MATERIAL PARA EL ESTUDIO DE LA VARIEDAD DIALECTAL DEL ALTO NAVARRO MERIDIONAL DE LA ZONA ESTELLESA)

Horra zer dion D. Manuel Lekuona'k (1) lan ernagarri hontaz:

“Se trata de un Sermonario, hallado en el pequeño lugar navarro de Muzqui, Valle de Guesálaz, al norte de Estella. Un fajo de 33 cuartillas de papel de hilo, conteniendo cuatro sermones en vasco, predicados en el último tercio del siglo XVIII, sin duda en las Parroquias del Valle guesalaztarra.

El curioso documento se conservaba en el archivo familiar de la Casa Infanzona de los Martínez de Morentin, en aquella localidad.

Los sermones son de los “de Misión”, del Santo Tiempo de Adviento, más bien que de Cuaresma.

Los dos primeros están escritos en letra corrida; los dos últimos, en trazos más premiosos, de mano diferente, a pesar de la semejanza de contenido y de lugar del hallazgo.

El autor de los dos primeros, a juzgar por la letra, comparada con la de los Libros de Partidas de la Parroquia muzquiiana, resulta ser D. Francisco Martínez de Morentin, Abad de aquella Parroquia a partir de 1765, que venía siendo antes Beneficiado de la misma, por los años 1763, y muere en 1782. El autor de los dos restantes, debe ser el que en los Libros Parroquiales aparece como Abad desde 1783 hasta 1797, D. Francisco Antonio Martínez de Morentin, familiar sin duda del D. Francisco.”

Cap. I - 375. O, nere Jauna, ya ke ta ez gaden (garen) digno zure erreñura joateko, konzedi ZAGUZU zure piedade andi orrengatik egotea sikiera zure oñen azpien! (=zaiguzu/iezaguzu).

(1) *Fontes Linguae Vasconum*, año V, núm. 15, setiembre-diciembre, 1973 (Pamplona).

I - 376. An eskribizen zitu (zituen) bekatarien kulpak eta errausean (errautsean) eskribizeareki manifestatu zigu (zigun) fazilidade andiereki borratu DEZAZKIGU-KELA (=dizaizkigukela/diezazkigukela).

II - 376. Beldurtu ze (zen) Herodes bietatik batek ekenduko ziola bere Erreñue, eta orgatik publikatuarazi zue (zuen) Edikto inpio eta kruel ure zeñeki manazen (manatzen, agintzen) zue bi urtetik berako aur guziegi (guzieri, guziei) ekendu ZEKIO-TELA bizie ustes (ustez) gisa ontan illen zituen (zituela) biok (1), eta gerostik geldituko zela beldurrik gabe (=zizaiela/ziezaiela).

II - 378. Erran ZADAZU orai: nauzu (nahi duzu) zuk inbentatu dezan Jangoikoak zuretako berze medio at (bat) igozeko zerura? (=zaidazu/iezadazu); Erran ZADAZU bekatarie, galdeiteinzu (galdegiten dizu) San Agustifiek: sartu baledi emen eliza ontan argin maisu et (bet, bat), sar baledi ingeru et (bet, bat), eta erran balez (baleza): Jaunak, atera beize (bitez) pronto, zergatik eliza onek amenazazen du ruina, erorzera duei (dihoa)... Esperatuko zinduke geroko aterazera? (378); Erran ZADAZU deshonestoa: noiz uzi (utzi) bear duzu amistade profano ori eta kostumbre torpe ori? (379); Erran ZADAZU: Ill balakizu anaia bat aniz estimazen duzuna eta albazenzake erresuzitetu akto kontriziosko ateki (batekin), esperatuko zinduke (zenduke/-zenuke) berze egun bateraño erresutiazeko? (382); Erran ZADAZU kristioa: ezta-kizu eze Jangoikue apartatu zela zureganik zuk ofenditu zinduenean (zenduenean) Jangoikue? Erran ZADAZU: eztakizu eze zuk kometitu zinduenean (zenduenean) juramentu falsori (falso ori) eta zuk daukezun odio perbersoreki zure proximo lagunnen kontra, eta zure enbidie malbatu orreki, eta zure torpeza infame orreki ofenditu zenduela Jangoikue eta apartatu zela zureganik eta zure arimeti? (IV - 388).

II - 379. Karrikan zuazelarik eman BALEZAZUTE puñaladaren bat edo eridaren bat mortalea, alborotatuko zinduka (zenduke) barrede (barride, hauzo) guzie oius (oihuz) konfesio eskazen; eta egonikan zure anima ori eriturik bekatuareki, nai duzu uzi konfesioa geroko? (=balizazute/balizazute/baliezazute).

II - 379. Badago arraziorik (arrazoirik) ontako? Eta badago arrazionik (arra-zoirik) egonikan ya infernuko atarietan zure bekatuek dirala medio eta ofrezizein zularik (ofrezitzen dizularik) Jangoikuek eskua aterazeko eta librazeko, errespondatu DEZOZUN eztuzula nai berze egun bateraño? (=dizaiozun/dieziaiozun).

II - 380. Katolikoa, bekatu mortalean zaudena: ezta burlesko negozioa, salbazeko negozio au: *Ne diferas de die in diem*, errateinzu (erraten dizu) Espiritu Sanduek: ez gabilzela luzezen egun batetik berzera. Egund bizi zada (zara, zera, zira), egun ofrezizeizu (ofrezitzen dizu) Jangoikoak barkazioa arrepintizen bazada (bazara). Baña ez dizu ofrezitzen biar ori (biharko egun hori) arrepintizeko, erraten du San Agustín'ek: *Diem crastinum non promisit*. Zein ongi minzazen da assumpto ontara Errege Profeta David: *Quemadmodum* etc.: minzazen delarik Jangoikoareki, erraten dio: "Oreña joaten den bezala prisakan iturriek billezera (billatzera) egarrie duenean, ala, Jauna, juaten da ene anima zure billen (billa). Eta zer prisa eramaten du oreñek? Adi ZOZE San Epifanio'ri: Du oreñek propiedade bat: juaten da, serpienteak, suge eta berze sabandije benenosoak billara (billatzera), eta sarturik bali (balin, baldin) badaude beren kuebetan, atra arazteintu (atera-arazten ditu) asareki (asa: *aliento*; *atsa*: *aliento pestifero*, *hedor*) eta jateintu (jaten ditu) eta asezen denean bianda perni-

(1) "Biek" eta goraxeagoko "bietatik", Jaun-done Ioane Bataiatzaillea eta Jesu-Kristo gure jauna dira.

zioso oneki, egarriak itorik juaten da al duen prise guziareki ura billara (ur billa). *Bal-gate Dios*. Oreña: zertako ainberze prisa? Eske bizia duakio ontan. Baldiñetan iru orduren denburuen (buruan: badirudi “den buruan” edo “burua denean” dela) ezpa-
du opazen (topatzen) urik, ilzen da erremediorik bage belenoaren (benenoaren) bio-
lenziareki. Nola bada estu (eztu) laster egin bear juan prisakan ain denbora gutxi gel-
ditzen bazaio bizizeko ezpadu edaten? Orgatik dio David’ek, laster egiten (korritzen)
duela oreñek bezala, zergatik eztu arkizen iru ordurik ere egosteko (botatzeko, jaurti-
kitzeko) bere animatik bere kulpen benenoa, eta beldur ze (zen) arrapatuko zuela
eriozeak bekatuen zegolarik (=zaiozute/zaiozue/iezaiozue); A fielak, akabatu bazen-
zate (akaba bazenezate, akabatu bazenute) entendatus (entendituz, ulertuz) zer
peligroan arkizen zadaten (zaraten)! Adi ZOZE erraten Espiritu Sandueri: *Subito
enim veniet ira illius*. Erraten du bada: eztezazula luzetu egunetik egunera izulzea
Jangoikuen gana, bear eta nezesarioa den penitenziareki, zergatik berzela derrepente
subito etorko da Jangoikoan kastigoa zure gañera (380).

II - 381. Eta karta eramán zuan (zuán/zuén) propioari erran zio (zion): Tori
kartau (karta au), eta non arkizen duzun sujetoa, an berean eman ZOZU eta erran
ZOZU bereala leitu dezala, zergatik da inportaziosko negozio at (bat) (=zaiozu/ie-
zaiozu); Arrepentizeareki emaiten zu (ematen dízu) lizenzie aterazeko infernue baño
estado gaiztoagotik baite (baita) bekatuena. Eztezazule galdu okasio au; ellegatu zeit
(aillegatu zaitetz) (1) bada oin sagratu (Jesukristo’reinak) ebetara (hauetara) eta senti-
mendu andi bateki erran ZOZU: Jesukristo nere Jaune, etc. (382).

II - 378. (Hutsegitez tokiz atzeratua). Sentizen zitue (zituen) Sando onek (San
Agustin’ek) bere biozean Jangoikuek ematen zizkion alabadak, atera zaien (zedin)
bere errore eta kulpetatik. Egiten ziote (zioten) fuerza inspirazio berdadero aiek, eta
ez atrebiturik erratera, ezez, errespondazen (zion) Jangoikuerei, gero konbertituko
zela, uzi ZEZOLA gutxi bat bere bekatuetan: *sine paululum*. Bañe ezautu zuenean
bere errorea, erran zue (zuen), gero izan bear balin badu, zergatik ez bereala? Berala
konbertitu ez (zen). (=zizaioa/ziezaioa).

II - 381. Suzenditu DIZAKEZU zuri (= dizaiketu/diezakezu).

II. 382. Trabajatu zue (zuen) konfesoreak bere alegin guziareki, baña errespon-
dazen zio (erantzuten zion): Uzi BEZADA, Aite, ez nazala kansatu (= bizait/biezat).

III. 386. Orei arteño bizitu barimagada (baldin bagara) desagradezitirik Jaun
Soberano arri, eta oreitu bege (oroitu bage, gabe) Juizio egunas (2), ofrezitu ZOGUN
serbiziera emendik aurrera amorio andi bateki (= dezogun/dizaiogun/diezaiogun).

IV. 389. Eta au suzedizen dakiote (zaie) *por lo común*, amanzebaturik daudene-
gi (daudeneri/daudenei), enbriagazen direnegi (direnei), eta odio eta errenkore dauke-
tenegi (daukatenei), bada etorriko dire abek konfesazera, eta konfesatuko dituste
beren frajilidadeak, eta konfesatu eta *al instante* edoriko (eroriko) dire konfesatu
ditusten bekatu aietara; eta zer señaile da au? Eze ezauketela dolorerik eta proposito-

(1) Badirudi ZAIT edo ZEIT, “zaitetz” aginkorra dela. Iku beste adigarri hau: “Edo apartatu behar duzu bekatuaren okasiotik edo izan demonioaren esklabo eternoa; edo barkatu bear diozu biozes agrabia zaituenari edo erre bear duzu infernuen eternidade bates. Gauza fuertea! Eztago berze mediorik? Desengañatu ZAIT (zaitetz) eztagola”.

(2) Testuan, hutsegitez, noski: “Juizioa, egunas”. Esaldiak zentzua har dezan –asmatu uestez– aldatu dugu.

rik eta gisa ontan prosegizen dute, beren konzienziek egin arteño kalloek eta gero konfesio on bat egiteko bear dute, aniz ausilio eman DEZOTEN Jangoikuek, zergatik gogorzen dakiote (zaie) bioza bronzea maño (baño) geiago (= dizaioten/diezioten).

IV. 390. Ikusazu nola portazen da(n) demonioa zureki eta nola serbizen zaitun zure gusto eta des(e)o guzietan, eta ala errazio (arrazoi) izanen da zuk korrespondi ZOZUN eta egin DIZOZUN alako serbizioren bat demonioari (= dizaiozun/dieziaiozun: Forma osoa eta laburtua ageri zaizkigu alkarren ondoan).

IV. 390. Ai Jauna: ni naiz munduen den bekatarieen andiena eta ezin sinistatu dezakit (dezaket) Jangoikuak barkatu DEZAZKIDALA nere bekatuek (= dizazkidalada/dizaizkidalada/diezazkidalada).

Oharra.—1. Eskuarki “i” datibo ezaugarria ez darabilte: *dezazkigukela, balezazute, dezozun, zezola, bezada, dezoten, dezazkidalada*. Besteok, ordea, “i”rekin: *dizakezu, dizozun*.

2. DE (DI) haskiña erortzen da zenbait aldiz: ZOGUN (dezogun), ZOZUN (dizozun).

3. “T” datiboaren orde, “DA” (lehenen pertsonakoa): BEZADA (= bezat, biezat, bizait). Indikatiboan halaber: “Iduri ZAIDE ez ez” (382 p.) = Iduri ZAIT ezetz. Kaso hontan DE agertzen da DA orde, aurreko silabako “i” letraren eragitez. Beraz, ZAIDE = ZAIDA = ZAIT.

4. Aztertzen ari garen *-eza-* errodun aditzekin, eskuarki, *-tu* (1) aditz-izen atzikia darabil, baiñan *-bidezkoago denez-*, kaso batzutan ez du eraxten. Atzizkiarekin: *borratu dezazkigukela, errespondatu dezozun, utzi zezola, suzeditu dizakezu, utzi bezada, ofrezitu zozun, barkatu dezazkidalada*. Atzizki gabe: *konzedi zaguzu, adi zoze, korrespondi zozun*.

5. Behin bederen intransitiboko adizkera darabil transitiboaren orde: *ekendu zekiotela* (= kendu ziezaiela).

Irakurleak barka bizaizkit *-ez* baitu *-eza-* aditz-erroarekin zer ikusirik *-zait-zeit* adizkera bitxiar bi adigarri gehiago:

1. Aski da orain artio ofenditu duzuna Jangoikue. Paratu ZEIT (jar zaitetz) salboan, zergatik eztaukezu ordu segurorik (381).

2. O katolikoak! Ikusten duze (duzue) zertara ellegazen den anima bat luzezeangatik egun batetik berzera konfesioa eta konbertizea? Determinatu ZAIT (= zaitetz) bada ez egoter (egotera) orduetes (ordu betez) ere bekatuen, bada posible da ez ellegazea biarko egunera (382).

Aditzera eman gura nuke ere IV-390 esaldian ageri den DEZAKIT (= dezaket) adizkera (sinistatu dezakit = sinistra dezaket), ez dela hutsegitea, zeren beste zenbait tokitan ageri baita. Horra:

1. Admirezen naiz eze dagokela munduan persona ain juizio gutitakorik eze zildu (ixildu) dizatela bekatuek konfesore bategi (bateri, bati) jakinin (jakiñean) ezin erran DEZAKILA daus (deus) ere (383).

2. Ezautu zu (zuen) bere konfesoreak zer estaadotan arkizen zen eta esan zio (zion) konfesatu ZEZAKIELA bere bekatuek (390).

Bukatzeko, aditzera eman dezadan sermoi-iskribu hauetan ez direla “z” eta “tz” hotsak bereizten (halaber “s” eta “ts”). Beti “c” edo “z” agertzen da. Zenbait kasotan zaila da bereizten “z” ala “tz” ahoskatu behar den eta, horretxegatik, okerrean erortzeko arriskuari ihes egin nahirik, beti “z” erabiltzea erabaki dut. Irakurleak bereiz bitza bere irizpideak agintzen dionez.

(1) *Barkatu, jorratu, lapurtu...* Halaber, *-i* aditz-izen atzikia, hala nola, *ikuski, irakurri, bereizi, utzi...*

XX. IUAN BERIAIN

“TRATADO DE COMO SE HA DE OYR MISSA, ESCRITO EN ROMANCE, Y BAFCUENCE, LENGUAGES DE EFTE OBISPADO DE PAMPLONA”

(Compuesto por el Licenciado don Iuan de Beriayn, Abad de Uterga. Año 1621. En Pamplona. Con licencia del Real Confejo de Nauarra).

Honela dio Villasante-k “Historia de la Literatura Vasca”n (97 p.): “Ioane Beriaingo lizenziatua, Uterga-ko erretorea edo —orduan esaten zenez— abadea (abad) zen. Iruñeko herri-barrutiko hirixka bat da hau eta hiriburutik hamazazpi kilometrotara dago. Beriain, bi liburu mintzairabikoen egile da. Bata, *Doctrina Christiana* izenekoa, Iruñean argitaratu zen 1626-gn. urtean. Tekstua bi hizkuntzetan dator, alegia, gaztelaniaz eta euskaraz. Besteari honela deritza: *Tratado de cómo se ha de oír Misa, escrito en romance y bascuence, lenguajes de este Obispado de Pamplona*. Hau ere Iruñean argitaratu zen 1621-gn. urtean.

“Bi liburuok oso arraroak dira. Aditzera eman behar da euskara aspaldi suntsitu zela Utergatik eta beronen inguruetatik, baina, Beriain-en denboretan hizkuntza hau “abadea”ren eliztiarrena zen, A. Legarda-k demostratu duen bezala. A. Legarda-ren ustez, Beriain,Utergakoa bertakoa zen noski, eta herri honetan hil bide zen 1638 inguruan”.

18. Guk igor DRAZOGUN (=diezaiogun); nai du dei DRAZOGUN Aita gurea (91); eta aren medios otoitz egin DRAZOGUN barka drazkigun geuren bekatu guziak (126).

19. Eta ala erran dezakegu eze Birjina Mariari, eta bertze sanduei ezin eman DRAZOKEGUTELA anbat honra, eta kontentu (=dizaiekegula).

28. Nola atrebitzen den eskatzera Erregeri mertxede egin DRAZON, jakinika dagola aren desgrazian (=diezaion); eta aditzera eman DRAZON aren honrako, eta zerbitzatzeko konbeni den guzia, eta eman DRAZON fabore obratan ezartzeko (56); Sazerdoteak ofrezitzen dio Iaungoikoari duena baita ogia, eta ardoa andik fite itzul DRAZON obeturik (58).

30. Zeren mezan eskatzen diogu (Iaungoikoari) barka DRAZKIGUN aren dibina Majestadearen kontra egin ditugun faltak (=diezazkigun); batzuetan eskatzen dio barka DRAZKIGUN bekatuak (44); eta otoitz egin, eman DRAZKIGUN bere bizia, eta heriotzean merexitu zizkigun ondasunak (70); Borzgarrena, eskatzen dioguna da, barka drazkiguzu gure zorrak, guk barkatzen dizkiotegun bezala gure zordunei, eskatzen diogula onetan barka DRAZKIGUN geuren bekatuak, eta dakigun zenbat eskatzen diogun onetan (93); Alaber eskatzen diogu barka DRAZKIGUN bekatuen gatik zor dugun pena (93); Eta guri obekiago eman DRAZKIGUN berak, Mezan gure partes eskatzen dizkio bere Aitari (95); Alaber erdesteko (ardiesteko) Iaungoikoaren ganik mundu oneta bizitzeko, bear ditugun gauzak, osasuna, hazienda, eta bertze gauzak, mediorik oberena da, Meza ongi entzutea, eta otoitz egin eman DRAZKIGUN Iesu Kristoren amorekatik on diraden bezala bienabenturanza erdesteko (109).

39. Iaungoikoaren aurrean Mezako misterioak zelebratzen, eta egiten diradeanean, otoitz egiten dutela aren Majestadeari eman DRAZOTEN fabore, eta grazia Sazerdoteari erran dezan meza ongi, eta an daudenei, alaber entzun dezaten (=die-

zaien); Denbora onetan, da ongi Meza entzuten dutenek ofrezki DRAZOTEN (=diezaioleten) Iaungoikoari zerbait (59); Laugarren intenzioa da IesuKristoren medios eman DRAZOTEN (=diezaien) (kristio fielei) Espiritu sanduaren grazia, eta libra ditzan Iaungoikoak (kristio fidelak) gaitz guzietarik (72/73); deklarara DRAZOTEN (125: ondorena jana dago); ofezi DRAZOTEN (= diezaioten) bere Aita eternoari (126).

44. Eta humildadereki, eta debozioreki erran BRAZO: Iauna, Meza ematen duenak eskatzen dizuna Elizako ministrok bezala, nik neure partetik areki batean otoitz egiten drauzut eman drazaguzun Iesu Kristo gure Iaunaren medios (= biezaio); Ebanjelioan zer dion aditzen ez-tuenak latinik, ez jakin faltas otoitz egin BRAZO Iesu Kristori (56); eta onetas oroiturik otoitz egin BRAZO, erraten duela (98).

45. Iauna, Meza erraten duenak eskatzen dizuna Elizako ministrok bezala, nik neure partetik areki batean otoitz egiten drauzut eman DRAZAGUZUN Iesu Kristo gure Iaunaren medios (= diezaguzun); otoitz egiten drauzut eman DRAZAGUZUN Iesu Kristo gure Iaunaren medios (98).

69. Bereala Meza erralleak abisatzen ditu guziek graziak eman DRAZKIOTEN Iaunari arengatik erre-zibitzen ditugun ondasunen gatik (= diezazkioten); Irurgarren intenzioa eramo (eraman) bear duena da, ofrezitzea Mezan ofrezitzen den sakrifizioa bere, eta bertzen bekatuen gatik, aren medios barka DRAZKIOTEN (= diezazkien / 72); eta eman DRAZKIOTEN (= diezazkien) (Iaungoikoak) gauza aiek guziak aren honrarako, eta zerbitzuko diradenak (73).

70. Eta non nai, denbora guzietan, eta leku guzietan graziak eman DRAZKIOTEN, nola egiten baitute aingeruek (= diezazkiogun); eta ango gauzak eskatzen dizkiogunean dauzkigun han geuren pensamentuak, eta gauza ohek eska DRAZKIOTEN konfianza andiareki emanen dizkigula (91).

71. Ene Aita eternoa, nik ofrezitzen drauzkizut neure trabaju guziak, neure odola, baitakizu zenbat balio duen, eta neure bizia, ene amorekatik barka DRAZKIOTEZUN bekatari-beren bekatuak (= diezazkiezun); Alaber ofrezitzen drauzut ene Aita, eta Ama gatik, Aiden, Adiskiden, eta ondasun egillen gatik, barka DRAZKIOTEZUN beren bekatuak (76).

75. Alaber ofrezitzen drauzut Iauna sakrifizio au, onen medios urrikari zakizkidan, eta barka DRAZKIDAZUN neure bekatu guziak (= diezazkidazun).

76. Eta alaber eman DRAZOTEZUN bitoria (Aita Sanduari, Perladoei, Erregeri eta Prinzipe Kristioei) Elizako etsaien kontra (= diezaziezun).

77. Alaber urrikari zaites, federik ez-tutenes, eta herejes; eman DRAZOTEZUN argitasuna, ezagun ditzaten gure fedeko misterioak, eta ezagun dezaten nola doazen engañaturik, eta ala konberti ditezen gure legera (= iezaiezu); Hara non den zure etxea. Zoaz, eta erran DRAZOTEZUN Iaungoikoak zure baitan egin duen marabilla ain andia (113).

78. Iaun onek beronek (Iesu Kristok) guregatik otoitz egiten dionean bere Aitari aren amorekatik eman DRAZAGUN eskatzen dioguna (= diezagun/diza(i)gun).

92. Geuren egunorosko ogia, eman DRAUZAGUZU egun (= iezaguzu/zaiguzu).

93. Barka DRAZKIGUZU gurezorrak, guk barkatzen dizkietegun bezala gure zordunei (= ieazkiguzu/zaizkiguzu).

98. Iauna, Meza erraten duenak eskatzen dizuna nik neure partetik otoitzegiten drauzut eman DRAZAGUZUN Iesu Kristo gure Iaunaren medios (= diezaguzun).

107. Eta dakarren urrikimentu, eta damu bear duena bere bekatues izatera, eta ala barka DRAZKION bekatuak eta demon (eman diezaion?) bere grazia (= diezazkion); Eta ala guregatik pasatu zituen trabajuak, eta ixuri zuen odol guzia, daude oiuz Iaungoikoa urrikari dedin bekatarias, usatzen duela miserikordias, eta ala barka-DRAZKION bekatuak (108).

108. Argatik, bekataria, nai baduzu bekatuetatik atra (atera), eta Iaungoikoak barka DRAZKIZUN, eta dizun (eman diezazun) bere grazia, eta faborea konfesio bat ongi egiteko, zoas Meza entzutera (= diezazkizun/diza(i)zkizun); urrikari daki-zun, eta barka DRAZKIZUN zeure bekatuak, Iesu Kristoren amorekatik(108); Hau bear den bezala egiten duzula da gauza ziertoa, barkatuko dizkizula zeure bekatu guziak zeren Iesu Kristok zuregatik otoitz egiten dio bere Aitari barka DRAZKIZUN, eta ala aren partetik ez tate (ez da noski) faltarik, zuretik ezpada (108).

108. Zoas Meza entzutera, eta ofrezu DRAZOZU an ofrezitzen den sakrifizioa, eta eska DRAZOZU damu (= iezaozu/zaiozu).

122. Iesu Kristo ene Iauna, suplikatzen drauzut eman DRAZADAZUN zure faborea, eta grazia (= diezadazun/dizadazun).

DATOZENAK

Hirugarren zatia

I. Voltaire	673
II. Joanes Etxeberri Ziburukoa	674
III. Jean Hiriart-Urruty	676
IV. Joanes Etxeberri Sarakoa	679
V. "Gudu Izpirituala"	680
VI. Joanes Haraneder	686
VII. "Chiberoua eta Marceline" eta "Recoquillart eta Arieder"	694
VIII. Jakes Oihenart	696
IX. Iuan de Tartas	697
X. Jean Pierre Arbelbide	698
XI. Duvoisin Kapitaina	702
XII. Axular	706
XIII. Xurio	715
XIV. Bernat Larregi	719
XV. Kristobal Harizmendi	723
XVI. P. Argaiñaratz	724
XVII. Ioanes Leizarraga	725

HIRUGARREN ZATIA

I. VOLTOIRE

“TRESORA HIRUR LENGUAYETAKUA: FRANTZESA, ESPANOLA, ETA HESKUARA”

(Obra ona eta necesaria nork desiratcen baitu erran den lenguaje horrentzat. Thresor des trois langues: françoise, espagnole et basque. Livre tres util et necessaire pour ceux qui desirent en avoir l'intelligence de ses dites langues... A Bayonne: chez Antoine Fauvet, imprimeur de Monseigneur l'evesque de la ville. Avec permission et Privilege. 1.^a edic. 1620 (?) - 3.^a edic. 1684. “Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo”, Tom. V, 1971. Exema. Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián. 175 hor. ald.).

“Voltaire” nor zenik eztakigu. Ez noiz eta nun sortu zen, ezta pontizenik ere. “Voltaire” deitura zuenik ere ez jakin, gaitzizen bat izan baititeke soilki, egiazko ize-naren gordegarri. Halabaiña, bere obratxo honek zenbait ediziño ezagutu ditu. Guk azkenekoa erabili dugu, alegia, P. Urkizu jaunak “Seminario de Julio Urquijo” urte-rokoan argitara emandakoa. Jaun honek, bere argitaratzearen osagarri bi ediziño zahar erabili ditu, hots goian aipatu dugun Baiona'ko hirugarren ediziñoa, 1684'gn. urtean egiña eta Gipuzkoa'ko Ahaldundegian “Fondo Urquijo” deritzaionean dagoe-na. Badirudi, hau, lehendabiziko ediziñoa dela, alegia, 1620 ingurutsuan Lyon'en egindakoa, zeren P. Urkizu jaunak honela baitio: “Por supuesto que también se hallarían lapsus y errores en esta comparación reconstructiva de las ediciones de 1620 (?) y de 1684”. Danera hiru ediziño izan zituen XVII'garren mendean, beste lau ediziño fetxa gabe eta beste bat 1882'an. Villasante'k dio: “Contiene diálogos, adagios y sentencias dispuestas a tres columnas: en la primera trae el texto castellano; en la segunda, el francés; en la tercera, el vasco. Es un libro hecho con el fin de facilitar la inteligencia o aprendizaje de las dichas tres lenguas. No hace falta decir que los proverbios o sentencias vascas que figuran en él no son recogidos del pueblo, sino traducciones del texto español o francés”. Irakurlearen jakingarri esan dezagun aintzin-lumeruak ez direla horrialdeenak, galderenak baizik. Horrela errazago arkitzen baita eta edo-zein ediziñotarako balio baitu.

23. Iainkoak DIGULA grazia sarri ikusteko, egia da Piarres hil dela? (= dizai-gula). Osorik: “eman dizaigula”.

27. Eztuzula (= eztezazula) hartaz ansiarik, baiñan ekar DIETZADAZU aha-lik lasterenak (= zaizkidazu).

28. Orhoit zait Simón'i erraitera ihardets DIEZADAN eta eskriba DIEZA-DAN maizago, egiñ duen baiño lehen denboran (= dizaidan).

29. Jainkoa(k) DIZULA biaje ona egiteko eta bihurtzeko grazia (= dizaizula). Hots: “eman dizaizula”.

42. Nahi duzu zerbait erran DIOZADAN? (= dizaiodan).

57. Jauna, othoi egiten derautzut kontrazi DIAZADAZU ehun eskutuak zeñ nauziak (nausiak) prestatu baiterautzu (= zaidazu). Aditz joko honek pluralean behar luke eta ez singularrean. Hots: DIATZADAZU (= zaizkidazu).

76. ESTIZADAZULA (= ez DIZADAZULA) karestiregi sal (= dizaidazula).

76. Zerbait ezkein (eskein) DIEZADAZUE (= zaidazue/zaidazute).

81. Neur DIEZADAZU resta hau (= zaidazu).

92. Har DEZADAZU neurria (= zaidazu).

99. Pierres jauna ene nauzia (nausia), zure Señoriaren eskuei muzu (musu) egi-ten du, othoitz egiten derautzu haiñ berze ohore egin DIEZAZUN haren etxera etor-zeiten baraskariaren (barazkariaren) harzera (= dizaizun).

Oharra.—Alderdi batetik, *-(e)za-* aditz-erroaz baliatzen ez diren *digula/dizula* subjuntibo-jokaerak ikus ditzakegu. Bestetik, *-(e)za-* aditz-erroa darabilenean, *i + (e)za* jatorrizko formaz baliatzen da eskuarki: *d-i-eza-dan*, *d-i-e(t)za-dazu*, *d-i-eza-dazu*, *d-i-eza-zun*, *d-i-eza-dazue*. Behin: *i + aza* (diazadazu); beste behin *i + za* (dizadazula); beste behin *e + za* (dezadazu), eta behin ere *i - (o) - za* (diozadan).

II. JOANES ETXEBERRI ZIBURU'KOA

“NOELAK ETA KANTA ESPIRITUAL BERRIAK”

(Testu zaharraren berrikusia, sarrera ta oharrak egin ditu Lino Akesolo'k. Argitaratza-ilea: “Sociedad Guipuzcoana de ediciones y Publicaciones, S. A.” de la Real Sociedad Vascon-gada de los Amigos del País y de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Liburu hau Donosti'ko Izarra Irarkolan inprimatu da Aranburu'tar Xabier'ek zuzenduta 1970-ko Egube-rritarako. Liburu honek 9 edo 10 inprimaldi izan ditu eskuartean daukagunaren aintzinetik).

Joanes Etxeberri Ziburu'koaz ezer gutxi dakigu. Bere liburutan “doctor teologoa” zela dakar; beraz, jakinduriko gizona. Hiru liburu argitaratu zituen, hirurak erlejiño gaiezkoak eta bertsotan idatzita, berak diogunez euskaldunek bertsotarako duten griña bereiziari erantzunik. Liburuen izenak hauetxek dira Villasante'k dakarrenez: “Manual Devotionezcoa”, Bordele, 1627; “Noelac eta berce canta espiritual berriac Jesus Christoren biciaren misterio principalen gañean eta sainduen ohoretan besta buruetacotz”, Bordele, 1631; “Elicara erabiltecoo libu-rua”, Bordele, 1636. Jaiota eta heriotza urterik ere ezutgu ezagutzen.

19. Zeru-lurrek DIOZOTEN bethi elkharri ihardats (= dizaioleten), hots, haiek hari.
19. Molda DIETZAGUTZUE, arren, geure mihiak (= zaizkiguzute).
19. Bihur DIEZAZUEGUN laudorio doblea (= dizaizu(t)egun).
30. O Jesukristo, Profeta sainduz agindua, balia DIEZAGUZU zeure iauste saindua (= zaiguzu). Arren, bada, Iainko gizon gure gatik sorthua, balia DIEZAGUZU zeure sortze saindua (61).
36. Gure mihiak kanta BIOTZO haurrari eresia berriak (= bizaizkio).
48. Eta DIETZADATZUE laster bidal postean (= zaizkidazu(te)).
99. Eta DIETZAKIDATZU barkha neure hobenak (= zaizkidazu).
104. Zuk haiza DIEZADAZU infernuko belea (= zaidazu); ardiats DIEZADAZU hala-ko faborea (148); ungi bizitzeko ardiats DIEZADAZU grazia (150); ardiats DIEZADAZU fiñ on baten dohaiña (155).
104. Eta errenda DIOZODAN (Jesus'i) esker ahal egiña (= dizaiodan).
106. Nola aingeruak manatu zituen Apostoluei berria ekhar ZIEZEN (= zizaien).
120. Begira DIEZEUZE eskutan tudan gauzei (= zaiezute?).
120. Ezin eman ZINIEZEKEN, Iaun noblea, ioiarik zeure gorputz sainduan baiño pre-ziatuagorik (= zenizaieke(a)n). Apostoluei, alegia.
131. Ardiats DIEZAGUZUE ahal faborea (= zaiguzu(te)); ardiats DIEZAGUZUE eske gauden grazia (131).
132. Barkha DIETZETZU pena hobenek mereziak (= zaizkiezu).
133. Labur DIEZEUZE, Iauna, arren, bere epea (= zaiezu); Egin DIEZEUZE, Iauna, othoi, fabore hura (133); Isur DIEZEUZE zeure graziaren ihintza (133).
133. Isur diezezu zeure graziaren ihintza, su beroaren DIEZEN iraungi khar bortitza (= dizaien). Alegia, su beroaren khar bortitza iraungi diezen.
133. Manatzatzu, othoi, hekin aingeru guardariak, ekhar DIETZETEN (purgatorioko arimei) bere librantzaren berriak (= dizaizkieten).
133. Eta DIETZAKITZUTEN presenta aitzinean, pagurik lauda zaitzaten dohatsuen artean (= dizaizkizuten). 133'gn. horrialdeko adigarri guziak eta 132'koa, purgatorioko arimei buruz dira, hots, “Purgatorioko arimentzat othoitza” deritzan bertso-bildumatik atereak dau-
de.
142. Iainko Seme, enegatik gizonegin ziñena: ezin bihur DIEZAKEZUT laudorio zuzena (= dizaizezut/dizaizuket).

Oharra.—Ikus dezakegunez, Etxeberri Ziburu'koak, pluraleko hirugarren pertsonaren datibo ezaugarri bezala “e” darabil “ote”ren ordeaz. Horrela, “ziezen”, “diezezu”, “zinueze-ken”, “dietzetzu”, “diezezu”, “diezen”, “dietzetzen”. Jokabide burutsu honen bidez zenbait nahaspil baztertzen da.

III. JEAN HIRIART-URRUTY

“MINTZAIRA, AURPEGIA: GIZON!”

(Aintzin-solasa: Piarres Lafitte. “Jakin” liburu sorta (2). Zuzendari: Joseba Intxausti. “Jakin”-historia saila. Buru: Koldo Larraínaga. Jean Hiriart-Urruty-ren liburu hau Baiona’ko “Ikas”ek eta Arantzazuko “Jakin”ek elkarrekin ematen dute argitaratu, ipar eta hego Euskal Herrian batera heda dadin. Ed. Franciscana Aranzazu. Izarra irarkola-Peña y Goñi, 13. Donostia.)

Jean Hiriart-Urruty (1859-1915), Hazparne’n jaio zen. Apaiz-ikaskuntzak Larresoro’n eta Baiona’n egin zituen. 1881’ean Larresoro’ko seminariko irakasle izendatua izan zen. Urrengo urtean apaiztu zen. “Eskualduna” astekariaren zuzendari eta eragile sutsu izan zen beronen hasieratik heriotzak jo zuen arte gure apez guduzalea. Bere euskal-lana albistaritzen egin zuen. Villasante’k dio belaunaldi baten mai-xu izan zela eta Lafitte’k dionez berau izan dugu Ipar-Euskalerrria’n belaunaldi berriko euskal-idazleen formatzaille benetakoa. Bere albistaritza lanekin “Jakin liburu Sorta”k bi tomo argitaratu ditu: “Mintzaira, Aurpegia: Gizon!” eta “Zezenak Errepublikan”.

48. Jainkoak begira DEZAUKULA (= dizaigula) dugun erlisionea!

50. Eta nehork ez ZEZOKEN burutik ken (Christophe Colomb’i) harat joaiteko xedea (= zizaiokean).

70. Jainkoak DEZOTELA eman berekin bertze munduan hemen Elizarentzat ezin ardietsi duten bakea (= dizaiaela). Harek haiei.

71. DETZOTELA eman halaber heien ondokoeri, bakerik ez dutenaz geroz, gerlaren jasaiteko behar dituzten ergiak eta laguntzak! (= dizaizkiela). Jainkoak haiei.

78. Norbeit senda baneza nik nere eskuz, berehala jaun mediku horiek *prozeberbal* bat egin LEZAKEDATE (= lizaidakete).

82. Gaizki mintzatu bada ere, nehork ez DEZOKE erran, ez dela bederen *garbiki* mintzatu (= dizaioke).

92. Anartean, ez ZEZOKETEN eman holako gizonari etsaiek nahigabe minagorik, nola bere sor-lekuaren gal-araztea (= zizaioketen). Hots, “haiek” “hari”, etsaiek gizonari.

97. Lore bat badakar mahats horrek xoragarria, bainan arno egiteko ez ZINEZOKE eman bi ardit! (= zenizaioke).

127. Arrota’ko (Arrueta = Arraute, Nafarroa-behereko hiria) auzapez dohakabearen adixkide edo ahaide hurbiletan balitz nor edo nor, *bera hobendun ez delarik*, hartaz erran behar izan ditugun egia latzek bihotzean zimiko egin dioteni, barka DEZAGULA (= dizaigula).

145. Jainkoak eta “Eskualdun Ona”ren irakurtzaleek barka DEZAGUTELA (= dizaigutela).

172. Aipatzen ere ez zuen Doniane'n (Doniane Garazi) sortua zelakorik, eta haren berri dakitenek diotenaz, ez omen zuen laket, bertzek aipa ZEZOTEN ere sor-herria (= zizaioen). Haiek hari.

177. Duela zonbeit hilabete, beldurturik burua har ZEZON paralesiak, nahi izan zituen, zer gerta ere, hiltzerako eginbideak bete (= zizaion).

178. Adixkidea, maite zaitut, eta EZTEZAKEZUT froga hoberik eman, galdatzea baino etzinukenez nahi, zer gerta ere, kofesio on bat egin?... (= eztzaizuket). Osagarriak: ez dezakezut (= ez dizaizuket).

186. Ama, zertako zoazi hoin maiz gizon dohakabe horren ikustera? Nik ez DEZOKET beha (= dizaioket).

199. Eta zeri berma ere balukela ostiko bat begitartera kask eman LEZOKEN etsairik azkarrenari eginarazteko buruzkain itzulipurdi (= lizaioke(a)n).

200. Bertze begiz beha LEZAGUKETE (= lizaigukete).

208. Eskuara ezta dioten bezen itsusi ez izigarri. Denarentzat ezagutzen bazi-nute, laguntza onik egin LEZAKEZUE, zuen sehien eskuratzeko, bidatzeko, zaintze-ko baizik ezpaltiz ere (= lizaizukete).

210. Eskuaren ez ikastea, gure auzo gurekin hainbertze egiteko duketenen-tzat, beren buruen asko errextasunez gabetzea da, ikasteak berak eman LEZOKE-TEN atseginez bertzalde (= lizaieken). Ikasteak haiei.

213. Eztugu zeren deus hanbat igurik eskualtzale jakintsun arrotzetarik ere. Hoberenek aitoruren dautzuate, deus eztezaketela, edo deus kasik ez, gure laguntze-ko eskuaren begiratzen; deus baino gutiago, beren gain utz BAGINEZOTE (= ba'genizaie).

213. Auzoek eta adixkidek, egin DEZOKETENA, lanaren errextea (= dizaieketena?). Ezta garbi-garbi ikusten baiñan badirudi “auzoek eta adixkidek” “eskualtzale jakintsunei” dela, hots, haiek haiei.

214. Kuku Eskualdun uzkurak; eskualduntasunaz ahalgeturik, beren herriari eta mintzaiari giblez edo sahetsez itzuliak; zaharrek utzi on guziekin eskuaren ehorzteari esku eman LEZOKETENAK (= lizaioketenak). Hots, haiek harri, “eskualdun uzkurak” “eskuaren ehorzteari”.

219. Eskuara hunen ohiko goiti-beheiti, xoko-moko guziak ezagutu nahiz dabilzanei bertze laguntza handirik egin ezpa DEZOKETEGU, erakuts bederen esker on gehixeago (= ezpa'dizaiekegu).

“ZEZENAK ERREPUBLIKAN”

(Antologi-biltzaile: Piarres Lafitte. “Jakin” liburu sorta (4). Arantzazu-Oñati. Gaiñerako xehetasunak berdin. Ez liburu honek eta ez aurrekoak ezta arte inprimaldi urtea).

36. Galdatu zion beraz emazte geiak gizon-geiari, harekin ezkontzekotz, egin ZEZOLA (= zizaiola) lehenik atsegin bat. —Baietz, gogotik, harek egin zezakeena

balinbazen. —“Zer nahi duzu egin DEZAZUDAN? —Beharko zira ibili zenbeit egunez eske. —Ni eske? —Ba, zu eske; edo ez gira ezkonduko” (= dizaizudan). Ori, adixkidea, berehala erran DEZAZUDAN (= dizaizudan), zerbeitxe baino nahiago nuke, zu eta ni, iragan egunetan elgarrekin ibiliak bagine (49).

38. Galda DEZODALA, ez badut sinesten, Ximun'i eta bertze askori (= dizaiodala).

66. Laborari etxaldez erraiten dudana bardin erran DEZAKEZUT bertze edozoin etxez (= dizaiketut). Jauna, ez DEZAKEZUT erran (72). Gipuzkeraz “dizaizuket” ere esan ohi da.

71. Jainkoak DIZULA egun on. (Idikatiboko adizkera subjuntibo bezala erabili. Subjuntiboko “dezazula”ri dagokio, gipuzkeraz “dizaizula”).

89. Hura baino anitzez hobea izanen dela buruzagi berria, erran DEZAKEZUET; bi begiak hetsirik (= dizaizuketet).

100-101. Egun hautako berria da: gobernamentuak ministro baten ahoz eskolatako fraideen buruzagi lehenari galdatu diozkala zenbeit fraide otoi, *otoi* igor DITZON Madagascar delako Frantziak berritan beretu leihor handi hartako haurren altxatzeko (= dizaizkion). Apika “zenbeit”ekin DIZON hobeki legoke (= dizaion), esaera mugatugabea baita.

127. Jaun erretora bertzetarik bazter, otoitzean. Hari buruz doa lehenik xapela eskuan kontrolura; idek DEZON eliza (= dizaion).

127. Badoa (kontrolura) jendeari buruz; idek DEZOTEN. Ezetz orok (= dizaioten). Hots, jendeak kontrolurari, haiek hari.

127. Oro mintzo ziren azkenean; eta orok ezetz. Izkribuz eman ZEZOTELA (kontrolurari) beraz eza (= zizaioleta), hots, haiek hari, jendeak kontrolurari.

138. Bakotxak bere berri daki; nik neure. Ala nahuzue aitor DEZAZUETA-DAN egia? (= dizaizu(t)edan). Hots, nik zuei.

179. Bainan ikusiko duzue, luzamen handirik gabe, ez baitute utziko nehon nehor nehola bizitzera (1) erlisionea haurrei erakats LEZOKETENIK (= lizaiekenik). Apika “lizaieketenik”, baiñan eztut uste.

Oharra.—Hiriart-Urruty'k, Joanes Etxeberri'ren eskolari jarraituz, ziozaken = zezoken egiten du, diozatela = dezotela, liezakedate = lezakedate, ziozaketen = zezoketen, ziniozake = zinezoke, diezagula = dezagula, diezagutela = dezagutela, ziozaten = zezoten, ziozan = zezon, ezteiazuket = eztezazuket, diozaket = dezoket, liozaken = lezoken, liezagukete = leza-

(1) Testuan “bitzitzera”, baiñan badirudi hutsegitea dela.

gukete, liezazukete = lezakezue, liozaketen = lezoketen, baginiozate = baginezote, diozaketena = dezoketena, liozaketenak = lezoketenak, ziozala = zezola, diozadala = dezodala, diezazudan = dezazudan, diezazuket = dezakezut, diezazukete = dezakezuet, diozan = dezan, ziozabela = zezotela, diezazuedan = dezazuetaan, liozaketenik = lezoketenik. Hontaz gaiñera, behin bederen Lafitte'k salatutako “dezaukula” monstrokeria darabil bere sistemako “dezagula”ren ordez (= diezagula, gip. diza(i)gula). Hiriart-Urruty'ren erabil-legeari ez derizkiogu egokia “i” datibo ezaugarria gal-erazten duelako. Irakurlea ohartuko da ere noski lapurteraz zer nahastea sortzen den “diozate”, “diozakete”, “ziozaten”, “liozakete” eta tankerako formakin. Alegia, berdin izan ditekela “haiek hari”, “harrek haiei” edo “haiek haiei”.

IV. JOANES ETXEBERRI

“JOANNES ETXEBERRI SARA KOAREN LAN HAUTATUAK” (KRISLU-21)

(Lan Hautatuak (euskal klasiko). J. Etxeberri Sarakoa. Lur Editoriala. 1972 - Otsaila. Xabier Kintanak moldatuak. Villa Zutik, P.º Arbola, Donostia. Inprentatzen du Juanma-k. Av. Ametzagaña, 13. Donostia. D.L.S.S. 127/72).

Joanes Etxeberri (1668-1749) Sara'n jaio zen. Badirudi Pabe'ko jesuitetan edukatua izan zela. Dena dela, medikutza Frantzia'n estudiatu zuen eta Maria Itsasgarate'kin ezkondu zen, familia luze bat haziz. Sara'n bertan eman zion hasiera medikulangintzari, baiñan 1716'an Bidaso'ko Bera'ra aldatu zen. 1722'an Odarribia'ko sendagille izendatu zuten eta 1725'ean Azkoitia'n ekin zion bere ogibideari. Joanes Etxeberri'ren seme bat, Agustín, Mutriku'n egon zen mediku eta Villasante'k dionez, seguru aski bera izan zen Zarauz'ko Antxikotarren eskuetan utzi zituen bere aitaren lanak. Zarauz'ko komentuko esku idazkiok, tomo bikain batean argitaratu zituen Julio Urkijo'k Paris'en, 1907'an (“Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri”). Nik ediziño hau etxean edukiarren, lan honarako “Lur-Kriselu”ren ediziñoaz baliatu naiz, ediziño hau ene aditz-bilduma egiten ari nintzen garaian atera zelako eta pentsatuz gaiñera irakurleak hemen errezago konsultatu ahal izanen duela Urkijo'renean baiño, zeharo akitua baitago hau. Lau obra utzi zizkigun Etxeberri'k: 1) “Lau-Urdiri Gomendiozco Carta edo Guthuna”, Baiona, 1718. 2) “Laburdiri escuararen Hatsapenak” edo beste izenez “Escuararen ethorquia”. 3) “Escual Herri eta Escualdun guztiei escuarazco hatsapenak latin ihasteco”. 4) Euskal-Latin-Frantses-Español hiztegia. Aita Larramendi'k bere eskuetan erabili zuen hiztegi hau, baiñan Zarauz'ko esku-idazkien artean etzen azaldu. Orain artean galdutzat jo baldin ba'da ere, Xabier Kintana'k uste du hiztegi hau Julio Urkijo'k Sbarbi jaunari erositakoa dela (Lan Hautatuak, 10 hor.).

25. Erakuts DEZozu mundu guziari zure zuhurtzia (= zaiozu).

38. Zerenetariak ezin ediren baitzetzaketen berbo pasiboari justuki erantzun ZEZOKION sinifikantzarik (= zizaiokean).

58. Arrazoinak, eta oraino naturalezak berak ere onhesten du, bentzutuek amor eman DEZOTEN garaitiarren usantzei, hazturei, eta egiramuei (= dizaieten). Hots, “haiek” “haiei”.

77. Egiazki hemen Marianak aurthikitzen dio eskualdunari, aurthik ahal ZEZOKEEN harri ukhaldirik borthitzena, edo aphaaldirik gogorrena (= zizaiokean).

136. Eman DEZON (Axular'i) bere hautuentzat preparaturik dadukan bakhezko lekhuia (= dizaion): Eta lehen bai lehen egin DEZON (= dizaion) garazia entzuteko bozkariozko berria.

158. Gisa hunetan egiten dute saltsa hanbat saltsakari diferentez aphaindua, eta hain zaphore gaitzetakoa, non mundun den sabeldarraiorik handienari ere eman BAITEZOKE higuintza, edo goragalea (= baitizaioke). Osagarriak: bait-dezoke (= bait-dizaioke). Zeren batak bertzeari ezin adiaraz BAITEZOKE, zer duen bere gogoan (277).

208. Beretzat (berentzat) eztakitenek, nola erakuts, ahal DEZOKETE? (= dizaiekete). Badirudi "eztakitenek" "besteei" dela eta ez "besteari" (= dizaio-kete).

212. Hargatik bada EZTEZOZULA beha xoilki ene obra huni (= eztizaiozula). Osagarriak: ez dezozula (= ez dizaiozula).

282. Baldin arima gabe diren gauza soinu egiten dutenek, edo dela xiroalak, edo manjurak ez baDEZOTE eman soinuei mudantzarik, nola ezagutuko da, zer kanta suerte den xirola xistua, edo manjura soinua? (= ba'dizaiete). Hots, "haiek" "haiei", soifugailuek (gauza soinu egiten dutenek) soifuei.

290. Galdegin BETZO eskuarazteko zenbait perpaus, latinez ihardesteko, eskuara latinera ganbiaturik (= bizaizkio); edo bertzela eman BETZO (idem.) zenbait autor, edo liburu latinezko eskuaraz esplikatzeko. Ene ustez, bi kasuotan "zenbait"i erantzunaz BEZO (= bizaio) hobeto legoke, esaera mugatugabeak aditza singularean eskatzen baitute eta ez pluralean.

Oharra.—Aixa ikus dezakegunez, Etxeberri'k Lapurdi'ko irabiakera tradizionala urratzen du "io" ezaungarria "e" bihurtuz eta era hontan datiboaren "i" ezaungarria suntsitu-aziz. Honela, "diozozu" = "dezozu" egiten du, "diozoten" = "dezoten"; "diozon/diozan" (diezon) = "dezon", "diozoke/diozake" = "dezoke", "diozokete" = "dezokete", "diozozula" = "dezozula", "badiozote" = "badezote" eta "biotzo/biotza" = "betzo". Badakigu laburkera lege natural bati jarraitzen egin zuela eta seguru aski garai hartako euskal-mintzoan (alegia, kalekoan eta base-rrikoan) oiñarriturik, baiñan uste dut idazterakoan hobe zuela literatur tradizioari jarrai, adizkerak gramatikaren arabera itxuragabetu gabe. Etxeberri'ren ondorengo belaunaldiek aixa onartu zuten, ondikotz!, usadio berria.

V. "GUDU IZPIRITUALA"

(Geinetan aurkhitzen baitdire pasioneen bentcutceco eta bicicen garaitceco moyenic hoberenac eta segurenac. N.I.D. Donibane Lohitxuco Jaun Apeheçac berrio Escuararat itculia. Saltcen da Bayonan, I. M. Cluzeau, liburu eta paper marchantaren baithan, Cathedralesco Plaçan, n.º 13. 1827).

Guk erabili dugun “Gudu Izpirituala”ren ediziñoa, goian diogun bezala, 1827’koa da eta itzultzailearen izena (Scupoli’ren obraren itzulpena baita), N. I. D. letra haskiñetan gordetzen zaigu. Villasante’k eztingu ediziño honen berri ematen. Lehenengo Frantzia’ko Tolosa’n atera zen 1750’gn. urtean. Ediziño honek itzultzailearen ezaugarri bezala letra hauek omen dakarzki: Nl. Ih. Dr. Daranatz’ek jakin-erazten digu bazela aldi hartan Donibane-Lohitsu’n (hala dakar hiri honen izena) apaiz jaun bat Noel-Josephe Duvergier izena zuena. Bi ediziñoen egille-letra ezaugarriak izen honekin bat datoz: 1750’ekoa, izen bakoitzaren aintziñeko eta ondarreko letrak bilduz eta 1827’koa letra haskiñak erabilliz soilki. Beraz, eztut uste liburu honen egilleaz zalantza izpirik izan behar gendukeanik. Bestalde, Villasante’k dio, Haraneder’ek 1749’an argitaratu zuen “Philotea”k eta “Gudu Izpirituala”k, luma berberak sortzea emandako aizpak diruditela. Gaiñera, “Philotea”n iragartzen omen da “Gudu”ren argitaratzea. Guztihau gogoan harturik Lafitte’k uste omen du bi obrak Haraneder’-enak direla, baiñan Duvergier’ek argitaratzen lagundu ziola eta beharbada azken-ikutu bat eman bide zion. “Berriro eskuararat itzulia” dionean, Silvain Pouvreau’k ehuntsu urte lehenago (1665) egin zuen itzulpena aditzera eman gura du, noski: “Lehen itzulia izatu da eskuarara; ordean eskualduna ez zen itzultzaile batek egin ohi zezakean eskuara gaitz eta arranyu gabeko batera; eta ordukoan ez ziren hogoi eta hamahirur kapitulu baizen; huntan aurkhituko dituzu bietan hainbertze”. Zer esan bi obra hauen senidetanunaz? Ene iritzi apalean “Philotea” euskara landuago eta garbiago batean idatzia dago “Gudu Izpirituala” baiño eta bestalde 1827’ko ediziñoan argi ta garbi dio N. I. D. (Noel-Joseph Duvergier) Donibane Lohitsu’ko jaun apezak eskuarat itzulia dela. Hau dela-ta nik hobeto uste dut Duvergier izan zela “Gudu Izpirituala”ren idazlea eta Haraneder’ek, idazle goragokoa zenez, maixu gixa, gain-begiratu bat eman eta behar beste ikutualdi eta zuzentze egin bide zizkion. Ezkaitezzen harritu bada, Haraneder’ek parte hartu baldin ba’zuen Duvergier’en liburuan, hau laister ateratzeko zutela aditzera ematea. Honela dio Yoanes Haraneder’ek “Philotea”n: “Ordean Saindu handi haren sentimenduak eta izpiritua eskaldunek hobeki ezagut dezatentzat, promes ematen zaye, hunen ondoan berehala, emanen zayotela “Gudu Izpirituala” deitzen den liburutto bat”. Haraneder’ek eztizu bere burua agertzen liburu honen egilletzat, baiñan badirudi argitaratze eginkizunean parte hartu zuela. Beraz, ene iritzia Aita Lafitte’ren besterakoa da, alegia, Duvergier izan zela idazle eta Haraneder laguntzaile. Gaiñera, Haraneder’ek oso-osorik ematen du bere izena “Philotea”n. Zer interes izan zezakean bada urtebete geroago ezkutatzeko? Hobeto dirudi Duvergier zela lotsakor edo herabe zegoena bere izena osorik azaltzeko bere buruari idazle kaxkar iritiziz.

VIII. Zeronek aplikatu DIETZAKIDATZUN... fruitu eta progotxu guziak (= dizaizkidazun).

IX. Ezagutza humil batekin ofri DIEZAZUDAN Biktima Saindu hau (= dizazudan); ofri DIEZAZUDAN ene bihotza (162); arroba DIEZAZUDAN (170-171); galde DIEZAZUDAN (231).

XI. Zer sokhorri efetuzkoagorik eman ahal othe DIOZOKETET (= dizaieket). Ahaide, adiskide eta ongille batzuez dio.

XII. Bainan, ó miserikordien Jainkoa! egun idek eta eman DIOTZOTZUTE zure Semearen satisfakzioenen tresor ezin akhitzuzkoak (= zaizkiezu); barkha DIOTZOTZUTE (Jauna) eta errezihi zatu (itzazu) zure hautatuen nonbrean (kopuruan) (294).

XII. Aurkhiaraz DIOZOZUTE (ó miserikordien Jainkoa!) bere (beren) zor guzien pagatzeko moyena (= zaiezu); Adora zazu Jainko Seme, Gizon egina: eta bihur DIOZOZUTE halaber haren Ama sainduari eta Gabriel Arkanyeluari merezi duten ohorea (125); Beha DIOZOZUTE zure penei (263).

XIII. Aplika DIETZAGUTZU (= zaizkiguzu); zuk gure gaizkiak barrkha DIETZAGUTZU (XXIV).

XIII. Ager DIOTZOTZU Jainkoari zure flakeziak (= zaizkiozu); indarrak eskasten bazaizkitzu, galde DIOTZOTZU Jesus gure Salbatzaileari (76); Nekhe eta trabailu hauk gorde DIOTZOTZU zure buruari (103); ongi guzien Aita liberal hari akzione errespetuzkoenak errenda DIO(T)ZOTZU (124). Hutsegitez (T) falta zaio. Errenda DIOTZOTZU (124). Hutsegitez (T) falta zaio. Errenda DIOTZOTZU ondoan esker onezko milla akzione Miserikordien Aita huni (142); garbiki deklaratu DIOTZOTZU zure Aita izpiritualari (146); erran DIOTZOTZU hitz hauk (282).

XIX. Barkha DIETZAKIDATZU ene ofentsak (= zaizkidazu); Barkha DIETZAKIDATZU ene bekhatu guziak (XXV); Ager DIETZAKIDATZU, Jauna, zure aintzinerari (326); Barkha DIETZAKIDAZU (350 eta 351); aplikatu DIETZAKIDATZU zure Biziazen eta zure Heriotzearen merezimenduak (359); barkha DIETZAKIDATZU ene bekhatuak (363).

XX. Nola deus errefusa ahal othe DIEZAKEGU? (= dizaikegu); hark bakharrik ardiets araz DIEZAKEGU bitoria (17)...

XXII. Egin DIEZADAZU horren merezimenduak ene gainera yauts arazteko Grazia (=zaidazu); zure Aitaren baithan Grazia ardiets DIEZADAZU (XXIV); erakuts DIEZADAZU (326); Khen DIEZADAZU begietan emaiten darotan estalkia (327); barkha DIEZADAZU (335); eman araz DIEZADAZU (342); ene erraien funtseraino erreberri DIEZADAZU inozientziaren izpiritua (351). Ahazturik: XII.-Permiti DIEZADAZU.

XXII. Ofri DIOZOZU bere Aita Jainkoari (= zaiozu); Begira DIOZOZU zenbait aldiz urrundik (XXIII); Presenta DIOZOZU, diot, zure izpirituari monstro furios hura (78); Presenta DIOZOZU (79); Gero beha DIOZOZU gurutze hari berari (86); Bainan ager DIOZOZU garbiki (98); ofri DIOZOZU zure bihotza (124); errenda DIOZOZU Jainkoari (171); presenta DIOZOZU Aita Eternalari (284); bihotzari yunta DIOZOZU othoitz bokala (300); Xoilki marka DIOZOZU (309); galde DIOZOZU (324); yunta DIOZOZU (324); beha DIOZOZU zure buruari (354).

XXIV. Ez DIETZAKIGUTZULA errefusa neurrimendu arimakoak eta gorputzekoak (= dizaiizkiguzula). Hutsegitez, noski, "naurrimendu" dakar.

XXVIII. Eta ene ahal guziak ez dut ixurtzera utziko ez hitzik, ez obrarik, ez dut formatuko ez desirarik, ez pentsamendurik, entzun dudana Mezaren fruitua gal araz DIETZAKEDATENIK (= dizaidaketenik).

17. Berak eman DIETZAKITZULA argi egiazkoak (= dizaiizkizula).

37. Ez DIOZOGULA eman libertate guti baizen gure izpirituari (= dizaiogula); ez DIOZOGULA permiti (37); ez DIOZOGULA gure bihotzari permiti (43).

37. Ez DIOTZOGUTELA behinere beharriak idek, dabilzan berriei eta habarrotsei (= dizaiizkiegula).

38. Ezen haren diszipulu egiatzko direnek, ez diote bertzerik galdetzen, baizen eman DIOZOTEN zenbeit laguntza, bera ongi zerbitzatzeko (= dizaien); Mundutarrrek hastantzen dute bereganik, ithotzen dute bere baitan pentsamendu hau (“Herioaz” mintzo zaigu), beldurrez gal araz DIOZOTEN lurreko gauzetan hartzen duten atsegina eta gozoa (311).

47. Permetiturik norbaitek lan hura utz araz DIOZAN (= dizaion).

48. Ifernuari ihes egin DIOZOGUN (= dizaiogun); ofri DIOZOGUN Jainkoari desira berri hura (138); Hortarik ezagutuko dugu zer manieraz nahi duen marka DIOZOGUN harentzat dugun ezagutza (289).

104. Gerla egin DIOZOZUN (= dizaiozun).

109. Ez DIOZOZUTELA sobera libertate utz zure sentsuei (= dizaiezula). Eztakit “sentsuei” ala “zentsuei” irakurri behar den.

110. Ez DIOZOZULA objet hari beha kanpora agertzen duen aldetik (= dizaiozula); ez DIOZOZULA horrengatik enplegu harri ukho egin (197); ez DIOZOZULA horren gainean errepustarik eman (314); ez DIOZOZULA haren laguntzari beha zure merezimenduen sari bati bezala (319). “Beha” deduziñoz atera dut, hitzaren erdia pipiak jana baitago.

113. Ezin esplika DIEZAZUKET ene bozkarioa (= dizaizuket); Zergatik ezin ihardets DIEZAZUKET! (356); nola bihur ahal DIEZAZUKET (357).

114. Ez dela Kreatzailea baizen... hain gozo zaitzun gostua eman ahal DIOZOKENIK (= dizaiokenik); bere estatu ondikozkoa ezagutaraz DIOZOKEN guzia (147).

132. Ixiltasuna gudu izpirituean laguntza handi bat da; eta hau guardatzen dutenek bere (beren) buruei agin DIOZOKETE bitoria eramanen dutela (= dizaieketete). Inprentako hutsegitez “egin” agertzen da “agin”en orde. Gero: Hauk guziak ongi praktikatzeko artha izanen duten Gristinoek bere (beren) buruei agin edo prometi DIOZOKETE (162). Berriz ere “agin”en orde “egin” jartzen du. Geroxeago birritako hutsegite hau zuzendurik agertzen da: Hainek, diot, bere (beren) buruei AGIN DIOZOKETE (163); (Guziek) ongiak egin diotzokete gaizkirik handienak egiten dioztenei; eta hutsik xumeinei ihes egin DIOZOKETE (216). Adigarri hauetan beti “haiek” “haiei” da, hots, “dizaiekete”. Eztut jaso ahal izan ordea “harrek” “haiei” (gip.: dizaieketete). Berdin ote?

138. Errekeri dezagun, arren ezagut araz DIEZAGUN, ea haren ganikakoa den, ala Sathanen ganikakoa (= dizaigun); egin araz DIEZAGUNTZAT (Sathanek) zenbeit huts handi eta ahalkagarri (214).

140. Berthutea higuin araz ba'DIEZAGUKETE (= ba'dizaigukete).

142. Barkha DIETZADAZU ene hoben guziak (= zaizkidazu).

163. Ala desira hauk Jainkoak inspira DIOTZOEN (= dizaizkion).

164. Gal araz LIOZOKE bere merezimendutik gehiena (= lizaioke).

182. Bakharrik eta xoilki, zure ahalaz, ihes egiozute, lohikeriazko tentatzioinei bide eman DIOZOKETEN gauza guziei (= dizaieken). Hots, ihes egiezu “zuk” “haiei”.

189. Nork bere buruari goiz guzietz proposa DIOZON (= dizaion).
197. Zaren bethi dispoziotionean, gehien pena egin ahal DIEZAKEZUN guzia sofriztera (= dizaizezun).
198. Ez diote (die) ihes egin behar trubleak eta khexagunak kausa ahal DIOZOKETEN gauza guziei (= dizaizkieken).
216. Ongiak egin DIOTZOKETE gaizkirik handienak egiten dioztenei (= dizaizkiekete). Hots, "haiek" "haiei".
227. Eskerronezko akzioeak bihur DIOTZOGUN (= dizaizkiogun); yustu da beraz errenda DIOTZOGUN bethi eta bethi eskerrak (288).
227. Erran ahal DIOZOKEGU (= dizaiokegu); Jainkoari egin ahal DIOZOKEGU otoitz hauxe (231).
227. Ez DIEZADAZULA errefusa (= dizaidazula).
229. Zeren Guzietz Botheretsuak ezin deus errefusa baitDIOZOKE (= dizaioke); zure Salbatzaileari ezin damurik egin DIOZOKE (321).
230. Nahiz akorda DIETZAKIGUN gure galdeak (= dizaizkigun).
231. Fagore hori galde DIEZAZUDAN (= dizaizudan).
235. Zeinek pazientziaren amodioa eman baitDIEZAZUKETE (= dizaizuke); zeinek orduan egin ahal baitDIEZAZUKETE penarik gehiena (312).
236. DIZULA pazentziatzko berthutea (= eman dizaizula). Alegia, "u" aditzerron adizkia, subjuntibo eran erabillirik. Badakigu, antziña idikatibotasuna edo subjuntibotasuna etzutela aditzerroek aditzera ematen, "-(e)la" eta "-(e)n" atzizkiak baizik. Beraz, "u" aditzerron adigarri hau ematen dugu "za"ren ordezkia egiten duelako.
239. Arren, eman DIEZAZUN indarrak aski zure etsaien, eta beregainki presentean gerla krudelkien egiten darotzunaren bentzutzeko (= dizaizun); ardiets DIEZAZUNTzat harengatik sofrikari hetaz progotatzeko grazia (241).
244. Leyaltasunaren eta amodioaren gatik eman DIEZAZULA nezesario dizuna (= dizaizula).
246. DIZUTELA ararteko partikulartzat San Ioseph (= eman dizaizutela). 236'garrenean (dizula) esandakoak oro balio du hemen.
265. Zer laguntza eman ahal DIEZAZUKEN Aldareko Sakramendu Sainduak (= dizaizuken).
272. Baldin nahi baduzu aldareko sakramendu sainduak eman DIETZAKITZUN Jainkoaren alderako sentimenduak, orhoit zaite hark zuretzat duen amodioaz (= dizaizkizun).
288. Grazia berrietz borthiztua izan ondoan kurayoski kontra egin DIOTZATEDAN ene etsaiei (= dizaizkiedan?). Badirudi DIOZATEDAN izan behar lukela (= dizaiedan).
292. Batzuetan Jainkoari, egia da, ofri DIOTZOKEGU gure buruak (= dizaizkiokegu).

292. Adora zagun haren Probidentzia, eta itsuan sumeti gakizkoten haren Ordenei. Sakrifika DIOTZOTZIGUN gure inklinazione eta afekzione guziak (Badi-rudi “dizaizkiogun” dela).

292. Erran DEZOGUN (= dizaiogun).

294. Guziak, othoi, barkha DIOTZOTZUTE eta errezihi zatzu (itzazu) zure Hautatuen nombrean (kopuruan) (= zaizkiezu).

295. Errekeritu behar du Aita eternala Miserikordia egin DIEZAGUN semearen Pasionearen merezimenduen amoreagatik (= dizaigun).

299. Zureganik urrun egor zatzu (itzazu) Munduak eta kreatuak eman ahal DIETZAKITZUTEN kontsolazione bano eta enganiosak (= dizaizkizuten edo dizaizkizuteken/dizaizkizuketen).

311. Zeren urrundu nahi baitdute, hain itsutuki maite dituzten onthasunak egun batez galdu eta utzi behar dituztela orhoitzeak kausa LIOZOKETEN damua eta bihotzmina (= lizaieketen).

315. Ihardets ZOZU, Elizak sinhesten duela egia (= zaiozu).

322. Has gaitezen nausitu nahi zaizkigun pasionei gerla egiten, errexkiago kontra egin DIOZOGUTENTZAT eta bentzu detzaguntzat hain ikharagarria eta latzgarria izanen den denboran (= dizaieguntzat).

326. Ezagut araz DIETZADATZU, ó guziz Saindua! eta egin ditudan gaizkiak, eta egin beharrik utzi ditudan ongiak (= zaizkidazu).

337. Zure graziaren laguntzarekin batean, bethi egonen bainaiz ene guardien gainean, eta atzarriago zuri desplazatzen egin DIEZAKEZUN deus ez egiteko (= dizaikezun).

341. O ene arima! eskerrak bihur DIOTZOK hire Jainko Jaunari (= zaizkiok).

341. Ordean nola ene ezagutza marka ahal othe DIEZAZUKET! (= dizaizuket).

348. Bai, hori sinhesten dut, eta ene sentsuek eta ene arrazoinak erran ahal DIETZAKEDATEN guzien bortxa, ukho egiten diotet ene sentsuei eta ene arrazoinari, ene burua Fedearen azpian sumetitua atxikitzeke (= dizaizkidaketen. Baiñan ez ote hobe “dizaidaketen”?).

356. Zuek Zeruko eta lurreko Sainduak, presta DIETZAKIDATZUE zuen bihotzak, indazue zuen amodioa, ene Jesus maitea maithatzekeztat (= zaizkidatzu(t)e).

359. Ez, ezin deus errefusa DIEZAKEDAZU, ene Jesus adoragarria, egun zeroni eman zaizkidanean egin darotazun graziaren ondoan (= dizaidakezu).

Oharra.— DIEZON'en ordeaz, “diozan” (47) eta “diozon” (189) darabil euskaratzaileak (gip. “dizaion”). Halaber, DIOZOZU normalaren alboan ZOZU (315), gipuzkeraz “zaiozu”.

VI. JOANES HARANEDER

"PHILOTEA"

(Edo debocioneraco bide eracuszaillea, San Franses Salescoac, Genebaco Aphezpicu eta Princeac, Bisitacioneco Ordenaren fundatzaileac eguina. M. Yoanes de Haraneder, Donibaneco yaun aphezac lehen escararat itzulia eta orai berriz imprimatua. Bayonan, Andre Lamaignère alhargunaren inprimerian, Pont-Mayuco carrican, 43. Salcen da Anyere C. Bernain baithan, Pont-Mayuco carrican, 45. 1853.)

Joanes Haraneder 1669 urte inguruan sortu zen Donibane Lohitzun'en (Lohitzune'n edo Lohitsu'n) eta doi-doi dakigu bertan egon zela apez. "Philotea", 1749 garren urtean argitaratu zuen Frantzia'ko Tolosa'n, berak laurogeitsu urte zituelarik. Urtebete geroago, alegia, 1750'garren urtean, hiri berberan, "Gudu izpirituala" atarazi zuen, hots, Aita Laurenti Scupoli'ren "Combattimento spirituale". "Gudu izpirituala" komentatzean diogu, gure irudiko, Noel Joseph Duvergier dela egillea eta Haraneder gainbegiratzaillea eta zuzentzailea. Lafitte'n ustez, ordea, Haraneder da bion egillea eta Duvergier'ek "Gudu izpirituala" argitaratzen lagundu besterik etzion egin. Hontaz gaiñera. Haraneder'ek Testamentu Berria oso-osorik euskaratu zuen. Uztaritz'eko (edo Uztaritze'ko) Seminarioan kontserbatzen da eta katoliko-eran egin-dako lehendabizikoa dela gogoan hartu beharra da. 1855'ean, Baiona'n, liburu hontatik lau Ebanjelioak argitaratu zituzten, "Iesu-Christo gure Iaunaren Testamentu Berria" izenez, baiñan esan bezala, ezta Testamentu Berri osoa, lau Ebanjelioak baizik. Ikus dezakegunez, Haraneder'ek etzuen jatorrizko obrarik izkiriatu; itzultzaile izan zen soilki.

VI. Eman DIOZOLA bada bere benedizione saindua obra huni (=dizaiola).

VII. Aitzitik egin ezazu, ô ene Jainkoa! mendez mende hekiekin batean kanta DIETZAZUDAN zure amodioaren Triunfako Kantikatza, orai ene bihotz guziaz, bizitze hilkor huntako hirriskuen erdian, atxiki nahi darotzudan fidelitate osoaren senaletzat, erraten dudan hitz hau (=dizaizkizudan). Badirudi, ordea, esaldi hontan DIEZAZUDAN (=dizaizudan) erabilli behar zukeala.

XI. Hark berriz erakutsi izan ziotzan memorio hek Jainkoaren zerbitzari sabant eta debot bati, zeñiak estimaturik haifitzei progotxu ekhar ahal ZIOZOKETELA, ertxatu baininduen (behartu ninduen) eta seguratu hek inprimaraztera (=zizaiketela).

6. Beha DIOZUZUTE xarpotaren gaiñean ibiltzen diren erlei (=zaiezu) (1); Beha DIOZUZUTE, othoi, zurubi hetan ibiltzen direnei (7); Boz zakizko Birjina Ama Sainduak eta Saindu guziek presentatzen darotzuten sokorriari eta laguntzari. Agin DIOZUZUTE bihotz onez hots emanen diozula hekien ganat heltzeko bideari (57); Bihotza zabal DIOZUZUTE (afekzioneer eta gogokundeei) eta errezibi zatzu bethi (97); Gomenda zakizkote (aingueruei) eta galde DIOZUZUTE (2) bere (beren)

(1) Gaurko lapurteraz ZOZUTE, Campion'ek dakarrenez, hots, *ekar zozute* (zuk haiei). Gipuzkeraz ZAIEZU (edo Campion'en arabera *zaiotezu*). Xarpot = hinojo.

(2) Gomenda zakizkie aingueruei eta eska zaiezu beren laguntza.

laguntza zure egiteko guzietan (124); Egin zaitze beraz pobren zerbitzari: zohaz hek zerbitzatzera bere (beren) ohetan eri direnean. Diot zure esku propialez zerbitzatzera; prepara DIOZOZUTE jatekoa (229); Kontsidera zazu estatu eta kondizione guzietako sailnduen etsenplua. Zer ez dute egin Jainkoa maitatzeko, eta Jainkotiar eta debot izateko? Beha DIOZOZUTE, bere (beren) diseñu sailnduetan deusek ezin eragotzizko martir hei (443); Beregainki beha DIOZOZUTE andre eder eta loren pareko hei (443); Beha DIOZOZUTE hanbat elizagizon, ermitau, fraide eta bertze presuna jainkotiarreri (443-444).

6. Debozionatek gozoa eman ahal BADIOZOKETE tormentarik garratzenei eta heriotzeari berari ere (=ba'dizaieke); Deus ere ez da ezen munduko ontasunei hanbat irabaz-araz DIOZOKETENIK, nola baita amoiña (limosna) egitea (228); Garbitasunaren etsaiei eskudantzia (atrebentzia) har-araz ere DIOZOKETENETARA (350); Hurbiltzen da Jesusen ganat eta xukhatzen dio Aingeruek eta Sainduak ikhararekin baizen beira ez DIOZOKETEN begitharte (arpegi) desegin hura (501). Aurritzki eta atzikidun aditz-jokuok DIOZOKETE (=dizaieke) adizkera dute ardatz.

12. Hori da nik eman ahal DIEZAKEZUDAN abertimendurik inportantena (=dizaiekezudan/dizaizukedan).

14. Hain inportant denaz geroz, Philotea, gidari on baten izatea debozionatean bideari jarraitkitzeko, egiozu lehiarekin Jainkoari othoitz eman DIEZAZULA bat haren bihotzaren araberako ditekena (=dizaizula); Ez nazazula khen, ò ene Jainkoa, zure begien aintzifetik, eta ez DIEZAZULA idoki (atera) zure izpiritua (87); Zakizko Jainkoari deihadarrez hel dakizula eta eman DIEZAZULA bere graziaren bozgunea (408); Othoiztuko duzu Majestate dibinoa arren har DIEZAZUN (=dizaizun) guzia (461).

15. Errespetu sailndu batekin beha DIOZOZU (gidariari), (=zaiozu); Galde DIOZOZU (eska zaiozu) Jainkoari (15); Eman DIOZOZU ene arimari zure benedizione sailndua (32); Ofrenda DIOZOZU zure bihotza (36); Galde DIOZOZU bere grazia (40); Humilia zaitze eta galde DIOZOZU hel dakizula (48); Iratxiki (erantxi) DIOZOZU berriz orai ikhaskari eder horri bertze bat ez gutiago ederra (50); Erreportxa (erreprotxa) DIOZOZU zure bihotzari bere gogo hurritasuna (52); Beha (begira) DIOZOZU Errege higuigarri haren gorthetiar dohakabe guzien egoteko moldeari edo erramanguari (58); Atxik DIOZOZU erregelara horri zure orazione guzietan (80); Galde DIOZOZU zure salbamenduaz zer izanen den (109); Heda DIOZOZU eskua haur xume batek bere aitari bezala (109); Beha DIOZOZU ardi gaixo horri (114); Galde DIOZOZU barkhamendu zure bekhatuez (119); Ager DIOZOZU nolakoak diren zure jaidura eta inklinazionatek (136); Beha DIOZOZU maiz barrenek begie Jesu-Kristo gurutzefikatuari (166); Aitzitik beraz sakrifika DIOZOZU berriz ere guzia milla gogokundez eta agintzez (254); Ofrenda DIOZOZU eta emozu maitenik eta preziatuenik duzun gutia (gutxia) (317); Baiñan xoilki beha DIOZOZU gure Salbatzaile Jaunari (376); Zohaz zure kofesoragana; zabal DIOZOZU ongi zure bihotza (408); Agin DIOZOZU bethi (438); Beha DIOZOZU zure bihotzaren hedadurari (440); Baiñan ihardets DIOZOZU emeki eta arraiki zure herbaltasuna (argaltasuna) hain handia dela, non bertzek baiño beharrago baituzu norbeit hel dakizun eta alde dakizun (456); Beha DIOZOZU ifernuari, eta ez dezazula harat (1) aur-

(1) Oker ez baldin ba'naiz, Lafitte'k bere Gramatikan dio, *harat, mendirat, etxerat, zerurat* formak erabiltzen dira norabait joaten denean bertan gelditzeko, eta *hara, etxera, mendi-*

thik zure burua (457). Adizkera hontatik eztitugu denak jarri, asko direlako. Jakineraz dezagun ere, egungo lapurteran, *Campion'ek* dakarrenez, aditz-joko hau ZOZU oguzten dela. Gipuzkeraz: ZAIOSU.

18. Eta hala ez gaitzela altara (alteratu) gure eskasen (falten) eta inperfekzioenen gatik; ezen gure perfekzioea hei gerla egitean dago. Eta alabaiñan ezin gerla egin DIOZOKEGUTE, non ez ditugun ikhusten (=dizaiekegu); Bethi goardia ematen diogularik sentitzearen eta kontsentitzearen artean den diferentziari: ezen senti detzakegu gaitzhesten ditugun orduan ere; ordean ezin kontsenti DIOZOKEGUTE, non ez zaikun hetan lakhetzen (364).

19. Bada inperfekzioek eta bekhatu benialek ezin khen DIEZAKEGUTE bizitze izpirituala (=dizaiekegute/dizaigukete); Sainduen bizitzen artean badire batzu gure biziaren gobernukotzat argi gehiago eman DIEZAKEGUTENAK (=dizaiekegute-nak), bertzek baiño (127).

19. Beldur izateko duguna beraz da gogoia hil araz DIEZAGUTEN (=dizaiguten); Bera (Jesu-Kristo) izanen da gure fama onaren begiraille: eta baldiñetariak permetitzen badu eraman DIEZAGUTEN; hobeago bat guri bihurtzeko egiñen du (191); Nahi dugu zuzenez zor zaikuna hertsiki eman DIEZAGUTEN (322); Gure herrunkari (tokiari) atxiki nahi diogu zorrozki, eta nahi dugu bertzeak humilki jar daietzen eta amor egin DIEZAGUTEN (322).

23. Afekzioe miserable hek eman LIOZOKETE zure izpirituari langidura (languidez?) eta pisutasun bat (=lizaiokeete).

29. Birjina sainda, presenta DIOTZOTZU ene partez zure seme urrikalmenduz betheari. Gomenda DIOTZOTZU halaber ene othoitzetan parte izan behar duten guziak (=zaizkiozu); Ah! beraz, khen DIOTZOTZU zure bihotzari hunelako edo halako atsegin (35); (Badirudi hemen DIOZOSU erabilli behar zukeala). Emotzu eskerrak Jainkoari eman izan darozkitzun pentsamendu eta erresoluzione on horietaz. Ofrenda DIOTZOTZU haren Majestate dibinoari (43); Eri izanen zarenean, ofrenda DIOTZOTZU zure doloreak, penak eta lazeriak Jesu-Kristori (166); Erakuts DIOTZOTZU (kofesorari) zure arimako xokho-mokho guziak (408); Eska DIOTZOTZU Izpiritu Sainduari bere argiak, zure burua ongi ezagutzeko (427). Gaurko lapurteraz, *Campion'ek* dakarrenez, TZOTZU.

42. Ah! Jauna!... Egin DIEZADAZU oren hura, zure graziaz fagorezko eta zorionezko oren bat (=zaidazu); Eman DIEZADAZU endelgamendua edo izpirituko argia (87); Orduan Jaunak erran zioen: zure bihotzeko gogoramendu hok, erran DIEZADAZU, atsegin egiten zarotzuten, ala damu? (368); Bihur DIEZADAZU, Jauna, zure Izpirituaren boztasun salbagarria (408); Desiraraz DIEZADAZU eta ardiets-araz heien amodioa (470); Barkhamendu akorda DIEZADAZU, nik zure amoreak gatik bihotz onez ofentsatu nautenei akordatzen diotedan bezala (473); Baina permeti DIEZADAZU bil detzadan bederen erortzen diren papurak (474); Barkha DIEZADAZU, ô ene Jainkoa! ene izpirituko barraiamendua (disipación) eta ene bihotzeko hotztasuna (475-476). Egungo lapurteran, *Campion'ek* dakarrenez, ZADAZU. Gipuzkeraz: *zaidazu/zadazu*.

ra... joan eta berriro etortzeko. Hemen, dudarik gabe, kunplitzen da lege hau, zeren oraindik ezpaitakigu iñor itzuli denik infernutik.

42-43. O ene adiskide eta ahaide maiteak eta onhetsiak! permeti DIEZADA-ZUE ez zaitzatedan gehiago maita eternitatean iraun ahal dezaken amodio eta onezite saindu batez baizen (=zaidazute). Egungo lapurteraz, Campion'ek dakarrenez, ZADAZUE. Gipuzkeraz: *zaidazute*.

46. Beha DIOZAK, ô ene bihotza, eternitate handi hari (=zaiok). Egungo lapurteraz, Campion'ek dakarrenez, ZOK. Gipuzkeraz: *zaiok*.

50. Hura (bekhatua) denaz geroz heriotze eternal hura erakhar ahal DIEZA-KEDANA (= dizaikedan/dizaidakena): *diezadake = dizaidake*.

73. Ez bada mahats hek hordi zetzaten beldurrez, baiñan bai, mahats ondu gabeak ere jateak onduagoen jateko, eta onduak berriz arnoa edateko irritsa eta gutzia eman ahal ZIOZOKETEN perilla gatik (= zizaioketen) (Ikus 44).

76. Jainkoak DIZULA grazia hei ongi jarraitzeko (=dizula. Subjuntibo eran *diezazula/dizaizula*); Egiozu othoitz DIZULA indarra hek fidelki konplitzeko eta obretaratzeko (36). Aditzok eztira *e-za* errodunak, baiñan haien ordezkoa egiten dutelako ezarri ditugu.

82. Zeren eta othuruntza ondoan berehala egin baziñeza eta jan dukezuna ongi eho baino lehen, logaleak har baitzintzake eta zure osasunari kalte ekhar BAITZINOZOKE (=baitzenizaioke).

87. Ispira DIETZATZULA (Aingeru begirailleak) behar bezalako gogoetak eta pentsamenduak (=dizaizkizula).

93. Hirurgarrena da Jainkoa othoitztea eta errekeritzea eman DIEZAGULA grazia haren Seme dibinoaren merezimenduetan partale izateko (=dizaigula); Nahi ginduke gure hauzoak sal DIEZAGUN (=dizaigun) bere ontasuna (321).

93. Eman DIOZOTELA (Jainkoak) bere benedizioea gure gogokundei edo erresoluzioei (=dizaiela); Zeren Jainkoak egin baititu halako (emazteak), zuen menean eta beharrean izanak errespetu gehiago ekhar-araz DIOZOTENTZAT (=dizaien-tzat) (331).

101. Pentsa zazu aintziñetik zer egiteko, zer tratu, zer okasione gerta ahal daki-kezun egun hortan, zer okasione Jainkoa zerbitzatzeko, zer tentazione erakhar DIEZAKEZUN kolerak, banitateak edo bertze zenbeit pasione dserregelatuk (=dizaik ezun); Ordean, Jainkoak bihur DIEZAKEZUN artean, bethiere hain bertzez pobretua egonen zare (228).

102. Baldin heldu bazait gogora eri bat ikusi behar dudala, hartuko dut hortakotzat mugarik hoberena eta arrimatuko (ordenatuko) neure gogoan hari eman ahal DIOTZAKEDAN kontsolazioneak eta laguntzak (=dizaizkiokedan).

102. Ofrenda DIOZAZU haren Majestate Dibinoari zure gogokunde edo erresoluzione guzietan (=zaiozu). Gipuzkerazko “zaiozu” aditzera emateko, hainbeste DIOZOZU'ren artean DIOZAZU bakar hauxe aurkitu dugu. Gaurko lapurteraz: ZOZU.

104. Jainkoari eskerrak eman DIOTZOGUN (=dizaizkiogun); Eta gure Espos dibinoari ezin presenta badiozakegu konfitura hezerik, presenta DIOTZOGUN bederen idorrak (410).

104. Ondoan gomenda DIOZOGUN Jainkoaren probidentziari gure gorputza eta arima (=dizaigun); Baldin desohorutzen bagaituzte injustuki, egia oposa DIOZOGUN faltseriari (191); Ofrenda DIOZOGUN gure bihotza, den bezalako idorra ere (410) (Ikus 316).

106. Ala dohatsua izanen baita arima gure Salbatzaille Dibinoari egiaz erranen DIOZAKENA: Zu zare, Jauna, ene etxea eta ene iheslkhua (=dizaioke-na). Konjugaziño hau oso bitxia da, zeren naturala baita “erranen dioena” (esango diona) edo “erran diozakena” (esan dizaiokena), baiñan orain artean enaiz ohartu “erranen diozakena” (esango dizaiokena) formaz. 133^{garrenean}: Ezen horla mintzatzean, ez duzu deus ere erraten klarki zure kontzientziako estatua zure kofesorari ezagut-araz DIOZAKENIK (=dizaiokenik). *Diozake* = *dizaioke*.

107. Eta geroztik zer nahi asaldu (asaldapen) eman ZIOZAN munduak ez zuen traba garabik (alerik) sentitzen (=zizaion/ziezaion).

123. Bidal DIOTZOGUTEN (=dizaizkiegun) beraz eta junta, Philotea Maitea, gure bihotzak izpiritu zerutiari eta arima dohatsu hei (aingeruez ari da).

128. Inspirazioneak iraun BALIEZAKEGU ere bizi gareñoko guzian, ez gintezke batere Jainkoaren gogarako (=ba'lizaiekegu/ba'lizaiguke).

140. Guzia-gatik-ere, haiñitz traba justu eta arrazoinetako gertha dakikezu bizia daramazun presunen partetik, zeinei behaturik, gidari zuhur batek erran BAILIEZAKEZU ez dezazula hain maiz komunian (=bailizaizuke). *Liezakezu* = *lizaizuke*.

141. Zure gidariak nahiko du amor egin DIOZAZUN hekien umoreari (=dizaiozun).

159. Uz DETZOGUTEN, gogo-enez, bertzez gorago ibiltzeko lehiak eta irrisak gutaz goragoko arima handiei (=dizaizkiegun).

162. Bizkitartean, maiz gerthatzen den gauza da bi gizon prestuk, biek xede ona dutelarik, zein bere usteari jarraikiz, batak bertzeari kontraktotasun handiak egin DIOTZATEN eta pena handiak ekhar DIOTZATEN (=dizaizkien); Ibaia handien-gaifnean zurezko zubiak dituzten hiriak beldur dire, uholde borthitz guzietan, bere zubiak eraman DIOTZATEN (189).

164. Baldiñetariak komeni bada norbeiti egin DIOTZOTZUN zure errenkurak (kejak) kontseillu galdetzeko (eskatzeko) edo zure izpiritua deskantsatzeko, egin behar diotzotzute (dizkiezu) gizon bakezkoei eta Jainkoa ongi maite dutenei (=dizaizkiozun).

171. Egia da bat bederak (bakoitzak) atxiki (heldu) DIOZOKE bere herrunkari (gizamaillari), humiltasuna zaurthu gabe, baldiñetariak (baldin eta), ezin bertzez bezala eta ihardukitzerik (borrokarik) gabe, atxikitzen badio (=dizaioke); Jende komunari gogoak ezin eman DIOZOKENA (214); Erhokeria hori ezin barkha DIOZOKE gaztetasunari baizen (278).

175. Hau ere erran behar dut bada: kortesiak nahi duela batzutan eskain DIOTZOGUTEN abantaila (bentaja) segurki ez dutela hartuko dakusagunei (=dizaiegun).

195. Zer nahi armadalege eta ordena begira-araz DIOZOTEN bere soldaduei (=dizaaien).

201. Siñhets nazazu, Philotea, aita batek bere umeari eztiki eta amultsuki egiten *diozoken* (egiten *dizkion*? egin *dizaizkioken*?) erreportxuek indar gehiago duten bezala, hura bere eginbiderat erakartzeko, ezen-ez hasarraturik eta liskarrez egin LIOTZOKENEK (=lizaizkiokenek).

201. Kolera butheadazko (1) batek ekhar eta kausa LIOZOKEN (=lizaioeken) urriki despitkorraz (sentikorraz); Hortan jar litekenak asko lan eman LIOZOKE bere buruari (=lizaioke) (382) (Ikus 325).

203. Aithor EZOZU Jainkoari egin diozun ofentsa (=zaiozu). Behin bakarrik arkitu dugu adizkera hau hainbeste DIOZOZU’ren artean.

210. Borondatezko obedientzia deithzen dugu nihorkbertzek zuzenez ezin galde (eska) DIEZAKEGUNA (=dizaiekguna); Hargatik beraz tentazioneak iraun arren denbora luzez, ezin kalterik egin DIEZAKEGU, gaitzhesten duguño (=dizaiegegu) (364) (Ikus 285).

211. Ordena-araz DIOTZATZU zure aita izpiritualari egin behar dituzun debozinezko praktikak; zeren hark ordenaturik hobeak izanen baitire (=zaizkiozu); Ager DIOTZATZU humilki eta garbiki zure kofesorari edo bederen zenbait arima fidelei eta prudentei, iraganeko gauzen ariaz (kausaz), ethorriko zaizkitzun gogor-amendu eta tentazione guziak.

212. Ez DEZOZUTELA gogoia eta afekzioea iratxik (josi) beharretsiak eta manatuak (beharrezkoak eta aginduak) diren plazerei (=dizaiozutela).

263. Baiñan bihotz hark berak, zeinetarik nahi baituzu hasi gizonaren hobekaraten (hobetzen), galdetzen du irakhats DIOZOZUN nola behar duen moldatu bere kanpoko ibilpen eta erremangun (prestaera) guzia (=dizaiozun); Ez DIOZOZULA (=dizaiozula) beha tentazioneari (376); Ez DIOZOZULA sekulan ihardets hitz bakhar hau baizen (377); Ez DIOZOZULA ukho egin munduaren gatik (457).

270. O arima gaixoa! hire haragia mintza ahal baledi, Balaam’en astoa bezala, erran bide LIEZAKEN: zergatik horla jazartzen derautan, miserablea? (=lizaiken, hots, lizaiek eta lizaieku/lizaizuke’ri dagokiona).

270. Jainkoak orduan erran bide LIEZAKEZUE: jazar diozozue (eraso zaiezu-te) zuen bihotzei (=lizaizukete/lizaiekezute).

270. Jainkoak orduan erran bide liezakezue: jazar DIOZOZUE zuen bihotzei: hauts, arrailla (urra), porroska-zatzue (purruka itzazute) zuen bihotzak beregainki (batez ere, guziz ere, baitipat, bereziki) (=zaiezute); Ekhar DIOZOZUE beraz, ô senharak, amodio samur zin-ziñezko bat eta bihotzezko bat zuen emaztei (331).

275. Zeiñetan libertate gehiagorekin, erakhar baitezakezu zure izpiritua zure bihotzera, eta han lakhet-arazi BAITIOZAKEZU gogoeta sainduetan eta zenbeit irakurtze onetan (=baitizaiokezu, bait-dizaiokezu); Baldin ager ahal BADIOZAKEZU zure khexagunea (kezka, axanpa, larrikara, estuasuna) zure arimaren gidariari (388). *Diozakezu = dizaiokezu/dizaiozuke.*

284. Grekoek *eutrapelia* deithzen duthen (sic) berthute bati darontzate (1) eta guk solhasteria (berriketa) gozoa (2) erran ahal DIOZOKEGUNARI (=dizaiokegu-

(1) Lhandek, “Kolera butheadazko” *emportement de colère* itzultzen du, hots, *arrebato de cólera*.

(1) Ezin igarri diot adizkera honi. Badirudi *erauntsi* (charlar) aditz-izenarekin zer iku-sirik duela.

(2) *Eutrapelia*=virtud de la moderación en las diversiones y recreos. Donaire o jocosidad inofensiva. Discurso, juego, recreo honesto y moderado. Haraneder-ek “solhasteria gozoa” itzultzen du.

nari); Zeren, batzuez eta bertzez orobat berdin guregana DIOZOKEGUNAZ geroz bihotza eta irabaz haren amodioa (317). *Diozokegu* = *dizaiokegu*.

285. Eremagun dosteta (jolas, jostaketa) honest bati emanen diogun denbora, debozitoneak segura DIEZAKEGUN bezala eternitate saindua (= dizaikegun) (Ikus 210).

302. Philotea, ez dagizula holako behar gabarik: ezen Jainkoaren ofentsaz bertze-alde, milla inkontru (ez-behar) gaixto horrek ekhar LIETZAKETZUTE (=lizaizkizukete). Esaldiaren zentzuagatik ordea, badirudi "lizaizkizuke" izan behar lukeala, hots, LIETZAKETZU.

314. Horra nik eman ahal DIETZAKETZUDAN abisuak gauza horren gainean (=dizaizkizukedan).

316. Nahiz beha DIOZOGUN hura travaillatzen den moldeari (=dizaiogun) (Ikus 104).

325. Baldin desiratzen banu Chartrusen (Kartujoen) bakhartasuna, gal nezake ene denbora, eta desirkunde horrek traba egin LIOZOKE, orai naizen estatuari datxeizkon (itsasten zaizkion) obligazionen ongi bethetzeko izan behar dudan desirari (=lizaioke) (Ikus 201).

354. Hauta zazue gidari on bat zeñaren gobernuaren azpian saindukiago kontsekra ahal BAITIOZAZUEKE Jainkoaren majestate soberanoari zuen bihotza eta zuen gorputza (=baitizaiozukete, hots, bait-dizaiozukete).

362. Othoitz dezagun Jainkoa, arren eman DIETZAGUN usoenak bezalako hegalak (=dizaizkigun).

363. Bekhaturako zein nahi den tentazionek iraun BALIEZAGU ere gure bizitze guzian, ez gintzake egin Jainkoaren desgogarako, non ez zaikun hartan lakhetzen eta non ez diogun kontsentitzen (=ba'lizaigu).

364. Gure arimen etsaiek ekhar BIEZATEGU beraz gure aintziñera nahi duten bezanbat peita (beita=cebo) eta eskaintza; egon beitez bethi gure bihotzeko athean, han sartu nahiz; eras (erausi, jardun, hitz egin) BIEZATEGU nahi duten guzia (=bi-zaigute).

364. Gogorki eta zinki gaudezeiño horiez guziek atsegiñik ez hartzera, ezin ofentsa dezakegu Jainkoa, erran dugun printzesaren senhar jaunak gaitzik ezin nahi ZIOZOKEN bezala, egin izan zitzaion mandatuagatik, atsegiñik batere hartu ez bazuen mandatu hartaz (= zizaiokean).

374. Orobat bada nihork irakhats BALIEZAT zenbeit asmu arteziaz (abildadez) betherikako, ene etsaiari aspertzeko (bengatzeko) (=ba'lizait).

374. Eta ez badut gogorik hari aspertzeko, ez atsegiñik hari egin NIOZOKEN gaizkian (=nizaiokean).

380. Zeren eta horiek guziek ezin kalterik egin BAITIEZAKEGUTE, nekha ahal gaitzaketen arren (=baitizaigukete, bait-dizaigukete).

398. Baiñan denbora hartan berean amak eskatzen badio eskuan duen sagar bat edo zerbeit goxo eman DIOZALA, ez dio eman nahiko (=dizaiola); Ama batek goxoak haurrari ematen diotza (dizkio), haurrak musu eman DIOZAN nahiz (402);

Errekerituko (solicitar, requerir) duzu ofrenda DIOZALA adimendua Aita eternalari (461); Ofrenda DIOZALA zure memoria Semeari (461); Ofrenda DIOZALA zure borondatea Izpiritu sainduari (461). Beraz, *diozala/diozan* = *dizaiola/dizaion*.

410. Eta gure Espos dibinoari ezin presenta BADIOZAKEGU konfitura heze-rik, presenta diotzogun bederen idorrak (=ba’dizaiokegu).

427. Erran ere DIOZOKEZU San Frantsesekin (=dizaiokezu).

440. Erakhar-atzu gogora ausarki lehenago zure bihotza hartua zadukaten plazer eta atsegin maiten eta borthitzen guziak, eta juja zazu, egia erratera, ea ez ziren griñaz, khexagunez, gogoeta tristez, eta lazeriaz (mixeriaz) hain nahastekatua, non zure bihotz gaixoak ezin aurkhi BAITZIOZOKETEN gaitzik eta miseriarik baizen (= baitzizaioketen, bait-zizaioketen) (Ikus 73).

453. Baldin egun oroz egin behar balire etserizio horiek guziak, egiazki denbora guzia ereman LIEZAKEGUTE (=lizaigukete).

461. Eta arren, zure egoki (ahaide) eta adiskide guzietan eman DIOZATEN on eta behar duten guzia (=dizaioten).

464. Eta ardiets DIEZAGUZUE bekhatuen barkhamendua (=zaiguzute).

465. Eta memento guzietan, bizi naizeno, erran BANIEZAZU: *Jauna! nauzun urrikari*, ez liteke oraino aski ene bekhatuen nonbrearentzat (numeroarentzat) eta handitasunarentzat (=ba’nizaizu).

468. Errezibi zazu, Jauna, ezin erranezko sakrifizio hau amultsuki eta gozoki, eta sofri zazu ofrenda saindu horri junta DIOZADAN ene gorphutzaz, arimaz, ontasunez, biziarekin eta ditudan guzietan egiten darotzudan sakrifizioa (=dizaiodan).

469. Hortarakotz bat egiten naiz Apezarekin, akorda DIETZAGUTZUN amoreakatik Jesu Khristo gure Jaunaren bidez eta izenean (=dizaiagutuzun).

469. Eta desterruko lekhu huntan erran DIEZAZUGUN hek loriaren egoitzan kantatzen darotzutena (=dizaiaguzun).

472. Barkha DIETZAKIDATZU ene faltak (=zaizkidazu).

475. Nahi duzu, Jauna, arterik utzi gabe gure othoitzak adreza (zuzendu) DIETZATZUGUN (=dizaiaguzun).

476. Bainan egizu, zuzenki konportatzen naizelarik, bethi begira DIEZAZU-DAN ene gogoeten, en hitzen, eta ene obren erregelari eta asken (sic) finari bezala (=dizaiadun).

499. Barkha DIETZADATZU, othoi, iragan hutsak (=zaizkidazu) (502).

500. O dolorezko Ama! ardiets DIEZAGUZU mendi sainduraino Jesu-Khristo segitu zinduen (zenduen) amodio hura (=zaiguzu).

Oharra.—Ikus dezakegunez, Haraneder’ek, eskuarki, aditz aginkorrak “d” letrarekin hasen ditu, baiñan baditu salbuespen gutxi batzuek. Horrela *diozozute* (=zaiezu), *diozozu* (=zaiozu), *diozotzu* (=zaizkiozu), *diezadazu* (=zaidazu), *diezadazue* (=zaidazute), *diozak* (=zaiok), *diozazu* (=zaiozu), *dioztatzu* (=zaizkiozu), *diozozue* (=zaiezute), *diezaguzue* (=zaiguzute), *dietzakidatzu* (=zaizkidazu), *dietzadatzu* (=zaizkidazu), *diezaguzu* (=zaiguzu). Gaiñerakoan,

nahiz aginkorrean, subjuntiboan edo ahalkorrean, *dio* eta *die* aditz-hasierak nahas-mahas darabilzki. Bestalde, *diozOzu* tankerakoak eskuarki eta *diozAzu* formakoak bakanki. “D” gabeko aginkor bakarria aurkitu duguna: Aithor EZOK (zaiok) Jainkoari.

VII. “CHIBEROUA ETA MARCELINE” ETA “RECOQUILLART ETA ARIEDER”

“Estos dos charibaris que copiamos integramente y con grafía exacta a la de los manuscritos que se hallan en la Biblioteca Nacional de Paris —fonds celts et basques—, corresponden: “Recoquillart et Arieder” al número 138, pudiéndose datar como de la segunda mitad del siglo XVIII, y “Chiveroua et Marceline” al número 136, en copia de la primera mitad del siglo XIX”, dio Patri Urkizu jaunak, bi zintzarrots, galarrots edo tobera hauen argitalzaille eta komentatzailleak alegia, Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” urtekarian (Tomo VII, 1973, 117^{gn}. hor-ald., Excma. Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián). Gure lan hontan grafía —ohi bezala— berriturik ematen dugu. Bi lueroz seiñalaten ditugu aditz-esaldiak: lehendabizikoa horrialdearena eta bigarrena bost bertsoatik bost bertsoarako lumeraziñoa. Gure esaldia honen inguru-inguruan dabil beti.

XIBERUA ETA MARZELINA

122/105. Hara unduan (1) erran IZADAN (=zaidan, iezadan); Erran IZADAN ene haurra (132/340).

123/130. Unduan (ondoren) sogin EZAGÜZÜ (=begira zaiguzu, izaguzu, iezaguzu). Campión'ek: IZAGÜZU.

125/165. Abis galthazaler ere (2) DIZEGÜN egin gure gisa (=dizaiegun, diezaiegun).

133/180. Erran EZADAK ene mitila (mutilla) (=zaidak, izadak, iezadak); Erran EZADAK ene gizuna (164/1150); Erran EZADAK hik (187/1725). Ikus: IZADAK (145/655).

137/470. Erran EZADAN orai egia (=zaidan, izadan, iezadan). Ikus: IZADAN (132/340).

137/480. Xerka IZOZÜ pratika (= billa ZAIOZU klientea).

141/560. Jinkuak gai hun (gabon) DEIZÜLA (=dizula). Aditz-joko hau ezta I + ZA aditz-erroduna, baiñan beronen ordezkoa egiten du, hots *dizazula/dizaizula/diezazula*’ren egitekoa betetzen du. (152/830); Jinkuak egün hun DEIZÜLA.

(1) Badirudi “hara unduan” “hara joan unduan”, hots, “joan ondoan” edo “joan ondoan” ulertubehar dela. Lhande’k “unduan” = après (después) itzultzen du.

(2) *Aholku eskatzalleei ere*. Testuak, “ere” jarri beharrean “era” jartzen du, baiñan hutsegite bat da noski.

145/655. Ezar IZADAK berhala (=zaidak, iezadak). Ikus: EZADAK (133/380).

146/685. Erran IZADAZÛT zuk (1) ere (=zaidazu, iezadazu). Ikus, “Recoquillart eta Arieder”en: EZADAZÛ (193/130).

147/710. Jinkuak gai hun DEIZIELA (=deizuela, dizuela, dizutela).
141/560’an esandakoak gogoan har hemen ere.

178/1510. Eztin zer eni ere aipa DIZADAN deus ere (=dizaidan, diezadan).

RECOQUILLART ETA ARIEDER

193/130. Ordeñü (testamentu) bat othoi eni egin EZADAZÛ (=zaidazu, izadazu, iezadazu). Ikus, “Xiberua eta Marzelina”n: IZADAZÛT (146/685. Ene ustez, bai “ezadazü” eta bai “izadazüt” (hau bi datiboduna delako) baztertu egin behar lirake, “izadazü” forma normalari leku egiñaz. Baiñan hontan Zuberotarrek dute hitza (201/325): Zer phensatzen düzün erran EZADAZÛ.

194/160. Semiari phürü (2) zerbait ordeña (3) EZOZÛ (=zaiozu, iezaiozu).

198/260. Erran EZADAZIE bertarik (=zaidazute, iezadazue); Fachous (fâcheux = enjoso, enfadoso) ezpazazie (ezpazazute) erran EZADAZIE (200/300).

203/380. Jauna ordeñatzen dirot (4) beste ororen gaiñeti, jar DIEZAZUN egünian behin südürra üzküti (ipurditik). Zuberoa’ko forma normala, ordea, ordea, DIZAZUN (=dizazun) da.

(1) Testuan: yçadaçout çouç (izadazut zuk). Ezin uler daitezke bi “ou” horiek, zeren Zuberoeraz “izadazüt” eta “zük” izan baita beti, nahiz-ta “zü”k “zure” eman eta ez “züre”. Halaber, “gü”k “gure” ematen du eta ez “güre”.

(2) Zentzuok izan ditzake: surtout/sobretudo/batez ere; au moins/al menos/behintzat-bederen. Hitz honek baditu Lhande’reñ arabera zazpi zentzu liferente, baiñan beste bostak nekez onart daitezke hemen.

(3) Ordeñatü (=testar), testamentuan utzi.

(4) Dirudienez, “ordenatzen diot” da hemen eta ez “testamentu egin” (testar), arestian aldatu dugun bezala. Gure itzulpen desberdiñaren aditzera-emangarri, bi kasoak argitzen dituzten inguruko ahapaldiak aldatuko ditugu. Horra hiru ahapaldi “ordena” edo “agindua” aditzera emanaz:

Notaria: Jauna plazer badüzü
Behar düzü mintzatü
Eia zer plazer derozün
Dama huni ordeñatü

Recoquillart: Jauna ordeñatzen dirot
Beste ororen gaiñeti
Jar diezazün egünian behin
Südürra üzküti.

VIII. JAKES OIHENART

"KANIKO ETA BELXITINA"

"Kaniko eta Belxitina" pastoral komikua Larribarre'n (Amikuze, Behe-Nafarroa) aurkeztua izan zen 1848'ko Apirillaren 30'ean. Gabriel Aresti'k dionez, Jakes Oihenarte trajerigillea "ez zen zuberotarra izan, nafarra baizik, Amikuze-tarra, bertako Uharte izeneko burgukoa. Haren izena Jakes Oihenarte zén, baina Larrondo goitzenarekin izan zén ezagunagoa; berak bere burua "instituteur de pastorales"-tzat jotzen zuén. Honek esan nahi du ez berak pastoralik eskribatzen zuela, teatroa eramaten zituela baizik. Eta hala dakigu bera jaió baino lehen eskribatutako pastoralak beraren zuzendaritza-pean jokatu zirelako. Baina kasu honetan komediáren haritik bertatik tira ahal dezakegu gure Larrondok ez bakarrik personaíen ofizioak errijitu,

Eta jan dazen egün oroz
Hamalaur libera xahürki
Bai eta gero edan
Etxe gibekeko barga xiloti.

Lehendabiziko ahalpadiko "derozün", literatur-zuberoeran "deiozün" da (Intxauspe'k: *déyozu. eta deózü*) eta bigarren ahapaldiko "dirot"en ordez "deiot" erabiltzen da (Intxauspe'k: *déyot, derót eta dériot*). Gipuzkeraz: *diozun* eta *diot*. Hirugarren ahapaldiko "dazen" ene ustez hutsegite bat da. "Dezan" behar du izan (Intxauspe'k *dézan*). "Dezen" (Intxauspe'k *dezén*) gure "dezaten" da, baiñan hemen eztu zentzurik. "Barga" = *agramadera*.

Orain ikus dezagun beste kasua, hots, "ordeñatü = testamentua egin". Har ditzagun ahalpaldi batzuek:

Arieder: Zure semia eta ni
Biak malerus gütüzü
Arranjamentürik egin gabe
Begiak zerratzten batüzü.

Hartakoz arren orai
Othoitzen zütügü
Gure danger tristia
Ikhus ezazü.

Ordeñü bat othoi
Eni egin ezadazü
Eta zure semia ere
Orhit ükhen ezazü

Semiari phürü
Zerbait ordeña ezozü
Nahi badüzü gero zihaurk
Leher egin ezazü.

Lehendabiziko hiru apaldiak 120, 125 eta 130 bertso lumeroei dagozkie (193 paia); laugarrena 160'garrenari (194 paia). Lehenengo ahapaldiko "malerus gütüzü" = "zorigaitzeko gaituzu" (gara). "Arranjamentü" = "arrangement"(arreglo). "Batüzü = badütüzü" (badituzu). Bigarren ahapaldian: "arren" = "bada". "Zütügü" = zaitugu". "Danger" = "peril, arrisku". Hirugarrenean: "Ordeñü" = "testamentu". "Orhit ükhen" = "oroitu izan". Laugarrenean: "Phürü" = "behintzat" edo "batez ere". "Ordeña ezozü" = "utz zaiozu testamentuan". "Leher egin" = "lehertu". Uste dut, hainbestean argi gelditzen dela "ordenatü" = "ordenar" eta "testar".

komedia bera ere eskribatu egin zuela” (Kaniko eta Belxita, Kriselu - 18, LUR editoriala, Donostia, 1971, Gabriel Arestik moldatutako lehen inprimaldia). Esaldiak bi lumeroz seiñalaten ditugu: lehenengoa horrialdearena eta bigarrena ahapaldiarena.

28/49. Hartü libertatia pharka DEZADAZIEN (=dizaidazuten, dizadazuten, diezadazuten). Hartü libertatia = hartutako libertatia.

67/223. Biek har EZADAZIE (=zaidazute, iezadazute).

104/407. Jinkuak eman DIZAZIELA (=dizaizutela, di(e)zazuela).

105/413. (Jinkuak) Eman DEZAZIELA grazia etxilat irüski ütziiltzeko (=dizaizutela, di(e)zazuela). Hobeki: DIZAZIELA.

11/445. Hik aldiz eman EZOK salda gibel-aldeti (=zaiok, iezaiok). Campión’ek, hobeki: IZOK.

16/470. Zer plazer düzün orai othoi erran IZADAZÜ (=zaidazu, iezadazu). EZADAZÜ eta IZADAZÜT baiño forma jatorragoa.

IX. JUAN DE TARTAS

“ONSA HILCECO BIDIA”

(Ivan de Tartas Arveco Erretorac euscaraz egvina. Moneineco Iavn Marquizari dedikatia. Ortheceñ Iacqves Rovyer, Erregueren Imprimacalia baitan, Biarnon, 1666 (1)). Guk bigarren eta hirugarren ediziñoak erabili ditugu, hots, Paris’en egindakoa, 1911’garren urteaan, Honoré Champion’en moldiztegian (Extrait de la Revue internationale des Etudes basques) eta Andolin Eguzkitza’k antolatutako “Ontsa hiltzeko bidea” (JAKIN, Arantzazu, Oñati, 1975). Horrialdeak bienak ematen dira, lehendabizi Paris’koa eta gero Arantzazu’koa. Testua bigarrenetik hartua dago.

Zuberotar lehen euskal-liburua esaten zaio “Onsa hilceco bidia”ri, eta halaxe da, izan ere, baiñan euskara ideki batean izkiriatua, hauzoko euskalkietara hurbilduz eta batasunerako urrats sendo bat emanaz, euskaldun guzientzat ulergarri izan nahian. Beronen egillea, Juan de Tartas, 1610/1612 inguruan jaio zen Zuberoa’ko Sorhueta edo Sohüta hirixkan. Arue’ko edo Aibe’ko erretore bezala ezagutua da. Eztakigu noiz hil zen. Xehetasun gehiago aipatu liburuetan. Villasante’k Darricarrère’ri jarraiki dienez, egilleak liburu hontan bere buruaren irudia agertzen du.

3/4. Ibiliko da büria gora Euskal herri orotan, zük solamente egin BADIZOZÜ so hanbat, eta begitarte hon, herri mündü güzietan zure amorekatik honki jin izanen da (=egin ba’dizaiozu, egiten ba’diozu).

5/8. Jinkoari othoi eginen dü bizi nizan egünetan zure hilziaz lürrian orhitürük, saindüki bizirik, eta saindüki hilik, mündü hontarik landan, zelüko resuma eternala eman DIZAZÜN (=dizaizun); Eta zeren komunski herioak gure arimari edekiten,

(1) Lerro hauetan agertzen diren “v” letrak “u” irakur bitez. Arue edo Aibe hirixka Zuberoa Pettarrean dago eta Monein Biarno’n.

edo emaiten baitü bere koroa, edeki EZTIZAZÛN (=ken ez dizazun/dizaizun/dieza-zun) pündü hertsu hartan zuri zure arimarena, herioaz orhit zite ahal bezain ardüra (maiz) (49/72); Noizik behin, kofesa zite intenzione hontan, eta rezebi ezazü gorpitz saildia, Jenkoak eman DIZAZÛN hilze hona (100/145): Bide saildü hontan ma-khür etztitian, ennuia etztitian, eta Jenkoak eman DIZAZÛN dohaiña, eta grazia per-seberatzeko, eta hon edu.kiteko (102/148).

23/35. Neure adeskide maitia, nahi ezpadüzü deabrü süge gaixto hark zure ari-mari ausikirik, edo zauririk egin DIZON, edukazü zure bihotzaren kanberan, herioa-ren herhautsa (=dizaion/diezaion).

23/35. Eztüzü perilik, minik egin DIEZAZÛN (=dizaizun/dizazun). Normalki "dizazün" darabil.

27/41. Othoitzez zegoen Jenkoari igor LIZON grazia haren bihotz gogorraren, eta hotzaren, Espiritü Saindiaren süiaz beratzeko (=zizaion/ziezaion).

43/64. Galda BANIEZAZÛ nontik heldü zen hamar birjina haien dixta eta ben-türa diferenta, erranen dü, bortz zühürak orhitü zirela herioaz, eta bortz erhoak etzirela orhitü herioaz (=galde ba'nizaizu, galdetzen ba'nizu, galdetuko ba'nizu).

64/95. Anderia, egiaz erran behar drauzüt, zure penaren, eta tribailliaren (tribu-lación) rekompensütan, eta pagütan, Jenkoak EZPADIZAZÛ eman infernia, ogen handi bat, eta injurio handi bat egin drauzü (=ezpa'dizaizu eman, ezpa'dizu ematen); Konsidera ezazü, bekhatü mortalian, herioak eman BADIZAZÛ bere kolpü mortala, zuriak egin diala (duala/duela) (102/147).

85/123. Baiña Jainkoak eman draukü, Sanson handi bat, gure konsolatzeko, eta gure nigarren üxükatzeko (txukatzeko), Jenko honak eman BADIZO osagarri, eta bizitze lüze, gure desira den bezala, gure Eliza, eta gure herria, handi, eta azkhar izanen da gure etsaiez trüfatzeko, eta haien beldürrik ez ükhaiteko (=eman ba'dizaio, ematen ba'dio).

101/146. Aletsandre handiak egün batez manatü zian Apelles pintazale famatü hura, konpazpe (maitari, amorante, ohaide) ederra, eta bere gortian zian maitena figüra LIZAZON, eta pinta bere esküz ahalik hobekiena, eta ederkiena (=zizaion/-ziezaion).

104/153. Eman IZAGÛZÛ egünerozko ogia (=zaiguzu/iezaguzu).

104/153. Barkha ITZAGÛZÛ gure bekhatiak (=zizkiguzu/iezazkiguzu).

X. JEAN-PIERRE ARBELBIDE

ERLISIONEA

(Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrenak. Heren-Ordreko chehetasunekin eta Mez-Bezperen othoitzekin, J. - P. Arbelbide aphezak egina. San Agustinen El-gartasuneko, Jaun Desclée, de Brouwer, eta hekien lagunuen moldetegian. Lille, du Metz karrikan, 41-1890).

Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905), Nafarroa-Behereko Zaro'n sortu zen eta 1867'gn. urtean apez ordenatu. Hazparne'ko Misiolari-etxecko Aita Nagusia izan zen eta Belloc'eko Beneditano komentuari fundaziñoan parte handia hartu zuen. Azken urtetan Baiona'ko katedraleko kalonje izan zen (Xehetasun gehiago nahi dezanak, ikus Villasante'ren H.L.V.). Obrarik nagusienak aipatutakoaz gaiñera: 1. *Bokazionea edo Jainkoaren Deia*. Lille, 1887. 2. *Igandea edo Jaunaren Eguna*. Lille, 1895. 3. *Heren Ordrea*, 1890.

10. Eta ez othe da meneko baten, eta bereziki bere izaitea bera bertzeren ganik deraukan baten eginbidea, bere nausiarri eta egileari ohore eta jauspen (mendetasuna, obedikuntza) ekhar DEZON? (=dizaion/dieziaion); Eta elizatik elkhi (atera) baino lehen, behaunikatu ziren Jaundone Betiriren (Petiri, Petri) hobi-aintzinean, othoitz egin zuten Leone (Leon) hamahirurgarrenarentzat, Jainko onak eman DEZON bere laguntza eta etsai guzien gainean garhaizia (garaipena, garaitia, garaita) (180); galdetzen du (eskatzen du) zeren zuzen baita ohoinak (lapurrak) itzul DEZON jabeari ebatsi duena (203); Errozue othoi Jaunari, berehala idek DEZON biderantari (bidari, bidazti) (379).

10. Bai, zuzentasunak galdatzen (eskatzen) du Jainkoari eskerrik handienak bihur DIOTZOGUN (=dizaizkiogun/diezazkiogun).

17-18. Premia da menekoek buruzagieri jauspena ekhar DIOZOTEN (=dizaieten/diezaieten). Hots, haiek haiei.

20. Ezen buruzagitasunik ez da Jainkoaren ganik baizen; eta Jainko handi horren nahia da buruzagien manu guzietari agur eta jauspen ekhar DAKIOTEN (giritinoek). Hots, haiek haiei. Beraz: *dakieten*. Gramatikalki ordea “dizaieten/dieziaieten” behar luke. Honela: “etor dakieten” (pasiboki), “ekar dizaieten” (aktiboki).

25. (Lur) hura ez badezaket izan, eman EZADAZU beraz baratzearen ezkerreko pentze edo sorho handiaren erdia (=zaidazu/iezadazu).

39. Elizaren soldadoa, barkha ZOZU zure adixkideari (=zaiozu/ieziaiozu).

52. Jainkoak eman DIEZAGULA De Sonis bezalako jeneral zonbait (=dizai-gula/dizagula/diezagula).

53. Jainkoak DIZULA egun on, Jauná (Indikatiboko jantziaz subjuntiboaren ordezkoa egiten du. Erregulariki “dizaizula-dizazula-diezazula”esan beharko litzateke. Ez aditz-joko honek eta ez goraxeagoko “dakioten”ek ez dute -(e)za— aditz-errotik, baiñan hauen ordezkotza egiten dutelako aipatzen ditugu).

60. Bederen oraino urrikizko oihu bat egin BALEZO Jainkoari! (Hots, ba'lezo = ba'lizaio/ba'liezao).

62. Ikhus dezagun hortik, zoin gezurrez eta zuzenkontra hartzen duten sinestegabek, Erlisionearen etsaiek, gure adiskide eta ongi egileen izena. Gizona ezin athera dezakete bizitze huni datxeizkon gaitzetarik, eta azkenean hil-beharretik. Zer diot? Idekitzen (kentzen) diote (gizonari) beren ahalaz hek (haiek) arhint eta gozo DIOTZOTEN gauza bakharra, Erlisioea (=dizaizkien/dieziaizkien). Ene ustez aditz-joko hau gaizki erabilia dago, zeren “gizonari” baldin ba'da, DIOTZON (=diotzan) behar luke izan, alegia “dizaizkion” eta ez DIOTZOTEN (=diotzaten), hots! “dizaizkien”, hau “gizonei” baita. Hontaz gaiñera potenzial eran jarri behar luke, “diotzoken” (diotzaken) edo “diotzoketen” (diotzaketen), gipuzkeraz *dizaizkioken/dizaizkieken*.

67. Hari ohore bihur DIOZOGUN (= dizaiogun/dieziaiogun); DIOZOGUN erran Jesus-Jainkori (388).

72. Etsayik muthirieneri (okerrenei, makurrenei, ankerrenei) bereri barkha DIOTZETUGULA eginen derauzkiguten gaizki guziak. (Aditz joko hau oso arrarua da. "Diotzotegula" normala irudiko litzaziguke. Halabaiña, forma "ofiziala", "Campión'en arabera, "diotzategula" da (Gram. 472 p.: *diotzategun*). Orobat gertatzen da 62'gn. paiako DIOTZOTEN adizkerarekin, "ofizialki" *diotzaten* nagusitu baita eta potentzialean *diotzake/diotzakete* (Camp. Gram. 477 p.). Beraz, oker ez baldin ba'gaude, adizkera bitxi hau gipuzkeraz *dizaizkiegula/dizazkiegula* da eta euskara batuan *diezazkiegula*).

84. Eta orai, atsegin baduzu, joanen gaituzu guziak San Frantsesen aldare aintzinerara, eta han galda (eska) DEZAKOGUN gure herritar maiteari, bethi eta gehiago Eskualdunen bihotzean hazkar eta finka dezen Erlisioe katolikoa (=dizaiogun/dieziaiogun); Guk ere beraz lehenik beha (begira) DEZAKOGUN Jesu-Kristori, eta gero hobeki ikhusiko dugu zer den Eliza (90); DEZAKOGUN erran San Agustinekin (370); Jesus haurrari galda DEZAKOGUN hek (haiek) zuten bezalako sinestea edo fedea (370); Etsai gaxtoa oldartzen zeraukun (zaikun = zaigun) aldi guziez, buru egin DEZAKOGUN aiphatuz eta errepikatuz Jesusen izen saindua! (371); eta azken orena ethorriko zaukunean (zaiku = zaigu) gure bizia ere Jainkoari eskeint DEZAKOGUN gure hutsen erospentetan (373).

84. Eta zu, bihotz-guziz errekeritzen zaitut ardiets DIEZADAZUN othoi, zure arartekotasun botheretsuaz, dohain guzietarik beharrekoena, sainduki bizitzea eta hiltzea (=dizaidazun/dizadazun).

84. Bestalde, ardiets DIEZADAZUT eta baldin nere galdea (eskea) ez balitz Jainkoaren gorestekoa eta arimaren salbatzeko, ardiets DIEZADAZUT zer-ere bienztat baita hoberenik eta hura (=zaidazu/iezadazu). Ohar datibo bikoiztuari: D + T.

89. Beha DEZOGUN Jesu-Kristori eta jakinen dugu zer den Eliza (=dizaiogun/dieziaiogun); San Joseperi galda DEZOGUN, bertzorduz Jesus eta Maria Herodesen haztaparretatik gerizatu eta zaindu zituen bezala, orai ere Eliza saindua begira dezan bere etsayetarik (376). Ikus daitekenez, "dizaiogun/dieziaiogun" adizkeraren adierazgarri hiru forma darabilzki: *diozogun, dezakogun, dezogun*.

109. Nola Joanesek, burdinetan (gartzelan) zagoela, ikhasi baitzituen Jesu-Kristoren egintzak, igorri ziozkan bere dizipuluetarik biga, Berari galde ZEZOTEN: Zu zare ethortzekoa dena, ala bertzerik behar dugu iguriki? (=zizaio ten/zieziaio ten).

145. O Jainko, mundu guziak gorensten zaituena, irakas DIEZADAZU zeure lege zuzena (=zaidazu/iezadazu); Othoi beraz urrikal nakizu eta barkha DIEZADAZU! (376); Jauna, ja erran dut: ez dut merezi zure mahainean zure haurren herrunkan jartzea: bainan onets (permeti) DIEZADAZU bil detzadan bederen erortzen diren papurrak (451); Barkha DIEZADAZU. ô ene Jainkoa (452). Lau bider darabil "diezadazu" eta behin "diezadazut".

203. Ez da libro (Aita Saindua) ezen duen libertatea, Italia etsayaren eskuan da, eta gobernamentuak egunetik biharrerat khen DEZOKE (=dizaioke/dieziaioke).

203. Bainan guziek dakitena da, Italia okasionearen beha dagola, eta indarrrik aski izaitarekin, Aita Sainduari berehala khen LETZOZKELA azken dretxo dituekan (=lizaizkiokela/liezazkiokela).

203. Arrazoinekin galdetzen (eskatzen) du (Aita Sainduak) bihur DEZAKO-TEN hartu dioten erresuma xumea (=dizaioten/diezaioten).

211. Serorak, irria ezin atxikiz, ihardesten dio: “Jauna, hori ez DEZAKEZUT erran, haina hark (persona harrek) debekatu baitaut.” (=dizaizuket/diezazuket).

214. Behin batez manatu (agindu) zuen (Konstanzio Emperadoreak) soldado guziek sakrifika ZIEZOTEN haren jainko gezurrezkoeri (=zizaieten/ziezaieten), hots, haiek haiei.

227. Aiphatzen diozka bere xedeak eta errekeritzen du othoi erran DEZAKON hea bide onean ala gaxtoan sartzerat abiatu den (=dizaion/dieziaion).

233. Nola eta zer hitzez Izpiritu-Sainduak hobeki gogorat sarraraz ZEZAKE-GUN zer premia den gure Erlisionearen ongi ezagutzea? (=zizaikegun/ziezakegun).

236. Bederen Apostoluek bazuten ikhasteko gutizia. Jesus errekeritu zuten, othoi ageriki xeha (1) ZIOZOTEN hekieri (haiei), bertzeri hitz estaliz erraiten zerayena (=zizaien/ziezaien). Alegia harrek (Jesus) haiei (Apostoluei).

245. Eta nola nahi dute Jainkoak begi onez beha DIOZOTEN? (=dizaien/diezaien). Hots, Harrek haiei.

247. Hortakotz erraiten zioten Jesu-Kristok bere Apostolueri: Zuek zarete munduko argia; eta beraz argi zazue gizonen ainzinean, ikhus detzazten zuen eginkari onak, eta eginkari horiek ederretsirik, ospe DIOZOTEN bihur zuen Aita zeruetan denari (=dizaioten/diezaioten). Hots, haiek Harri. Ohartarazi nahi dugu hiru aldiz ageri dela DIOZOTEN aditz-jokoa, baiñan hiruretan esangura liferentez eta horretxegatik aparte ipiñi ditugu. Izan ere, 17-18 paian “haiek haiei” aditzeraematen du, 245’garrenean “harrek haiei” eta 247’garrenean “haiek harri”.

392. Galda DEZAZKOGUN (Ama-Birjinari) bi grazia (=dizaizkiogun, diezazkiogun).

408. Zoazte, haur hartaz arthoski (arduratsu) argi zaitezte, eta aurkhitu dukezuenean, adiaraz DIZADAZUE, nathorren ni ere haren adoratzera (=zaidazu(t)e, iezadazue). Eskuarki, DI orde z DIE darabil: diezadazun (84), diezadazut (84), diezadazu (145).

440. Eta ardiets DIEZAGUZUE bekhatuen barkhamendua (=zaiguzu(t)e/iezaguzue).

440. Memento guziek, bizi naizeino, erran BANIEZAZU Jauna! nauzun urrikari (=ba’nizaizu/ba’nizazu/ba’niezazu).

444. Eman DIETZAGUTZUN Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez eta izenetan (grazia guziak). Gipuzkeraz: *Dizaizkiguzun/dizazkiguzun*. Euskara batuan: *diezazkiguzun*.

449. Barkha DIETZAKIDATZU ene hutsak, penitentzia egiazko batez zerurat hel nadien (=zaizkidazu/iezazkidazu).

(1) Testuak “checha” dakar, ene ustez inprentako hutsez. Arbelbide’k “cheha” izkiria bide zuen zalantzarik gabe, zentzuak hori eskatzen baitu eta, bestalde, “xexatu” aditzik ezpaitago.

449. Barkha ZAGUTZU gure zorrak, guk gure-ganat zordun direneri barkhatzen dioztegun bezala (=zaizkiguzu/iezazkiguzu). Ohar gaitezen aditz-joko aginkorre batzutan “die” edo “di” (azken hau behin bakarrik) ezartzen diela aintzinetik eta bestetan ez. Horrela: *diezadazu, diezadazut, diezaguzue, dietzakidatzu* eta, bestalde, *ezadazu, zagutzu*. Azken biotan ere bada bereiztasunik, zeren lehendabizikoak “eza” osorik kontserbatzen baitu eta bigarrenak “e” galdua ditu.

451. Nahi duzu, Jauna, arterik utzi gabe, gure othoitzak erantzun (entzun-arazi, hots, *faire entendre, hacer escuchar*) DIETZATZUGUN (=dizaizkizugun/diezazkizugun).

Egin behar oharrak kaso bakoitzean egin ditugu.

XI. DUVOISIN KAPITAINA

“LABORANTZAKO LIBURUA”

(Edo bi aita semeren solasak laborantzaren gainean. Bayonan, Andre Lamaigeneren moldiztegian, Pont-Mayuko karrikan 39 numeroan. 1858. Berorren gortasunari, gure Jaun eta Printze Bizar Luis-Luziano Bonaparteri, Eskaldunen amodioa, Gogoa eta Bihotza, eta ordoen artetik, Berorren eskupeko aphil, bainan bethi eskerdun, Duvoisin, kapitainarenak).

Joane Duvoisin kapitaina (1810-1891), Ainhua'n jaiotzen zen, baiñan txipitandik Ezpeleta'n bizi izan zen eta gero Donibane-Lohitzune'n eta Bardeze'n, hots beti Lapurdi'ko barrutian. Larresoro'ko seminarioan apez-ikaskuntzak egin zituen, baiñan asmoz aldatu, apezgoa utzi eta Aduanatan sartu zen 1830'gn. urtean, bere aitaren langintza berberari jarraituz eta ogibide hontan kapitan maillara heldu zen. Aduana karguarekin Donibane-Lohitzun'en bizi zelarik, Luis Luziano Bonaparte euskaldunen Printzea ezagutu zuen 1856'gn. urtean. Geroztik gure Printzearen lankiderik bikaiñena izan zen. Luis Luziano Bonaparte'ren eskabidez egin zuen lanik inportanteena Biblia'ren (Bible edo Testamentu zahar eta berria) itzulpen osoa izan zen. Sei urtetan (1859-1865) euskaratu zuen Lapurdi'ko euskalkira. Hontaz gaiñera izkiriatu zuen hemen aztertzen dugun “Laborantzako liburua” eta itzuli “Jesu Kristoren imitazioa”, Hariztoi'ek bukatua eta argitaratua. Halaber itzuli zuen “Liburu ederra” izenez Kardaberatz'en “Aita San Ignacio'ren Egercicioen gañean afectoac”, lapurdieraz emanik eta Iturriaga'ren “Diálogos basco-castellanos”. Hauetz gaiñera argitaratu gabeko lan franko badizu: Fenelon'en “Telemakoren Menturaldiak”, lapurdieraz emanak. Frantses-euskara hiztegi bat. Demostenes'en sail batzuek eta Quijote'ren zenbait atal ere itzuli zituen. Gaiñera kazetaritzan jardun zen eta estudio historikoak eta gramatikazkoak egin zituen. Poeta eta musikalaria izan zen eta Villante'k dionez: “5.000 horrialde eskuz izkiriaturik utzi zituen Euskalerra'ko historiaz, hizkuntzaz eta literaturaz”.

21. Egin DIOZOGUTEN ongi, eta ongi izanen dugu (=dizaiegun).

31. Jo DEZOGUN bihotzez lanari (=dizaiozun); Jo DEZOGUN lanari, ene semea (94).

79. Lehenik xeha DIEZADAZU zer den uztalda (=i)zaidazu/(i)zadazu); Aita maitea, aipha DIEZADAZU idiaz (233); Barkha DIEZADAZU (255); Erran DIEZADAZU nola behar diren gizenarazi (258).

90. Semeak: Aiphamen egin duzu zaldi-babaz; ¿zer da hura? Aitak: Beranduegia ez-balitz, erran NEZAKEZU orai (=nizaizuke/nizazuke/niezazuke).

90. Jaun onari egin DIOZOGUN othoitza (=dizaioGUN/diezaiogun); Egin DIOZOGUN beraz othoitza eta gomenda gaitezen Jaun onari (390).

166. Urin hortarik ogitan edo bertze zerbaitetan hartzen diozunaren arabera, bihur DIOZUZU ongarritan (=zaiozu/izaiozu/iezaiozu).

227. Ohartzen bazare badela bat edo bertze jana histua duenik, begira ZOZU ongi heya gaitzik ageri duenetz (=zaiozu/izaiozu/iezaiozu); Aberea ilhun ikhusten duzunean, khen ZOZU janetik (228); Urkhila hautsi nahi duzunean, mendebal aldeko adarra utz ZOZU nihondik ahal bada (358).

235. Bakotxak irabazi gehiena eman DEZOKEEN mota (erosi behar du) (=dizaiokeen/diezaioken).

264. Eman DEZOGUTEN beraz (aziendei) faruxa (pagotxa) berotua freskoaren aldean, eta dugun ikhus zeini lothuko diren gogotikenik (=dizaiegun/diezaiiegun).

314. Eta bizkitartean gizona itsua izan behar da ez-ikhustekotzat zahartze on bat segura LEZOKEEA bere buruari, baldin arbolaz bethe baleza bere onthasuna (=lizaioke(e)la, liezaioke(e)la).

330. Landareak hastapenean elkhar ganik hurbil utziz, lerdenago eta legunago ethortzen dira. Bainan urthe oroz aintzina bakhandatzen dira, handitzen direnaren arabera; bertzela, usuegi geldituz elkharri bidegabe ekhar LEZOKETE (=lizaiokete/liezaiokete).

Oharra.—Dakuskegunez, Duvoisin'ek *dizaiegun/diezaiiegun* adierazteko bi forma darabilzki: *diozoguten* eta *dezoguten*; halaber, “zaiozu” aditzera emateko *diozozu* eta *zozu* darabilzki eta *dizaioGUN/diezaiogun*: *diozogun* eta *dezogun*.

Essai de Traduction Basque de DON QUICHOTTE Sur la demande du Colonel X

(Antze handitako Aitoren seme Don Kichote Mantchakoaren gerthakariak *Don Miguel de Cervantes Saavedrak* Erdaraz ezarriak *Duvoisin Kapitainak* Eskararat itzuliak. Ernest Seitz, Imprimazale, Biarritzen, 1904-garren hurteko Uztailan).

3. Aita bati gertha badakio seme bat itsusia eta moldegabea, bere haurarentzat duen amodioak ezartzen dio begietan bela (velo) bat ez dadin ohart haren baieri (akatsei, defektuei), bainan haz detzan hobeki zerbait maithagarri eta panpoxik balire bezala, eta bere adiskideeri aipha DETZOTEN, hala nola izpirituko xorginkeria eta pollit batzu (=dizaizkien/diezazkien). Campiön: *dioztaten*.

7. Halaber sonetaz (soneto) hastapenean eskas izanen da ene liburua, edo bederen duke, markis, konde, andre handi, aphezpiku edo bertsulari ospe handitakoek egin sonetaz; nahiz galda BANETZOTE bizpahirur adiskide ofizioko direneri, eman LAKIZKITEDALA segur naiz, eta hala-hulakoak non gure Espainia huntan gehienik aiphatzen diren bertsularienak ez bailitazke heien berdineko (=ba'nizaie/ba'niezaie eta zizaizkidatela/ziezazkidatela). Badirudi "banetzote" gaizki erabilia dagoela eta "banezote" behar lukela izan. Campión'en arabera "baniozate". Ostera, "banetzote" edo "baniozate", ba'nizaizkie/ba'niezazkie izanen litzateke. "Lakizkitedala" berriz oso adizkera arrarua da. Campión'en arabera "zietzadatela" dateke (482 p.).

7. Guzien buru, ene adiskide jauna, gogoari eman diot utzi behar dela Don Kixote jauna Mantxako bere liburutegian ehortzia, Jainkoak igor DEZON arteo horrenbertze gauza eskas dituenek nork ederztatuko duen (=dizaion/diezaion). Campión'ek lapurdieraz DIOZAN ematen du (471 p.).

28. Eta oraino, arrazoin soberatua zen nausia ofizios ganbiatzen zen ordutik, zaldari ere alda ZIOZON izena eta bat eman famatua eta harrabots handitakoa, eta hartzen zuen ordena eta ofizio berriari zegokiona (=zizaion/ziezaion). Campión'ek lapurdieraz "ziozan" ematen du (483 p.). Don Kixotek erran zion berriz, handik aintzinerat haren amorekatik egin ZIOZOLA fagore ezartzeaz Doña bere izenaren aintzinean eta deit zadin Doña Tolosa (63).

48. Bainan ezin eman ZEZOKETEN edatera, eta ezina geldituko zen hori, baldin mentazainak zilhatu ez balu kanabera bat, eta muthur bata ahoan ezarririk, bertetik ixurtzen zion arnoa (=zizaioketen//ziezaioketen). Campión'en arabera "ziozaketan" (488 p.).

49. "Naizen tokitik ez naiz sekulan xutituko, zaldun balenta, zure kortesiak onhets DIAZADAN arteo galdegin nahi darotzudan (dizudan) dohain bat, hura izanen baita zure bethiko ohoretan, eta gizon kasta guziaren onetan." (=dizaidan/diezaidan). Campión'ek: *diezadan* (471 p.).

57. "Ene laguntzera egizu, oi ene andrea, zure zerbitzari jarria den bihotz huni egiten zaion lehenbiziko laido huntan, lehenbiziko atheka (egoera) txar huntan ez BIAZATET hutsik egin zure fagoriak eta laguntzak!" (=bizaidate/biezaidate). Campión'ek: *biezate* (473 p.).

60. Zuen ahal guziaz jazar DIADAZUE (=zaidazu(t)e/iezadazue). Badirudi lapurdierazko "diazadazue" laburtua dela. Campión'ek *zadazue* dakar (473 p.).

62. Hori egin ondoan andretto hetarik bati manatu (agindu) zion espata loth ZEON gerrian, eta hala egin zuen hainitz artexki eta gurbilki (zuzen eta arduratsu). Lehenago (28 p.) "ziozon" erabili du kasu honetan (=zizaion/ziezaion/ziozan).

62. "Jainkoak egin beza zure eskerra (vuesa merced) zaldun dohatsu eta alde ezar BEZO guduetan zoria." (=bizaio/biezaio). Campión'ek lapurteraz: *biazo* (474 p.).

BIBLE SAINDUA JOSUE

210-I-15. Jaunak zuen anayei sesua (lasaitasuna, trunkiltasuna) eman DEZOTEN arteo zuei eman izan darotzueten bezala (=dizaian/diezaian); eta ethorkizunean

zuen semeek gure semeei erran ez DEZOTEN: Pharterik ez duzue Jauna baithan (232-XXII-27).

212-IV-3. Eta mana (agindu) ZOZUETE Jordaneko errekarren erditik har dezaten aphezak baratua diren tokian hamabi harri gogorrenetarik (=zaiezute/ieziaezue); Bat-tasuneko arkhak dakharten aphezei mana ZOZUETE Jordanetik ilkhi (atera) ditezela (213-IV-16).

216-VII-19. Ene semea, ospe bihur ZOZU Israelgo Jainko Jaunari (=zaiozu/ieziaiozu).

216-VII-19. Aithor eta erakhuts DIZADAZU zer egin duzun (=zaidazu/zadazu/iezadazu).

223-XIII-7. Eta orai lurra zathi DIOZOZUETE gozatzeko bederatzi leinuei eta Manaseren leinu erdiari (=zaiezute/ieziaezue).

225-XV-18. Eta elkharrekin zihoazelarik, Akxa bildua izan zen bere senharraz aitari galda ZEZON landa bat (=zizaion/zieziaion).

227-XVIII-4. Hauta zatzue leinu bakhotxetik hirur gizon, igor detzadan, goan ditezen, inguraka dezaten lurra, xeda (demarcar, limitar) dezaten oste bakhotxeko nombrearen arabera, eta niri erran DEZADATEDAN nola xedatu duketen (=dizaidaten/dizadaten/diezadaten).

227-XVIII-6. Hekien artean den lurra zazpi zathi egizue, ta ethorriko zarete hunat enegana, zortea hemen athera DEZADAZUENTZAT zuen Jainko Jaunaren aintzinean (=dizaidazuten/dizadazuten/diezadazuten); Ingura zazue lurra eta xeda, eta itzul zaizte ene gana, hemen Silon Jaunaren aintzinean athera DEZADAZUENTZAT zortea (227-XVIII-8).

ERRUTH

262-I-9. Phausua (atsedena) eman BEZAZUETE hartuko dituzten senharren etxetan (=bizaizute/bizazute/biezazue).

252-I-16. Erruthek ihardetsi zuen: Ez BEZAIKIZKIT trebes (trabeska) jar, utz zaitzadan eta goan nadientzat (=zakizkit?). Zentzuaren arabera hala dirudi, nahiz-ta lapurtera ofizialean, gipuzkeran bezala, “zakizkit” izan, hots! “zu ez *zakizkit* trebes jar” eta “haiek ez *bekizkit* trebes jar”.

262-I-17. Edozein gaitzez jo beneza (benaza, naza) Jaunak, eta egin BEZAT gehiago oraino (=bizait/bizat/biezat).

263-II-9. Manatu diotet (agindu diet) ezen ene muthilei (morroiei), nihork ez DEZAZUN nahigaberik eman (=diza(i)zun/diezazun).

263-II-12. Bihur BEZAZU Jaunak zure egintzaren arabera (=bizaizu/bizazu/-biezazu).

263-II-16. Zuen eskumenetarik ere berariaz arthik zatzue (apropos bota itzazute), eta utz gibelerat, ahalkerik (lotsarik) gabe bil detzan, eta biltzen dituenan niork ez BEZO gaizkirik erran (=bizaio/biezaio).

Oharra.—“Josue”ren saillean, gipuzkerazko “zaiezute” edo euskara batuko “jezaiezue”-ren ordez Duvoisin’ek ZOZUETE (212-IV-3) eta DIOZOZUETE (223-XIII-7) darabilzki. “Zaiozu/jezaiozu”-ren ordez ZOZU (216-VII-19), baiñan “Laborantzako liburua”n ikusi dugunez DIOZOZU ere badarabil. “Zaidazu/iezadazu”-ren ordez DIZADAZU darabil, hots, “D”-dun forma bakarrik. “Erruth”en “zakizkit”-en ordez BEZAIZKIT (262-I-16), ene ustez makurki. “Diza(i)zun/diezazun”-en ordez DEZAZUN (263-II-9) darabil, konjugaziño zuzenarekin zeharo nahasten delarik. Alabaiña, ohitura txar hau sobera sartua dago Bidaso’z handik eta, oker ez baldin ba’naiz, baita Nafarroa’n ere.

XII. AXULAR

“GERO”

(Bi partetan partitua eta berezia: Lehenbizikoan emaiten da aditzera zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko uzteak. Bigarreanean kidatzen da eta aitzinatzen, luzamenduak utzirik, berehala, bere eginbideari lotu nahi zai-kana. Eskritura saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik, Axular Sara’ko erretorak bildua. Ne tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem. Eccles 5. Bordele’n, G. Millanges Erregeren Inprimazaillea baitan. M.DC.X-LIII).

Aurreneko erabakibeharra lerro hauetan zera dugu: zer soiñekoz jantzi bere pont-izena, zeren Bertrand de Etxauz (Echaus) Turs’ko Arzipizpiku jaunari egindako “Gomendiozko karta”n, “P. de Axular” firmatzen baitu soil-soilki. Beraz, hizkuntza maillan, zer adierazten du “P” horrek? Petri? Pedro? Pierre? Petrus? Villasante’k dio Axular’ek beti firmatzen zuela “Pedro de Axular” (1) eta firma ez den dokumentu batean ere, behintzat, honela dio euskal-letren patriarkak: “Yo Pedro de Axular retor del lugar de Sara” (2). Baiñan, badakigu, bestalde, bere aitari “Petri de Axular” esaten ziotela: “Filiium legitimum Petri de Axular et Mariae de Azpil(c)ueta” (3). Beraz, euskaldunen artean, eguneroko euskal-giroan, ez ahal zuten, bere aita bezala, “Petri” izenaz ezagutuko? Nik baietz uste. Eta “Petri”ri dagozkion erdal-izenak baztergarri baldin ba’zaizkigu, uste dut ere baztergarri jo ditzakegula “Petrus”i dagozkion beste euskal-izenak: Petria (4), Petiri, Betiri, Betri, Pette, Peillo, Peio, Perua, Peru, Txeru, Pedroa, Piarres, Pierra... Gaiñera, Axular’ek “Iondone Petri” erabiltzen du “San Pedro” adierazteko (adibidez “Gero”-ren 258 puntuan). Uste dut guztihonek ematen didala eskubiderik aski beste guzuzen artean Petri izen-aldakera onartzeko.

Beraz, Petri d’Agerre eta Azpilkuaeta, Axular bere sortetxearen izenaz ezagutua, Nafarroa’ko Urdazubi’n jaio zen 1556’gn. urtean. Iruñea’n ordenatu zen diakonupeko (1584), Lerida’n diakonu (1596) eta Tarbes’en apeztu (1596), berrogei urtertukin. Iruñe’ko eliz-barrutia utziz, Baiona’kora aldatu zen eta Donibane Lohitzun’en egin

(1) “Axular: mendea, gizona, liburua”, 32 paia.

(2) Idem., 49 paia.

(3) Idem., 42 paia.

(4) Petria eta ondorengo Perua ta Pedroa, Petriarena, Peruarena eta Pedroarena deituretatik atera ditugu.

zituèn lau urtetan predikari bezala gailendu zen. Bertrand de Etxauz Baiona’ko apezpikuak Sara’ko erretorgoa eman zion 1600’gn. urtean eta herri hontako erretor iraun zuen hil arteraìnan, 1644’gn. urtean. “Gero” bere liburu ospatsua 1643’an argitaratu zen Bordele’n lehenbiziko aldiz, hots, Axular hil baiño urtebetetsu lehenago. Gero, beste ediziño hauek izan ditu: bigarrena, “Geroko Gero” izenez, nun eta noiz atera zèn segurtamenik gabe; hirugarrena, Baiona’n, 1864’an; laugarrena, Zarautz’en, 1954’an; boskarrena, Villasante’reñ gaztelaniazko itzulpenaz, Barcelona’n, 1964’gn. urtean; seigarrena, Usurbil’en, hau ere Villasante’reñ itzulpenaz, 1976’gn. urtean. Zazpigarren ediziñoa iragarririk dago. RIEV aldizkaria gerla aurretik zatika argitaratzen ari zen Axular’en testua “facsimile” eran ta Añibarro’reñ bizkaierazko itzulpena. Berri gehiago nahi dezanak konsulta bitza euskal-literatura liburuak eta baitipat Villasante’reñ “Axular: mendea, gizona, liburuak” (1). Gure lanerako bi azken ediziñoak erabili dtugu. Lehendabizi Usurbil’ko ediziñoaren paia dakargu, gero Barzelona’koarena eta ondoren bioi eta beste ediziño guziei dagokien puntua. Beraz, hirugarren lumeraziñoak ediziño guzientzat balio du.

13-51/6. Abisu eman DIAZADAN (=dizaidan/dizadan/diezadan); beldur naiz bigarreneko gathiba (katigatu=zoratu/lilluratu) nadin, eta neure desira desordena-
tuak behar eztena eragin DIAZADAN (443-508/257).

17-56/11. Hari eskerrak errenda IATZOTZU (=zaizkiozu/iezazkiozu); Nahi baduzu sua iraungi dadin, egurrak edeki (ken) IATZOTZU (329-386/194); Edeki IATZOTZU beraz egurrak (445-520/264).

33-73/21. Iguzkiak arrazoiñekin erran ahal DIAZAIIO berandurairiño ohean datzanari: zerk (h)aratzta (2) hor alfer-nagia? (=dizaioke, diezaioke); halako faborea, garazia, indarra eta haizea eman ahal DIAZAIIO zure gogoari (89-131/55); Hark libertate hari eta haren iraupenari, gutien uste duenean, bortxarik egin gabe, utz arazi DIAZAIIO, herts ta traba (itxi eta trabapetu), daraman bide gaixtoa (127-170/76); Zeren Iainkoak ezin barkha DIAZAIIO bekhatoreari, bekhatutan dagoeiño (161-206/95); Konzientziak ez Aita Sainduri, ez Enperadoreri, ez Erregeri, eta ez munduan den bertze presunari, EZTIAZAIIO (=ez DIAZAIIO) barkha (477-542/274); Utzi du Iainkoak (arima), har dezagun beraz guk, daramagun, zeren gurea da, eta nori berea, ezin nehorke edeki (ken) DIAZAIIO (629-708/357); Bada (pues) lurrak ere egin ahal DIAZAIIO erantzute (639-720/363).

35-74/21. Bada (pues) aniamalia adimendurik eztutenek ere (3), behintzat erleek eta xinhaurriek, arrazoiñekin erranen derakute (digute), beha DIAZEGULA, heken (haien) nekeak, trabailuak eta ioan-ethorriak konsidera ditzagula (=dizaiegula/dieziaiegula).

(1) “Jakìn” editoriala, Arantzazu-Oñati, 1972.

(2) Zerk haratzta hi, edo berdìn dena, zerk etzan-arazten hau hi ohean? Erantzuna: alferkeriak, nagikeriak. “Eratzan” (hacer acostar, hacer tumbiar, hacer yacer) aditz-eragillearen bigarren personari dagokio. Era berean: “erakarri”tik: harakar; “eraman”etik: harama; “erabilili”tik: harabil; “eragin”etik: haragi... Gaur “zerk hauka” esango genuke gipuzkeraz (zuka: “zauzka”).

(3) “Bada, adimendurik eztuten animaliek ere” esango genuke Bidaso’z honuzkuok eta uste dut hobeki legokela. Axular’ek darabilen joskera ez dut uste euskal-senak agindua denik. “Bada” (=pues). Ez nahas afirmaziñoarekin. “Aniamalia” (aniamale, aliamale, animale, arimale): animal.

37-76/22. Are gehiago, hozidurak (ernamiñak, kimuak) ianez gero ere, lurraren humidurak (umedadeak) eta hezetasunak gaiñerakoa ustel EZTIAZON (ez DIAZON), atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzera: eta orduan denbora onaren seiñalea dateke (da noski). DIAZON = dizaion/dieziaion. Ezta Iainkoa halako moldez miserikordios, non iustiziar bide gabarik egin DIAZON (159-206/94); hala da halaber, erhokeria ez ttipia, kolera handi batean itsutua eta irakitua dagoenari, hala dagoenean, abenikoaz (bakeak edo onezkoak egiteaz) minzatzea, bere etsaiari barkha DIAZOLA (=dizaiola/diezaiola) erraitea (339-398/201); ukhondoaz utzi (ukalondoaz ikutu) dezan edo begiaz kheñu egin DIAZON (359-418/211); Aitzitik, orduan behar du permatuago (saiatuago) eta emlegatuago, hartaraz gero garaitia (garaipena) bertzek eraman EZTIAZON (517-586/298).

55-96/34. Zeren beldur zen, enzun zezan berehala Iainkoak, eta bere plazerak, gozatu nahizko desira handi batekin, bere gogoan zerabiltzenak, gibela (atzer) ZIATZON (=zizaizkion/ziezazkion).

79-121/49. Iguriki ahal DIAZAIZU (=dizaizuke/dizazuke/diezazuke).

85-128/53. Zeren baldin obraren akhabatzera utz bazinitza peril bailluke, akhomet (eraso) LIAZAZUTEN zuzen (eskubide) dutela lur haren gaiñean (=zizaizuten/ziezazuten).

11-154/69. Eta halaber guztien athei dagote (guztien atetan dago), guztietan deitzen du, ideki BALIAZOTE nahiz (=ideki nahi ba'lizaiote/ba'liezaiote); eta erran BALIAZOTE: "etzaitugu sinhesten, ekhartzu zenbait lekhu" (297-352/177); Zeren hain da klar ez tirela iustu, non baldin bertzetan ibili gabe, galdegin BALIAZOTE berè bere konzientziari hark berak erakuts baillizaie egia (473-539/273); Baldin galdegin BALIAZOTE orai ludasi: Errazu, diszipulu gaixtoa, zeure nabusiaren saltzaillea, zenbat denbora du (da), barren horretan, ifernuko pena horietan zaudela? (677-761/387).

125-170/76. Iraun arazi ahal DIAZAIOLA (=dizaiola/diezaiola); Zeren ezta, soberaniak (gehiegiak) gaiñez eragin EZTIAZAIONIK (ez DIAZAION-ik), ezta bere neurria baiño gehiago dadukaionik (127-172/77); eta berak bertzeri egiten ez tioena, EZTIAZAIOLA (ez DIAZAIOLA) berari ere bertzek egin (505-574/292); Gauza gaizki egina da eta itsusia, adiskideari, deiez dagotzunean, ez ihardestes, athean iguriki (itxodon, itxon) arazitzea; eta berehala eman ahal DIAZAION errepuestaren, eta egin ahal DIAZAION zerbitzuaren geroko luzatzea (625-704/355); Erran komuna da (lehen ere erran dugun bezala) EZTIAZAIOLA nehork ere nehori, hanbat kalte eta bidegabe egin, nola berak bere buruari (697-782/399).

151-197/89. Misericordios da Iainkoa, maite gaitu, on derizku, bereak, bere odolaz erosiak gaitu, men menera gaitezinean EZTIAZAIIGU (ez DIAZAIIGU) falta: beraz har dezakegu esku eta lizentzia zenbait bekhaturen egiteko (=dizaiguke/dizaguke/diezaguke).

165-211/97. Hamar ezkuturen (1) behar zarenean edo bertze premia bat eta eskastasun bat duzunean, etzara fidatzen, eztuzu esperantzarik, prestuki bizitzen zarela eta bekhatuak egin gabe egoiten zarela, zeure premia eta eskastasuna estal ahal DIAZAIUZULA Iainkoak (=dizaizula/dizazula/diezazula).

(1) Escudo (txanpona).

183-230/110. Baldin merkatari batek eman **BALIAZO** bere semeari diru suma bat bere eskuko, manai lezan, enplega lezan, tratuan eta merkatalgoan erabil lezan (=ba'lizaio/ba'liezaio); Baiña areago egin liazaio, baldin Errege berari bere presunan eman **BALIAZO** (287-340/170); bere buruari ere zenbait kolpe gaixto eman **BALIAZO** (349-407/206).

183-230/110. Ordea, baldin seme hark bere aitaren eman hek (haiek) guztiak, iokoa, ian edanean eta arloterian gasta balitza, arrazoiñekin lizateke seme hura beldur, ez **LIAZON** bere aitak aitzinarat gehiago eman eta ez fida (=zizaion/ziezaion).

183-230/110. Eta are lehen emanak ere edeki **LIATZON** (=ken zizaizkion/ziezazkion).

183-230/110. Hala bada, arrazoiñekin izanen gara gu ere beldur edeki (ken) **DIAZAGUN** geure Iaungoikoak ethorkizuneko denbora, iragana hain gaizki enplegatu dugunaz geroztik (=dizaigun/dizagun/diezagun); Behar diogu geure etsaiari barkhatu, guri ere geure Iainkoak barkha **DIAZAGUN** gatik (379-437/222).

191-238/115. Manatzen (agintzen) zuen Iainkoak Lege Zaharrear, fruitu guztietarik primizia eman **ZIAZOTELA**, guztietarik parte bat, eta parterik hoberena, prinzipalena eta estimatuena, nola komunzki ohi baita lehenbizikoa, oferenda **ZIAZOTELA** (=zizaioleta/ziezaiotela); Hek (haiek) eta halakoak dira eskriba fariseoak bezala, zeïnek konsentitzen baitzuten, egin **ZIAZOTEN** (=zizaioleten/ziezaiotenen) Iesu Kristo gure Salbatzaileari eta haren izen sainduari, heken (haien) etxeokoe eta bertze guztiek hanbat irri eta eskarnio (293-347/174); Eta hain aitzina iragan zen egitekoa, non ikusi zuenean emazte gaixtoak, nola zen obeditua, manatu baitzuen errege berari burua edeki (ken **ZIAZOTELA** (391-451/229); deliberatu zuen (erabaki zuen) eta manatu (agindu) iustizia egin zedilla, bere semea atzeman **ZIAZOTELA**, eta begiak legearen arauaz athera ziazotela (393-453/231); athera **ZIAZOTELA** aitari berari bere begietarik bata, eta semeari beretarik bertzea (393-454/231); haren (Dario'ren) alaba ederrak bertze presoen artean hartu zituztenean, etzuela nahi izatu (Alexandro handiak) ekhar **ZIAZOTEN** hetarik (haietatik) bat ere bere aitzinera, beldurrez ikhusi eta gero, behar etzena eragin **ZIAZOTEN** (445-508/257).

191-238/115. Manatzen zuen halaber Iainkoak berak, usoetarik, ez uso handiak, baiña usakumeak ekhar **ZIATZOTELA** (=zizaizkiotela/ziezazkiotela); begiak legearen arauaz athera **ZIATZOTELA** (393-453/231).

203-251/123. Ez lizateke bada arrazoin, zuk ere bitarte hartan, eskerrak errenda (eman) **ZINIATZON**, zerbitza zenezan, lauda eta ohora zenezan? (=zenizaizkion/zeniezazkion).

231-280/138. Ha, iauna, othoi barkha **IAZADAZU**, bizia indazu (=zaidazu/iezadazu); euzu (ezazu) bada nitzaz miserikordia: eta egor **IAZADAZU** Lazaro, hark bere erhi (behatz) puntaz, urean bustirik, mihian utki nazan, aphur bat heza nazan (673-755/384).

249-299/147. Dudan (daukadan) guztia probei eman **BADIAZET** ere, eta neure burua erratzera utz badezat ere, etzaizkit hek (haiek) guztiak deus baliatuko, baldin karitaterik ezpadut (=ba'dizaïet/ba'diezaiet).

251-303/149. Baldin emaiteko gaietan (moduan) bagara, edo debozinorik badugu, eman **DIAZOGUN**, eta gaiñerakoan utz dezagun (=dizaïogun/diezaiogun);

Oraño, egia hunen frogatzeko, beha DIAZOGUN ongi, gizonaren bekhatuagatik egin zen pagamenduari (685-769/392).

265-317/157. Hunenbat meza eta trentena eman arazi DIATZADALA (=dizaizkidala/diezazkidala).

265-318/158. Are gehiago, erremusinen eta bertze obra onen ondokoetara utzteaz, emaiten duzu aditzera gibeletik eta urruititik nahi duzula argi DIAZAZUTEN (=dizaizuten/dizazuten/diezazuten); erran EZTIAZAZUTEN (ez DIAZAZUTEN), hiltzerakoan emaiten duzuna, bortxaz emaiten duzula (269-322/160); Eta halatan lekhuko harekin batean eman DIAZAZUTEN zeure erranean fede eta sinheste (283-336/168).

265-318/158. Zer zenerrake (erranen zenuke), baldin gau ilhunean, pausu hertsia (paso estu), gaitz, perilos batean iragan behar duenak, erran BALIAZE bere muthilei (morroiei), daudela gibelat, eta gibeleti eta urruititik dagiotela argi? (=ba'lizaie/ba'liezaie); Baldin Aingiru batek erran BALIAZE Iainkoaren partez ifernuan daudenei: Ea, iende penatuak, indazue albiriste (emaidazue opari), berri on bat eman nahi deratuet (679-763/388).

269-321/159. Heriotzera baiño lehen egiozu ongi zeure adiskideari, eta duzun indarraren arauaz hedatu IAZOZU zeure eskua probeari (=zaiozu/ieziaiozu); Eta ezpe-re (bsestela) beha IAZOZU hasarretua dabillan bati (315-371/187); Beha (begira) IAZOZU bada halako bati (315-371/187); beha IAZOZU urkhabeari berari (587-663/335).

269-322/160. Egun batez egin zioen othoitz Santa Luziak bere amari, gero egin gogo zuena, geroko begira egon gabe, egun beretik egin zezala, eritasunaren eta heriotzearen hersturan iarri gabe, sendo zela berak bere eskuz bere onak pobrei parti ZIATZELA (=zizaizkiela/ziezazkiela).

281-334/167. Eta hobe da halaber utz DIAZAZUN zeure umeari edo ondo-koari guti, eta on, ezen ez anhitz eta gaixto (=dizaiozun/dieziaiozun); Nehork (iñork) bidegabe bat egiten deratzunean (dizunean), eztu nahi Iainkoak zuk ordaiñik bihur DIAZAZUN (375-434/220); EZTIAZAZUN (ez DIAZAZUN) beha, emazte arin, airatu (aizetu), lehiariari (aldakorrari): behin ikhusiz gero, *ne respicias*, ez bir-ikus, ez berriz bihur (441-505/256); Errege, ezta egundaiño lurraren gaiñean hain emazte ederrik sorthu, merezi du hain bertze ohore eman DIAZAZUN, merezi du behin ikhus dezazun (443-507/257); EZTIAZAZUN beha urkhabeko bide ederrari (587-663/335); EZTIAZAZUN (=ez dizaiozun/dieziaiozun) beha bekhatuaren egitean hartzen duzun atseginari (587-663/335).

283-336/168. Eztuzu eginen iuramenturik Iainko falsoez, zeren hartan bidegabe egin ZINIAZAIIO egiazko Iainkoari, hari dagokan ohorearen, bertzeri emaitiaz (=zeniazaioke/zeniezaioke); mirets zenezake, eta arrazoiñekin erran ZINIAZAIIO, erhoa dela (613-692/350).

287-340/170. Iben baleza Errege batek legea, eztiola nehork ere biziaren penan nehori behar-ondokorik (belarrondokorik) emanen, eta guztiarekin ere gertha balekio zenbaiti, emaitera zenbaiti, halakoak bidegabe egin LIAZAIIO Erregeri, zeren haren lege, eta mandamentu hautsi baitu (=lizaioke/lieziaioke); Baiña areago egin LIAZAIIO, baldin Errege berari bere presunan eman baliaz (287-340/170); Zeren baldin geldi baledi, hark midizinari eta ezartzen den erremedioari, indarra flaka

LIAZAIIO, eta berthutea edeki (381-440/223); zer gozo, zer zaphore, zer atsegin eta plazer har ahal LIAZAIIO bekhatuari? (587-664/335).

297-352/177. Nola baldin gizon bati, erraiten dituen hitz guztietan nehor kontra balekio (iñor kontra jar ba'lekio), eta erran baliazote: “etzaitugu sinhesten, ekhartzu zenbait lekhuko” (testigu), desohore eman BAILLIAZAIOTE. (Badirudi, aditz prefijodun hau, deskonposaturik, “bait-liazaiote” dela. Baiñan, dirudienez ere, “bait” ez da hemen aurrizki kausagarri (causal), afirmagarri baizik. Beraz, “desohore eman LIAZAIOTE” berdin litzateke. Villasante'k, “se le haria deshonor” itzultzen du. Bestalde, “liazote” (ikus BALIAZOTE sailla, 111-154/69) eta “liazaiote” adizkera berberaren jazkera liferenteak direla esan daiteke. Uste hontan sendotzen gaitu azertu berria dugun LIAZAIIO adizkera senideak (287-340/170). Gipuzkeraz, forma soil hauen hutsean, itzulpen hurbillena bezala, potentziala erabili behar (orain artean tan-kera berekotan egin dugun bezala), hots: lizaioke/liezaiokete. Konpara bedi kaso hau aintzinagoko (473-539/273) BAILLIZAIE'rekin.

333-390/197. Baiña baldin baten bia bihur BADIATZOT, egin zaitan baiño gogorkiago mintza banakio, erranen dute, gizona naizela, ohoreaz prezatzen naizela, eta balentki egin dudala (=ba'dizaizkiot/ba'diezazkiot).

333-391/198. Egun batez galdegin zer aukaten (zioten) Dionisio filosofoari, ea zertaz egin ahal ZIAZAIION gizon batek bere etsaiari damurik (kalterik) eta atsekaberik gehiena? Eta ihardetsi zuen hitz gutiz eta laburzki prestu izateaz (=zizaion/ziezaiion); Eta hain herstuki begiratzen zuen, non ezpaitzen faborerik, ahaidetik eta ez urrerik, eta ez zilharrik hauts arazi ahal ZIAZAIIONIK (ZIAZAIION-ik) (391-452/230).

340-398/201. Aitzitik baldin orduan nehor halako gauzarik, abenikoazkorik (onezkoak egitekorik), aipha BADIAZO: aiphatzeaz beraz ere errabiatzen da, erratzen da, arneguz (biraaz) eta iuramentuz hasten da (=ba'dizaio/ba'dieziaio); Baiña bere amoranteak, bere plazereko dadukan gizon gaixto batek, burua hauts BADIAZO ere ixil pairatzen (sufritzen) du (583-659/333).

345-402/203. Zeure etsaiek anhitz bidegabe egiten deratzute, eta ikhusteintu Iainkoak bidegabe hek (haiek), badakizki, eta nahi balu ez LIAZAIZUTE halakorik egin (=lizaizukete/liezazukete); Baldin zure zapatak, eta etxean zeure zerbitzuko dituzun bertze gauzak mintza albalitezi, erran LIAZAIZUTE (635-715/360).

345-403/204. Eta Iainkoak uste balu etzarella harentzat izanen, halako penarik eta atsekaberik ez LIAZAIZULA eman (=zizaizula/ziezazula).

345-404/204. Nahi du (Iaungoikoak), dituen (eduki ditzan) etsaiak, eta egin DIATZOTEN bidegabeak (bekhatore eriarri) (=dizaizkioten/diezazkioten); eta gero ediren duenean, alegatzen baita, eta kontatzen baiteraue (baitie) bere hauzokoei bere sendagailla (ustegabekoa, “miraria”), eta erraiten egin DIATZOTELA bozkarioak (zorionak) (619-697/352).

349-407/206. Beraz nola, baldin bazendu anaia bat erhoa, eta adimendutik iauzia, eta hark anhitz gaizki egin, eta erran BALIAZAZU (=ba'lizaizu/ba'liezazu); Eta ihardets BALIAZAZU, midizina bat hartu nahi gabez, eta midikuagana ioan nahi gabez ezteela sendatzen: mirets zenezake (613-692/350).

349-408/206. Aita, barkha IAZEZU, eztakite zer hari diren. Zeren kolera bai-taude (=zaiezu/ieziaezu).

359-417/211. Anhitz balio du adiskide leial baten bere konpañian izaiteak, hark egiak erran DIATZON (=dizaizkion/diezazkion).

369-430/217. Elkhar onhets (maite) dezazuela, etsaiari barkha DIAZOZUELA (=dizaizozutela/diezaziozuela), etsaiari ene amoreakgatik barkha DIAZOZUELA (373-433/219).

373-432/218. Aitak manatzen (agintzen) nau barkha DIAZAZUEDALA (=dizaizuedala/diezazuedala/dizazuedala).

379-439/222. Erraxki barkhatuko diozu zeure etsaiari, Iainkoak zuri barkha DIAZAZUNgatik (=dizaizun/dizazun/diezazun); Etzaituela ezagutzen, berandu duzula, eztuzula erremediorik erran DIAZAZUNean? Eta hunela erranik, athea herts (itxi) DIAZAZUNean? (649-731/370).

379-439/223. Egizu kontu, ea zenbat bekhatu egin dituzun orainokoan, eta zein handiak, eta nahi baduzu zuk barkha DIATZATZUN hek (haiek) zuri zeure Iaungoikoak, barkha iatzotzu (1) zuk ere zeure etsaiari, egiten derauzkitzunak (dizkitzunak) (=dizaizkizun/dizazkizun/diezazkizun); beraz eztuzu nahi barkha DIATZATZUN (bekhatuak) zuri ere zeure Iainkoak (381-442/224); hark zuri guztiak barkha DIATZATZUN (383-442/224).

381-441/224. Etzaika barkhatu behar, barkhatu nahi eztuenari. Eta halakoak eztu berak ere nahi barkha DIAZOTEN (=dizaioleten/diezaiolen); hala bada (asi pues), konzientzia gaixtoa duena ere, lehenbiziko aldi gaitzean, den buruko minik ttipenean, da beldur hil dadin, bizia edeki DIAZOTEN (487-554/281).

381-441/224. Iauna, barkha IATZAGUTZU geure zorrak, guk guregana zordun direnei barkhatzen derauztegun (dizkiegun) bezala. Erran nahi du: Iainko Iauna, barkha IATZAGUTZU zure alderakotzat egiten ditugun faltak, eta bekhatuak, guk gure etsaiei, gure alderakotzat egiten dituzten hutsak eta gaizkiak barkhatzen derauztegun bezala (=zaizkiguzu/iezazkiguzu).

389-450/229. Eta noiz, eta amorio hura baitzegoen gorèn puntuan, eta graduan, iduriturik ezen orduan zela okhasinorik eta paradarik (abagunerik, mugonik, okasiñorik) hoberena nahi zuenaren egiteko, egin zioen emazte gaixtoak othoitz erregeri arren denbora aphur batez, bortz egunez, eman ZIAZOLA bere zuen eskua, eta botherea, bitartean utz zezala erresuman manatzera (=zizaiaola/zieziaola); Etzeikan (etzitzaion) ausartu othoitztera egor (bidal) ZIAZOLA pitxer bat ur (673-755/384); Baiña haren desirkunde guztia zen, erhi punta urean sar zezan, eta hartaz mihia utki ZIAZON (= zizaion/zieziaion), plazer hura egin ZIAZON (673-756/384).

411-473/240. Bere eskutik eduki nintzala (Iainkoak), erortzetik begira nintzala, eta garaitiarekin gelditzeko indar eta antze eman ZIAZADALA (=zizaiala/zizadala/ziezadala).

473-539/273. Zeren hain da klar ezirela iustu, non baldin bertzetan ibili gabe, galdegin baliazote berèk bere konzientziari hark berak erakuts BAILLIZAIE (bait-LIZAIE) egia. Eta handik berèk kondena baillitzakete (bait-litzakete) bere buruak. (Hemen ere, BAILLIAZAIOTE aditz-jokoarekin esandakoak (297-352/177) berritu

(1) Adizkera honek IATZOTZU saillean (17-56/11) joan behar zuen, baiñan ahantzirik gelditu zitzaidan. Gipuzkeraz: zaizkiozu. Euskara batuan: iezazkiozu.

behar ditugu. Aurrena jakin-araz dezagun bi aldiz azaltzen den “berèk” izen-ordea “merkatarièk” izenaren (aktibo-plural kasoan) ordezko dagoela, goragotik merkatariez ari baita Axular. Hemen ere, “bait-” aurritzia bi aditz-jokotan (baillizaie eta baillitzakete) afirmagarria da eta ez kausagarria. Beraz, *erakuts lizaie* eta *kondena litzakete* esatea berdin da eta guretzat ulerterrezago. Villasante’k, “èsta les mostraria la verdad” eta “ellos mismos se reconocerían culpables” erdaratzen ditu bi kasuok. Gipuzkeraz, beti bezala, potentzialaz baliatuko gara –Axular’ek ez baitu “ke” ezau-garri ahalkorra erabiltzen datiboko adizkeratan– jokaldi soil hauek emateko, hots: “lizaieke/liezaieke”, alegia, konzientziak erakuts liezaieke egia merkatariei. Gogoan har, “liazaio” eta “liazaioete” bezala, “liazaie” erabiltzea zegokiola Axular’i, eta ez “lizaie”, baiñan ez dugu zertan harriturik, zeren, gure irazle zahar guziak bezala, aditz-jokoak ez baitzituena gramatika molde zorrotzez ematen, jendearen erabil-moldez baikik eta hau oso aldakorra izan ohi zen.

507-575/293. Nola etzara beldur ahalke (lotsa) gabe dakizkitzun, eta eztena badela erran DIAZAZUTEN? (=dizaizuten/dizazuten/diezazuten).

545-617/313. Pontu huni ihardesteko, iakin behar duzue ezen baldin alde batek Iainkoaren lege sailduari berari, hain osoki eta konplutuki, konplitu eta begiratu behar denari eta bertzetik geure haragiari ere berari, hain gauza flakoari, eta flakatzan erraxari, soilki eta bakharrik beha BADI AZEGU, latz eta gaitz dela Iainkoaren zerbitzatzea, eta haren lege sailduaren begiratzea eta konplitzea (=badiaiegu/badieziaiegu).

559-632/320. Erran bazeneza: Hegaztina haur (egazti hau) trabatzen, eta kar-gatzen dute bere hegalek, eta urrikaldurik, edeki (ken) BAZINIATZO (ba’ziniatzo), kalte gehiago egin ziniatzaio (1), probetxu baiño. Zeren airatzen, eta hegaldatzen zena, lurrean gelditi bailliteke (2) (=ba’zenizaizkio/ba’zeniezazkio).

559-633/321. Galdegiten dute Teologoen, ea guk geure bekhatuakgatik, geure Iainkoari, satisfazionerik, eta pagamendurik egin ahal DIAZAI OGUNZ (diazaiogun-z). Eta badirudi ezetz (=diazaiogun-z/diezaiogun-z). Gipuzkeraz *di(e)zaiogunez* edo *ote di(e)zaiogun* esango genuke. Ohar gaitzen Axular’ek Bidaso’z handiko beste izkiriatazaillek bezala, “badirudi” irabiatzen duela, nahiz-eta gero “iduri du” erabilli. Honek esan gura du lehen forma “irudi” zela, Bidaso’z honuztik bezala, eta “iduri” metatesis berantiarrago bat dela.

561-634/321. Beraz ezin egin DIAZAI OGU guk geure Iainkoari pagamendurik (=dizaiokegu/diezaiokegu).

567-642/325. Emaztètara emana den batek, eztu uste, emaztèkin segitu gabe, nehor bizi ahal ditekeiela. Baldin erran BADI AZOZU badela anhitz segitzen eztenik, eztu sinhesten. Zeren ezpaita bera egoiten (=ba’dizaiozu/ba’diezaiozu).

585-660/334. Nola Iainkoaren zerbitzatzeko bidea, gogotik (gogoz) dagoena- rentzat, baita plaun (lau) eta zabal, ezluke nahi Deabruak zabaltasun hari beha

(1) Adizkera honek ZINIAZAI O saillean (283-336/168) joan behar zuen, baiñan ahan-zirik gelditu zitzaidan (=zenizaioke/zeniezaioke).

(2) Hots, “bait-liteke” afirmagarria. Beraz, “geldi liteke” bezala. Gipuzkeraz, *geldituko litzake* (litzateke) esango genuke.

XIII. XURIO

JESUCHRISTOREN IMITACIONEA

(M. Chourio Donibaneco Erretorac, Efcararat itculia. Emendatua Meçaz eta Igandetaco Befperez. Emendatua othoitz eta pratica batez Capitulu baccoincharen akhabañac, çoinac itculiac içatu baitire Franceffetic Efcararat Bayonaco Dioceffaco Jua Aphez Miffioner batez. Bayonan, Trebos, Liburu, Saltçaille baitan, Apoumaiouco carrican. M. DCC. LXXXVIII. Permissionearekin.)

“Mitxele Xurio —dio Aita Villasantek—, Lapurdiko Azkainekoa zen sortzez. Herri hontako *Martzeenia* etxean jaio zen. Donibane Lohizuneko erretore izan zen eta 1718-gn. urtean hil zen saindu hotsean. Bi urte geroago, 1720-an alegia, Kempisen bere itzulpen famatua atera zen: *Jesu-Christoren Imitacionea*. Obra honek, gero, franko edizino berri ezagutu du.

“Kempis-en lehendabiziko itzulpena ez baldin bada ere —zeren lehenago obra hau Aranbillaga-k eta Silvain Pouvreau-k itzuli baitzuten—, hau askoz ere perfetago zen eta euskaldun herriaren gogorako hobeki ekarria zegoen. Xurio, lapurtar klasiakoaren aurkezlerik gorenetakoa dugu, bere hizkuntzaren duintasunez, prestutasunez eta jauntasunez” (1).

IV. Ardietz DIEZAGUZUE bekhatuen barkhamendua (=iezaguzue/zaiguzu(t)e).

IV. Erran BANIEZAZU: Iauna! nauzun urrikari (=banizaizu/banizazu).

VIII. Desira-araz DIEZADAZU (=zaidazu/zadazu); Barkhamendu akorda DIEZADAZU (X); permeti DIEZADAZU bill detzadan (XI); Barkha DIEZADAZU (XII); Ianaraz DIEZADAZU nigarrezko ogia (95); Barkha DIEZADAZU, othoi (165); irakatz DIEZADAZU zure nahiaren egiten (191); khien DIEZADAZU othoi gutizia hura (236); Desiraraz DIEZADAZU bethi (237); errex DIEZADAZU ene baitan (250); irakats DIEZADAZU zure manamenduen bidean ibiltzen (262); heda DIEZADAZU eskua (286); Iraun-araz DIEZADAZU, othoi, gogo on huntan heriotzeraino (321); Galde DIEZADAZU beraz (356); urrikal nakizu, eta barkha DIEZADAZU (372); Begira DIEZADAZU (408); Prepara DIEZADAZU sala handi bat (469).

X. Barkha DIETZAKIDATZU ene faltak (=iezazkidazu/zaizkidazu); irakats DIETZAKIDATZU zure manu sainduak (198); Barkha DIETZAKIDATZU (344); ahantzaraz DIETZAKIDATZU munduko gauzak (352); Barkha DIETZAKIDATZU ene falta guziak (453).

XII. Nahi duzu, Iauna, arterik utzi gabe gure othoitzak adreza DIETZATZUGUN (=diezazkizugun/dizaizkizugun).

XII. Baiñan egizu, zuzenki konportatzen naizelarik, bethi begira DIEZAZUDAN ene gogoeten, ene hitzen, eta ene obren errege eta asken fiñari bezala (=dizai-

(1) *Historia de la Literatura Vasca*, 107/108 paiak.

zudan/dizazudan); Nahi baduzu beraz hura eman DIEZAZUDAN, hastan zatzu (aparta itzazu) zure ganik traba guziak (374).

33. Eta nola beha DIOZOKET nere buruari, nere buruaz nardatua izan gabe? (=diezaioket/dizaioket). Beha = kontu egin.

48. Ez DIOZOZULA edozeiñi ager zure bihotza (=diezaiozula/dizaiozula); halere ez DIOZOZULA zure buruari agiñ segurantzaz osorik (116); O Israelgo, Jainko podoroso, giristiñoen arimak haiñ samurki maite dituzuna, ikhusazu zure zerbitzariaren penak, eta nekheak, eta ESTIOZOZULA (EZ DIOZOZULA) falta zure laguntza bere behar guzietan (253). Ene ustez, gipuzkeraz, *ez dizaiozula ken zure laguntza* itzuli behar da, bestela, *ez dizaiola falta zure laguntza* itzuli behar baita.

48. Jainkoari gomenda DIOTZOTZU (=ieazakiozu/zaizkiozu); Ofrenda DIOTZOTZU bethi ere Jainkoari zure othoitzak (107); eta ofrenda DIOTZOTZU bethi ere zure othoitzak Jesu Christori (128); Eskerrak bihur DIOTZOTZU Jainkoaren miseriardiari (355).

56. Jainkozko gauzei gustu har GINOZOKETE (=genieziaieke).

68. Amudio kharsu batek sakrifika DIOTZAN gure arrazoiñ eta argi guziak (=diezazkion/dizaizkion).

71. Guziak zure gatik eragin DIETZAKETEDAN bezala (=dietzadaketan, diezazkidaketan, dizaizkidaketan).

71. Eman DIEZAGUN indarra hekin ungi iasateko (=dizaigun/dizagun).

73. Barkhe DIETZAGUTZU gure zorrak (=ieazakiguzu/zaizkiguzu).

90. Barkha DIETZAKITZUN zure bekhatuak (=diezazkizun/dizaizkizun).

95. Galde DIOZOZU (=iezaiozu/zaiozu); maiz beha DIOZOZU (118); aphain DIOZOZU (126); Idek DIOZOZU beraz zure bihotza Jesu-Christori (126); senti-araz DIOZOZU, othoi, ene bihotzari (149); Senti-araz DIOZOZU zure boz sakratuaren aditzea (187); beha DIOZOZU, Jainkoari, zure ontasun bakharrari bezala (241); Iauna, idek DIOZOZU ene bihotza zure lege sailduari (262); eta hobeki beha DIOZOZU bertzeren progotxuari (461).

105. Ensaia zaitte orai halako maneraz bizitzera, non zure heriotzeko orenak beldur baiño bozkario gehiago eman BAITIEZAKEZU (=baitizakezu, bait-dizakezu).

108. Sar-araz zatzu beraz, Iauna, zeronek ene gogoan pentsamendu salbagarri hauk. Eragin DEZADATEN orduan eginik kausitu nahiko dudana (=diezadaten/dizadaten).

115. Bahi (prenda) preziatu hortaz (zure odola) errekeitzen zaitugu (te suplicamos, te rogamos), barkha DIETZAGUTZUN gure bekhatuak (=diezazkiguzun/dizaizkiguzun).

131. Ezen gizonen maleziak eziñ egiñ DIOZOKE bidegaberik Jainkoak lagundu nahi duenari (=diezaioke/dizaioke).

133. Delibera zazu beraz, egin DETZAKETZUKETEN eskarnio guziak hartuko tutzula (dituzula) errenkuratu gabe (=diezazkizuketan/dizaizkizuketan). Deliberatu: erabaki. Eskarnio: atsekabe. Errenkuratu: kejatu.

133. Eta graziaz goritua beha DIOZODAN munduko estimuari ikhararekin (=diezaiodan/dizaiodan).

136. Nola hori? Egin DETZAKEGUTEN, edo gutaz erran detzaketen gaizkiak, pazienki Jainkoaren amorea-gatik iasanez (=dietzaguketen/diezazkiguketen-/dizaizkiguketen).

146. Eta izpirituko penetan, asaldatu gabe, humilki behatzen da hartako kontseilu eman DEZOKETENEI (=diezaioketenei/dizaioketenei).

149. Ezen gizonak Jesu billhatzen eztuenean, bere buruari kalte gehiago egiten dio, mundu guziak eta bere etsaik handienak egiñ DIOZOKOTEN baiño (=diozaketten/diezaioketen/dizaioketen).

151. Hortaz zer probetxu ekhar DIEZAZUKE mundu guziak ere Jesus gabe? (=dizaizuke/dizazuke); Jesus zurekiñ bada, eziñ nihork kalterik egiñ DIEZAZUKE (151); Zer bidegabe egiñ DIEZAZUKE gizon batek bere solasez, eta hitz gaixtoez? (311).

153. Neke, eta hainitz gogor da, izaitea gure barrenea idek DIOZOGUKEIEN adiskide bat gabe (=diezaiokegun/dizaiokegun).

162. Ez DIEZADAZULA eman, ô ene Jainkoa, konsolazionerik ene bekhatuen urrikiaz (damuaz) gabe nezakenik (162).

166. Eta behiñ ere konsolazionerik eman ez BALIOZATE ere, ez litezke geldi hargatik bere laudorioak, eta eskerrak hari bihurtzetik (=baliezaie/balizaie). Hots: konsolazionerik eman ez baliezaie Jesus maite dutenei.

168. Zure bizia, eta zure odola, zuk enetzat eman tutzun (dituzun) bezala, zuretzat sofritzeari, eta hiltzeari, dohatsutasunik handienari bezala beha DIOZOTEDAN mundu huntan bizi naizeno (=diozatedan/diezaiedan/dizaiedan); Egidazu grazia munduko gauza guziei beha DIOZOTEDAN gauza iragankorrei bezala (282); Egizu, othoi, gauza guziei beha DIOZOTEDAN zure probidenziaren ordenan, eta hortan pausa nadin (318/319).

177. Nihork ethorri nahi badu ene ondotik ukho egiñ BIOZA bere buruari, ekhar beza bere gurutzea, eta iarraiki bekit (=biezaio/bizaio).

194. Gogoan erabiltzazu zure bekhatuak damu eta bihotz miñ handirekiñ, eta zure obra onek ez BIEZAZUTE eman buruperik (=biezazue/bizaizute).

217. Baiñan halaber nahi dut hertsiki bihur DIETZAKIDATZUN, zor zaizkidan eskerrak (=diezazkidazun/dizaizkidazun).

224. Edo zelo gaizki neurthu batez bertzeei eskandala eman DIOZOGUTEN (=diezaiegun/dizaiegun); gaurko lapurdieraz: *diozategun*.

232. Egin DIEZAGUZU, othoi, grazia (=iezaguzu/zaiguzu); Ah! Iauna, sentiaraz DIEZAGUZU othoi, zer ondiko (zorigaitz) den guretzat zure graziaren galtzea (336).

247-248. Othoizten zaitut enetzat izatu duzun pazienziatz, egin DIEZADAZUDAN arren grazia, zure urhats dolorosei kuraioski (bulartsuki) iarraikirik, zure loriarra heltzeko (=diezadazun/dizaizadazun). Xurio-k -DA- datiboa errepetitzen du. Gaurko lapurtar literarioak, ordea, DIEZADAZUN egiten du.

260. Zure grazia bihur DIEZADAZUN arteraño (=dizaidazun/dizadazun); Zer nahi pairaraz (sufriaraz) DIEZADAZUN (361).

268. Berrez (ugaldu) DIETZADATZU zure graziak (=iezazkidazu/zaizkidazu).

269. Zure bothereak bakea eman DIETZADANTZAT (=diezadantzat/dizadantzat). Lapurteraz DIEZADAN (=dizaidan) singularra da eta DIETZADAN (=diezazkidan/dizaizkidan) plurala. Esaldiaren zentzuak singularra eskatzen du, baina egileak, hutsegitez, plurala erabili du.

269. Mana DIOZUZUTE haizeei eta tenpestei (=iezaiezu/zaiezu); Iauna, barkha DIOZUZUTE miseriakordia galdetzen darotzutenei (dizutenei) (455); barkha DIOZUZUTE bertzei bihotz onez zuri egin darozkitzuten (dizkitzuten) ofensak (458).

272. Adiaraz NIEZAZUKE gogotik (gogoz) ene hitza, eta ager sekretu gordeak (=nizaizuke/nizazuke).

278. O ene Jainkoa, atseñi egiakoen ithurburu, ganbia DIETZADATZU behazunetarat haragiaren gezurrezko konsolazione guziak (=iezazkidazu, zaizkidazu).

280. Iakin zazu deusek ere eziñ hanbat kalte egiñ DIEZAZUKELA nola zure buruarentzat duzun amudioak (=dizaizukela/dizazukela).

296. Lekhu, eta gauza guzietan present den Jainkoak, igurikitzen du (itxoiten du) gure bihotzen sakrifizioa, eta bethi bihur DEZOGUN zor diogun ohorea, gure gainerat bere grazien gaididuraren (ugaritasunaren), eta gozoen ixurtzeko (=diezaigun/dizaigun).

309. Nahi zinduke (zenduke/zenuke) eman NIEZAZUN berehala hanbat sainduek haiñ neke, eta nigarren ondoan izatu dutena (=nizaizun/nizazun).

324. Eztut nahi loriarik, eta bozkariarik hartu zure baitan baizen, ene bizi guzian, ezen nitaz denaz bezanbatean eztut deus loria, eta burupe (handinahia?) eman DIEZAKEDANIK ene flakeziak, eta ez deustasuna baizen (=diezadakenik/dizadakenik); Nondik duket ausartzia zure ganat ethortzeko ni, zeifñak ez baitut ene baitan sentitzen deus onik, zerbait burupe (buru-jabetasun?, agintaritz?), edo segurantza eman ahal DIEZAKEDANIK? (413).

334. Gor izan ere behar duzu hañitz solasentzat, eta erne hagitz (asko) bakea eman ahal DIEZAZUKETEN gauzentzat (=dizaizuket/dizazuket).

353. O egia eternala! hel zakizkit eztezazula sofri banitateak egiñ DIEZADAN daiñurik (=dizaidan/dizadan).

353. Zure miseriakordia infinituak barkha BIETZAKIT othoitzean nagoenean zure ganik ene gogoa hastantzen (apartatzen) duten errebelamendu (extravio) guziak (=biezazkit/bizaizkit).

354. Manera hortan bere konzienzia soseguan emanik othoitz garbia ofrenda DIEZAZUNTZAT (=dizaizuntzat/dizazuntzat); zer nahi den atakada (eraso, atake) egiñ DIEZAZUN (=dizaizun/dizazun, 457).

377. Ala gauza ezdeusa baitzaut lurra zeruari behatzen diodanean, erran DEZAKEZUKET Iauna, S. Ignazioekin! (=diezazuket/dizaizuket).

382. Naturalezak iakin nahi tu (ditu) gauza gordeak, eta sekretuak: aditu berriak ilkhi (atera) kanporat, eta dastatu gauza guzietarik. Nahi du izan ezagutua, eta zerbait egiñ bederen laudorioak, eta estimua erakhar DIOZAKETENIK (=diezaioketenik/dizaioketenik).

405. Sainduei (1) bihur DIOTZOKETEGUN ohorerik lakheten zaiotena da, heien imitatzea, heiek J. Khristo egin duten bezala (=diazaketegun/dieziaiek egun/diezaiiek egun). Hutsegitez “T” pluralgilea darabil.

420. Nork konpreni, are gutiago esplika dezake J. Khristok aldareko sakramenduan erakusten daukun jenerositatea? Bera emaiten da guri den guzia. Halako gisaz non erran baitezakegu S. Augustinekin, Jainkoak bere podore guziarekin ez DEZAKEGUKELA egin emaitza handiagorik, bere aberastasun guzietan ez baitu emaiteko (=diezagukela/dizaigukela).

427. O! amodioaren Jainkoa, hunenbat egin duzunaz geroz, garbi zazu, othoi, ene arima, susta (pizkortu, zuzpeltu, sutu) zazu ene bihotza, zuk erakusten darotazun (didazun) amodioari ihardets DEZOKEIEN khar batez (=diazaken/diezaioken/diezaioken). Zehatzago: diazakeen/diezaiokeen/dizaiokeen.

454. Manera hortan bere pena guzietarik ilkhirik bere eskerrak bozkariorekin bihur DIETZAKIZUTENTZAT (=dietzatzuentzat/diezazkitzuentzat/dizaizkitzuentzat).

470. Zeiñak eziñ bere ezagutza erakuts BAILIOZAKE bere miseriaren aithorrez (=bait-liozake/bait-lieziaioke/bait-liziaioke).

472. Ezen egiazki zurekiñ duzu (Jainkoa), eta mundu guziak ere eziñ idek (ken) DIETZAKEZU (=diezazuke/dizaizuke). *Diezakezu* behar luke izan eta ez *dietzakezu*. “T” sobra dizu.

476. Orduan Iaunak erran LIEZAKET (=liezadake/lizaidake) enekiñ: Egon nahi baduzu, nik ere nahi dut zurekiñ egon: eta nik ihardets NIOZOKE (=niozake/niezaioke/nizaioke): Ah! Iauna, gogotik, egidazu fagorea enekiñ egoteko, nik nahi dut zurekiñ egon ene bihotz guziaz (2).

479. Zure miserikordiak, Iauna, eman DIEZAKET errexki hanbat desiratzen dudan grazia hori (=diezadake/dizaidake).

XIV. BERNAT LARREGI

TESTAMEN ÇAHARRECO ETA BERRICO HISTORIAO

(M. de Royaumontec eguin içan duenetic berriro escararat itçulia; Exemplan eta erreflexione sainduequin; bi Liburutuan ezarria. Lehembicico Liburu: Testamen

(1) Tekstuan, inprentako hutsez, noski: *Sainduci*. Gogoan har oso erraza dela “e” eta “c” letrak nahasten.

(2) Badirudi hemen nahaste bat dagoela eta horrela behar lukeela: Orduan launak erran LIEZAKET: Enekiñ egon nahi baduzu, nik ere nahi duk zurekiñ egon:

Çaharra, Bayonan, Fauvet-Duharten Imprimerian eguina. M.DCC.LXXV. Permissionarequin).

Villasante-k dio: “Uztaritzeko erretore izan zen lehendabizi eta gero Basusarriko. Lafitte-k badizu susmorik hura izan zela *Cantico Izpiritualac* izeneko liburuaren egilea, 1763-an argitaratua eta gero aunitz aldiz bir-inprimatua. Baina haren obrarik nagusia *Testamen zaharreko eta Berriko Historia* da, M. de Royaumont-ek frantsesez egindakotik euskerara itzulia. Bi tomotan agertu zen Baionan. Lehenbizikoa 1775-ean, eta Testamentu Zaharra hartzen du bere baitan. Bigarrena, 1777-an; Testamentu Zaharraren azken parteaz, Testamendu Berri guztiaz eta 150 orrialde sermoiez eta Saindu Bizitez horniturik dago” (1). Guk, eredugarri bezala aski dela-koan, lehendabiziko tomoa bakarrik erabili dugu gure lanerako.

V. Erran behar da lan idor eta nekagarri huni lotzeak ematen duela ageriki erakusterat obra hunen, moldatzailearen amodioa bere eskal herritarren alderat: zuzen da guziok bihur DIOZAGUN gure eskerrak (=diezazkiogun/dizaizkiogun).

16. Hartan kausitzen (aurkitzen) ziren begiari eta gostuari atsegin egin ZIOZOKETEN guziak (=ziezaiekeen/zizaiekean); Ezagutu zuten alferretan zela elkharganatzea, eta etzela deus ere isrraeldarrei buru eman ahal ZIOZOKETENIK (196): ziezaiekeenik/zizaiekeanik.

40. Nola ikhusten baitzuen, aitzinetik, Sara bere emaztearen edertasunak ekhar ZIOZOKELA bidegabe (=ziezaiokeela/zizaiokeala).

57. Bihur DIOZOZU senharrari bere emaztea (=iezaiozu/zaiozu). Erran DIOZOZU populuari (175); ofrenda DIOZOZU holokausta bat Jainkoari (224).

60. Jainkoak, nahiz (nahirik) Abraham frogatu, manatu zioen (agindu zion) har zezan Isaak bere seme maitea, eta imola ZIOZON mendi gain batean(=ziezaion/zizaion); othoitztu zuela Jainkoa ezagutaraz ZIOZON, esplikatzen ziotzoten (2) seinaletarik, Isaakentzat zadukan emaztea (67); Ordu zela bezaz hari zadin beretzat, eta eman ZIOZON buru bere etxearen gobernuari (80); Arrazoin hortaz, populuak othoitztu zuen Moise bera mintza zakion, eta erran ZIOZON, Jaunaren partez, manatu nahi ziotzon (zizkion) gauza guziak (141); egin zezaten, zazpigarren egunean, betan (denok batera), harramantza (zalaparta) borthitz eta min bat, eta populu guziak ihardets ZIOZON harramantza hari (190); Gedeon-ek othoitztu zuen aingearua arren eman ZIOZON seinale bat segurantzatzat erraten ziotzanak (zizkionak) egiak zirela (206); Gero errekeritu zuen igurikitzeaz (itxoiteaz) aphur bat jateko zerbeit ekhar ZIOZON artean (206); Nahi zuen oraino Jainkoak eman ziozan (ziezaion) bere borondatearen seinale berri bat, eta ezagutaraz ZIOZON hura hautatzen zuela bere populuaren aintzindaritzat hortan (209); Gedeon-ek errekeritu zuen Jainkoa eman ziozan (ziezaion) segurantza berri bat, hartaz baliatu nahi zela bere populua etsaietarik libratzekotzat, eta erakuts ZIOZON nahi hura, mirakuillu berak esleitzen zion (3) huntaz (209).

(1) Aita Villasante Kortabitarte, “Historia de la Literatura Vasca”, 109 paia.

(2) Badirudi “berak haiei esplikatzen zizkien” dela eta ez “haiek berari esplikatzen zizkio-ten”.

(3) Esleitu: designar, indicar, determinar. “Mirakuillu berak esleitzen zion huntaz” = berak esleitzen zion mirari hortaz.

66. Eliezer, alde hetarat (haietara) zenean, eta hurbildu zenean Nachor hiritik, othoitztu zuen Jainkoa, ezagut-araz ZIOZAN Isaak-i bere emaztetzat eman gogo zioena (ziona) (=ziezaion/zizaion); othoitztu zuen (Moisek Faraon), egundaino beza-la, permeti ZIOZAN eramatea Jainkoaren populua morturat (basamortura), hari sakrifizio bat ofrendatzekotzat (121); nahi zuen oraino Jainkoak eman ZIOZAN bere borondatearen seinale berri bat (209); Gedeon-ek errekeritu zuen Jainkoa eman ZIOZAN segurantzta berri bat hartaz baliatu nahi zela bere populua etsaietarik libratzekotzat (209); Handik laster, Dabit-ek, Joab-en erranetarar eta othoitzetarar, permetitu zion Absalon-i, egin ZIOZAN salutantzia (311).

72. Har ezatzu (itzazu) zure armak; zohazi ihiztatzerat (ehizatzer), eta ekhar DIEZADAZU edirenen (aurkituko) duzuna, hartarik jan ondoan, eman zaitzadan (diezazudan) ene benedizioea (=iezadazu/iza(i)dazu); Bihur DIEZADAZU lehen nuen indarra iazartekotzat philistindarrei ene begien gal-arazte sari (235); Othoi, erran DIEZADAZU non den profetaren etxea (264); Ordean egizu lehenik enetzat ogi xume bat, errearaz zazu hautspear, eta ekhar DIEZADAZU (350); Aski da, Jau-na, khien DIEZADAZU bizia, ezen ez naiz ene aitzinagokoak baino hobea (355).

83. Ala milletan dohatsu bai-da, dio San Ambrosio berak, etsaiari eta munduari erran ahal DIOZOKETENA (=diezaiekeena).

102. Horren gainean, Josephek ihardetsi zioten (zien), eta erran utz ZIOZATE-LA, gauza haren segurantzta jakin artean, bahikundetzat, bere (beren) artetik bat, eta erakhar ZIOZATELA aiphatzen zuten anaia gazte hura (=ziezaiotela).

103. Ez dela bat bortxa egin ahal DIOZOKENIK haren nahiari (=diezaiokee-n/dizaiokeanik).

103. Errege guzietarik zuhurrenak irakhasten daroku (digu) ez dela zuhurtzia-rik, ez prudentziarik, ez eta konseillurik Jaunaren borondateari buru egin DIOZA-KENIK (=diezaiokeenik/dizaiokeanik).

121. Jainkoa etzen hortan gelditu; mezutu (enkargatu) zuen Moise zohala orai-no, haren partez, errege harengana, eta mana (agindu) ZIOZALA utzteaz bere populua ilkhitzerat (ateratzera) (=ziezaiola); Saulek gatzigatu (abisatu) zion Isairi egor ZIOZALA Dabit, bere semea (275); Errege hark manatu zuen Amasa zohala zenbait tropeekin erreboltatu (insurrecto) haren ondoan, eta jazar (persekutatu) ZIO-ZALA (319).

132. Are loriosago da orai Jainkoarentzat etsai gaixtoek erran DIOZOTEN elkharri: utz dezagun arima hau, diozogun ihès egin, ezen Jainkoa hunen alde agert-zen da, eta gure kontra gudukatzen ari da (DIEZAIOTEN); Beraz girstinoek ikhus-tean nolako ohoretarat Jainkoak altxatu dituen, arbuiatu behar dituzte munduko handitasun ez deusak; eta nola munduak ez baidu merezi eman DIOZOTEN konten-turik, harenganik hastantzera (apartatzera) egin behar dute (152).

132. Utz dezagun arima hau, DIOZOGUN ihes egin (=diezaioGUN/dizaiogun); Altxa detzagun (ditzagun) gure bihotzak Jainkoagana; galde (eska) DIOZOGUN bere laguntza saildua (263).

136. Eman DIEZAGUZU edateko ura (=iezaguzu/iza(i)guzu); Eman DIEZA-GUZU errege bat (262); Jainkoaren gizona, begira (zain) DIEZAGUZU bizia, niri eta enekin diren zure zerbitzariei (364).

139/140. (Arimeen artzainek) Maite badituzte bere (beren) populuak, behar dituzte lagundu bere (beren) othoitzez. Hura ahal da (izango da) egin DIOZOKETEN fagorerik handiena (=diezaieketen).

140. Arimeen artzainek utz DIOZOKETE bertze bati, kanpotik behar den art-ha (ardura) (=diezaiekete/dizaiekete).

141. Gizon saindu hark (Moisek) deklaratu zioenean (zioanean) Jainkoari populuak erakusten zuen sumetimendua, Jainkoak erran zioen (zion) adiaraz ZIOZATELA guziei prest egoteaz, hirur egunik barnean, eta mintzatuko zitzaiera Sinai-ko mendi gainetik (=ziezaiera); Iakintsun egin zirenean goiz alderat lurrerat artiki zutela Baalen aldea, eta Gedeon zela idoi (ultraje) hura heien Jainkoari egin ziotena (ziena?), sumindu ziren haren kontra; erran zioten haren aitari eman ZIOZATELA Gedeon bere semea eskutarat, hil zezatentzat (207).

154. Jainkoak nahi zuen populu hetarik bakotxak ikhus zezan zenbat zen zordun haren alderat, eta guziek, batean emanik, beha (begira) ZIOZOTEN haren majestate soberanoari bere (beren) ontasun guzien ithurburuari eta emailleari bezala (=ziezaioten).

166. Jainkoak irakasten zuen gaztigu garratz eta ikharagarri hartaz, ofrenda ahal DIOTZOKEGUN gauzarik sainduenak berak, hala nola inmensua, ez zaizkola agradagarri ez balin bagara leihal haren erranetarat (=diezazkiekegun/diza(i)zkiekegun).

187. Hirur egun hek iragan zirenean, Josuek adiarazi zioten (zien) guziei beha ZIOZOTELA arkari (=ziezaioleta).

219. Anbizioneaz itsutua denak badarama bere zoramendua azken hariraino: urrun da baidu damurik ikhustez isurtzen bere hurbilleneen odola, hortaz beraz atseginik baizen ez du. Lorientzen ohi da ikhustez hiltzen haren goratasunari gibelamendu edo debeku ekhar DIOZOKETENAK (=diezaieketenak/dizaieketenak).

236. Samson-ek othoitztu zuen Jainkoa egor ZIOTZON leheneko indarrak (=ziezazkion).

238. Mahainean zirela, hiri hartako gizonki, Jainkoaren beldurrik eta konzientzarik gabeko batzuk, inguratu zuten gizon zahar haren etxea, jo zioten athea, erraten ziotelarik, oihuz, larga ZIOZOTELA eskurat barnean zadukan arrotza (=ziezaiera).

240. Gaztigatu zioten benjaminarrei (gaztigatu zieten israeldarrek benjaminarrei) libra (entrega) ZIOTZOTELA eskutarat hobendun hek (haiek) gal zezatentzat bizia (=ziezazkietela).

264. Eman DIEZAKEGU zerbait argitasun abre heien (abere haien) gainean (=dizakegu/dizaikegu).

277. Ihardetsi zitzaion: baldin edireten (aurkitzen) balitz norbait Goliath hill lezakena, erregek eman LIOZOKELA nahi bezanbat ontasun, bai eta bere alaba ezkontzan (=liezaiokeela/lizaiokeela); Absalon-en alderako ontasuna gosta behar izan zitzaion Davit-i. Seme esker gabe hark ikhusi zuenean onhetsia (maitatua) zela bere aitaz, nahi izan zion eraman (kendu) bere erresuma (erreinua), gehiago dena, bere bizia; hortarakotzat hasi zen irabaztetik populuaren amodioa. Xehe eta arrai (sencillo y amable) agertzen zen, bere eskatimeen (eztabaiden) xuritzerat Davitenganat heldu zirenean alderat; erraten zioten (zien), errege balitz, bat-bederari (ba-

koitzari) laster ezagut LIOZOKELA bere zuzena (eskubidea), eta nihork ez lukeiela (lukeela) erratekorik hartaz (311).

310. Absalon-ek aphainarazi zuen errege bati dagokion othuruntza eder bat, eta erran zioten (zien) bere meneko zituen aitzindariari: goardia emazue noiz arnoak aphur bat harturen duen Amnon, eta noiz ikhusiren duzuen ene kheinua: orduan jazar (eraso) DIOZUZUE, eta gal-araz bizia: ez izan deuseren beldurrik, nik ematen darotzuet (dizuet) manu (agindu) hori (=iezaiozue/zaiozue).

317. Zato (zatoz) arren orai guregana (Joab-ek Davit-i); ager eta mintza zakiz-kote (zakizkie) zure zerbitzariari; erran DIOZUZUTE hetaz (haietaz) satisfatua zare-la (=iezaiezu? iezaiezue?). Zentzuari gagozkiola *iezaiezu* behar du izan: *esan iezaie-zu zuk (Davitek) zure zerbitzariari*, baina morfolojikoki badirudi *iezaiezue* dela.

360. Errege hunek ezin jasan zuen gehiago Jaunaren profetaren solasa; altxara-zi zuen preso, eta manatu zuen ez ZIOZOTELA eman ogia eta ura baizik bere janari eta edari guziztat (=iezaiotela).

XV. KRISTOBAL HARIZMENDI

“AMA VIRGINAREN HIRUR OFFICIOAC”

(Latinean beçala efcaraz. Bigarren liburua. Pontu premienez. C. Harismendi Apeçac. Bordelen, G. de la Court Imprimatçaillea baithan, 1660).

Honela dio Villasante-k “Historia de la Literatura Vasca”n (91 p.): “Kristobal Harizmendi-z ezer gutxi dakigu: alegia, Sara-ko koajutore eta predikari izan zela eta Ama Birjinaren Ofizioa argitaratu zuela bertsoan euskarara itzulirik, berari dagoz-kion himno, salmo eta abarrez. Ale bat besterik ez zen ezagutzen obra honetaz eta ez osoa, Bonaparte Printzearena izan zena. Hartaz baliatuz, Vinson-ek bigarren edizino bat egin zuen 1901 urtean, oso urria aleen kopuruari zegokionez, soil-soilki bibliofi-loentzat egina. Julio Urkijo-ren liburutegian Vinson-en edizinoaren ale bat dago. Vinson-en edizinoa amaitua zegoelarik eta kalera irtetzear, Dogson-ek jakinarazi zion honi Harizmendi-ren beste ale bat bazela Oxford-eko Biblioteca Bodleyana-n. Oxford-eko ale honen tituloak honela dio: *Ama Virginaren hirur Officioac* eta 1660-an fetxatua dago. Liburua Bordele-n editatu zen, *Gero* eta aldi hartako beste euskal-liburu batzuk bezala”.

10. Iauna, barka IATZADATZU, / Nik eragin (falta) guztiak (=iezazkidazu/-zaizkidazu).

19. Kanta DETZOGUN Iaunari, / Bere koplak sainduak (=diezazkiogun/di-zaizkiogun).

19. Kanta BIATZO debotki, / Lehen-gero munduak (=biezazkiokio/bizaizkiokio).

23. Kanta IATZOGUN Iaunari, / Eresia berriak (=diezazkiogun).

24. Kanta IAZOZUE harpan / Loriako tronuez (=iezaiozue/zaiozue).

24. Kanta IATZOTZU Iaunari, / Kantuak bere bistan (=iezazkiogu).

24. Birjina zu erdi zara, / Gelditurik birjina; / IZAGUZU Kristo ganik, / Kristoren dohain ona (=iguzu, eman iezaguzu); Agur Erregina Saindu, / Boztasunez be-thea: / Zeren sendo piztu zaitzun, / Zeure seme maitea. / Bere hitza konplitu du, / IZAGUZU partea (50); Haren hitzez bizitzeko, / IZAGUZU grazia (97). Oharra: 24-gn. orrialdeko bertsoa, 121-garrenean errepitetzen du eta 50-garrenekoa 84 eta 91 paietan, baina bi azken hauetan "sendo" hitzaren ordez "saindu" dakar.

27. Ama Birjinaz Iainkoak / DIEZAGULA eman /Bake eta salbamendu / Orai eta sekulan (=diza(i)gula).

50. Othoitz IAZAGUZU Kristo, / Zure Seme maitea: / Elizagizonez duen, / Handi pietatea (=iguzu, eman iezaguzu). Oharra: Othoitz = arren (súplica). Duen = dezan, izan dezan. Handi pietatea = pietate handia.

72. Othoi, Iauna, barka IAZEZU zure sehiei bere falta guzia (=iezaiezu/zaiezu).

96. Iauna zuk molda IAGUZU, /Barur hautzaz bihotza (=iezaguzu/zaiguzu).

98. Hitzez baino lehen zinen, / Etsenpluz mantenatzen: / Konpliaraz IAZAGUZU, / Zer baithara manatzen (=iezaguzu/zaiguzu).

108. Guzia balia IAZADAZU ni guzia zuri alde guziz bahitzeko (=ie zadazu/zaidazu); Ene miseria kausaz, / Oihuz nagotzu Iauna: /Iauna enzun IAZADAZU, / Ene hitzen auhena (119).

124. Laido handia da hain ofizio erraza Kristori errefusatzea: ETZENEZOIO (ez ZENEZOIO) errege mortal bati errefusa: beldur zinate ofensa ledin (=zeniezaioke).

128. Egizu obra guzia Iainkoaren presentiaz orhoiturik, eta egin gogo duzun lana, hasi gabe ofrenda IAZOZU: othoitz bere ohoretan eta loriatan gertaraz dezan (=iezaiozu/zaiozu).

XVI. P. ARGAIÑARATZ

"DEVOTEN BREVIARIOA"

(Le bréviaire des dévots par P. D'Argaiñaratz, vicaire de Ciboure et prédicateur. Nouvelle édition conforme à la première de 1665. Chalon-sur-Saone. 1910-en Julien Vinson-ek eragin edizinoa).

Honela dio Villasante-k "Historia de la Literatura Vasca"n (72 p.): "P. Argaiñaratz, apez eta Ziburu-ko koajutore, bi euskal libururen egile da. Lehendabizikoa Bordele-n argitaratu zen 1641-ean, titulu honekintxe: *Avisu eta Exortacionea probet-chosak bekhatorearentcat*. Ez da beronen alerik kontserbatzen. Bigarrena Baiona-n agertu zen 1665-ean eta bertsoan dago. *Devoten breviarioa* deritza. Maitinak eta ofiziotako beste orduak, gogarteak, zenbait himno sakraturen itzulpenak etab. ditu. Vinson-ek, 1910ean, *Devoten Breviarioa*-ren bir-edizino bat egin zuen oso mugatua".

3. Debotak, zuena bezala, brebriariotxo hau, zuei heldu zaitzue, debotak zarenen maneran deboten izenarekin, baiñan debotago oraiño zuen debot izatea errenda DIEZAZUENTZAT (=diza(i)zuen).

14. Erabil DIEZADAZU zeurekien (1) bethi ere neure bihotza (=iezadazu/zaidazu); Eta nola munduko klaritateak ezpaitaroku (ezpaitigu) irakasten sepulturako bidea baizen (baizik), klara DIEZADAZU bethi ere neure espiritua fedearen argiaz (24); Othoitzez nagotzu, irakats DIEZADAZU etserzizio dibino hura (43); Obteni DIEZADAZU grazia hura, zuk irakasten darotazun instrukzione saiñduetarik neure probetxua egin dezadantzat (52); Eta nola korruptziona baita ene izatearen lehenbiko hastea, bethie DIEZADAZU haiñ bortizki egia huntaz neure imajinaziona (71).

52. Zeruko eta lurreko Erregiña: zure graziazko handidasun guzietan zeure naurimenduaren (2) ogia khelder eta miagrean (behazun eta ozpinean) beti busti izan duzuna, zeñiez zure seme bakhotxa bere gurutzeko egarsuan (egarri sutsuan) zerbitzatu izan baitzen: othoi ardiats DIEZAZU, senti dezadan hekien khirastasuna munduak presenta ahal dietzakikedan banket guzietan (=iezadazu, zaidazu). Badirudi, egilearen lapsus bat edo inprentako huts bat dela, zeren otoiitz honetan bertan, lerro batzuk beherago, goian bezala Ama Birjinari zuzentzen zaiola, “obteni DIEZADAZU grazia hura” esaten baitu, hots, *iezadazu/zadazu*.

52. Othoi ardiats diezazu senti dezadan hekien khirastasuna munduak presenta ahal DIETZAKIKEDAN banket guzietan (=diezazkikedan/diza(i)zkikedan).

74. Ene Iesus! ezintzaket (ezin ditzaket), / Altxa gora begiak / Nola DIETZAKETZUKET, / Eskerrezko graziak? (=eman diezazkizuket).

81. Ikhusazu lizundua, / Zu iduri zuena, / Khen IEZOZU bekhatua, / Hark daduka lizuna (=iezaiozu/zaiozu).

90. Ienkoa aita Zeruetan zinduenak, lurrean emaztea Amatzat hartu duzuna, othoitzez gagozkitzu humilki egin DIEZAGUZUN fabore (=diza(i)guzun).

103. Iguzu egun gure eguneko ogia eta barkha DIETZAGUTZU gure zorrak guk guregana zordun direnei barkhatzen daroztegun (dizkiegun) bezala (=iezazkiguzu/zaizkiguzu).

XVII. IOANNES LEIZARRAGA

“IESUS CHRIST GURE IAUNAREN TESTAMENTU BERRIA”

(Rochellan. Pierre Hautin, Imprimaçale. 1571. Linschmann eta Schuchard-ek 1900-gn. urtean bir-inprimatu zuten Strasburgon eta, badirudi, nik erabili dudana “Hordago”ren edizinoa (1979) beronen fotokopia dela).

Villasantek dio (Historia de la Literatura Vasca, 56 p.): “Joana de Albret-ek –Nafarroako erregina eta Biarnoko andrea– 1559-ko Bazkoan arnegatu zuen ho-

(1) Badirudi “zeurekin” behar duela izan. Inprentako hutsa?

(2) Zer da “naurimendu”? Hiztegiek ez dakarte. Alabaina, “nauritu”, *notar, distinguir* da eta “nabaritu”ren aldakera omen (Azkue) Egile berberak, honako adigarri honetan, *advertir* itzultzen du: *Ikhi direnean dute bazterre behatu eta apartean etxe xolabak NAURITU*, al salir miran al rincón y ADVIERTEN a lo lejos chozas.

tsandiz eta handikiro katolikutasunaz eta Kalvinoren erreforma onartu zuen. Berehalaxe, bere legerrietan, estatuetan alegia, erlisino berria (erreforma) inposatzen saiatu zen bere indar osoz. Bearnesak bialdu zituen Ginebrara, katekizatuak izan zitezen, Kalvinoren egontokian bertan. Orthez-en, Unibertsitate Kalvinista moduko bat fundatu zuen. Nafarroa Behereak erresistentzia bortitza egin zion Erreginaren planari. Baina, laster hasi ziren sarraskiak, apurketak eta abar, erlisione gerlen besalagun tris-teak, alegia.

“Leizarraga-ren euskal-obrak euskaldunen erlisione erreforma planaren barru-koak ziren. Pabe-n 1564 urtean ospatu zèn sinodo kalbinistak mandatu egin zion Leizarragarri Testamentu Berria euskaratzeko. Badakigu, 1567-an Leizarraga Eliza erreformatuaren ministro izendatua izan zela eta halakotzat Bastida-ra bialdua, Nafarroa Beherea politikoki, baina hizkuntzari dagokionez gaskoina, euskal-herrian sartzen den mutur bat baita. Hemen egon zen hil arte, 1601 urte inguruan, noski.

“Leizarraga Berazkoiztarra zen, politikoki Lapurdiko parte, baina, hizkuntzez, Nafarroa Behereko.”

Leizarragaren obrak hauetxek dira: 1. *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu berria*. 2. *Kalendrera*. 3. *Abc edo Christinoen istructionea*. Hirurak La Rochellen inprimatuak daude 1571-an.

IESUS CHRISTEN EVANGELIO SAINDUA S. MATHEUEN ARAURA

3/5. Eta hek erran ZIEZOTEN (Herodesi), Bethlehen Iudeakoan, ezen hunela eskribatua duk Prophetáz (=zioten) (1); eta arratsa ethorri zenean, presenta ZIEZOTEN (Jesusi) anhitz demoniatu (14/16); Othoitz egin ZIEZOTEN (Jesusi) retina ledin haien komarketarik (15/34); Eta huná, presenta ZIEZOTEN (Jesusi) paralitiko bat ohean zetzanik: eta ikusirik Iesusek haién fedea, erran ziezot (zion) paralitikoari: Auk (ezak) bihotz on, semé (2), barkatu zaizkik eure bekatuak (15/2); Gero ethor zitezten (etorri ziren) haren diszipuluak, eta eraman zezaten (zuten) haren gorputza, eta ohortz zezaten (ehortzi zuten): eta ioanik konta ZIEZOTEN Iesusi (27/12); Bada ikusirik haren zerbitzari-kidék zer egin izan zen, triste zitezten (tristatu ziren) agitz: eta ethorririk deklara ZIEZOTEN bere iaunari egin izan zen guzia (36/31); Orduan thu egin ZIEZOTEN (Jesusi) begithartera, eta bufeta zezaten (bufetatu zuten), eta berzék zihorréz ukaldi eman ZIEZOTEN (55/67); Eta estekaturik eraman zezaten

(1) ERRAN aditzarekin esaldiak dozenaka dira. Horregatik, esaldi barruan gauza jakin-garririk ageri ez bada, ez dugu errepetituko. Orobat beste aditzekin, baldin sobera errepetitzen badira.

—EZA— aditz-erroa indikatiboko kasotan darabilenean Leizarragak, honela itzuli behar da gaurko euskarara: presenta ziezot = presentatu zioten; konta ziezot = kontatu zioten; deklara ziezot = deklaratu zioten; libra ziezot = libratu (entregatu) zioten; eraunz ziezot = erantzi zioten.

Jakinarez dezagun ere gure lumerazinoko lehen zenbakia paiarena dela eta bigarrena bertsetarena.

(2) *Auk bihotz on, semé*, esaera zoragarriak bere kide emea dauka 16-gn. paian, 22-gn. bertsetean: Orduan Iesusek, itzulirik eta hura ikusirik, erran zezan (zuen): *Aun (ezan) bihotz on, alaba*, eure fedea salbatu au. Eta senda zedin (sendatu zen) emaztea ordu berean.

(zuten), eta libra ZIEZOTEN (entregatu zioten) Ponzio Pilate gobernadoreari (56/2); Eta billuzi zutenean eman ZIEZOTEN (Jesusi) soinera eskarlatazko manto bat (57/28); Gero harzaz trufatu ziradenean, eraunz ZIEZOTEN mantoa (erantzi zioten mantoa Jesusi), eta bezti zezaten (jantzi zuten) bere abillamenduez (57/31); Eman ZIEZOTEN (Jesusi) binagre edatera behazunarekin nahastekaturik (57/34).

3/8. Eta hek Bethlehemerat igorririk, erra ZIEZEN (Zuhurrei): Ioanik, informa zaitzte dilijentki haurtxoaz: eta eriden dukezuenean, iakin erazi diezadazue, nik ere, ethorririk, adora dezadan hura (=zien); Eta erran ZIEZEN Iesusek (Ioannesen diszipunuei): Ezkonduaren ganberako jendék dolurik ekar ahal dirote (dezakete), ezkondu hekin deno? (16/15); Orduan bere hamabi diszipunluak beregana deithurik, eman ZIEZEN bothere espiritu satsuen kontra, haién kanpora egoizteko (17/1); Hamabi hauk igor zitzen (igorri zituen) Iesusek, eta eman ZIEZEN manamendu, ziola: Jentiletarét etzoaztela, eta Samaritanoen hiritan etzaitzela sar (17/5); Baina Iesusek ezaguturik haién pensamenduak, erran ZIEZEN: Bere kontra partitua den resuma guzia, deseginen da: eta bere kontra partitua den hirik edo etxek, eztu iraunen (22/25); Berze konparazione bat proposa ZIEZEN, ziola: Konparatu da zeruetako resumá, mustarda bihi (grano de mostaza) gizon batek harturik bere landán erein duenarekin (25/31); Eta Iesusek erran ZIEZEN: Gogozazue (gogo ezazue) eta begira zaitzte Phariseuén eta Saduzeuén altxagarritik (31/6); Zen aita familia bat, zeinek landa baitzezan (landatu baitzuen) mahasti bat, eta hura hesiz ingura baitzezan (inguratu baitzuen), eta hartan hobi bat egin zezan lakotzát (egin zuen dolaretzat), eta edifika zezan (edifikatu zuen) dorre bat, eta aloka ZIEZEN laborariei (arrendatu zien nekazariei): eta kanporat ioan zedin (zen) (41/33); Berriz igor zezan (igorri zuen) berze zerbitzaririk lehenak baino gehiago, eta haiéi halaber egin ZIEZEN (41/36); Orduan larga ZIEZEN (soltatu zien) Barrabas: eta Iesus azotaturik libra ZIEZEN (entregatu zien) kruzifika ledinzát (gurutziltzatua izan zedin) (57/26).

3/8. Eta eriden dukezuenean (aurkituko duzuenean Jesus haurra), iakin erazi IEZADAZUE, nik ere ethorririk adora dezadan hura (iezadazue/zaidazue).

3/11. Eta etxera sarthurik eriden zezaten (aurkitu zuten) haurtxoa bere ama Mariarekin: eta ahozpez adora zezaten (adoratu zuten) hura, eta bere (beren) thesaurak desplegatutik presenta ZIETZOTEN estrenak, urre, enzensus eta mirrha (=zizkieten); eta hura ezagutu ukan zutenean leku hartako gizonak, igor zezaten (igorri zuten) inguruko aldiri guzietara, eta presenta ZIETZOTEN (Jesusi) eri ziraden guziak (28/35); eta dioste: zer eman nahi drautazue (didazue), eta nik hura zuei libraturen baitrauzuet (entregatuko baitzuet)? eta hek asigna ZIETZOTEN (asignatu zizkieten) hogeí eta hamar diru peza (52/15).

5/9. Eta eztezazuela presumi zeurok baithan erraitera, Abraham dugu aita: ezen badiotsuet, Iainkoak harri hautarik-ere Abrahami haur suszita ahal DIEZAKEOLA (=diezaiokeela).

5/15. Eta ihardesten zuela Iesusek erran ZIEZON (Ioannes bataiatzaileari): Utzak oraingotz, ezen hunela konplitu behar diagu iustizia guzia. Orduan utzi zezan (zuen) egitera (=zion); Eta Iesusek erran ZIEZON (diszipunuetarik bati): Arreit (jarrai zakizkit) niri eta uzkiak (utz itzak) hilak bere hilen ohorztera (14/22); Nondik iuramendurekin prometa BAITZIEZON (bait-ziezon) emanen zeraukala zer-ere eska bailedi (zernahi ere eska baleza, eskatuko balu) (27/7); Baina hark ETZIEZON (ez ziezon) ihardets hitzik (Iesusek emazte kananear bati) (30/23); eta ihardesten zuela Pierrisek erran ZIEZON Iesusi: Iauna, on duk gu hemen garén (gáitezén); nahi baduk, egin ditzagun hemen hirur tabernakle, bat hire (hirezat), eta bat Moisesen

(Moisesentzat), eta bat Eliasen (Eliasentzat) (32/4); Orduan konpasiore harturik zerbitzari aren iaunak, utzi zezan (zuen), Eta zorra kita ZIEZON (35/27); Eta huná, Iesusekin ziradenetarik batek, abanzaturik eskua, idoki zezan (atera zuen) bere ezpatá, eta iorik Sakrifikadore prinzipalaren zerbitzaria, edeki ZIEZON (kendu zion) beharria (54/51); Eta ETZIEZON (ez ziezion) ihardets (Iesusek Pilate-ri) hitz batetara-ere: hala non miresten baitzuen Gobernadoreak hagitz (56/14); eta hura alki iudizialean iarririk zegoela, igor ZIEZON (bidali zion) bere emazteak, zioela: Eztuála (ez du(k)ala) = ez deza(k)ala) hik deus iusto horrekin, ezen anhitz iragan diat egun ametsetarik horrengatik (56/19); Eta bertan laster eginik hetarik batek, eta esponjia bat harturik binagrez betherik, eta ezarririk kanabera baten inguruan, edatera eman ZIEZON (58/48).

9/39. Baina nik erraiten drauzuet (dizuet): EZTIOZOZUELA resisti gaizkiari; baina baldin norbeitek io baheza (iotzen bahau) eure eskuineko mathelán, itzul iezók berzea-ere (=ez diezaiozuela).

9/39. Baina baldin norbeitek io baheza eure eskuineko mathelán, itzul IEZOK berzea-ere (=iezaiok/zaiok); eta hiri auzi egin nahi drauanari (di(k)anari), eta eure iaka edeki (zamarra kendu), utzi IEZOK mantoa-ere (9/40); Orduan diotsó Iesusek: Begirauk (begira ezak) nehoi ezterroán (inori ez diezaiok(k)an esan); baina habil, eta erakuts IEZOK eure burua Sakrifikadoreari, eta presenta ezak Moisesek ordenatu duen oblazionea (13/4).

10/12. Eta kita IETZAGUK gure zorrak, nola guk ere gure zordunéi kitatzen baitrauegu (=iezazkiguk/zaizkiguk).

10/14. Ezen baldin barka BADIETZEEZUE gizoni bere (beren) faltak, barkaturen drauzue (barkatuko dizue) zuei-ere zuen Aita zerukoak (=badiezazkizue/badizaizkizue = barkatzen badizkiezue); baina baldin barka EZPADIETZEEZUE (ez ba dietzezue) gizoni bere falták, zuen Aitak-ere eztrauzkizue (ez dizkizue) barkaturen zuen falták (10/15).

11/27. Eta nork zuetarik artha ukanez eratzeki ahal DIEZAKEO beso bat bere handitasunari? (=diezaioke/dizaioke).

14/21. Iauna, permeti IEZADAK behin ioan nadin neure aitaren ohorztera (iezadak/zaidak).

14/31. Eta deabruak othoiztez zaizkan, zioitela: Baldin kanpora egoizten bagaituk, permeti IEZAGUK urdalde hartara ioaitera (iezaguk/zaiguk); Orduan utzirik populua ethor zedin etxera Iesus; eta ethorri izan zaizkan bere diszipuluak, zioitela: Deklara IEZAGUK landako hirakaren konparazionea (26/36); Orduan ihardesten zuela Pierrisek erran ziezion (zion): Deklara IEZAGUK konparazione hori (29/15); Gero, bada, ethorten dirade berze birjinak-ere dioitela: Iauna, iauna, ireki IEZAGUK (49/11); Krist: profetiza IEZAGUK nor den io auena (55/68).

19/14. Eta ihardesten zuela Iesusek erran ziezen (zien): Zoazte eta konta IE-TZOZUE Ioanesi, enzuten eta ikusten dituzuen gauzak (=iezazkiozue/zaizkiozue); Diotsate, Zesarena. Orduan erraten draue (die): Renda IETZOZUE beraz Zesaren diradenak, Zesari: eta Iainkoaren diradenak, Iainkoari (43/21).

25/34. Gauza hauk guziak erran ZIETZEN Iesusek konparazionez jendetzei, eta konparazione gabe etzaien minzaten (=zizkien); eta populua belhar gainean iartera manaturik, eta borz ogiak eta bi arrainak harturik, begiak zerurat goititurik, graziak renda zitzan (errendatu zituen) eta hautsirik, eman ZIETZEN diszipuluei ogiak,

eta diszipuluek jendetzei (28/19); Orduan Iudasek, hura traditu zuenak, zakusanean hura kondenuatu zela (Jesus kondenuatu zutela), urrikiturik, itzul ZIETZEN hogeia eta hamar diruak Sakrifikadore printzipalei eta Anzianoei (56/3); Hek partitu eta, huná, goardetarik batzu ethor zitezen (etorri ziren) hirira, eta deklaratu ZIETZEN Sakrifikadore printzipalei erri izan ziraden gauza guziak (59/11).

31/1. Eta ethorrikerik Fariseuék eta Saduzeuék, tentatzen zutela rekeri zezaten (errekeritu zuten) zenbait signo zerutik erakutsi LIEZEN (=ziezaizen).

34/27. Baina eskandaliza ez titzaguntzát, itsasora ioanik, egotzak (bota ezak) amua (diotsa Iesusek Pierrisi), eta lehen iganen den arraina har ezak, eta haren ahoa irekirik eridenean baituk estatara bat (lau drakmako zilar txanpona): harturik hura eman IEZEK enegatik eta hiregatik (=iezaiek/zaiek); Diotso Iesusek: Baldin perfektu izan nahi bahaiz, ohoa, sal ezak duana (dukana), eta eman IEZEK paubrei, eta ukanean duk thesaur bat zeruan: eta athor, arreit (iarrai zakizkit) niri (37/21); Eta arrastu zenean, erran ziezon (zion) mahasti iabeak bere rezibidoreari: Dei itzak langileak, eta paga IEZEK alokairua, hasirik azkenetarik lehenetarano (38/8).

36/34. Orduan aserreturik, bere iaunak sarjeantei (berdugoei) hura (zorduna) eman ziezen (zien), hari zor zeraukan guzia paga LIEZAKEONO (=ziezaiokeen artean).

37/13. Orduan haurtxoak presentatu izan zaizkan (zitzaizkion) eskuak gainean ezar LIETZENZAT (=ziezazkien-tzat) eta othoitz legiantzat (zegian-tzat, egin zezan-tzat): diszipuluek mehatxa zitzaizaten (mehatxatu zituzten).

40/2. (Iesusek) Erraiten zerauela (ziela): Zoazte zuen aurkako (aurreko) burgura, eta bertan eridenean (aurkituko) duzue asto eme bat estekatua, eta ume bat harekin: laxaturik, ekar IETZADAZUE (=iezazkidazue/zaizkidazue).

42/41. Diotsate: Gaixto hek gaizki deseginen: eta bere sasoinen fruktuak rinda DIETZOYOTEN (=diezazkioten, hots, laborariek nagusiari) berze laborariri bere mahastia alokaturren (arrendatuko).

43/25. Eta zituán (zitukan) gure artean zazpi anaie: eta lehena ezkondurik hil ziedián (zuan/zukan): eta leinurik etzuenaren gainean (no teniendo sucesión), utzi ZIEZOAN (=zioan/ziokan) bere emaztea bere anaieri (1).

44/46. Eta nehork ezin ihardetsi ZIEZOION hitzik: ez nehor etzekión bentura (ez zitzaion menturatu) gehiagorik egun harzaz harat interrogatzera (=ziezaiokeen). Aditz-joko hau ere ez dut ezaguna. Zentzuagatik deduzitu behar izan dut.

(1) “Ziedián” eta “ziezoan” aditz-jokoak ez nituen ezagutzen, baina zentzuagatik antzematen zaio guk ezarri ditugun itzulpenak dituztela. 43/27-en honela dio: Eta guzién ondoan hil ziedián (zuan = zen) emaztea-ere. Pasarte hau bera S. Mark-en Ebanjelioan dakar zabalago eta dotoreago. Ikus dezagun, merezi baitu: 86/20. Zituán (zitukan = ziren), bada zazpi anaie: eta lehenak har ziezán (zian/zikan) emazte, eta hiltzean etziezán (ez zi(k)an) leinurik (ondorenik) utzi.

86/21. Eta bigarrenak har ziezán (hartu zian) hura, eta hil ziedián (zuan/zukan), eta hark ere etziezán (ez zian) leinurik utzi; eta hirugarrenak halaber.

86/22. Eta har ziezateán (hartu zitean/zitekan) hura zazpiék, eta leinurik etziezateán (ez zite(k)an) utzi; guzietako azkenik hil ziedián (zuan/zukan) emaztea-ere.

48/26. Beraz baldin nehork erran BADIEZAZUE: Hará, desertuan da, etzaitzela ilki (atera); hará, ganbratxoetan (etxe barruko gelatan) da, eztezazuela sinhets (badiezazue/badizaizue: esaten badizue).

50/15. Eta batari eman ZIETZON borz talent, eta berzeari biga, eta berzeari bat: batbederari (bakoitzari) bere anziaren (gaitasunaren) araura; eta ioan zedin (zen) lekorrerat (1) bertan (=zizkion); Orduan, ethorririk, borz talentak rezebitu zituenak presenta ZIETZON (presentatu zizkion) berze borz talent, zioela: Nabusiá, borz talent eman drauzkidak (dizkidak); huná, berze borz talent irabazi zitiat (dizkiat) hezaz (haiezaz/haietaz) (50/20).

50/28. Edeki (kendu) EZOZUE bada huni talenta, eta emozue (eman iezaiozue) hamar talentak dituenari (=iezaiozue/zaiozue).

55/63. Eta Iesus ixilik zegoen. Orduan ihardesten duela Sakrifikadore subira-noak diotsa: Adiurutzen aut (te conjuro) Iainko biziaren partez, erran diezaguán (DIEZAGUAN), eia hi aizenez Krist Iainkoaren Semea (diezaguan/diezagukan/dizagukan).

56/17. Bildu ziradenean bada hek (haiek), erran ziezen (zien) Pilatek: Zein nahi duzue larga DIEZAZUEDAN? Barabas, ala Iesus, deitzen dena Krist? (diezazuedan/dizazuedan/dizaizuedan); Eta ihardesten zuela Gobernadoreak erran ziezen (zien): Biotarik zein nahi duzue larga DIEZAZUEDAN? Eta hek erran ziezoten: Barabas (56/21). Largatu = soltatu.

59/10. Orduan dioste Iesusek: Eztzuela (ez dezazuela) beldurrik; zoazte, deklarara IEZEZUE ene anaiei doazen Galileara, eta han ikusiren nauté (=iezaiezue/-zaiezue).

Oharra: Neure gogoá Leizarraga-rengandik bizpahiru sail gehiago biltzea izango litzateke, hain baita interesantea Leizarragaren aditza, baina denborak itota, ezin izan dut oraingoz. Beharbada, zenbait urte barru jubilatzean, denbora gehiago izanen dut —nere burua beste lanen batekin lotzen ez badut behintzat— eta orduan, lan honen eraskin bezala, Leizarraga osatuz gainera, Etxepare eta Oihenart(e) emanen ditut, zeren bi obragile hauek txit ernagarriak baitira beren arkaismuagatik. Esan beharrik ez da nere gogo hau momentuz ezin aurrera eramana bihotza penatan utzi didala. Jainkoari nahi dakiola, beraz, hiruzpalau urte barru neure asmoa aurrera eramatea.

Donostia, Maiatza, 1982.

(1) Badiruri *lekorrerat* dela, hots, *kanpora*. Irar-hutsa ala hitz aldakera?